Jon Mentxakatorre Odriozola

# ARIZMENDIARRIETA, GIZAGILE ETA HERRIGILE



ARIZMENDIARRIETA
KRISTAU FUNDAZIOA

IDTP
Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltza Institutua
Instituto Diocesano de Teología y Pastoral

JON MENTXAKATORRE ODRIOZOLA

# ARIZMENDIARRIETA, GIZAGILE ETA HERRIGILE

JON MENTXAKATORRE ODRIOZOLA

# ARIZMENDIARRIETA, GIZAGILE ETA HERRIGILE

INSTITUTO DIOCESANO DE TEOLOGÍA Y PASTORAL
ELIZBARRUTIKO TEOLOGIA ETA PASTORALTZA INSTITUTUA

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren laguntza jaso du.

FITXA KATALOGRAFIKA

**MENTXAKATORRE ODRIOZOLA, Jon**

**Arizmendiarrieta, gizagile eta herrigile** / Jon Mentxakatorre Odriozola. -- Bilbao : Instituto Diocesano de Teología y Pastoral = Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltza Institutua, L.G. 2024.

205 orr. ; 23 zm.
Bibliografia
ISBN 978-84-09-67786-3

1. Euskal Herria – Historia. 2. Arizmendiarrieta, Jose Maria – Pentsamendua.

94(460.15)

929 Arizmendiarrieta, Jose Maria

Hitzaurregilea: Ana Urkiza Ibaibarriaga

Azaleko irudiaren egilea: Idoya Serrano Pejenaute

© Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltza Institutua
Instituto Diocesano de Teología y Pastoral - 2024
Plaza Barria, 4, 1º. 48005 Bilbo

Impresión Tecnigraf, S.L.L.
Polígono Erletxe Pabellón C1 nº25 - 48004 BILBAO

ISBN: 978-84-09-67786-3
L.G.: BI 1739-2024



Arizmendiarrietaren omenezko artelanak, Barinagan.
Brontzezko burua, Lorenzo Askasibarrek (1980) egina,
eta harri, egur eta altzairuzko taldea,
Mikel Anjel Lertxundik (1992) egina.
Iturria: Egilearena.

*Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, bere gurutzea hartu eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia niregatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak berriro bizia bereganatzeko?*

Mateo 16, 24-26

*Felix Ormaetxea Uribetxebarria (1938-2024) zenari.*

## ESKERTZA

Lan honen asmoa Sebastian Gartzia Trujillo adiskideari zor diogu, eta Arizmendiarrieta Kristau Fundazioko buru Juan Manuel Sinderi eta Bilboko Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltza Institutuko liburuzain Maria Angeles Canton de Salazarri, hasiera-hasieratiko konfiantza.

Gogoetaren garapenean, iturriak eskura jarriz, solasaldi aberasgarriak oparituz eta testuaren irakurketaren gainean kritika eginez, Julen Arexolaleiba, Miren Arizmendiarrieta, Jon Artabe, Iñaki Goiogana, Pruden Gartzia eta Jabier Kalzakorta ezinbestekoak izan dira. Bereziki ederra izan zen Markinako semearekin Barinaga auzoa, Iturbe baserria, etxekoak eta Saraspeko iturritxoa ezagutu genuenekoa.

Horiei guztiei, atseginez onartu gaituzten elkarrizketatuei, eta lana irakurri eta iradokizunak egin dizkiguten adiskideei, mila esker.

Galdakao, 2024,
Kardaberaz Bazkunaren sorreraren
100. urteurrenean

## AURKIBIDEA


**HITZAURREA**................................................................ 15

**1. SARRERA**................................................................ 19

1.1. Euskal Herria, zapaldua eta apurtua........................ 29
1.2. Arizmendiarrietaren biografia ................................ 52

**2. ELKARRIZKETAK** .......................................................... 63

2.1. Jatorrizko solasaldiak ............................................. 64
2.2. Solasaldi berria ....................................................... 97

**3. SAIAKERA** ................................................................. 115

3.1. Kardaberaz Bazkuna ............................................... 119
3.2. Gudari ...................................................................... 133
3.3. Nihilismoari ez ........................................................ 148

**4. EPILOGOA**.................................................................. 163

**5. GOGOETARAKO GALDERAK**....................................... 167

**6. BIBLIOGRAFIA** ............................................................ 171

6.1. Bibliografia-iturrien gaineko iruzkina...................... 171
6.2. Arizmendiarrietaren esan-idatziak........................... 182
6.3. Lan osagarriak ......................................................... 185

# HITZAURREA

*Euskal pentsamendua garatzeaz*

Liburu honen egileak, Jon Mentxakatorre Odriozola doktoreak, mandatu bat jaso zuen: euskaraz ondutako material batetik abiatuta, on Jose Mari Arizmendiarrietaren figura euskaraz ere hizpide izan dezagun bultzatzea. Apaizaren lorpenak estakuru, euskal pentsamendua garatzea.

Mandatuak, alabaina, bigarren helburu bat ere bazuen. On Jose Mari Arizmendiarrietaren gainean euskaraz eginiko elkarrizketak ezagutzera eman eta hauek balioan jartzeaz gain, ondoko tesi hau defendatzea: azterlan eta autore gehienek bi Arizmendiarrieta bereizten badituzte ere, 36ko gerra aurrekoa eta ostekoa, on Jose Marik bere pentsamenduaren hezurdura 36ko gerra piztu orduko erabat garatuta zeukala defendatzea.

Tesi hau argudioz janzteko, egileak lau atal nagusitan banatu du liburua: 1) sarrera, zeinetan, lanaren zergatia eta izaera azaltzen duen; 2) on Jose Mariren biografia, zeinari esker apaizaren ibilbidea, pentsamendua eta ekimenak aztertzeko gakoak eskainiko dituen; 3) eginiko elkarrizketak; eta 4) autoreak bere gogoetarako hartzen duen gunea.

Mentxakatorrek, atalez atal, abileziaz eta sakon aztertuko ditu on Jose Mariren garaiko Euskal Herria, gizartea eta kultur mugimenduak, eta Arizmendiarrietak 36ko gerra aurretik bere

pentsamenduaren oinarria guztiz eratuta zeukala demostratzeko arrazoibideak aletuko ditu.

Liburuaren ekarpen nagusia, ordea, ez da Arizmendiarrietaren profila gaurkotzea edo gaurko begiekin apaiza eta bere pentsamendua ezagutzeko giltzak eskaintzea, on Jose Mari zergatik ez zaigun erakargarri egiten jakitera eman eta azaltzea baizik; zergatik eta nola galdu dugun gure historia eta pentsamendu hurbilarekiko lotura eta eten horrek zer nolako ondorioak dakartzan.

Arizmendiarrietaren eginkizunak ahanzten ari zaizkigula gogoraraziz abiatzen da autorea. Bizitzaren esentzia eta gizabidearen erroak landu dituztenen izaera eta ibilbidea ulertzea zaila egiten zaigula salatuz. On Jose Mari apaiza, pentsalaria, eragilea eta euskalduna izan zela gogora ekartzen digu Mentxakatorrek. Tasun guztiak ere, oso gutxi baloratzen direnak, egun. Gizabide hitzak zer esan nahi duen ere ez dakigula.

Gaurko euskal gizarteari, Arizmendiarrieta handi geratzen zaiola esatera ausartzen zaigu egilea, espiritualtasunari, pentsamenduari, eragiletzari eta euskaltasunari soka motzetik oratzen gatzaizkiolako. Euskal Herriaren izana eta balioen erroak garatzeko ezagutu behar ditugun iturriei bizkar emanda bizi garela azalduko digu egileak eta, ondorioz, mundu oso bat galtzen ari garela. Gure mundua dena.

## *Ez gara geure baitakoak*

On Joxe Migel Barandiaranena den esaldiaren adiera bera landuko zuen on Jose Mari Arizmendiarrietak ere. Norberaren baitatik abiatu eta bestearenera igarotzeaz, alegia, duintasuna eta elkartasuna besarkatuz. Barne mundu propio bat eta bera ezagutzen duen gizataldea baino ez delako “herri aske” izango.

Ideia honi berari heltzen dio Jon Mentxakatorrek ere. Eta galderak zuzenean egiten: zein izan daiteke euskaldunaren eta Euskal zein Herriaren geroa, haren berezko iturriak ezagutzen ez baditugu? Nola moldatuko gara garai eta erronka berrien aurrean, gure herriaren balioen iturriak galdu baditugu?

Egileak ondorioztatzen du, iturrietarako bidea ondo ezagutzea premia bizikoa dela. Gure herria erabat galduko ez bada, gure bar-

ne mundua osatu behar dugula, eta hori adierazteko, Joxe Azurmendiren hitzak liburu????ratuko ditu: “euskaldunok geurea eta geurea bakarrik den barne mundu bat sortzea ezinbestekoa dugu”.

Mentxakatorre, ordea, zorrotzago agertuko zaigu eta ezinbestekoa dela azalduko du, “euskaldunok geurea eta geurea bakarrik izango den mundu ‘espiritual’ bat sortzea”. Barruan mundu sendo bat eduki arte ez dugulako geure burua osatuko. Barrutik puskatuta dagoen herriak, barrutik sendatu beharra duelako.

On Joxe Migel Barandiaran, on Jose Mari Arizmendiarrieta eta Joxe Azurmendiren iturrietatik edan eta hiruren arteko hariak lotzen dituen egilearen hitzetan, Euskal Herriak duen arazorik handiena barrutik puskatuta egotea da. Herriaren baitako belaunaldien arteko transmisioa eten izana. Apurtuta dagoena, gizakiaren ulermen antropologiko transzendentea dela azkenduz. Espiritualki txiro gelditu garela dio, iturrien ezagutza galdu dugulako. Eta metafora batez ezin hobeto argituko digu autoreak, iturririk ezagutzen ez duen herriak ez duela egarririk somatzen. Eta ezagun dugu, etorkizuna biziko duen herriak egarriz behar duela.

Egileak, bada, aldarrikapen bilakatuko du liburua, eta gure herriak hausnartzeko premia gorria duela adieraziko du, ezin ozenago dioelako, ez garela geure baitakoak.

Begiek ikusten duten azaleko errealitateaz gain, barrurago arakatu eta izpirituaren geruzak nabarmentzea izan zen Arizmendiarrieta apaizak egin zigun ekarpen nagusia. Eta, Mentxakatorreren ustez, gaur egun egin beharko genukeen bidea ere horixe bera da: bizi dugun krisi espiritualari aurre egiteko, geure baitara sartzea.

Egileak, liburu honi eskatu asmo zizkion erronkei ondo baino hobeto erantzuten die eta baita hari berri bati tenk egiten, euskal pentsamenduaren iturrietan arakatu eta hitzaren azalekoan geratu gabe.

*Ana Urkiza Ibaibarriaga*

# 1.
# SARRERA

On Jose Mari Arizmendiarrieta Madariaga (Markina, 1915 – Arrasate, 1976) euskal apaiz, pentsalari eta eragilea izan zen. Gasteizko Seminarioko ikasle zela, 1936ko gerran gudari ibili zen. Ikasketak amaitu eta apaiz eginik, Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiako koadjutore eta gizartearen laguntzaile izan zen. Euskal Herriak, eta Leintzeko bailarak bereziki, asko zor dio gizonari, baina haren izen-eginkizunak ahazten ari zaizkigu, iragan urruna zein hurbila gogoan izan ditzagun egun dauzkagun hutsuneen ondorioz. Gero eta aldakorragoak eta hauskorragoak garen heinean, bizitza osoan alde ugari eta sendoak izan dituztenen izaera eta ibilbidea osorik ulertzea zaila egiten zaigu. Arizmendiarrieta halakoa dugu.

Apaiza zen, eta euskal aho-belarritan horrek ez du atsegin handirik sortzen. Beste ezer entzun orduko, susmopean jarri beharreko figura bihurtzen zaigu, besteak beste, apaiza izatea zer den ez dakigulako. Euskal Herriaren kultura ibilbidea apaizik gabe ulertu ezin daitekeen arren, gure herrian erabat gainbeheran dagoen lana da, misteriotik eta taupada luzeko tradiziotik oso urrun gauden erakusle.

Pentsalaria zen, eta euskal buru-bihotzetan horrek ez du erakarpen handirik pizten. Gutxi irakurtzen dugu, gutxi luze

idazten, gutxi sakon ikasten, gutxi ondo eztabaidatzen. Gurean ere, informazioa eta iritzia nagusi dira, eta klikaz tiro egitera ohituta gaude. Eta, horrez gain, pentsatu egiten dugunok aurrekoekin pentsatzeko arazoak izaten ditugu.

Eragilea zen, eta euskal esku-bizkarretan horrek ez du toki handirik hartzen. Ordaindutako lan-orduetan ere konpromisoa txikitzen ari zaigu, diru-iturria publikoa baldin bada ere. Gure asmo zuzenekin bat ez datorrenak ez du arretarik edo miresmenik jasotzen, are gutxiago bultzada edo babesik, geure denbora etekinez inbertitu beharrekoa bihurtu baitzaigu.

Eta euskalduna zen. Euskal sena, kultura eta arnasa zeuzkan, nahiz eta luma eta mihia urte luzez geldi edo ibilbide laburrarekin izan. Baina euskaldun izatea zer ote den galdetzen dugu, azaleko askotariko ezaugarriek mamirik gabe utz gaitzaketen bitartean. *Gizabide* hitza ere zer den ez dakigu.

Hizkera ezkorra erabili dugu, irakurle, gaiaren arduraz jabe zaitezen, sarrera honek zirika zaitzan. Baina egia da Arizmendiarrieta handi geratzen zaigula, aipatutako alde guztietan txiki, estu, mehar, lotzen zaigulako. Ez da gure ohiko joan-etorrietan sartzen, eta herriko kale-izen, eskultura eta liburutegirako gordetzen dugu. Baina ikusi, kontenplatu eta hausnartzeko behar gorrian gaude Euskal Herrian, herri zapaldua eta apurtua garelako. Bi-biak. Horregatik, Arizmendiarrieta eta gure herriaren oraintsuko gorabeherak ezagutzeak on egin lekiguke. Izan ere, Arizmendiarrieta geure izateko, geure egiteko, arazorik baldin badugu, XXI. mendeko erronken aurrean zailtasunak izango ditugulakoan gaude.

Liburu honen helburua, beraz, on Jose Mari hizpide izan dezagun saiakera egitea da. Argi izan behar dugu, geure gogoan baldin ez badago, bi toki geratuko zaizkiola Arizmendiarrietari: orotariko galduen txokoa edo beste batzuen gogoa. Aurretik esandako guztiagatik, ezinean ari gara on Jose Mariren osotasuna ulertzeko eta lagungarri izateko, baina haren inguruko ekimenen batzuk egin egiten dira. Handiena, zer eta Vatikanoan santu izendatzeko ahalegina; hau da, Arizmendiarrieta kanonizatzeko ekimena. Horren eragile den Arizmendiarrieta Kristau Fundazioak, Juan Mari Uriarte Donostiako gotzain zenaren *nihil obstat*a lortu eta Ildefonso Moriones karmeldar oinutsak *positio*a prestatu ondoren,

lehen urratsa arrakastaz eman zuen 2015ean: on Jose Mari jada Beneragarri (*Venerabilis*) da Eliza Katolikoan.

Baina Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea ere hor dugu, eta Gizabidea Fundazioa. Eta, ezer baino lehen, Euskal Herria, on Jose Mari gure herriko semea baitzen. Esan bezala, Arizmendiarrieta, bere osotasunean, mintzagai izan behar dugu, eta euskal pentsamenduaren argitan ikusten jakin. Eredu eskasa bihur litekeelako herriarentzat bestela.

Ereduen artean santuak izatea ona da, eta Eliza Katolikoari zenbat eta gehiago izateak on baino ez dio egiten. Baina zer onura ekar diezaioke horrek gero eta sekularragoa den gure herriari? Are gehiago, gero eta elizkide gutxiago dituen, gero eta Elizaren etsai gehiago dituen, Euskal Herriari? Galderak eurak ez dira errazak, eta erantzunak ez dira laburrak eta arinak izango, eliztar zein mundutar izan. Horregatik, herriaren gogoeta ahalik eta zabalena bilatzeko asmoz, gaiari heldu egin behar diogu, Arizmendiarrieta, aipatu dugun bezala, lehenik eta behin, herriarena delako.

Don Jose Maria ingurukoentzat, Joxe Mari etxekoentzat, on Jose Mari izan dakiguke euskal pentsamenduaren zaleontzat. Izan ere, komunitate jakinean haztera gatoz bataioaren aurretik. Gero gerokoak. Eta ezin diogu, kontzientziaz nahiz inkontzientziaz, Arizmendiarrietaren handitasun apalari bizkarrik eman.

### *Apaiz, erabateko apaiz*

Gure aurrean mundu oso bat galtzen ari da. Isil-isilik. Konturatu orduko ez dugu haren arrastorik izango, transmisio bideak oso bakanak eta plazan ezezagunak izango direlako. Mundu horretan, fedea eta sakoneko komunitatea zutarri dira, eta han eta urrunago baino ez diraute bizirik, eskutan babesten diren sutxoen dirdirretan. Horregatik, gure garaian, ezagutzen ez dugun figura garrantzitsua apaiza da. Arrazoiak asko izango dira, baina ondorioa bat bakarra: egun ia ez daukagu herriko seme peto den apaizik gurean. Euskaldunak eta Euskal Herriaren arnasa ezagutzen dutenak.

Gasteizko Euskal Eskola izendatuko dugun komunitatean hazia, Arizmendiarrieta halakoa izateko prestatu zen, baina Arrasateko hiribilduan ezin izan zuen figura hori nagusiki erakutsi, hurbil-hurbiletik ezagutu zutenei izan ezik. Arizmendiarrieta aztertuz,

apaiz osoaren eta gertukoaren figurara hurbiltzeko aukera izan dezakegu, ordea.

Izan ere, apaiz-ordenak jasotzear zegoela, aurretik egindako gogo-jardunetako oharretan, ikus genezake beretaz zer uste zuen: bere buruaz soilik arduratzeko baino gehiagorako jaio zelakoan zegoen; hurkoaren minak eta sufrimenduak sakon errukitzera eramaten zuten; ez zuen ezertan azkena baino gehiago izan nahi; boterearen eta maiestatearen ideiek ez zioten ezer esaten; eta apaiztasunaren handitasunak berak ere, naturazgaindikoa daukanagatik, ez zuen erakartzen, hurkoaren zerbitzura hustutzeagatik baino.

Arizmendiarrietak, beraz, ez zuen erakarpen dirdiratsurik ikusten apaiztasunean, aho lehorrez egin beharreko bide luzea baino, santutasunerantz beti. Baina bere bidea hori zelakoan guztiz sinetsita zegoen: erabat hustu, misterioa mundura bidera zedin. Bere betebeharra hori zela ebatzi zuen. Ideia sinpletakoa zen, hortaz, baina eskakizun pertsonal handikoa. Horregatik, bai munduko atsegina, bai munduz gaindiko zoriontasuna lan hori ongi betetzeari lotuta ikusten zituen, eta, prestaketa amaitu eta gero, bizitza osoan apaiz soziala izan zen.

On Jose Mari apaiz jardunean ezagutu zutenek, ondorioz, hezkuntzan, kulturan eta lan-eremuan ekiten ikusi zuten. Ez zen tenpluko elizkizunetara eta sakramentu lanetara mugatu, apaiz sozialak Eliza mundura hurbiltzen baitu, mundua misteriora bihur dadin. Hala, 35 urtez, koadjutore karguaz beste ezer izan gabe, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa sustatu eta zaindu egin zuen, gizabanako orori komunitatean askatasun erroak dituen pertsona bilakatzen lagunduz. Gizakia *gizakaiztasun*etik atera eta *gizagarritzea* edo *gizaberetzea* zuen helburu, *giza-min* zelako, on Jose Mariren hitzak, bera kolkokoak, erabiliz. Hots, gizakia beratu, bigundu, gizabanakoak haren izaera gizatsuago bihur zezan. Nikolai Berdyaev eta Pierre Teilhard de Chardin ondo irakurriak eta landuak zituen apaiz euskaldunak euskaraz hiztegia ere eman zigun, ikus dezakegunez.

Hala, Gasteizko Seminarioan landu eta lortu zuen pentsamenduari lanaren gogoeta berezia eta kooperatibismoaren bidea aurkitu zizkion, errealitatean, eginkizun eta gertakizunetan, gara zedin. Bilatzaile handia zein heinean, kooperatibismoa ondutako

pentsamenduarentzat biderik onena gerta zitzaion, baina ez zen bere proiektuaren abiapuntu edo hazi izan. Arrasateko Kooperatibismoa Arizmendiarrietaren pentsamenduaren esperientzia partekatua izan zen. Hori dela eta, on Jose Mari ezagutu zutenek haren ekarpena oso sakona izan zela azpimarratu zuten. Harena ez zen izan edozelako gizarte eraldaketa, pertsonen esentziara zuzendutako antropologia berria baizik, gizakiaren bere-berezko duintasunean eta transzendentziarako irekiduran oinarritutakoa.

On Jose Mariren ekimena, beraz, ez zen lanaren bestelako ikuspegi eta antolaketa hutsa izan. Deshumanizazioa ekar dezakeen modernitatearen arlo guztien aurrean, gizabidea sustatu zuen, eta jendeari bizitzaren zentzuaren ortzi-mugak aldatu egin zizkion. Norberaren dohaiak landu eta gainerakoen mesedetan jar zitzan bideak iradokitzen zituen, gizabanakoa inolako makina huts edo inongo makineriaren atal izan ez zedin.

Horretarako, ezinbestean, besteen aurretik zihoan. Santutasunaren bide gogorrak dakarren askatasunez, bazekien bakoitzari behar zuena esaten eta ematen, guztiei begirada garbitzen. Beste era batera esanda, jendearen kalitate handia bilatzen zuen, pertsona osoen lorpena, eta, horretarako, jendearen gertutasuna irabazten jakin zuen. Besteak beste, Arizmendiarrietak inor gutxik egiten duena egunero egiten zuelako: egunean egindakoaren gogoeta, eta austeritatean sakondu.

Horregatik, on Jose Marik ez zuen inoren dirurik onartzen. Hamabost egunero Iturbe bere etxeko uzta-saskia jasotzera mugatzen zen, eta, beharrizan apala zeukanean, ez zuen inolako arazorik bidaiatzeko jakarik edo inora kotxez eramaterik eskatzeko. Adibide ezaguna da, osasuna zela-eta, bizikletaz ibiltzea egokia ez zitzaionean, Velosolex motorra oparitu ziotela Arizmendiarrietari, eta hark ez zuela onartzeko gogorik izan, beste batzuek baino gehiago ez izatearren. Gainera, lan egitera joateak berak kirola edo esfortzua ekarri behar duela adierazi omen zuen. Arizmendiarrietaren jarrerak tradiziozko pertsonaren, komunitatearen eta berdintasunaren izaeran sustrai sakona zeukan, hortaz.

Horrez gain, XX. mende beteko giroan filosofikoki jarduten jakin zuen, eta horren onena argi azaltzen. Gogoeta handia egin zuen, eta zuzen ekin. Hala, indibidualismoaren eta kolektibismoaren

artean, iraultzaren eta erreformismoaren artean, lanaren bidezko pertsonaren eraldaketaren bidea ireki zuen. Komunitatearen garapenerako espazioak, egiturak eta erakundeak eratzen bikaina izan zen. Edozein arazoren aurrean, aldeko testuingurua inoiz ere izan gabe, pertsonek bide propioari ekin ziezaioten zirrikitua aurkitzen lagundu zuen. Kooperatibismoa, labur, hori berori baino ez da: indibiduoaren askatasunaren izenean ezberdintasunak sortzen dituen kapitalismo liberalaren eta berdintasunaren izenean giza askatasuna mugatu egiten zuen sozialismo errealaren artean, Euskal Herriko tradizioan sustraiak zituen autoeraketarako formula aurkitu zuen.

Izan ere, gizabanakoek etxearen alde, etxeek auzoaren alde, eta auzoek herriaren alde egitea berezkoa da kultura tradizionalean. Horren gogoeta kontzientea eta diskurtsiboa kooperatibismoaren formulazioa da, eta haren esperientzia, giro garaikidean eta industrialean egindako artikulazioa. Beraz, auzolanaren eta herrigintzaren bideak kooperatibismoaren forma kulturalak dira. Horretan, batetik besterako jauzi naturala da. Baina diskurtsoaren eta irakaspenaren bidea ez. Horrek gogoeta erreflexiboa eskatzen du, eta horixe da Arizmendiarrietaren ekarpen berezi-berezia, giza duintasunaren eta lanaren ardatzaren bidez. Eta haren dohaina kontzeptu bitxirik gabeko eta azalpen ulerterrazeko esaldiak hedatzea izan zen, behin eta berriz, mailukada goxoka, jendeak bere egin zitzan. Hala, ez zuen bere pentsamenduaren oinarria azaldu beharrik, haren gainean eraikitakoa, errealitate zuzenarekin lotutakoa eta begi hutsez ikus zitekeena baizik.

Arizmendiarrietak gizakia bere destinoaren jabe den pertsonatzat nahi zuen, beraz, eta, horretarako, hura lanaren zentzuaren jabe izan behar da. Ondorioz, langilea ugazaba izan dadin eta guztiaren helburua komunitategintza izan dadin modua aurkitu zuen. Langilea erabaki eta produkzio bideen jabe eginik, bere buruaren erantzule egin zuen, eta enpresa, gizartea osoaren eraldaketa tresna. Beraz, kooperatibagintza lantegiaren edo enpresaren formula soiltzat hartzeak ezer ez ulertzea esan nahi du. Lantegia lan komunitatea da, lan komunitatea herriaren baitan dago, eta herriek gizadia osotzen dute.

Zertan ari zen, hortaz, apaiz, erabateko apaiz, zen Arizmendiarrieta? Munduari modernitateak inongo eremutan eman ezin ziona bideratzen: misterioaren eta transzendentziaren argia, eta

euskal tradizioan haren arabera ezagututako gizabidea zabaltzen. Izan ere, bizi-asmo hori ez zen erraza izango Euskal Herri luze-zabalean. Hori dela eta, 1979an Eugenio Ibarzabalekin solasaldian, Joxe Migel Barandiaranen hitz hauek kontuan izatekoak dira:

> De un modo de vida agrícola, ganadero y pesquero se ha pasado al industrial, modo que ha venido a imperar, y que –si no se compensa de otra manera– trae las siguientes consecuencias: saca al hombre de su medio anterior, desaparece la familia como modo de vida económica, con el siguiente relajamiento de lazos personales y vecinales. Pierden un tipo de comunicación, se desarraigan. En las industrias se reúnen gentes que vienen de ambientes diferentes, ya anteriormente desarraigadas, y que se juntan únicamente para trabajar. Antes tenían una gran iniciativa, pero en las fábricas casi no tienen ninguna. Han roto toda conexión con lo anterior y si su humanismo no tenía más base que la costumbre, se pierde de manera rápida, y es sustituido por otro que no tiene más objetivo en la vida que el placer. Por los diferentes medios de comunicación se manipula con el hombre y se le impulsa a gastar y a consumir. Hay quien se está aprovechando de modo constante de esto, y que no busca más que la despersonalización total del hombre y que este se mueva al compás de las olas, sin personalidad y criterio alguno. La manipulación, repito, es constante, y se utiliza en el nivel del lenguaje animal y vegetal, muy inteligible y para cuya comprensión no hace falta estudio alguno, sino tan solo aceptar ser llevado por el ambiente y por los demás. Ya no hay nada que a uno le constriña; de ahí a las actitudes de violencia, aunque resulte sorprendente, no hay más que un paso.
>
> La responsabilidad mayor corresponde a los que debían haber tratado de adecuar el humanismo tradicional al nuevo modo de producción, y que, por desgracia, no lo han hecho. Y, en este sentido, creo que los curas vascos no han estado a la altura de las circunstancias. Había que cambiar y no han cambiado.

Gizabidearen aldarrikapena eta Elizari kritika eginez, eta Arizmendiarrietaren proiektuaren sorburu eta helburuaren ezagule ageri zaigu Barandiaran, hura izan baitzen hori guztia sustatu zuen Gasteizko Seminarioko programaren eratzaile eta gidari. 1936ko gerra aurretik, noski.

*Lanaren zergatia eta izaera*

Lan honetarako gogoa Arizmendiarrieta Kristau Fundazioaren eta Bilboko Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltza Institutuaren artean piztu zen. Gaizka Urrestiren 2018ko *Arizmendiarrieta. El hombre cooperativo* dokumentalerako eta Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren memoria historikorako egindako hainbat eta hainbat elkarrizketen artean, euskarazkoak bildu eta argitaratzea izan zen lehen asmoa. Horren edizioaren prestaketa eta Arizmendiarrietaren gaineko gogoeta izan dira, hortaz, lanerako lerroak, on Jose Mariren gaineko ikuspegi ahalik eta osoena emateko asmoz.

Abiapuntua eskasa zen, ordea. Gizon helduei eginiko bederatzi elkarrizketa geneuzkan. Horietatik bat, Joxe Azurmendirena, elebiduna zen –elkarrizketatzaileak galderak gazteleraz egin zizkion euskaraz erantzun zuen zegamarrari–, eta bakarra euskaraz bete-betean –Felix Ormaetxearena–. Gainerako zazpiak Jesus Mari Arizmendiarrieta, Jabier Etxebarria, Juan Antonio Garitano, Jesus Mari Herrasti, Enrique Larrañaga, Pedro Mendieta eta Jose Mari Pagaegiri egindakoak dira, gazteleraz lehenengo eta euskaraz ondoren.

Hau da, elkarrizketatua nekatuta eta errepikatzera behartuta izanda: zenbait elkarrizketa helmen urrikoak dira, arrazoi horregatik, hain zuzen, gazteleraz emankorragoak baitira. Horren jabe izateak min handia eman zigun, baina euskaldunok Arizmendiarrieta hizpide izan dezagun gogoa areagotu egin zuen. Ekimena onartu genuen, on Jose Mariren gainean bai euskaraz pentsa dezagun, bai euskal pentsamenduaren garabidean elkarrizketa aberas dezagun.

Arizmendiarrietaren lana aldez aurretik ezaguna genuen, Azurmendik filosofiara ekarritako bideetatik lehenengo, zuzenean ondoren, filosofia gure lan eremu eta Mondragon Unibertsitatea gure lantoki izanik. Gure ustez, on Jose Marik bere pentsamenduaren hezurdura 1936ko gerra piztu orduko erabat garatuta zeukan, eta horren azalpena abiapuntu egokia iruditu zitzaigun entsegu izaera izango zuen lan honetarako.

Izan ere, nahiz eta gutxik ondo aztertu edo ezagutu, Arizmendiarrietataz dezente idatzi eta hitz egin da, eta abiaburu

esanguratsua behar genuen ezer interesgarririk esatekotan. Lan eta autore gehienek Arizmendiarrieta bi bereizten dituztenez, 36ko gerra aurrekoa eta ostekoa, on Jose Mari bat eta bakarra erakus lezakeen azalpen osoagorako abiagunea hautatu genuen.

Horretarako, Euskal Pizkundea aintzat sakon hartzea ezinbestekoa da, eta mugimenduaren baitan Gasteizko Seminarioak, apaiztegi izateaz gain, Euskal Unibertsitatearen balizko tokia betetzeko izan zuen ardura ulertzea. Joxe Migel Barandiaranen eta Manuel Lekuonaren Gasteizko Euskal Eskolak euskal modernitate katoliko ilustratuaren garapenerako guztia zeukan. Baina 36ko gerrak errotik moztu zuen hori. Berriz ere, Euskal Herria eremu ttipian izan zena eta eremu zabalean izan zitekeena galdu genituen; euskal intelektual osoen belaunaldia, ziurrenik, Iñaki Goioganak esan zigun moduan. Baina Arizmendiarrietak bide eman zion han ikasitakoari, eta hori ulertzea eta berbagai izatea oso garrantzitsua da.

Hala, abiapuntua argi izan ondoren, hasierako bederatzi elkarrizketei beste bat, hamar zenbatu arte, gehituko geniela erabaki genuen, eta orduan bai, guzti-guztiarekin, gure saiakerari bide eman. Gure lan hau lau ataletan banatzekotan geunden, beraz: sarrera, elkarrizketak, saiakera bera eta bibliografia. Baina bosgarren bat gehitzeko eskatu ziguten lanaren sustatzaileek: gogoetarako galdera, iruzkin eta ariketen saila. Erabat ados agertu ginen, lan honen helburua hausnarketa eragitea baita. Hots, bere izaera lan-kaiera izatea da: on Jose Mari Arizmendiarrieta ulertzen laguntzeko bideorria. Lanaren aberastasunerako, gure lumakoa ez den hitzaurrea eta adiskideen kritikak jaso ondorengo gure gibelsolasa gehitu zaizkio, gainera. Azkenik, hortaz, ekarpen horien markoaren barnean, lanaren osaketa honakoa da:

Lehenik eta behin, sarrera dugu. Lanaren zergatia eta izaera azaltzen duten lerro hauen ondoren, gure arduraren eta gogoetabidearen sakoneko arrazoiak azalduko ditugu, hiru punturen bidez: 1) Euskal Pizkundea mugimendu orohartzaile legez; 2) herriaren barne mundu propioaren osabidea; eta 3) antropologia, soziologia eta ekonomiaren dimentsio transzendentearen ulermena eta lanketa, Gasteizko Seminarioko hiru egileren testu hautatuak aztergai izanik. Horren ondoren, Arizmendiarrietaren gutxieneko biografia egingo dugu. Marko horren bidez, liburuko gainerakoari

interpretazio eremua emango diogu, on Jose Mari ahalik eta osoen uler dezagun.

Bigarren, elkarrizketak izango ditugu, talde bitan antolatuta. Alde batetik, jatorrizko bederatzi elkarrizketak emango ditugu, eta, bestetik, lan hau aberasteko egindako elkarrizketa berria. Aipatutako bederatzi elkarrizketen hurrenkera elkarrizketatuaren lehen deituraren araberako ordena alfabetikoz egin da, baina lehenengo euskaraz baino egin ez ziren biak emango dira. Ondoren, Jon Sarasuarekin izandakoa emango da, eta hamar osatu. On Jose Mariren lana eta Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren ibilbidea ondo ezagutzeaz gain, Mondragon Unibertsitateko Lanki Kooperatibismoaren Ikertegiaren hasierako urteetan aritu zen Sarasua. Bi elkarrizketa-multzoak euretan hizpide izandako gaien aurkezpenen bidez josiko dira lan osora.

Hirugarren, gure gogoeta emango dugu. Arizmendiarrietaren pentsamenduaren ardatza, hari guztiak josten dituena, lanaren kontzeptua da. Lanaren gainean egindako gogoeta da on Jose Mariren ekarpen filosofikoa, eta Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren oinarrian eta garapenean gauzatu izana, lorpen sozio-kulturala. Ekarpen eta lorpen horietarako iturriak, begirada eta taupada 1936rako ezagunak eta 1941erako bere zituela erakusteko helburuz, bi urrats eskainiko ditugu. Alde batetik, Kardaberaz Bazkunari dagokiona; Arizmendiarrieta bete-betean aritu zen bertan 1933az geroztik. Haren izaera, arnasa eta helmena ulertzea ezinbestekoa da Gasteizko Euskal Eskola uler dezagun. Bestetik, gudari sasoiko on Jose Mariren hiru testu aztertuko ditugu, 1937koak, *Eguna* egunkarian idatzitakoak, eta Elizaren doktrina sozialaz jardun gero. Hala, sarreran eskainitako abiapuntuari jarraipena emango diogu, Arizmendiarrieta hurbiletik aztertuz.

Horren ostean, gure lumako guztia eta solasaldiak kontuan izanik, on Jose Mari helduaren hitzetara asko gerturatuko gara, haren hainbat testu elkarren artean elkarrizketan jarriz. Gerraurreko, gerrako eta gerraosteko adierazpenetan egile bat eta bera dugula erakusteko xedea dugu saiakeraren azken atalean, *T.U. Lankide* agerkariko hainbat idatzi aipatutako gainerakoei gehituz.

Laugarren, epilogoa emango dugu; bosgarren, gogoetarako itaun-lerroak. Seigarrenik eta azkenik, bibliografia, lehen mailako eta bigarren mailako iturrien multzoetan. Bibliografiaren atal horretan, Arizmendiarrietaren ibilbide, pentsamendu eta ekimenak aztertzeko iturrien iruzkina gehitu dugu. Izan ere, lan honetan, baieztapen sendoak egin arren, ez dugu aparatu kritikorik eratuko. Gogoeta eragiteko helburuarekin eta geroko azterketen zain lotuko gara, baina erakutsiko dugun norabidean ezinbestekoak izango diren hainbat iturri izendatu eta aurkeztuko ditugu. Lanaren saiakera izaera dela eta, oin-ohar ugari eta xeheetan murgildu beharrean, iturrien izaeraren beraren gainean hitz egiteak ekarpen handiagoa egingo duelakoan gaude. Iturri horien azterketa zehatz-mehatzetik erator litekeena agertu eta iradoki nahi dugu oraingoan.

## 1.1. Euskal Herria, zapaldua eta apurtua

XX. mendean, urte askotan ezagututako biolentziak eta urte gutxitan irentsitako modernizazioak gure herria muineraino zauritu zuten.

Iparraldeko euskaldunak 1914-1918ko eta 1939-1945eko Mundu Gerrak ezagutzera behartu zituzten, baita 1954-1962ko Aljeriako Independentzia Gerra ere. Hegoaldeko euskaldunek, 1911-1927ko Rifeko Gerraz gain, 1936-1939ko Frankisten Gerra ezinbestean bizi izan zuten, eta ondorengo berrogeibat urteko diktadura militarra; bigarrena, Primo de Riveraren 1923-1930ekoaren ondoren. Horrez gain, euskaldunek herritik, gizartetik eta Espainiar estatuaren itzaletatik piztutako borroka armatua ere ezagutu zuten, giza eta nazio eskubideen zapalketa sistematikoaren testuinguruan. Indarkeria izugarriko mendea izan zen XX.a Euskal Herrian.

Gainera, hori guztia gutxi balitz, modernitatearen olatua bere alde guztiak batera zirela etorri zitzaion gure herriari: industrializazioa, klase langilearen eta ertainaren hedapena, ideologia modernoen ezagutza, erakunde administratibo arrotzen txandakatzea, tradizioarekiko urrunketa, sekularizazioa, gizartearen likidotzea, hizkuntza ordezkapena eta biziberritzea… erronka teknologiko, erlijioso, politiko, sozial, kultural eta linguistikoak, guztiak batera, agertu ziren etxeko atarian, eta laster sukaldera sartu ziren.

XX. mende katramilatu eta luze hori da, gogoan izan dezagun, Arizmendiarrietak ezagutu zuena, gure herriaren gainean ezarritako banaketa, eraldaketa eta araudi juridiko-administratiboz betea. Euskal Herriko irudia hainbeste aldatzeak, ondorioz, Euskal Herriaren irudia izugarri aldatzea eragin zuen. Hau da, kanpoko aldaketa eta zapalketa sistemikoek barne apurketa animikoa eragin zuten. Larregi denbora gutxian. Egoera berrietara ohitzeko tarterik edo eskubiderik ez, behin eta berriz.

*Euskal Pizkundea*

Egun indarrean dauden zapalketa eta apurketa, noski, gizaldiak lehenagotik datoz, XII. mendean Nafarroari hoska egin eta Euskal Herriaren batasuna hausten hasi zenetik. Baina azken une erabakigarria 1872-1876ko karlistada izan zen. Harekin bat, gure herriaren barne osasuna kolokan jarri zen, eta, horren aurrean, Anton Abadiarengandik Joxe Migel Barandiaranenganainoko aroa izenda dezakegun 1876tik 1936rako tartean, Euskal Pizkundea izan zen: induzitutako gaixoaren aurrean, Euskal Herriaren nortasuna indartzeko eta garaira eraberritzeko mugimendu politikoa eta kulturala. Sasoi hori izan zen abertzaletasunaren sorrera eta garapena eragin zituena. Hau da, kanpo eraldaketarako, barne lanketa, 36ko gerraren ostetik hona berriz ere nekez ezagutu duguna, euskararen biziberritzean edo Arizmendiarrietaren proiektuan izan ezik, besteak beste.

Horregatik, izan zituen aberastasunagatik eta sakontasunagatik, Euskal Pizkundea mugimendu zientifikoa eta espirituala ere izan zela baiezta dezakegu, ez baitzen Lore Jokoetara eta Euzko Alderdi Jeltzalera mugatu. Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu ziren, Euskal Unibertsitatearen hazia zeukan Universidad Vasca-ren planarekin bat, eta Elizaren hegapeko hainbat euskaldunek Eliza euskaraz garatu zuten, baita Euskal Elizaren urratsei ekin ere.

Hau da, Jesusen ebanjelioaren sinestunek, haren argitan, Euskal Herriaren onena zaindu eta landu egin zuten: herriaren ondare, arte-eder, hizkuntza eta ohiturak. Izan ere, mendez mende eta salbuespenak salbuespen, Euskal Herrira begirako eliterik gabekoak izanik, herri xehea izan da bai Jainkobiderako, bai gizabiderako, bai herrigintzarako gakoak eta erak gorde dituena. Altxortegirik handiena bere magalean egon da, eta hura barrutik ezagutzea eta herriko artisten eta intelektualen eskura jartzea ezinbestekoa zitzaien.

Hala, bizitzaren tragedia eta komedia, urteen pozak eta tristurak, arrazoimenaren konbentzimendua eta bihotzaren ziurtasuna, otoitz, poema, kantu, esaera, eleberri, diskurtso eta estatutu zahar zein berri bidez, euskaraz dastatzeko gai izan ziren Euskal Pizkundean. Hau da, haize, bide eta soineko berrietara egokitzeko, mamia ondo zaindu eta aberastu zuten. Ondoko galderaren bidez labur daiteke mugimendu osoaren gogoa: zein izan daiteke euskaldunaren eta Euskal Herriaren geroa, haren berezko iturriak ezagutzen ez baditu? Nola moldatuko da garai eta erronka berrien aurrean, bere balioen iturriak galdu baditu? Hor dago betiereko koska. Aldaketa eta egokitzapena ezinbestekoak dira, egarriak egunero hainbat aldiz jotzen baitu. Iturrirako bidea ondo ezagutzea hil-bizikoa da, hortaz.

Esan dugunez, hori zaintzeko eta horretan oinarritzeko azken helduleku juridikoa XIX. mendearen amaieran galdu zen. Muturreko egitura hori gabe, herria biluzik lotu zen modernitatearen aurrean, erdaraz eta haren aurka zabar zetorrena. Emandako hitza, burujabetza, auzolana, ohorea, sakrifizioa, eskuzabaltasuna, pertsonaren duintasuna, komunitatearen ardura… ahotatik eta eskutatik erori egiten dira, bihotzean lora daitezen iturriak galduz gero. Horretarako bidea zabaldu zen azken karlistadaren ondoren; XX. mendean handitu eta atondu egin zen bidea.

Baina, Euskal Pizkundean, Euskal Herrian gertatzen ari ziren aldaketa handien oso jabe ziren. Lehengo mundua haien aurrean nola desagertzen ari zen ikusten zuten. Eta helburua ez zen iragana fosilizatzea edo idolatratzea, ezta geroaren araberako orainari uko egitea ere, aldaketen aurrean ikuspegi eta gaitasun propioak izatea baizik. Hori da betiereko gakoa.

1964an, *Harri eta Herri*n, Gabriel Arestik honela esan zuen 1963ko *Nire aitaren etxea defendituko dut* poeman: Armarik gabe utziko gaituzte, eskurik gabe, besorik gabe, sorbaldarik gabe, bularrik gabe… "eta arimarekin defendituko dut nire aitaren etxea". Aziendak, soloak, pinudiak, korrituak, errentak, interesak, etxea… nola zaindu otso, sikate, lukurreria eta inoren justiziaren kontra, arimarik gabe? Arestik ondo ulertu zuen. Ez baita esentzialismo eta folklore kontua, ez baita iraganeko formen museizazioa, ez baita lehengo eren esklabu izatea. Gure herriaren onena eman duten iturrien jagole izatea baizik.

Baina Euskal Pizkundearen sasoira itzuliko gara. Teknologia eta kultura adierazpen berriek aurrekoak galzorian jarri zituzten, eta Euskal Etnografia Eskolak haien bilketa eta sailkapena egin zituen, ahalik eta zehatzen, begi hutsez ikusten diren adierazpen edo manifestazio horien atzean dauden, eta barne begiz baino ikusi ezin diren, iturrietara hel zedin Euskal Etnologia Eskola. Barandiaranek berak askotan baieztatu zuen, urte asko joan ostean, garai batean informazio-iturri izan zituen etxeetara itzulirik, aurreko belaunaldien ondorengoak erabat harrituta geratzen zirela, han bertan, haien aurrekoengandik jasotako elezahar, pentsaera edo ohituren berri ematen zienean.

Izan ere, berezko transmisioa eten egin da gehienetan, adierazpide zein iturrietan. Horregatik, berandu baino lehen, adierazpenak esanguratsuak ziren testuinguruan jaso zituzten, poliki, gogoeta luzearen ondoren, adierazpenei bide emandako adierazpideen sakoneko zentzu-esanahien iturria uler dezagun. Hala, adierazpena bera galduz gero, testuingurua, mundua, aldatu baldin bada, iturrietara jo eta adierazpen berriak lor litezke, garaira egokitutako adierazpideen bidez. Literaturan, bertsolaritzan, musikan, arteetan… bide hori berori jorratu zuten. Hau da, plazara uzta eta molde berriak ekarri zituzten, jatorrizko belaunaldiekin elkarrizketan. Herriaren geroari bide eman zioten, iraganaren onena eraberrituz. Xabier Lizardik polito esan zuen 1932an, *Biotz-begietan* laneko 1931ko “Eusko bidaztiarena” poeman:

> Baiña nik, izkuntza larrekoa,
> nai aunat ere noranaikoa:
> yakite-egoek igoa;
> soiña zaar, berri gogoa;
> azal orizta, muin betirakoa.

Lizardi bera izan zen Euskal Pizkundearen mugimenduaren taupada inork baino hobe adierazi zuena, izen bereko “Euskal Pizkundea” poeman. 1933ko martxoan idatzi zuen, hil baino gutxi lehenago, eta haren herri-testamentutzat har dezakegulakoan gaude. Hona hemen berori, ezagutzea eta haren gainean gogoeta egitea ardura handikoa baitzaizkigu:

I

Gau luzea, gau latza
gau izar gabea;
nekez gendun ikusi
aren azkentzea.
Gau-erdian il zaigu
amona gurea;
esku gogortuetan
dauka gurutzea.

II

Goiza laiñotan jaio
zan noizbait. Leioan
apar zuri motela
itsasi zegoan.
Begiak gorrituta
sukaldera noan,
nere ezurrek ikara
goitik berakoan.

III

Gure sukalde zaarra
etxe pizgarria
bart, lagun arte goxo
gaur, bakar gorria.
Len epela jario,
orain otz larria.
Amonarekin batez
dezu utzi bizia!

IV

Amonaren alkia
ago sutondoan;
aren ipuirik al dek
ik jaso gogoan?
Ik ez? Laratzak? Ez'ta! …
Ez uste gozoan
geunden, ta gure poza
betiko da joan.

V

Ordun belaunikatu
nintzan auts gaiñera.
Ark gordetako sua,
zu'ere il ote zera?
Autsa pittinka urratu
nuan, beldur-bera.
Sua bizirik dago!
Galduak ez gera!

VI

Poz oiuak esnaraz
nindun bat-batean.
Zer dakust Jaun aundia!
Amona? Benetan?
Zerau zakust bizirik
begi ninietan!
Maitez erantzun zidan:
"Gaixoa!" Ametsetan? …

VII

Geroztik azi nazu
auts zaarrak astintzen;
aiton-amon guztien
ipuiak jasotzen;
erriaren pitxiak
magalean biltzen.
Ez baita il gure Erria,
zutitu gaitezen!

VIII

Il ez da ta ez da ilko
guk ez badegu nai.
Bizi-irrikaz zegoan
gure maitasun zai;
aren susper bearrez
goazen nora-nai!
Pizkor urra ditzagun
malkar eta zelai!

IX

Egizute nerekin
aberri-bidea.
Bildu dezagun nun-nai
asaben lorea,
ta gaurdanik goritu
gure sukaldea.
Ni nor naizen? Asmatu?
Euskal Pizkundea!

Amona hil da, tradizioko izpiritu-jakintzaren jagolearen irudi. Atsoa kristaua da, eta gizaldiz gizaldi lur berean sustraiak dituen bizipenen irakasle da. Ez dago kontraesanik, sintesia baino, haren baitan; su motelaren beroak egiten duen batasuna. Baina adineko emakumearen ipuin-altxortegitik gutxi jaso du bilobak. Entzun bai, bihotzaren ortzi-mugak handitu bai. Baina bere egin, gutxi.

Orain zer? Emaria, iturria, galdurik? Lurra apal jo, ondo makurtu, besterik ez dago: bazkal-ondoko beheko apurrak jaso, ogi gozoa zer izan zitekeen jakitera hurbiltzeko; norbere errukirako behera

egin eta hondarrak batu, ohiko harriak bitxitzat hartzeko. Oraindik bada zerbait: adierazpena galduta, lehengo iturrira heltzeko adierazpide txiki, begi hutsera trakets, barne begira gozo. Geroaren itxaropenik bada, txingarretik sugarra erne liteke. Baina oso tentuz zaindu behar da: putz handiz hil gabe, egur okerrez ito gabe.

Aita Barandiaran, Resurreccion Maria Azkue, Jean Barbier, Mayi Ariztia… hainbat izan ziren asaba zaharren lora bila ibili zirenak, malkar eta zelai, sutondo ezkutuetara heldu, eta berezkoa eta transzendentea zena biltzeko asmoz. Hala, *Revista Euskara, Eskualduna, Euskal Esnalea, Anuario de Eusko-Folklore* eta *Gure Herria* aldizkariak, besteak beste, tradizioa eta modernitatearen zubi izan ziren, Euskal Herrira begira egindako ekarpenak jasoz eta haiekin pentsamendua eraberrituz.

Begi hutsez ikusten ez denagatik galdetzeko, bihotzaren begia ondo garbi izan behar da, landurik. Bada, gure Arizmendiarrieta ere hartan aritu zen, Gasteizko Seminarioko ikasle zela. 1931-1936 urteetan, aipatutako Barandiaranen ikasle eta Lekuonak eratutako Kardaberaz Bazkunako eragile zela, Markinara itzultzen zen bakoitzean, udako oporretan batez ere, toponimo, esaera eta kontu zaharren bila ibili zen baserriz baserri.

Horrez gain, apaiz-ikasketek tartea ematen ziotenean, zientzia, literatura eta otoitz testuak landu zituen euskaraz. Hizkuntza goiko eta sakoneko mailetara eramateko jardunak euskal ondarea eta historia intelektuala inor gutxik bezala ezagutzera eraman zuen on Jose Mari. Hau da, Ernazimendutik ordurako euskal tradizio propioa barrutik ezagutu zuen, eta Bernart Etxepare, Arnaut Oihenart, Andre Baratziart eta gainerakoen lerroari ekarpena egin zion, Pizkundearekin bat, herritik hurbil, Elizaren baitan.

### *Mundu propioa*

Gertakariak zelan dira, zenbaitetan. 10-bat urte on Jose Mari gaztearen aurretik, 1923ko eta 1924ko udako hilabeteetan, William Rollo eskoziarra –Christianus Cornelius Uhlenbeck herbeheretar hizkuntzalari eta euskalariaren ikasle, besteak beste– Markinan egon zen euskara ikasten, 1925ean Leidenen aurkeztu zuen *The Basque Dialect of Marquina* tesi-proiekturako lanean. Egotaldiak emaztearekin batera egin zituen, eta Barinagan hartu zuen ostatu, eskola-maisuaren Zubiaurrekoa etxean, San Pedro

elizaren ondoan. Hots, Arizmendiarrietaren auzo-eliza, mutilak 8-9 urte zituenean. Are gehiago: bertako euskararen azterketarako, hainbat ipuin harrigarri jaso zuen auzotarrengandik, lamina, sorgina, bertako begibakar eta besteren gainean, eta, horretarako, on Juan Barkin apaiza lagun estu izan zuen.

Gizon hura aipatutako San Pedro elizako arduraduna zen, on Jose Marik mutikotan gertuko izan zuena. Elizkizunak, otoitzak, aitormen-saioak, kristaubidearen ikasketa… harekin eta haren kideekin euskaraz egin zituen Arizmendiarrietak, ahozko irudimen bizia zuen herrian. Sasoi hartan, Arrasaten, antzeko giroa ezagutu zuten zenbaitek. Markina erdian legez, Arrasate betean ere ez, baina inguruko auzoetan bai.

Hara, 1950ean, Arrasateko herensugearen gaineko ipuina eman zuen Barandiaranek, *Gernika. Eusko-Jakintza* aldizkarian –4(4-5-6). zenbaki eta 275-76. orrialdeetan, eta eskurago Barandiaranen *Idazlan Guzti*en III. liburukiko 431-32. orrialdeetan–. Baina ipuina 1934an jaso zuen Arrasateko seme Berezibar jaunak, Arizmendiarrieta legez, Barandiaranen ikasle zenak. Ipuinak honela dio:

> *Montekristo* oiñ izena dauken mendixen dragoi aundi bat bizi zan antxiñan.
>
> Dragoi au erriko mugaraño jatxiten zan egunero eta mugan artzen auen gizon bat, gero bere kobara eruen eta an jateko.
>
> Zein gizon izan biezan dragoiak jan biebana jakiteko, aurreko egunian suertiak etaraten sien eta an urteten ebana, aura urrengo egunian dragoiak jan bier eban.
>
> Baña ango jentiak esin auen ainbeste gizon-jate ikusi eta dragoiaren bizitza amaituko auen gizonen bat noiz agertuko ete san, egunetik-egunera itxoiten eusen.
>
> Eta olan ebiltzela egun baten gizon gazte indartzu bateri tokau jakon dragoiak bera jan biarra eta gizon arek suga ori akabetako asmua artu auen.
>
> Urrengo eguna eldu sanian, gizon arek, Arrasate oiñ deittuten dauen lekuko panaderixako labian palanka bat berotu auen eta eskuen artuta dragoia etortzen zan lekura juan zan.
>
> Belaxe agertu san dragoia bere bide-nagusitik, beren bustanaikin eiñdako bidetik. Bide au an dago oaiñdik *Arrasategaña* deitzen jakon lekuen.
>
> Gizona auen tokira eldu sanian, beti bezela, pozen-pozez eiñ auen salto andi bat, gizona bere oiñpeian artzeko asmuakiñ, baña gizonak atzeruska ikara bat egiñaz, dragoia

> bere gañerutza jausi sanian, agotik sartu eutzen eskuetan euken palankia eta dragoia, ulu edo txilixo aundi bat egiñez batera, jausi san lurrera.
>
> Orduen dragoia eta gizona eusen tokira etorri siran erriko gizon gustiyak eta danen artian akabau auen dragoia.
>
> Bertan emon eutzen lurperia oaiñ kaminua dauen lekuan eta ordutik aurrera asi siran dragoia bizi izan zan basuari *Monte del dragón* erderazko izenas deitzen eta gero, dragoia akabatu euelako erriari be izena aldatu eutzen. *Arrasate*'ren ordez *Mondragon* ipiniaz.

Nafar erresumari hagina sartu ondoren, Gaztelako Alfontso X.a *Jakitun*ak, 1260an, Arrasateren gainean Mondragon eratu zuen hiri-gutun bidez. *Mons draconis*, herensugearen mendi, du erroan, sasoiko erromantzeetan herensugearen gotorlekuarekin eta borrokarekin lotutako hainbat lekutan erabilia, Europan barna.

Euskaldunak, bere egin eta gero, egun ere darabilen *Mondragoe* erarekin lotutako adibideak bitarako balio digu orain. Alde batetik, egun, Euskal Herria Espainian eta Frantzian ez dagoela gogora dezagun, Espainia eta Frantziaren azpian baizik; edo, bestela esanda, Espainia eta Frantzia direla Euskal Herrian daudenak, eta ez alderantziz. Bestetik, on Jose Mariren garaira bizirik heldu zen mundu mitikoak mende askotako iruditegia osatu zuela gure herrian. 1260an emandako izenak ondo ezaguna zen zerbaiti oihartzun egiten zion. Izan ere, baten batek zalantzarik baldin badu, jakin beza, ohiko kontzientzian, izanaren ondoren edo harekin bat datorrela izena, eta ez alderantziz. *Pagoeta* izendapenaren ondoren ez ziren pagoak landatu. *Orkatzategi* izendapenaren ostean ez ziren orkatzak eraman. Mitoarekin berdin. Herensugearekin borroka hura izan izan zen, guk geuk, asfalto gaineko ilustratuok, sinetsi ala ez. Adierazpenaren adierazpidea lehorra zaigu, oro har, eta iturria ezezaguna.

Hau da, gizaldiz gizaldi, bere bihotzaren jabe zen herria ezagutu zuen Arizmendiarrietak. Kanpoko mundua aldatzen zen bitartean, barneko mundu sanoari eusten jakin izan zion herriaren oihartzun zuzenak ezagutu zituen Barinagan, Gasteizko Seminarioko euskal hizkuntza eta kultura ikasketetan, eta Arrasateko baserri-aldeetan. Eta mundu propio hori zaintzeko eta eratzeko mugimenduan ibili zen. Horregatik, Euskal Pizkundeak, olatu politikoa baino sakonago, zientzia, kultura eta erlijio urak mugitu zituen, abertzaletasun garbia sustatu nahian. Euskal Herriari geroa bermatzekotan, iragankorrak

diren alderdi, talde eta ekimen zehatzak baino, baliabide horiek eratzeko izpiritu iraunkorra behar da. On Jose Marik arnas-taupada hori bere egin zuen, maisu-maistra handienen haritik.

Orain ere, ikusitakoak ikusita, ikasitakoak ikasita, gure herria erabat gal ez dadin, barne mundua osatu egin behar dugu, gutxieneko barne osasuna berreskuratu, eta etengabe datorkigun pozoiaren aurrean zaintzen asmatu. Joxe Azurmendiren hitzetan, bera-beragandik entzundako hitz hurbilenetarikoetan: "Euskaldunok geurea eta geurea bakarrik den barne mundu bat sortzea ezinbestekoa dugu". Zehatzago esanda:

> Une honetan ezinbestekoa da euskaldunok geurea eta geurea bakarrik izango den mundu espiritual bat sortzea: geure kontuekin, geure mitoekin, geure pentsamenduaren azterketarekin, filosofiako geure mitoekin… Geurea eta geurea esklusiboa den barne mundu bat sortu. Nik uste dut oso inportantea dela. Eta hori ez diogu inori ematen. Ez ezkutatu nahi dugulako, baizik eta hori sendo barruan eduki arte ez dugulako geure burua osatuta izango. Barrutik puskatuta gaudenok, hori eduki behar dugu.

Hitzok Lorea Agirrerekin izandako solasaldian esan zituen, bere obra osoa azaltzen ari zela; 2013an, omen. Pentsalariak argitzen digunez, Euskal Herriak daukan arazorik handiena puskatuta egotea da. Inguruko hainbat herrik, mendeetako patxadaz, eta haien borondatearen jabe izanik, erlijio, gizarte, politika eta teknologia arloko aldaketa handiak egin dituzte modernitatean. Euskal Herriak, ordea, guztiak batera egin behar izan ditu, XX. mende gogorrean. Eta horrek gurasoen unibertsotik behartutako urruntzea eragin zuen. Hau da, herriaren baitako belaunaldien arteko adostasuna, eskutik eskurako, bihotzetik bihotzerako, transmisioa apurtu egin zitzaigun. Edo, hobe esan, apurtu egin ziguten, erabat 36ko gerra eta gerraostearen bidez. Ordutik, puskatutakoa osatzen ari gara zenbaitetan, osatzekotan beste batzuetan, baina oraindik ez dugu ondo asmatu.

Horretarako, gure ustez, gerraren aurreko pizkundeak –edota 56ko belaunaldiak, agian– zeukan sakontasuna falta zaigu. Gor eta itsu gaude, besteak beste, logelan errosarioa euskaraz esaten duen zaharraren aurrean. Ahaztu egin zaigu hari laguntzea norberari on egitea ere dela. Hurkoaren alde egitea komunitatearen onerako

dela. Barru-barruan apurtu dena, hortaz, gizakiaren ulermen antropologiko transzendentea da.

Izan ere, Jainkoak beren-beregi eta banaka, xehetasun osoz, egindako arte-lanak garela pentsatzetik, tximinoaren ile gutxiko lehengusuak garela esatera igaro gara. Prozesua arinegia izan da gurean, eta ez dugu sintesirik lortu. Gure antropologia bortxatua da. Ez gezurra delako, kolpean eta larregi ulermen askok ihes egin digulako baizik, eta oso bestelako zaporea duen beste horrenbeste irentsi dugulako. Polo batetik besterako bidea egitera behartuta egon direnak, horretarako laguntzarik izan ez dutenak, hautsita geratu dira, eta haien ondorengoak, haiek baino pobreago. Espiritualki txiro geratu gara, behartutako ahiduraz, iturrien ezagutza galdu egin dugulako. Azurmendiren azalpena oso esanguratsua da:

> Ni umea nintzenean, gure amak seguru asko sinesten zituen Mariren ipuinak eta guzti hori. Geroago, bera ere ilustratu zuen norbaitek, eta nik galdetzen nionean amak erantzuten zidan: “Horiek tontokeriak dituk motel!” Ez zituen kontatu nahi izaten. Eta nik esaten nion: “Ama, hori tontokeria bat da, baina Espiritu Santuarena baino gehiago ez, e!”
>
> Gure amari, norbaitek –bere umeek– puskatu egin zioten mundu bat, normala zena, eta ezin izan zuen berreraiki. Denbora izan balu eta jende batek lagundu izan balio, konturatuko zen, “a! Baina Marirena erabat justifikatuta dago” […] Puskatu eta gero errekuperatu liteke mito bat. Ez da lehengo mitoa; barkatu, da lehengo mitoa, baina beste balio bat dauka orain. Baina errekuperatu egin dut, hori, balioa ematea. Eta sentido bat dauka, eta laguntzen dit, inkluso, unibertsoan mugitzen.

Gure ustez berriro, XX. mendean euskaldunok sakonean galdu duguna misteriora irekitako antropologia transzendentea da. Gure baitakoak ez garela esatetik, gure baitakoak garela adieraztera igaro gara. Eta horrek, ondorioz, kulturaren arlo guztietan eragina dauka: etika, balioak, ikuspegiak, usteak… ez dira herriaren sakonean konpartituak. Askotarikoak dira, eta hori, bere horretan, ez da txarra, azalean bakarrik balitz. Baina sakoneko gelak hutsik daude; altxortegia ez dugu ezagutzen.

Hau da, ez dugu barne mundu propiorik, desio, min eta asmo ezagunekin. “Nor naiz? Zer jakin dezaket? Zer egin dezaket? Zer itxaron dezaket?” galderak era ezberdinetara erantzun behar ditu gizabanako bakoitzak. Baina horretarako iturria bat-bedera izan

gabe, herririk ez dago. Esanahiak testuingurura egokitu behar dira, baina zentzua galduz gero, zereginik ez dago. Eta gizakiak zentzu transzendentea galdu egin du hemen: asmoren bat duen mundutik at dago, norabide jakinik gabeko errealitatean. Gizakiaren baitara ekarri da guztia, eta, egoera horretatik irteten jakin arte, ez da egongo, gure ustez, herriak osabiderako behar duen pizkunderik. Izpiritura irekita dagoen herri-senik gabe bide laburra dugu. Azurmendiren hitzetan berriz ere:

> Guri Euskal Herrian gertatu zaiguna da heredatu dugun morala, "hori ez duzu egingo", mitologia erlijiosoa, mitologia klasikoa, Marirena, dena puskatu zaigula. Dena. Eta orain ez dakigu errekuperatzen. Erlijioaz hitz egiten denean... Mesedez, estudiatu ezazu problema lehenengo, eta gero, nahi duzuna esan. Baina lehenengo estudiatu. Hor elementu asko dago. Mitoa dago, erritua dago, errituala dago, eta sinbolismo handi bat dago, eta horren gainean egin den esperientzia historiko ikaragarri bat dago. Bi mila urtetan gure etxekoandreak beren haurra gaixo zegoenean edo hiltzen zenean beren buruari laguntzeko irudi mundu guzti horrekin bizi izan badira, ez ezazu bota errekara bi aldiz pentsatu gabe. Berrinterpretatu ezazu, edo bota ezazu, baina pentsatu eta gero.

Taldeko irudimen entrenatua eta erlijioaren auzia dira, hain zuzen, huts egin digutenak. Inor gutxik hartu eta landu nahi dituenak. Eliza erdaldun atzerakoiarekin lotzen dira gehienetan, aurreiritziak jota. Bitartean, unibertsitate publikoetan, Erlijio Zientzien edo Teologia sailik ez dugu, erlijioaren fenomenologia, liturgia, literatura eta historia naturaltasunez azter ditzagun. Jorge Oteiza, Xabier Lete zein Xalbador han ere azter ditzagun. Baina horri jaramonik ez, nazkatuta gaudelako. Horregatik, gure herriak elkarrizketa sakona behar du, gure ustez. Bizipenetatik sentitu, adostu, pentsatu eta kontenplatu. Eta transzendentziara irekidura, espiritualtasuna eta erlijioa ezinbesteko gai izan beharko lirateke, elkarrizketan behintzat.

### *Antropologia eta demokraziaren eraberritzea*

Euskal Pizkundea, esan bezala, mugimendu osoa izan zen. Arlo guztiei heldu zien, eta Euskal Herrian erakunde administratibo eta juridiko propioak izan ala ez, herriarentzat pertsonan eta komunitatean oinarritutako pentsamendu antropologiko, sozio-

politiko eta ekonomikoa garatu zituen, herri-ondaretik hartuz eta garai modernoetara eguneratuz. Zientzia, kultura, erlijioa, politika… gizakiaz eta herriaz dauden usteen eta jakintzaren gainean eratzen dira, eta, hortaz, sakoneko maila horiek ezinbestekoak izan ziren Pizkundeak sustatutako berritze-osabidean. Hori dela eta, norbanakoa eta taldea biltzen dituzten eremuak nola josi eta eraberritu ziren aztertzea ezinbestekoa da. Hau da, mundu garaikidean ondo mugitzeko, ezagutza eta gertakizun berrien eta herri-jakintzaren arteko sintesia nola lortu zen Pizkundean. Sakoneko azterketarik ez dugu egingo hemen eta orain, baina gaiaren erakusle eta azterbide direnak aipatuko ditugu. Horretarako, Gasteizko Euskal Eskolako adibide esanguratsu batzuk erabiliko ditugu.

Gasteizko Seminarioan, *Gymnasium. Revista bimestral de iniciación científico-literaria de los seminaristas de la Diócesis de Vitoria* (1927-1932) eta *Idearium. Revista de investigación y síntesis de ciencia religiosa* (1934-1935) ikasle-irakasleentzako aldizkariak indarrean egon ziren Pizkundearen azken urteetan. Bi-biak Barandiaranek sortu eta zuzendu zituen, garaiko seminarioetako prestakuntza ertarotarra eta mundu garaikideari bizkar-emana osatzeko asmoz; hau da, apaiz izango ziren ikasleak sasoiko errealitate zientifikora eta sozio-politikora hurbiltzeko helburuz. Xede berarekin eratu zuen ataundarrak, Lekuona eta besterekin batera, Lyceum Cassiciacum taldea 1924ean.

Barandiaran apaizgaitegiko errektoreorde izan zen 1920-1927 eta 1930-1936 artean, eta errektore 1927-1930 artean, eta, han bertan, 1921ean, Sociedad de Eusko-Folklore, eta haren hileroko 4 orriko sorta eta *Anuario de Eusko-Folklore* agerkaria eratu zituen. Baina 1925ean horiek Seminariotik ateratzera behartu zuten maisua. Gasteizko Escuela de Artes y Oficios eta Eusko Ikaskuntza erakundeen babespean ekimenei leku aurkitu ondoren, 1927rako *Gymnasium* argitara ekarri zuen, eta hura itxi eta gutxira, 1934rako, *Idearium*. Seminarioko guztiak, aldiz, ez zetozen Barandiaran eta haren adiskideen berrikuntza pedagogikoarekin bat, baina ataundarrak bidea argi zuen, eta ez zen inoiz kikildu. Euskal Eskola baitzegoen jokoan.

Pentsamenduaren garapenaren onerako Barandiaranek eta haren ingurukoek eskainitako lanari gure herriak ez dio oraindik neurria ondo hartu. Izan ere, sasoi berean, Euskal Pizkundearen

agerkari zuzen zen *Yakintza. Revista de cultura vasca* (1933-1936) indarrean zegoen, Euskaltzaleak taldeak sortua eta Aitzolek zuzendua. Urteetan bat etorri ziren *Yakintza* eta *Idearium* agerkarietan, historia, zuzenbidea, artea, zientzia eta literaturaren ondoan, pedagogia eta gizarte gaiak landu ziren, ikuspegi kristau irekiz. Hezkuntzaren eta soziologiaren eremuan egindako ekarpenak aurrerakuntza izugarria izan ziren. Kristautasuna Espainian itxia zen garaian, Frantzian sortu ziren haize berriak –Jacques Maritain, Emmanuel Mounier, azken horrek 1932an sortutako *Esprit* aldizkariaren eta *La Vie Espirituelle* agerkariaren gaiak, besteak beste– euskal ondarearekin batera landu ziren, eta proposamen oso iradokitzaileak egin zituzten.

Hala, Europako pertsonalismo, ikerketa zientifiko, tradizioaren azterketa eta modernitatearen aurrean posizioa hartzearen artean, euskal pentsamenduak garapen aberasgarria izan zuen. Eta gai horietan, esandako lerroetan, sintesiak eskaini zituzten lumetako askok bai *Yakintza*n, bai *Idearium*en sinatu zuten. Hau da, argi eta labur esan dezagun: Pizkundearen ur zabaletan, kristau pentsamendu aurreratua zegoen, eta horren eragiletako batzuk Gasteizko Seminarioko pentsalari finenak izan ziren, hausnarketarako patxada eman zezaketen liburuen, agerkarien eta prentsa-testuen bidez.

Bi adar ondo azpimarratu behar dira, hortaz. Alde batetik, buru argi haiek Eliza Katolikoaren erreformaren aldekoak ziren. Abadetzaren helburuak garbitu, landu, trebatu, egin behar zirelakoan zeuden: apaiza santutasunera eta herriaren baitara eraman. Bestetik, euskaltzaletasuna eta ezker begirada batzen lehenak izan ziren. 1936 aurretik, Gasteizko Euskal Eskolak egindako proposamenetan baino ez dugu halakorik aurkituko. Eusko Ikaskuntzan karlistak eta abertzaleak zeuden, euskaltzaleak, baina sozio-politikan eskuindarrak zirenak.

Apaiz haien bidez, hortaz, Eliza Katolikoaren eraberritze betean, Gasteizko Seminarioak ere bere ekarpena egin zion Euskal Pizkundeari, eta pentsamendu antropologiko, sozio-politiko eta ekonomikoak ez zuen transzendentziaren dimentsioa galdu. Horren erakusle aztertuko ditugun 1935eko bi testu eta 1933ko idatzi bat dira. Ikusiko dugunez, testu horien arnasa bat eta bera da.

1) Lehena Barandiaranena da, “Ideas y hechos de nuestro ambiente”. *Idearium*en idatzi zuen gehienetan, izenburu hori eman zien bere artikuluei, eta haietan sasoiko ohiko egunkarietan agertzen ziren adierazpenak jaso eta iruzkindu egiten zituen; hemen aipatuko duguna aldizkariko 6. zenbakian idatzitakoa da. Horren bidez, dimentsio antropologikoari helduko diogu.

2) Bigarrena Andres Eliseo Mañarikuarena da, “Democracia vasca”, 1935ean Gasteizko Seminarioko teologia ikasle zela jositakoa. Horren bidez, dimentsio sozio-politikoari oratuko diogu.

3) Hirugarrena Juan Thalamasen “El solidarismo cristiano” da, Donostiako *El Día* egunkariko 1933ko urriak 14an emana. Gasteizko Seminarioan Barandiaranen lankide eta Mañarikuaren irakasle zenaren testu horren bidez, dimentsio ekonomikoari eutsiko diogu.

Testu horien bitartez, beraz, Euskal Pizkundean euskal apaizek Euskal Herritik eta Euskal Herrira garatutako giza eta gizarte pentsamendua ikus daiteke, mundu garaikidean esanguratsua eta aberasgarria izateko asmoz, Elizak egindako gogoetarekin eta ekarpenarekin bat. Beste era batera esanda, eta Gasteizko Euskal Eskola legez izendatu duguna uler dezagun, Euskal Pizkundearen mugimenduan ari zen Seminarioko taldearen bidez, euskal jakintza pentsamendu garaikide bilakatzen ari zen. Hau da, maila landutik herriaren onerako egindako gogoeta-proposamenak dira harenak, apaiz eta euskal sena zituen on Jose Marik Pizkunde mugimenduaren alde sakonenentzat eta aberatsenentzat har zitzakeenak.

## Barandiaranen adibidea

Barandiaranen “Ideas y hechos de nuestro ambiente” testutik hiru pasarte ekarriko ditugu hona. Lehenak koordenada antropologiko handienak azaltzen ditu:

> Para saber, pues, qué conducta debe seguir el hombre en este mundo, se precisa conocer el fin para el que se halla destinado, o el plan a que obedeció su aparición sobre la Tierra. El ideal humano está en ajustar la vida a ese plan. Todo lo que sea apartarse de él es deshumanizarse […] El plan surgió exclusivamente del entendimiento y de la libre voluntad de Aquel que hizo al hombre. He ahí, pues, como la *religión*, es

> decir, el reconocimiento de que el hombre depende de un Ser inteligente y libre, extramundano, superior y anterior al género humano, principio y fin de todas las cosas, viene a ser la norma natural de toda actuación humana, y sirve, por lo tanto, de base al orden moral. Sin esto no tiene sentido la vida. Y solo a la luz de ese reconocimiento o religión puede y debe, no solo desarrollarse, sino también valorarse la conducta del hombre. Quien procede de otra suerte, marcha al azar, sometido a las mil sugestiones que le harán cambiar de ruta en cada momento (54-55).

Ataungo semearen esanetan, ezinbestekoa da gizakiaren dimentsio transzendentea kontuan hartzea. Hau da, zentzuaren eta misterioaren eremuan, gainerako izakiekin legez, gizakiaren koordenadak ezagutu egin behar dira, unibertsoa kosmostzat, asmo jakina duen kreaturen arte-lantzat, har dadin. Era horretara, gizakiak bere eginkizunak eta itxaropenak egunerokotasun eta ikuspegi historiko sekularretatik harago zuzentzen ditu, eta gizatasunean irabazi. Baina sakontasun hori galduz gero, deshumanizazioaren bidea irekitzen zaio. Hots, irizpide antropologikoa da gizakiaren arlo espirituala lantzea, eta misterioaren uretan igeri egitetik ikasitakoa kontuan hartzea, gizatasun maila jaitsi ez dadin.

Erlijioa, ondorioz, eta lehenik eta behin, gizakiak bere txikitasuna eta dependentzia aitortzea da. Barandiaranek herriaren ahotatik behin eta berriz jaso bezala: *ez gara gure baitakoak*. Izan ere, gizakia eta mundua baino gehiago den iturriaren aitormena oinarri-oinarrizko urratsa da, ordena morala ere bertatik eratortzen baita. Ikuspegiak apaltasuna badakar, duintasuna eta komunitategintza irizpide izango dira, eta, ebanjelioaren argitan, aberastu egingo dira.

Ezin interesgarriagoa da Barandiaranek izaki eta gizaki ororen iturri den Izakia aipatzen duela. Ez du ile-zuriko gizon haserrekoiaren trazarik erakusten, misterioaz hitz egiten baitu, hizkera zientifiko-filosofiko lausoan. Gainera, gizakiaren jarrerak eta jokabideak bihotzaren irekiduraren araberakoak direla iradokitzen du. Hala, misteriora irekita egotea ezinbestekotzat jotzen du, eta esku-esku dagoen ordena gainditzen duen geruza transzendentearen arabera aritzea hil-bizikoa dela dio, gizakiak bere alderik onenak landu eta dirdiran irabaz dezan. Hurrengo pasarte honetan, bide horretatik urruntzeak zer dakarren azaltzen du:

> La impasibilidad ante un ideal de perfección colectiva se compagina mejor con el materialista y el hombre sin religión. Si nada se ve, ni se espera nada, más allá de los bordes de esta vida; si el ser humano es resultado efímero de una conjunción azarosa de elementos cósmicos, con un alma para soñar y una vestidura carnal para apetecer, pero sin responsabilidad ni trascendencia de orden superior, ¿por qué esforzarse en trabajar, por qué sacrificarse, por qué perseguir la consecución de una felicidad que nos trasciende o de un bienestar que no está a nuestro alcance? Entonces no se trata de ser útil a los demás. Lo que importa es vivir la vida. Pasar los fugaces instantes de este mundo lo más alegremente posible (60).

Misteriora irekitako ortzi-mugen baitan, gizabanakoa norberarentzat aski ez dela aditzean, giza jokabideak irabazi egiten du: gizabide bihurtzen da. Bestela, norbera ez den beste inoren edo ezeren alde nola egin, horretara deitu egiten duen sakontasunik gabe? Gizabideak harremanak sustatzen eta zaintzen ditu: nor bestearen baitara heltzea eta hura betetzea, bestea norberaren baitara sartzea eta hura osatzea, *ez garelako gure baitakoak*. Baina ezer handirik itxaron ezin badaiteke, munduan misteriorik edo gizakiaren ongizatea gainditzen duen zentzurik ez badago, nor bere baitara mugatzen da, eta hustasun hori ezin daiteke gauza mundutarrekin bete eta asetu.

Hori dela eta, gizakia harremanetara irekita dagoela ondo josi ostean, begi hutsez eta barne begiz ikusten diren lagun hurkoak hurbil behar dituela adierazi ondoren, orduan bai, orduan Barandiaranek bide jakina proposatzen eta defendatzen du: kristaubidea.

> Es indudable que el cristianismo procura el mejoramiento del individuo, enseñándole a imitar a Cristo. E invitándole a que de este modelo y de este ideal haga el norte de su vida. Pero no se imita a Cristo, si no es inmolando cada uno, por amor de Él, sus comodidades y sus gustos particulares en aras de la comunidad amando al prójimo y sacrificándose por él, es decir, procurando el bienestar de todos. Este es el medio, el camino que ha de recorrer el cristiano. El fin es otro: la posesión del Sumo Bien que es Dios. Y esto se realiza en la otra vida. Por lo tanto, nada más ajeno al pensamiento cristiano que habilitar y equipar el mundo para una organización dionisiaca como si aquí acabase todo. El cristianismo, pues, es eminentemente individualista, en cuanto presenta a cada individuo un problema

> que resolver y un asunto exclusivamente personal. Desarrolla y eleva la personalidad del hombre; pero vinculándole a la comunidad, haciéndole solidario del cuerpo social (62).

Ataundarraren hitzetan, kristaubideak bi alde ditu: gizabidea eta Jainkobidea. Bi-biak batera doaz. Bata ezin da eman bestea barik. Biak ala ezer ez. Biak benetan ez badaude, ustez egiten den bietatik bakarra antzua da. Norbera hustu egin behar da norbera ez denaren alde, bestearen argia norbere baitara hel dadin eta su egin dezan. Horrek zentzu transzendenteko taldea egiten du, eta norbera aberastu, nork, bere baitan, norbera ez dena, baina bere ere dena, aurkitzen duelako, eta barnetik ernetzen laguntzen diolako. Gure baitakoak ez bagara, besteen baitara heltzeko irekitzen bagara eta prest bagaude, geure nortasunaren iturria ezagutzeko aukera daukagu, gizabanako eta talde oso legez.

Ondorioz, antropologia eta soziologia osoetarako bideak irekitzen dira azaldutako abiapuntutik: banakoa pertsona legez har dezagun, eta taldea komunitate legez uler dezagun. Gizabanakoa ez da indibiduo bakar eta bakarti lotzen, harreman-bide baizik. Eta taldea ez da indibiduoen gehiketa, harremanen sintesi baino. Era horretara, mugimendua, joan-etorria, emaria, isuria, da ardatz eta helburu; ez, ordea, ha edo beste edukitzea, ixtea, mugatzea, azpian jartzea. Izanik izan, eta inor edo ezer ito gabe.

Hala, bizitzaren mugak nahiz heriotzaren ilundia ez dira etsigarri agertzen, eta, hortaz, amaiera itxirik bako mundu-egotaldia irekitzen da norberaren eta taldearen atarian. Eginbeharrekoa, ondorioz, ez da munduari etekina ateratzea, kontsumo material eta ospea lortzea, eta horretarako antolaketa planifikatua eta estrategikoa egitea. Misteriora irekita dagoen gizateriak ahalik eta mundurik onena bilatuko du, baina jomuga beste inon jarrita, eta gerokoaren lehen dastamena harremanen edertasunaren bidez lortuko du. Lorpen itxiekin ez, lorpen irekiekin baizik.

Barandiaranen pentsamenduan, hortaz, euskal herri-jakintzaren eta Mendebaldeko tradizioaren sintesia dago, eta norabide argia erakusten du: gizabanakoa berekoikeriatik askatzeko lanketa eta taldean toki organikoa izateko jarduna. Hori da gizabidea, misterioaren argitan helmen handiko moral eta edermen landuetarako aukera ematen duena.

### Mañarikuaren adibidea

Mañarikuaren "Democracia vasca" testuan ere taldera begirako gogoeta dago, baina beste ertz batetik. Historia juridiko-politikoari eta herri-jakintzari helduz, burujabetzaz egindako gizarte antolaketaz dihardu bertan, eta hura garaiko testuingurura eta hizkerara moldatzen du. Bost-bat pasarte ekarriko ditugu hona. Lehenak honela dio:

> Los tiempos modernos han demostrado contundentemente, con brutal contundencia de los hechos, el fracaso de la democracia jacobina […] Por otra parte, cuando volvemos los ojos al pasado jurídico vasco, encontramos que el régimen político que durante siglos ha regido gran parte de nuestro País, ha sido régimen de democracia. ¿Habremos de unir en un solo anatema de condenación las modernas democracias que tan solo trastornos han traído al mundo e instituciones tan queridas de nuestro pueblo? (191).

Frantziar Iraultzaren ondorengo demokrazia, beraz, barrabaskeria bihur daiteke, modernitateak XX. mendearen lehen hamarkadetarako erakutsi bezala. Baina bada demokraziaren aldaera onik: euskal herrietako egituraketan indarrean egon dena, egilearen esanetan. Hortaz, demokraziaren kutsua argitzea ezinbestekoa zitzaion Mañarikuari. Horretarako, hainbat aditurengana jotzen du, eta lehena Giuseppe Toniolo da, demokrazia kristauaz aritzean zehaztasunak eman zituena:

> [Toniolo] expone sus doctrinas sobre la democracia cristiana. Él distingue entre democracia social y democracia política; aquella es fruto del Evangelio, esta es consecuencia natural e histórica de la primera […] Cuando Toniolo trata de señalar ejemplos históricos que muestren realizado su bello ideal, nombra los Fueros Vascos (191-92).

Mañarikuak gogoko duen demokrazia, beraz, ez da antropologia eta soziologia sekularretatik egindakoa, jakobinoa legez, kristaua baino. Eta azken honek bi alde dauzka, Tonioloren esanetan oinarrituz: soziala eta politikoa. Lehena ebanjelioaren fruitu da, eta bigarrena haren agerpen. Hots, lehena herriaren baitako nortasuna da, begi hutsez ikusten ez dena, gizabidea bideratzen duena; eta bigarrena, toki eta garai jakinetan lortutako antolaketa, erakunde eta jardun bidez begi hutsez ikusten dena da. Euskal herrietako foruak horren adibide dira.

Mañarikuaren ildoan, hortaz, euskal herri-sena bere-berez demokrata da: gizabanakoaren duintasuna eta taldearen justizia bilatzen eta bermatzen ditu, ebanjelioaren mezuarekin bat. Eta, horrez gain, Mañarikuak demokrazia horren ezinbesteko bi beso aipatzen ditu: gizabanakoen nortasuna eta erabakitzeko eskubidea herri-erakundeetan presente egotea, eta maila politikoaren aurretik maila juridikoari eta sozialari lehentasuna ematea. Haren hitzetan:

> Los modernos juristas exigen dos elementos esenciales a toda verdadera democracia: representación popular en los organismos públicos y predominio del orden jurídico y social sobre el orden político (192).

Ñabardura oso garrantzitsua egin beharra daukagu orain: Euskal Herriaren berezko izaera lehenik eta behin demokrata eta ondoren kristaua izatea baldin bada –Mañarikuaren esanetan, gogora dezagun–, edozein ideia sozial-kristauk ez du balio Euskal Herrirako. Hau da, Elizaren doktrina soziala, edozein erregimenetan erabil daitekeena, ez da, bere horretan, baliagarria, Euskal Herriak demokrazia eskatzen duelako. Orduan baino ez du ebanjelioaren argiak balioko. Xehetasuna garrantzitsua da, diktaduretan ere balio baldin badu, Elizaren doktrina soziala ez delako, muinean, eraldatzailea, gozogarria baino. Zainketa aringarria, paliatiboa; hau da, paternalismoa.

Hori gogoan izanda, hobeto ulertuko dugu, bere testuan, Mañarikuaren eginkizun nagusia aipatutako bi baldintza horiek Euskal Herriko historian aztertzea dela, herrialde eta garai modernoko gizaldi guztietako adibideen bitartez. Eta datuak argudio egin ondoren, testua biribiltzeko, adituengana jotzen du berriz ere bilbotar historiagileak, eta Euskal Herriaz bidaiari peto birengandik jasotakoa aipatuko dugu bukatzeko. Lehen iturria Charles Thierry-Mieg frantziarraren 1868ko hitzak dira:

> Dondequiera se ve predominar lo que llamaremos descentralización, el *self government*, es decir, el gobierno del individuo por el individuo, del pueblo por el pueblo, del distrito por el distrito, de la provincia por la provincia. Este régimen fortificante aumenta la responsabilidad de cada uno, mantiene su espíritu fuerte e independiente, asegura el desarrollo completo del hombre […] Ese desarrollo de la fuerza y la dignidad humana tienen naturalmente por consecuencia el trabajo, la virilidad, la perseverancia y por resultado la

> prosperidad del individuo y la prosperidad del país entero (218).

Euskal tradizioko demokrazia, beraz, gizabanakoaren erantzukizuna indartzeko egitura zen adituaren arabera, nor bere erantzule izateak gizatasuna hobetzen duelakoan. Hala, giza gaitasunaren eta duintasunaren lanketak ondorio zuzenak ditu; lanaren kontzientzia eta haren bidezko banako eta taldeko garapena, besteak beste. Azalpen horrekin bat dator bigarren iturriarena. Wilhelm von Humboldt prusiarraren 1801ko hitzak dira honakoak:

> Vizcaya es el único país que he visto en que la cultura intelectual y moral sea verdaderamente popular, en que las primeras clases de la sociedad no se hallan separadas por una distancia, por decirlo así, inmensa, de las últimas; en que la instrucción y luces de aquellas han penetrado al menos hasta cierto punto en las últimas y en que la hombría de bien, la franqueza, el inocente candor de estas no es extraño a aquellas. En esto se halla sobre todo el atractivo que para mí tiene este país. Allí se ve verdaderamente una nación; la fuerza, el movimiento, hasta la forma general del carácter viene de la masa y no es sino cultivada y refinada por los individuos a quienes su posición personal ha puesto en situación para hacer progresos más rápidos. En casi todos los otros países el pueblo no es sino una masa inerte (219).

Euskal Herriko –gogoan izan Bizkaia orduko izendapen orohartzailea dela– gizarte mailen artean batasun handia dago, izan ezagutzan, izan jarreran, eta hori da nazio baten benetako erakusle: mailen arteko koherentzia, joskera, herri bat eta beraren onerako. Hala, jendearen gehiengoa landua da, eta ekarpen aberasgarria, garrantzitsua, egiten du herrian. Hau da, zenbat eta gizabanako gehiago gizabidean ibili, orduan eta herrigintza hobea.

Barandiaranen eta Mañarikuaren testuetan, Arizmendiarrietaren pentsamenduaren eta eragiletzaren oihartzun handiak daude, baina, horrez gain, haren izanaren eta ibilbidearen osotasuna ulertzeko gakoak ere. Gizakiaren duintasuna, gizabidea, apaltasuna, misteriora irekidura eta haren ulermenerako jarduna, Jainkobidea, demokrazia, nazioa… Euskal Pizkundearen sakoneko uretako gaiak direla ulertuta, 36ko gerra aurreko eta osteko Arizmendiarrieta interpretatzeko eta geure egiteko ikuspegi egokia daukagu. On Jose Mariren bizitza eta ekimen guztiak, beraz,

Pizkundearen mugimenduaren argitan ikusi behar ditugu. Horixe da gure bidea.

### Thalamasen adibidea

Thalamasen "El solidarismo cristiano" testua Barandiaranen eta Mañarikuaren testuen taupada berekoa da, eta haietan esandako ideiaren batzuen sintesia nabari daiteke. Idatzi laburra da, irakurle ugari zituen eguneko prentsarako egina, eta Gasteizko Seminarioko irakasle ere izan zen Joaquin Azpiazu, apaizaren izaera sozialaz asko idatzi zuena, bitan aipatzen du. Testutik lau-bat atal ekarriko ditugu hona, eta lehenak, testuari hasiera ematen dionak, modernitatean garatutako hirugarren bidea kokatzen du:

> Sabido es que el socialismo se presenta como un enemigo del liberalismo individualista; frente al optimismo del orden natural económico propuesto por el liberalismo, el socialismo se alza con su intento de anular toda iniciativa individual en provecho exclusivo de la colectividad. El liberalismo y el socialismo, por sus posiciones exclusivistas, constituyen los extremos en medio de los cuales, como solución adecuada, se presenta el solidarismo cristiano.

Modernitatea, munduaz haraindiko errealitateari bizkar emanda, mundu honetan ahalik eta garapenik eta ongizaterik handienak garatzeko aroa eta proiektua da. Zientzia eta teknologia tresna lagungarritzat dauzka, eta ildo ideologiko jakina hartzen du tokian-tokian. Ideologia nagusiak liberalismoa eta sozialismoa dira, eta bi-biak anarkiaren edo diktaduraren autoritatera hurbil daitezke. Bata bestearen muturrean kokatzen diren ideologia bi horien eta autoritate bi horien artean, solidaritate kristaua ageri da Thalamasentzat, erdiko aukera orekatu legez. Autoreak honela zehazten du:

> El liberalismo solo tiene en cuenta el factor individual del hombre; en cambio, el socialismo aparta de su vista esa consideración para establecer un sistema económico fundado exclusivamente en nuestra naturaleza social. El solidarismo cristiano, a su vez, trata de establecer un orden económico cuya base sea la doble naturaleza individual y social del hombre. El solidarismo es antiindividualista y antisocialista; pero al mismo tiempo es esencialmente personalista y social.

Solidaritate kristauak Mendebaldeko zibilizazioaren iturrietan pertsona eta komunitatea aurkitzen ditu, eta mundu garaikidera egokitu, gainerako proposamen politiko-kulturalekin elkarrizketan sendo egon dadin. Bere indar handiena transzendentziaren ezagutzak eta haren araberako hausnarketak osatzen dute. Hala, bizitza eta pentsamendu espiritual sakonak ezinbestekoak dira, modernitateak eratutako munduan eta ekarritako erronken aurrean, gizabanakoaren eta taldearen bere-berezko duintasunaren alde lan egin dadin:

> La consecuencia más inmediata del solidarismo es el derecho que tienen los hombres de poder constituir instituciones humanas correspondientes a cada una de las manifestaciones naturales de nuestra actividad de hombres […] Las sociedades naturales como la familia, la religión y la corporación profesional, están llamadas a desenvolver en el futuro orden jurídico funciones de suma importancia para poner un freno a las intromisiones marxistas o fascistas del Estado moderno, y valorar en su máximo grado el contenido íntegro de la personalidad humana. El Estado no es el creador, sino el guardián del derecho […] Por eso, todos los que en la actualidad tratan de reorganizar la vida social fuera de los cuadros estrujadores del liberalismo o del colectivismo, son hombres que viven una vida espiritual auténtica y profunda.

Izpiritu landua izatekotan, gogoeta sakon egin behar da, eta, arazo modernoen izaera ulertzekotan, joera modernoak baino harago ikusten jakin, mundu modernoaren jaiotzarako ezinbesteko izan ziren epaien zauriak aurkitu arte. Izan ere, aplikazioen ondorengo azaleko arazoak albora utzita, modernitatearen erroko arazoak ez dira bere ideologietan aurkitzen, modernitateari bide eman zion pentsamenduan baizik. Eta bertan, misterioa, mundua eta gizakiaren ulermen xeheak daude. Horregatik, Thalamasek Raymond de Becker-en 1932ko *Pour un ordre nouveau* liburutik atal hau hartuz bukatzen du artikulua:

> Resulta, por lo tanto, pueril querer hallar el remedio de la crisis en el individualismo o en el colectivismo. Hay que subir más, hasta poder discernir las causas humanas que la han provocado. "La crisis está en el hombre", escribía recientemente Thierry Maulnier, y esta frase implica la necesidad de una nueva

> formación religiosa y la creación de un orden nuevo que tenga su origen y su razón de ser en el hombre.

Muinean, gizakiaren ulermenaren krisia dago. Hori da osabidean jarri beharrekoa. Horretarako, erlijio-jakintzaren eraberritzea behar da, eta gizatasuna transzendentziaren edo misterioaren argitan behatu. Ordena berria kosmos berria baino ez da; antzinakoa galdurik, antzinakora itzuli gabe, antzinakotik hartuz, eta mundu garaikidea ukatu barik. Ordena berria sintesi berria da.

* * *

Barandiaran maisu zuen Gasteizko Seminarioak, pentsamendu, erakunde eta ospakizunetan kristau argiak atzera egiten zuela ikusirik, Elizak mundura hurbildu, hura ulertu eta hari ekarpenik egiteko zeuzkan beharrizana eta helburua ondo bete zituen. Euskal Pizkundearen sasoi betean. Misterioaren ezagutza eta espiritualitatearen lanketa maila gorenean lortzea zen Gasteizko seminaristen asmoa, eta gizartearen zerbitzurako ondo prestatu. Hala, modernitatearen erroko arazoak nola konpon daitezkeen landu zuten, eta horiek Euskal Herrian behar zuten artikulazioa garatu. Horretaz arduratu zen taldea izan zen Gasteizko Euskal Eskola deritzoguna.

Esan bezala, gizakiaren eta haren eginkizun eta eraketa ororen dimentsio transzendentearen aldeko proposamena mundu garaikideko eztabaidetarako prestatu zuten. Antolaketa sozio-politikorik eta autoritaterik argiena demokrazia kristaua dela ebatzi zuten, eta gertaketa ekonomikorik eta ideologiarik orekatuena solidaritate kristaua dela adierazi. Argi izan behar dugu esandako hori ez dela XX. mendean alderdi demokristauek egindako ibilbideekin nahastu behar.

Arizmendiarrieta Gasteizko Seminarioko eta Euskal Pizkundeko unerik goreneko ikasle izan zen. 36ko gerrarako, on Jose Mari izango zenak bere gogorako oinarri guztiak zeuzkan. Bere pentsamendua ez zen Arrasaten sortu, garatu eta loratu baizik. Era berean, ez ziren Arizmendiarrieta bi egon, Arrasatera heldu ordukoa eta heldu ondorengoa. Giroak izan ziren aldatu zirenak, pertsona ez. Pertsona egokitu egin zen. Orain, esandakoak esanda, bere biografia ulertzeko une hobean gaude.

## 1.2. Arizmendiarrietaren biografia

On Jose Mari izango zena Markinako Iturbe etxean jaio zen, Barinaga auzoan, Jose Luis Arizmendiarrieta eta Tomasa Madariaga gurasoen altzoan, 1915eko apirilaren 22an. Baserri giro betea ezagutu zuen umeak: sasoian sasoiko lan handiak, eta urtaroekin eta zeru-lurrarekin bat bizia zen kristautasuna. Gainera, aita abertzalea zen, eta ama, otoitz-zalea. Haiengandik eta inguruko komunitatetik ortzi-muga sakonak zituzten morala eta erlijioa hartu zituen, eta gizarteari on egiteko arloak jorratzeko asmoa bereziki erakargarria zitzaion. Izan ere, hiru-bat urte zituela, etxeko atarian erori eta ezkerreko begia galdu izanak ez zituen haren izaera eta adorea inoiz mikaztu. Alderantziz, barne-ikusmena areagotu egin zitzaiola esan genezake, bai gertakizunetan, bai pertsonengan irakurtzeko gaitasun handia izan baitzuen.

Gogoetazale eta eskuekin trebe, lau anai-arrebetan lehena izan zen Jose Mari, premu, eta 12 urterekin sorotan eta aziendatan ugaria zen Iturbeko etxejaun izateko eskubidea albora utzi zuen, seminarioan haz zedin eta apaizbideari ekin ziezaion. Barinagan bertan Mariano Kareaga maisuarekin eta Patrocinio Uranga andereñoarekin, Bizkaya'ren auzo-ikastolan, lehen eskolak hartu zituen.[1]

Gero, oinarrizko ikasketa haien ondoren, lehenik eta behin, 1927an, Gaztelu-Elexabeitiako seminario txikira joan zen, Artean, humanitateak ikastera, eta ondoren, 1931n, Gasteizko seminario nagusira, ikasketa klasikoak amaitu eta filosofian eta teologian trebatzera. Ikasketa-bide hartan, berezko euskal hizkuntzaren eta kulturaren lanketa baztertu behar izan zituen, harik eta Gasteizen Joxe Migel Barandiaran, Manuel Lekuona eta haien kideen eskolak hartu arte. Hala, aipatutakoak eta Juan Thalamas, Leoncio

---

[1] Ziur-ziurrenik, sasoi hartako andereño petoez heldu zaigun oroimen zabalari jarraituz, erdara ez zen han haserre eta zigor bidez irakatsi, euskararen bidez baizik. Hori, egun, nekez uler daitekeen zerbait da, herriko seme-alaba kopurua txikia dugulako, eta ikastola asko iparra edota giharra galduta daudelako. Euskal nortasuna eta bizitza nagusi eta gidari izanik, beste hizkuntza eta kultura batera irekitzea, eta horiek euskaraz bereganatzea, ederra da. Horregatik, Primo de Riverarekin eskola kurrikuluma gero eta lehorragoa bihurtu bazen ere, herriko alabak ziren andereño haiekin ikasitakoek eztizko oroitzapenak gordetzen zituzten.

Arabiotorre, Joaquin Goicoecheaundia, Eduardo Ezkartzaga eta Eustaquio Agirreurreta irakasle eta gidari izan zituen, besteak beste.

Jakintzaz, ekarpenez, ikasketaz eta izenez Europan ondo aberatsa zen Gasteizko Eskolan, Arizmendiarrietak bere pentsamendurako eta gogorako oinarriak ondo jarri zituen. Jesukristo eredu, apaiz izateko uretan ondo murgildu zen, Euskal Herriaren zapalketaren eta haren tradizio propioaren jabe egin zen, eta Elizak herritik gertu bizitzeko eta gizarteari laguntzeko daukan eginbeharra bere egin zuen. Misterioaren ezagutza eta haren araberako munduaren hobekuntza bizitza osoan lan-lerro izango zituen Iturbeko semeak, orduko sasoian Aritzmendi-Aŕieta'tar Joseba Mirena sinatzen zuenak.

Giro hartan, apaizgai zen mutikoak "apaiz erabat eta beti, guzti-guztian apaiz" izango zen on Jose Mariren bidea aurkitu zuen. Izan ere, errotik moztu orduko, Gasteizko Eskolan ikasi zutenak, bakarka eta isolaturik hartu ezean, ez ziren salbuespen izan. Nork bere bide eta ekarpen ordezkaezinak egin zituen, baina izpiritu berekoak ziren: apaiz, eta norbanakoa edo norbanakoen gehiketa baino handiagoa denari emanak, kultura eta giza gaietan. Era horretara, ordainik bilatu gabe, guztiz ematen diren Jesukristoren eta Mariaren ereduei heldu zien Arizmendiarrietak.

36ko gerraren hasierak Markinan hartu zuen, oporretan, Jose Mari. Gasteiz hasieratik frankisten esku zegoen, eta argi zeukan Seminariora ezin zela itzuli. Markinako giroa, gainera, etxetik hasita, abertzalea eta kristaua zen. Hala, Euzko Gudarostera batu eta, ikusmen urritasunagatik eta euskaltzaletasunagatik, Bilbon aritu zen, euskara hutsez lehena izan zen *Eguna* egunkarian; baita *Gudari* aldizkaria eta *Euzkadi* egunkarian ere. Hala, Euzko Jaurlaritzak jasotzen zuen informazio asko eta asko gertutik ezagutu edota zabaldu zuen.[2]

---

[2] *Eguna* 1937ko urtarrilaren 1etik ekainaren 17ra egon zen indarrean, eta 139 zenbaki egin zituen. Kardaberaz Bazkunak legez, egunkariak jarraipena izan zuen gerora: 1986an, 1990 arte, Luis Alberto Aranbarri *Amatiño*ren eskutik. Kazetak euskara hutsez jarraitu zuen, *katea ez da eten* lemarekin eta 140. zenbakiz. Baina 1980etan euskara hutsez hainbat ziren agerkariak. *Eguna* 1937an amaitu zen behin betiko.

1937ko ekainaren 19an, ordea, tropa frankistak Bilbora sartzearekin, Arizmendiarrietak ihesari ekin zion. Lazkaoraino heldu ondoren, Markinara jo zuen, eta Bilbora itzuli zen gero. Han harrapatu eta Larrinagako kartzelara sartu zuten, eta gaiztakeria gorria gertutik ezagutu zuen. Hilabete inguru egin zuen bertan. Bere aurretik eta atzetik, epaiketa zuzenik edo inolako epaiketarik gabe, asko fusilatu egin zituzten; gertuko lagunak tartean.

Gerra Kontseiluan, Arizmendiarrietari heriotza-zigorrik ez zioten eman, *Eguna*rako lan eginagatik, ordaina Euzko Gudarostetik jasotzen zuela eta *Arretxiñaga* pseudonimoa berea ez zela adierazi zuelako –izengoitiak Xemeingo elizateko San Migel ermitaren oihartzuna dakarkigu–. Elizgizona izateko bidean egoteak eta frankisten alde jarri ziren zenbait elizkide lagun izateak bere alde egingo zukeen, baina egoera latzean erabilitako saihesbide ha, agian, aska ezinezko zama zitzaiokeen bizitza osoan. Besteek betiko galdu zutena zeukan berak: arnasa bularrean, inolako merezimendurik gabe. Apaizbide garbian ari denak jakingo luke hori ulertzen.

Hala, irabazi gabe jaso egin zuen legez, hurkoaren onerako den-dena emateko eta husteko ikasketa sendotu egin zitzaion. Izpiritu-sendotze horretan, Rufino Aldabaldetreku maisu izan zuen Bergaran, Gasteiz itxita zegoela. Harengandik sakon ulertu zuen apaiza ez dela norberarentzat apaiz, hurkoarentzat baizik. Hortik eratortzen da apaizgo sozialaren ildoa: landutako arloa kultura, zientzia, ekonomia zein sindikalgintza izan, apaiza beti komunitatearen alde lanean, nekeagatik hasperen egin barik. Aldabaldetreku, gainera, frankisten aldera aldatutakoa zen, inork itxaron eta ulertu ez bazuen ere.[3] Hark apaiztasunaz, izatez eta esanez, erakus zezakeena berezia izan behar zuen, eta bihotzerako babesleku giro frankista berrian.

Heriotza aurretik kendurik, Bergarako tartea utzirik, Burgosera agindu zuten Arizmendiarrieta, 1937tik militarren hiri nagusi,

---

[3] Esker berezia zor diogu Iñaki Goioganari Alberto Onaindiaren funtsetik Aldabaldetrekutaz –eta Arizmendiarrietataz– ezer esaten duten gutunak eskura jartzeagatik. Haietan, gerra aurretik eta ostetik Gasteizko Seminarioko irakasle izandakoaz markinar nagusiak egindako soslaia adi dezakegu. Urregorrizko informazioa eta interpretazioa da bertakoa.

frankisten lerroetan lan egin zezan, artilleria kuartelean. Lan administratiboan aritu zen, ikusmen urritasunagatik, eta etendako ikasketei heldu zien, halamoduz, Ángel Temiño Saiz Burgoseko Seminarioko irakasle eta frantziskotarren liburutegia tarteko. Bergarako Seminario txiki berrian, Mateo Muxika kargutik kendurik, Francisco Javier Lauzurika Gasteizko gotzain berriaren aurrean, teologia ikasketetako bi maila gainditu zituen.

Sua bukatutakoan, Gasteizera itzuli zen, ikasketak erabat amaitu eta apaiz bihurtzeko. Ordura arte hurbiletik ikusitako eta jasandako bidegabekeriak lurra ondo goldatzeko epai zorrotza egiten duen naparra bezala izan zitzaizkion. Mina sakon heldu zen, baina fedearen argitan lur-emankor bihurtu zen. Apaiz sendo egina zegoen, eta, frankismoarekin bat atseginez jardun zuen Lauzurika gotzainaren bidez, Arizmendiarrietak ogibidea 1940ko abenduaren 21ean hartu zuen: bihotzerako ogia emateko lanbidea.

Gutxira, 1941eko urtarrilaren 1ean, mezaberria eman zuen Markinako San Pedro elizan, etxekoez eta lagunez inguraturik. Lovainako Unibertsitatera soziologia ikastera joateko eta gizarte gaietan ondo trebatzeko zeukan asmoari uko egin behar izan zion laster, ordea, Lauzurika gotzainak, Antonio Maria Ormazabal bikario jeneralaren jakintzaz, Arrasate behartsurako izendatu baitzuen, San Juan Bataiatzaile parrokiako apaiz-lagunkide; Eliz-hierarkiaren mailarik baxuena. Otsailaren 5ean heldu zen bertara, eta hurrengo egunean batu zitzaion on Jose Luis Iñarra parroko, Bovedatik hara aldatua. Haien aurreko Roberto Agirre eta Luis Dolara ordezkatu zituzten, eta biak bietara 35 urtez pastoraltzan aritu ziren, Iñarra 1976ko urriaren 2an aldare aurrean hil arte.

Berriz esango dugu: 35 urte batera. On Jose Marik egiten zuen guztiak, era batera edo bestera, haren oniritzia zeukan. 1941eko urtarrilaren eta otsailaren artean, ordea, alde handia dago. Markinako elizkizunean, apaizak, herriak eta Elizak euskaraz egin zuten; Arrasaten, apaiz berberak euskaraz isilpean baino ez zuen egingo, 1960ko hamarkadaren azken urteetan hileroko aldizkarian orrialderen bat idatzi arte.

Dena den, apaiz lanetan, on Jose Marik eukaristia eta sakramentu orotan jartzen zituen gogoa eta zolitasuna eragin handikoak izan ziren, arrasatearren esanetan. Transzendentzia iturri izan ziren elizkideentzat, eta gizarte ekimen guztietan isuria izan zuten.

Jendaurrean hitza hartzen zuenean, berriz, oratoria maila txikia erakusten zuen, baina zentzuz betetako esaldiek mami handia eman zieten entzuleei.

Ildo horretan, Jainkoaren iturriaren bitartekari lanetan, umezurtz, alargun, langabe, baztertu, tuberkulosi eta etsaikeria artean, on Jose Mari gaztetxoengana hurbildu zen, Unión Cerrajera-ko Escuela de Aprendices-eko teilapean eta Acción Católica-ko Juventud Obrera Cristiana-ko hegapean. Han-hor-hemen ekinez, 1943ko ekainean Juventud Deportiva de Mondragon eratu zuten, eta urrian Escuela Profesional-a, Viteri Fundazioan. 1948an, Liga de Educación y Cultura de Mondragon. Komunitategintzan ezagutzaz, gogoz eta izpiritu landuz arituko zirenak trebatzea izan zuen helburu nagusietako bat, gizabanako orori hezkuntza egokia izateko aukera emateaz gain.

Hala, etengabe erakundeak eratzen eta indartzen ibili zen, horien oinarri izango zirenak pertsona legez heziz eta zainduz. Bide horretan, 1952an, Escuela Profesional-aren eraikin berria ireki zuten, eta Joaquín Ruíz-Giménez Hezkuntza Ministroaren eskutik Alfontso X Jakitunaren Orden Zibilaren Enkomienda jaso zuen. Hurrengo urtean, 1953an, Asociación Mondragonera del Hogar eratu zuten. Baina on Jose Marik gizarte langintzan esandakoak eta eragindakoak ez ziren gertuko boteredunen gogoko, eta erbesteratzeko asmoa azaldu zuten. Herriaren eta Gipuzkoako gotzainaren ekimenez, aldiz, Arrasaten lotu zen, baina sei hilabetez sermoirik esan gabe.

Solidaritatea, austeritatea eta gainerakoen aldeko berezko ekimena ondo errotuta zeudela, eta indibidualismo burges, militar eta arrotza, eta urrun lotzen zen Estatuaren artean, pertsonen komunitatea eratzeko pentsamendua ondo garatuta zeukala, kooperatibismoa sustatu zuen. 1956ko apirilaren 14an, Ulgor Arrasateko lehen enpresa kooperatiboko lehen harria bedeinkatu zuen Arizmendiarrietak. Gutxira, 1957an, Escuela Profesional-eko ikasketak ofizialtzat onartu ziren; ikasleek Zaragozan azterketak egitea bukatu zen. 1959an, Caja Laboral Popular eta Servicios de Provisión Social eratu ziren.

1960ko irailean, gerora *T.U.* eta *TU Lankide* bilakatuko zen *Cooperación* aldizkaritxoari ekin zion on Jose Marik, aldez aurretik sortutako *Equis* eta *Aleluya* gaindituririk. Arrasatera heldu

orduko bere baitan jasoa zuena, hogei-bat urtez ekintza eta lorpen ezagunetan garatu zuen ordurako. Irakurketak, gogoetak, idazketak eta hitzaldiak emateak bere garapen intelektuala bermatu zuten, eta otoitzak eta sakramentuek, bere garapen izpirituala.

1965ean Escuela Profesional Politécnica berriaren eraikuntza hasi zen –abuztuaren 25ean Jesús Romero Gorría Lan Ministroaren eskutik Lanaren Urrezko Domina jaso zuen–, eta 1966an bertako ikasleek kudeatutako Actividad Laboral Escolar Cooperativa. 1968an, Politécnica zena Escuela de Ingeniería Técnica Industrial-tzat aitortu zen. Aipamen horiekin, erakundetze bidez Arrasaten egindako eta Arizmendiarrietak sustatuko lorpen handienak ezagutu ditzakegu.

Gizabidea ez galtzeko asmoz, pertsona ororen duintasuna, lanaren bidezko gizaberetzea, autoeraketa irizpide ebanjeliko gisa izatea eta bizitzari une oro dimentsio transzendentea aitortzea haren ideia gidariak izan ziren urte horietan eta gainerakoetan. Baina, kristau misterioaren argitan mundu hoberik egiteko hainbeste lanek eta nekek haren osasunean eragina izan zuten. Izan ere, erabat emateko eta husteko asmoa ondo betetzen ari zenaren erakusgarri, bere gainbeheraren sasoi berean, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren gorakada izan zen.

1968ko udaberrian, on Jose Mariren karditis erreumatikoa hasi zen. Lehen etapan, enbolia bat izan zuen, hemiplejia utzi ziona, eta lehen bihotz-ebakuntza egin zioten, balbula mitrala jar ziezaioten. Bigarren etapan, 1974ko otsailean, bihotzeko bigarren ebakuntza egin zioten, balbula mitrala berrizteko. Bihotz handi-handia zeukan, hipertrofiatua. Ebakuntza-gelan hartutako gaixoagatik, zauriak orbaintzeko arazoak izan zituen ordutik, eta Roman Balanzategi osagileak bularrean zainketak egin behar izan zizkion hil arte.

1976ko ekainean eta irailean ebakuntzak egin zizkioten osabidean jar zedin, baina gero eta ahulago jartzen hasi zen. Urteetan sendabidea beste luzatzen zen minak adorea agortu zion. Azaroaren 25ean elizakoak hartu zituen, 28an Lan Ministro Álvaro Rengifo Calderón bisitan izan zuen, eta 29an, gau euritsua hasi berritan, irakurtzen zegoela, hil egin zen. Hurrengo egunetan, hilotzaren zaintzan eta elizkizunetan, jende ugarik lagun egin zion.

2016ko azaroaren 24az gero, gorpuzkiak Arrasateko Joan Deuna Bataiatzailea parrokian daude, on Jose Mariren eliza zen tenpluan.

Urteak joan dira, eta Arizmendiarrieta ezaguna da askorentzat, ezezaguna are gehiagorentzat. Batzuek apaiza zela nabarmentzen dute, beste batzuek kooperatiben eragilea, beste batzuek euskaldun kamuts eta abertzale epela. Haren izana eta eginak era batera edo bestera azaltzen dira, arinegi, laburregi, inoiz adieraztera heltzen badira. Aldiz, bere pentsamendu, oinaze eta argibidearen sakontasuna oso gutxik ulertu eta irakatsi dute. Horientzat ez daude Arizmendiarrieta bat baino gehiago, Arrasatera heldu ordukoa eta heldu ondorengoa. Aditu haien bidetik joko dugu lan honetan on Jose Mariren gainean erabateko azalpenak eman behar ditugunean.

Izan ere, nahiz eta saiakera erara mugatuko garen, badugu gure esapidearen ardatz den tesia, aurreko atalean eratzen hasi garena: Arizmendiarrietaren pentsamenduaren oinarriak 36ko gerra piztu orduko eratuta zeuden, Euskal Pizkundearen mugimenduaren sakonean. Ondorengo bizibideak hura lantzeko eta biribiltzeko ibilaldiak izan ziren.

### *Saraspeko iturritxoa*

Arizmendiarrietaren biografia amaitzeko, haren kaieretan utzi eta ezaguna den poema eder honetan, esandakoaren taupada nabari dezakegu. Hona hemen *Saraspeko iturritxoa* olerkia, on Jose Marik 1936an idatzia, egungo grafiara egokitua:

> Saraspeko iturri jariotsua, Saraspeko mama gozoa, hiregana naiatork ene egarri bizia ito eta eztarri latza leuntzera.
>
> Ito-beharrak narakark. Ekartzak ura. Alperrik doan mama-gozo apur bat ekartzak.
>
> Eskerrik asko iturritxu; behin betiko ase nok.
>
> Iturritxu: ur piska bat. Barruko beroak eta kanpotiko sargori kiskalgarri honek erre eta hiregana naiakark egarri-minak.
>
> Behin betiko ase nindualakoan nintzoan eta lehen baino egarriago berehala; lehen baino motelago ene soinzarra. Hi ez haz hustuko eta ekartzak beste apur bat.
>
> Zurku-zurku ur-apur bat edan ostean, txaraspean kerizatan, iturri ondotxoan jarria nozu.
>
> Aterbak iturriari begira, gogapenetan garragarraka dihardut ene barruan.

> Barriro be, egarrituko ete nazan susmoz. Zer dala-eta ez ete gozak behin betiko asetzen edan ahalak edan arren be?
>
> *Omnis qui bibit ex aqua hac sitiet iterum*. Lur Amaren bihotzetik jatorkun mama honek egarbera egiten gaiozak. Malkoak be, bihotzean sortu eta begietan hasten dozak baina.
>
> Guk mama deritxogun hau malko ez al-dok izango! Ez, malko-huts ez dan arren, malko gazi egarberak bajozak nahastean mama honek baina. Zelan izan daitekeen hori? Negarrez bizi eitean ez juan Jaunak sortu izango ba Lur Ama.
>
> Ez, Jainkoak on sortu juan, baina Adanek sartu jeutsoan bihotz-bihotzean arantza zorrotza.
>
> Eta harrezkero Lur Amagandik jatorkun mamarik garbi eta gozoenak be ezin leikek gure egarririk ase, malko gazi egarriemolez nahastuta jagok eta. Gazia berez dok, ba, egarbera.
>
> Iturritxu! Orain bajakiat zergaitik ase ezin naikean; edanago eta egarri haundiagoa zergaitik sortzen daustaan, ba, bai.
>
> Lurkoi oso gazi, lurkoi oro egarbera, lurkoiok zenbat gehiago eta txarrago; noan Jainkoagana, honetxen urak ito daike ene egarri gartsua eta.
>
> *Qui autem biberit ex aqua quam ego dabo ei, non sitiet in æternum*.

Saraspeko iturria, Arizmendiarrietaren Iturbe etxearen gaineko urburua da. Ura bere bidean zelan etorri, goitik behera zerumenditik itsasora, haren etxaldea biziberritu egiten da. On Jose Marik ezagututako hori berori egin zuen bere lanean: goragotik jaso eta eman. Apaizak gizagile eta herrigile, ubide besterik ez direla baitzekien.

Poemak irudi ezagun eta sakonak dauzka: iturrira egarriz heltzen dena, edalea bera, gerizpetan ondoan atsedenean eta gogoetan lotzen dena. Iturri ondoan, eztarria busti eta gero, bere artean berbaz egoten denak askotan begitaldiak izaten ditu. Uremariaren doinuak eta zipriztinak lagundurik, ur-azaleko urbegiak eta distirak dantzan, inguruko belarrak leun eta ezti, giro ezin egokiagoa dugu barneko gogoa baretu eta nork bere baitan sortzen ez dituenak antzemateko. Ura edanberritan, uraren jario etengabearen ondoan. Guzti-guztia zeharkatu, josi eta ongarritzen duenaren argia su egin daiteke, eta ziurtasun handiak piztu. Egonharria baino sendoagoa izan daiteke iturri ondoko gogoetaldia.

Hala, on Jose Marik, begi hutsez baino, barne begiz ezagututakoaren irudi aberatsak ematen dizkigu: Lur eta haren malkoak,

Adan eta haren, nolabait esateko, ezpata. Ederra da, oso, Lurren berri hain indartsu izatea. Izan ere, egun, han-hor-hemen Amalur aurkitzen dugu, jainkozkoa adierazteko. Oker ari dira. Ama lurra herria da. Jainkozkoa, Barandiaranek ondo jaso zuen legez, Lur da; Lur Ama, Arizmendiarrietak nahi duen moduan. Eta haren negarrak garratzak dira bihotzari edatera emateko, gure mundua pekatuak oratuta dagoelako. Paradisuko jan-edanak aseko gintuzke, Jaunaren argitan, baina lur honetako Lurrenak ez.

Horren esanahia ondo aditzeko, aipu biblikoei heldu behar zaie. Latinezko lehen esaldiak Joan 4,13 lerroa osatzen du, eta bigarrenak Joan 4,14 lerroaren lehen atala, *vulgata* edizio zaharrean. Orain emango dugun hirugarren esaldi bat isilpean dago, poema bera hirugarren esaldi horren arte-ederra baita. Jesusek samariar emakumeari honela esan zion, euskaraz eta ahapaldi osoa gogoan hartuz:

> Ur honetatik edaten duena berriro ere egarri izango da; nik emango diodan uretik edango duena, ordea, ez da sekula egarri izango; zeren nik emango diodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan.

Arizmendiarrietak, beraz, poema mito-teologiko ederra osatu zuen. *Genesi*an azaltzen den erorierak eta *Joanen ebanjelio*an esaten den erosketak kristau marko aberatsa osatzen dute, eta, bertan, ohikoa den eginkizunak ditugu: egarria hiltzea, lasai hartzea eta munduaren zentzua esanahira eramatea. Euskaraz. Euskal lurretan, edo, garaiarekin bat, eta hau ezinbestekoa da Arizmendiarrieta –eta Barandiaran, eta Lekuona, eta beste asko– ulertzeko, Euzko lurretan. Eta argitzen den esanahia sustraiak dituena da. Lurrarekin bat loratutako espiritualtasun-ohikuneek Berri Onaren dimentsio transzendentea jantzirik eta herriaren magalean bildurik, haren seme petoak kulturaren arnas garbia ematen digu. Gutxitan aditzen dena.

Herriaren gogoeta geldoaren eta nasaiaren baitan ez dago kontraesanik zeru-lurren antzinako bizipen paganoaren eta kristautasunaren ortzi-mugen artean. Berriak ez du zaharra kentzen, biziberritzen baino. Baina hori jakiteko sutondoan, lainopean, iturri ondoan, egon behar da, bizitzak dakartzan poz eta tristura gazi-gozoak taldean ezagutuz. Lehenago aztertu dugun Lizardiren "Euskal Pizkundea" poemak hori erakus liezaguke.

Izan ere, Arizmendiarrietarengan legez, gizaki ororen baitan, mundu honetan ase ezin daitekeen egarria dago. Kristauak argi dio: gure egonezina Jaunak geugan piztutako egarria da, Harengana joan gaitezen, mundu honetakoa ez dena ere bila dezagun. Zentzu handia du, zalantzarik ez. Gose bagara, badago ahora zer eraman; hotz bagara, badago zer jantzi; neke bagara, badago non lo egin. Badira beharrizanak eta badira betetasunak. Hortaz, gure baitan, berez, beharrizan garbiren bat baldin badugu, horretarako asegarria dena inon dagoke, nahiz eta ludi honetan aurkitu ez.

Hau da, giza bihotzak mundu hau gainditu egiten duen doinuz aritzeko taupadak ere dauzka. Joan zaizkigunen eta maite ditugunen ondoan beti egon, geure nortasuna erabat landu, eskuz eta izerdiz egindakoa betiko zaindu… hemen egin ezin direnak dira. Baina geugan joka daude, eta zentzua iradokitzen dute. Beste era batera esanda: egarriak iturria eskatzen du, eta iturririk gabe egarririk ez dago. Azalpena, dena den, herriak era ulergarriagoan eman du: *ez gara gure baitakoak*.

Saraspeko urik gozoenak, lurraren opariri mamitsuenak, une laburrerako baino ez du balio. Hala izan behar du, Arizmendiarrietak ondo zekienez. Uraren bila aritzeak, hala beti ibili behar izateak, bere zentzua baitu: gogoa garbitzeko aukera ugari ematea. Lanaren bidez norbera ere lantzen da, nork duintasunean irabazten du.

Iturrirako joan-etorriak eta bertako egonaldiak bere zer-esana daukate. Begi hutsez ikusten ez diren horien izpiritu-geruzak nabarmentzea da apaizaren lana. Hau da, gizabideak Jainkobidera eraman dezan, apaizak lagun egiten du. Eta gizabidea bera galdu denean, galbidea bide nagusi denean, zidor ibilgarriak irekitzeko gidaria da. Horixe da, hain zuzen, on Jose Marik Arrasaten egin zuena: gizabidea itxi egin zuen sasitza kentzen ahalegindu.

Izan ere, gizabidea galtzea erraza da. Mendi, baso eta galtzadako herribideak arin galtzen dira, erabiltzeari utzi edo deuseztatu egiten direnean. Galdu eta ahaztu eskutik sendo doazen lagun onak dira. Galduarazi eta ahaztuarazi ere. Lur handiak narra egin eta gainera egindakoan legez, Euskal Herriari XX. mendeko hainbat gertakizunek eta kontrako indarrek min izugarria egin diote. Arrasateko ebakiak ondo aditu zituen Arizmendiarrietak.

Horregatik, *Saraspeko iturritxoa* poeman esandakoa on Jose Marik gogoan erabiltzea besterik ez zeukan bizitzan barrena. Jaunaren iturriaren berri irmoa zeukan hark, eta handik lortutako urak gainontzekoei edangarri egitea izan zen bere lana, bere baita-baitatik onartuta. Ona dena ere, neurri, katilu eta sasoi egokian hartu behar da, eta urte askotan aritu zen Arizmendiarrieta, esan bezala, Arrasaten: 35.

Pertsonan eta komunitatean ardaztutako hezkuntza-eredua zelan indartu, on Jose Mariren esaldiak ere aldatuz joan ziren: sakristia-zaporea melekaegia bihurtutakoan, Elizaren doktrina sozialaren aterkiak behargabeko itzala egindakoan, humanismoaren gatz gehiago eman zuen, eta kooperatibismoaren piper hautsa gehitu, ahoak horretarako prest zeudenean. Eta euskaraz, haren agerpena ongarria zenean.

Sotanak ez zuen Arizmendiarrieta apaiz egin, askotan, larregitan, gertatu izan den legez. Apaiz zen, eta horregatik jantzi zuen sotana. Gizon zaildua zen, eta horregatik, eredu: Jaunari eta herriari erabat emana. Eta are gehiago: Arizmendiarrieta euskal pentsalaria zen.

# 2.
# ELKARRIZKETAK

Ondoren, lan honen abiapuntua eta erdigunea osatzen duten bederatzi solasaldiak emango ditugu, eta han esandakoa guk geuk egindako elkarrizketa berriarekin aberastuko dugu. Multzo edo azpiatal bi erabiliko ditugu horretarako, eta haien atarian euretan hizpide izandako gaien aurkezpena emango dugu.

Jatorrizko bederatzi elkarrizketen hurrenkera elkarrizketatuaren deituraren araberako ordena alfabetikoz egin da, baina lehenengo oro har euskaraz egin ziren biak emango dira. Hurrenkera, hortaz, honakoa izango da:

1. Joxe Azurmendi
2. Felix Ormaetxea
3. Jesus Mari Arizmendiarrieta
4. Jabier Etxebarria
5. Juan Antonio Garitano
6. Jesus Mari Herrasti
7. Enrique Larrañaga
8. Pedro Mendieta
9. Jose Mari Pagaegi

Azurmendirekin solasaldia Gaizka Urrestik berak izan zuen, 2018ko haren dokumentalerako. Gainerako elkarrizketak 2021eko uztailaren eta 2022ko ekainaren artean egin zituzten Juan Karlos Mujikak eta Jokin Olaizolak; solasaldiak eurak Mujikak, kudeaketa Olaizolak.

Lehen multzoa osatu eta gero, Jon Sarasuarekin izandako solasaldia emango dugu.

## 2.1. Jatorrizko solasaldiak

Arizmendiarrieta bera edota haren lana ondo gertutik ezagutu zutenen hitza jasotzen duten elkarrizketa-testu hauek edizio lan handia eskatu digute. Ahozkoaren izaeratik ahalik eta gertuen utzi ditugu, baina idatzizkora eta gogoetaren era zuzenera ekartzeko moldaketak eginda. Hala, hizkera estandarretik at lotzen diren esanak zuzendu egin dira. Gainerakoan testu jatorra erakusten dute.

Elkarrizketatuek nabarmendutako gaiak asko dira, baina guztien artean sintesia egin eta ondorengo zortzi multzoetan eman daitezke:

1) Modernitatean mundurik desiragarriena lortzeko garatu diren ideologien artetik, Arizmendiarrietak begirada propioa izan zuen. Hau da, proposamen eta esperientzia berezia bideratu zuen on Jose Marik; "ezker diferente bat", anarkismotik gertu, Azurmendiren hitzetan. Horregatik, ziurrenik, hasiera batean, frankismoaren garai desarroilistan eratutako Arrasateko kooperatibagintza beste ezer irudituko zitzaiekeen mugimendu horretatik at egondakoei.

2) Arizmendiarrietak Arrasaten herri suntsitua aurkitu zuen, kanpotik eta, batez ere, barrutik. Garaileek botere osoa zeukaten, eta zapaltzeko erabiltzen zuten; langile industrialen estutasuna eraginez, esaterako. Indar agintariekin bat ez zetorren inolako talderik edo erakunderik ezin zitekeen egin, eta Eliza ofizialki Estatuarekin ezkonduta zegoen. Hori dela eta, on Jose Marik Elizaren teilapeko aukerak baliatu behar izan zituen, gazteak arazo sozialen konponbideetan hezitzen eta autoeratzen, eta askatasuna lortzen lagun ziezaien. Baina askatasun hori arimaren askatasuna da, hemen eta orain, lanaren humanizazioaren edo laneko gizabidearen bidez.

3) Hezkuntzaren bidez pertsona landu eta pertsonen komunitateak eratu zituen Arizmendiarrietak. Komunitateak eraldatuz, gizarteak berriztu, eta gizarteak eraberrituz, mundua osatu. Frantziako pertsonalismoaren eraginez, lanaren eta pertsonaren kontzeptuak batu egin zituen, pertsonaren eta komunitatearen garapena lan eremuan ere egin behar zelako.

Ondorengo oinarria ezinbestekoa zitzaion on Jose Mariri: pertsonak gizatasunean irabaziko du taldearen onurarako den bere lanaren jabe denean. Lanaren asmatzaile eta egile izanik, gizabanakoak lan eremuan askatasuna lortzen du, baita gainerako pertsonen eta komunitatearen garapena ere. Hala, Arizmendiarrietak dirua lortu eta norbera edota familiaren ongizatea lanaren helburu bakarra ez izateko ikuspegia zabaldu zuen. Horrek jendeari bizitzaren zentzua aldatu zion, mentalitatea zabaldu, eta lanak asmo gorenak izan ditzakeela irakatsi: laguntasuna, elkartasuna… hots, gizabidea eta herrigintza.

4) Gizabanakoa beti komunitateren batean organikoa den pertsona da. Ez da, liberalismoaren arabera, Estatuaren aurrean indibiduo isolatua, ezta, kolektibismoaren arabera, Estatuak mugitzen duen masan nahastutakoa. Muturreko aukera bi horien artean Arizmendiarrietak hirugarren bidea aurkitu zuen, eta hori ezin daiteke egin antropologia, soziologia eta ekonomia transzendenterik gabe. Hau da, kosmosaren ulermenik gabe. Eta bi-biak Euskal Herriko tradizio herrigilean –Eibarreko esperientzia kooperatiboan adibide modernoa eman zuena–, eta Elizaren doktrina sozialean daude.

5) Horren baitan ulertu behar dugu Arizmendiarrietak iraultzaren biolentzia ukatu egin zuela beti. Bat-batean Estatuaren jabe egitearekin bat ez da gizarterik eraberritzen. Horretarako urte askotako lana behar da, politikaren erritmotik at dagoen kultura, etika, lana eta gizabidearen mugimenduan. Azurmendiren hitzetan: “Berak iraultza pertsonalista bat, eta iraultza moral bat, egin nahi du, eta, beraz, kooperatibismoa biolentziaren alternatiba baino gehiago da”.

Arizmendiarrietak ez zuen sinesten biolentzia onerako erabil daitekeenik, are gehiago askatasunerako, bere terminotan, askatasuna gizabidetzea delako. Hala, indar iraultzaileen aurrean, bere jarrera uste baino sakonagoa da. Izan ere, behetik gorako urrats sendoko mugimendua da. Helburua ez da Estatua lortzea, hura eraldatzea edo desagerraraztea baizik, pertsonen eta komunitateen bidezko gizartean oinarrituz.

6) On Jose Mariren lan egiteko era sistematikoa zen. Irakurri, oharrak hartu, hausnartu eta artikulu laburrak idazten zituen etengabe, uneak eskatzen zuen gaiaren inguruan. Beti egon zen pentsamendua lantzen, errealitatea ahalik eta ondoen ezagutzen eta

hari erantzuten. Inoiz ez zuen libururik idatzi, baina askoz gehiago egin zuen.

7) Arizmendiarrietak erlijio-gaietatik eta tirabira politikoetatik asko ikasi zuen, eta esperientzia kooperatiboan partzialtasun esklusibistak sobera daudela argi zeukan. Kooperatibista izateko ez da inongo elizkide edo alderdikide izan behar. Kooperatibista izateko, komunitatearen onerako atal organikoa den eta horren kontzientzia argia duen pertsona behar da.

Izan ere, lehenik eta behin elizkideak edo alderdikideak izanik, eta gero kooperatibistak, esperientzia kooperatiboaren gizabiderik ezin da egin. Nahi izatekotan, kanpo geruzetan onar daitezke sigla jakinak, enpresatik harago, gizartean eragiteko, baina beti izpiritu kooperatiboz. Era horretan, kooperatibismoak bere habi propioa eratu zuen; 1950-1960ko Espainiaren teilatupean, baina kabi propioa. Horregatik, solidaritate kristauak gero eta hizkera eliztar gutxiago, eta gero eta hizkera humanista gehiago izan zituen, kooperatibagintza Leintz bailarako formulazioz errotzen zen heinean.

8) On Jose Mariren balioak ez dira erakargarriak gaur egungo munduan, baina, hain zuzen ere, horregatik dira garrantzitsuak. Austeritatea, solidaritatea, sakrifizioa, benetakotasuna, ohorea, santutasuna… kapitalismoak irentsi egin ditu.

Arizmendiarrietaren baliorik handienetakoa entzumen garbia izan zen. Aurretik zihoan, beti jendeari entzuten ziolako, eta beti hitzak bere baitan meditatzeko gordetzen zituelako, beharrizanei konponbidea bilatzeko asmoz. Horregatik, on Jose Mari apaiz soziala izan zen, herrian ondo sartua. Arazoak aztertzean, jendea eragile jartzen zuen, eta pertsonek arazoei taldean erantzutean, uste ezinezko bideren bat ematen zieten.

Solasaldietan garatuko diren gaien aurkezpena eginik, ondoren elkarrizketak eurak datoz:

## Joxe Azurmendi Otaegi

Zegaman jaio zen 1941eko martxoaren 19an. 30-bat urtez frantziskotarra izan zen, eta, Jakin talde historikoko kide izateaz gain, Arantzazuko santutegiarekin lotura handia du. On Jose Mari Arizmendiarrietaren gaineko lanarekin filosofian doktore egin zen EHUn, eta bertan Filosofia Modernoko katedradun izan zen. Eus-

kal Herria eta euskal kultura landua pentsamenduaren ikuspegitik luze eta sakon aztertu ditu. Egun irakasle emeritua eta ohorezko euskaltzaina da.

Elkarrizketa Gaizka Urrestiren 2018ko A*rizmendiarrieta. El hombre cooperativo* dokumentalerako egin zen. Elkarrizketatzaileak galderak gazteleraz egin zizkion Azurmendiri, eta hark euskaraz erantzun. Elkarrizketa elebiduna izan zen, hortaz. Guk galderak euskaraz ekarri ditugu hona.

Javier Agirrek dokumentalerako egindako elkarrizketa-grabazio osoa ikusi eta gero, elkarrizketaren atal gutxi batzuk eman zituen, 2019/2021eko "Azurmendi Gaizka Urrestiren Arizmendiarrieta filmean" testuan.

- *Nola heldu zinen Arizmendiarrietaren gainean ikertzera?*

Ni 1977an edo 1978an etorri nintzen Alemaniatik Euskal Herrira, eta Jakin taldearen barruan aurkitu nintzen eskaini zidatela lan bat egitea, edo ikustea; Arizmendiarrietarekin zer egin zitekeen. Enkargua Arrasateko kooperatibistek emana zen. Begiratu nituen Arizmendiarrietaren materialak, idazkitxoak eta abar, eta, egia esan, ez zitzaidan asko gustatu, eta, baita ere, egia esan, aurretik ez neukan oso iritzi positiboa Arizmendiarrietari buruz-eta, entzuna nuenarengatik.

Baina nahiko harrituta gelditu nintzen Arrasatetik enkargua eman zidatenean, bada, egiteko estudio bat, Arizmendiarrietari buruz, eta horrela hasi nintzen sistematiko. Ez azaletik bakarrik, bere idazki guztiak lantzen baizik. Kooperatibistek Arrasateko gela batean pilatu zituzten kajak hustutzen, hango materialak biltzen eta ikusten, gerra garaitik hara, dena. Material asko zeukaten bilduta kooperatibistek, eta, nire harridura handirako, deskubritu nuen gizaki benetan berri, harrigarri eta aberats bat, eta orduan, nolabait, maiteminduta bukatu nuen Arizmendiarrietarekin. Eta lan egin nuen, oker ez banago, bost urtez, eta horrela idatzi nuen *El hombre cooperativo* edo bere pentsamenduaren bilduma hori.

- *Zer interesatu zitzaizun batez ere? Zer egin zitzaizun berritzaile edo hurbileko?*

Beharbada, harritu ninduena izan zen ez zela nik pentsatu nuena. Nire belaunaldiko guztiok bezala, edo paperetan ibili ginenon bezala, bada, nik ere Marx eta Lenin eta Trotski irakurrita neuzkan,

eta ideia mundialen mundu horretan-edo mugitzen ginen. Niretzat sorpresa handia izan zen, gizon horien asmo eta ideia oso antzekoekin baino, trataera erabat diferente batekin lan egiten zuen gizon bat aurkitu nuela, eta, beraz, bere idealismoa eta errealismoa batera zirena harritu ninduen, edo laburrago esanda, aurkitu nuen ezker diferente bat.

- *Izan ere, bere pentsamendua landu zuen testuingurua 1936ko gerraostea da, baita Bigarren Mundu Gerraostea ere, eta haren bizitza frankismoa amaitutakoan bukatu zen. Hortaz, nolakoa izan zen garai hura?*

Berak Arrasaten lan egin du. Arrasate zen Gerra Zibilaren ondoren komunitate nahiko puskatu bat, gorriak eta frankistak edo nazionalak, eta bera gorrietatik zetorren; eduki zituen etsaiak ere alde horretatik.

Bera iritsi da, eta aurkitzen da Arrasate puskatu batean, sozialki erdibitua-edo, Arrasate jada orduan nagusiki nazional-katoliko batean, Elizaren potentzia handi batekin, galtzaileek ez baitaukate erakunderik. Ez dago sindikaturik, ez dago alderdien etxerik eta abar. Beraz, Elizaren eta Estatuaren presentzia Elizaren bidez aurkitzen ditu –ez da ahaztu behar Eliza katolikoa, hierarkia katolikoa, frankista zela; beharbada Euskal Herrian gutxiago, hierarkia batez ere Espainian zegoen nagusi–.

Eta aurkitzen da, baita ere, herri industrial batean, patronal katoliko, nazional-katoliko eta autoritario batekin, eta bera hasten da gazteak antolatzen, batez ere arazo sozialen inguruan. Beraz, horrela aurkitzen da gerra-ondoko giro puskatu, nazional-katoliko, oso sumindu eta gorroto askorekin familien artean, patronal gogor batekin, langileen borroka sozial batekin –gazteena, batez ere–. Hor, giro horretan, hasten da bera gazteak nolabait hezitzen eta antolatzen.

- *Nola heldu zen, giro hartan, kooperatibismora?*

Arizmendiarrieta bilatzaile handi bat izan da, eta ez da abiatu kooperatibismotik. Berak nahi du, nolabait esan, langilea askatu. Askatasunaren borrokalari bat da, ezkertiarrak bezala. Nahi du langilea askatu, hain zuzen, patronalaren prepotentzia horretatik, eta, gazteen hezkuntzaren bidez, nahi du berak lana humanizatu. Lana izango da, eta pertsona eta hezkuntza izango dira, bere

kontzeptu nagusiak. Lana humanizatuz nahi du berak komunitatea eraberritu edo eraldatu, komunitatea eraldatuz gizartea askatu, eta gizarteak askatuz mundua eraberritu.

Bere idea hori da. Berak oraindik ez du pentsatzen kooperatibismo edo enpresa kooperatiboan. Nahi du lana humanizatu eta langilea askatu, eta iristen da formula kooperatibora, beste formularik aurkitzen ez duelako egoki, bada, bere ideia horiek gauzatu ahal izateko. Eta hor gehitu behar da ideiak bereak zirela, baina gauzatzeko formula berak eta langileek batera aurkitu dutela, bere hasierako langile talde batek.

- *Egia esan, kooperatiba baino, orduko bide nagusi ziren kapitalismo eta sozialismoaren artean, bestelako biderik aurkitu nahi zuen, ekonomia eta garapena orekan izan zitzakeena.*

Bai. Bere kontzeptu nagusietako bat pertsona da, hain zuzen, eta pertsonaren bere filosofia pertsonalista da, eta pertsonalisten influentziarekin lan egingo du. Pertsonalista frantsesena, batez ere, Maritain, Mounier –gehiago daude– eta *Esprit* aldizkariaren ingurukoak, eta horiek dira batez ere eragingo diotenak.

Pertsona komunitate batean jaiotzen da, ez bakarrik, eta komunitate batean hasi eta hezi egiten da. Hain zuzen, komunitateari pixka bat lagundu egiten dio, pixka bat borrokan egin, baina elkarrekin izan. Komunitatearekin batera, beraz. Komunitateak egiten du pertsona eta pertsonak egiten du komunitatea, eta horrek balio du, baita ere, lanaren komunitatean; enpresa batean baita ere.

Hemen dago kontzeptu inportante bat eta da lanaren kontzeptuarena, pertsonarekin lotuta. Esan nahi du pertsona egiten dela, edo gauzatzen dela, giza-lanaren bitartez. Baina lana eskatu egin behar baldin badio beste norbaiti, ez da librea. Orduan oinarrizkoa da langileek beraiek sortzea beren lana, eta beraiek kudeatzea beren lana. Beraz, lanaren jabea eta kreatzailea norbera izatea, eta hori da ideia kooperatiboa. Hori da enpresa baten jabea eta langilea pertsona berbera izatea, eta, hain zuzen, pertsona bat libre izateko, lanaren jabe izan beharra da kooperatibismoaren fundamentua.

- *Nola ulertzen zuen Arizmendiarrietak gizakiaren biziraupena eta elkartasunaren arteko dialektika?*

Lehengo galderara itzuliz, Aro Moderno guztian bi pentsamendu edo bi joera nagusi mugitu dira. Alde batetik dago kolektibista, joera kolektibista –nazionalista izan litekeena, batez ere nazionalismo faszista joerakoa–, eta gero marxista, sozialista. Beste aldetik liberalismoa esaten duguna, eta gizartea eta Estatuaren bitartean ezer ez dago. Bi joera hauen kontra, hain zuzen, Arizmendiarrietaren joera inportantea da, nire ustez.

Gizakia ez da indibiduo bat, baizik pertsona bat, beti komunitate batean txertatua dagoena. Ez kolektibismoan galdu egin litekeena, eta ez bakardadean, liberalismoan bezala, gelditu litekeena. Hain zuzen, kapitalismoaren ideologiak, forma bat bezala izanez, bizi borrokaren inportantzia azpimarratzen du beti: Existentzia honetan elkarrekin bizi borrokan gaude, bizi borrokak progresua edo aurrerapena ziurtatzen du, eta gizadiaren aurrerabidea, bada, bizi borroka bitartez egiten dugu, norgehiagoka. Beraz, kapitalismoa da munduko sistemarik hoberena. Sozialismoak, alderantziz, esan nahi du –edo marxismoak– hemen denok berdinak izan behar dugu. Diferentziarik ez dago, denok masa bat izango gara, edo horrelako zerbait.

Bien bitartean oinarrizko kontzeptu arizmendiarrietarra dago. Unitatea da oinarrizko kontzeptua, eta komunitatearen barruan pertsonak. Beraz, Arizmendiarrietarengandik ni entusiasmatu nau nola lortzen duen, nolabait, bi joera kontrarioren bitartean, bide propio bat garatzeak, pertsonaren eta lanaren eta askatasunaren kontzeptuen bitartez.

- *Aukera sozioekonomiko hori sor zezan, pertsonalismoa aipatu duzu lehen, zer iturri izan zituen?*

Bai, bere iturri nagusiak. Lehenengo, tradizio kooperatibo bat bada, auzolana. Euskal Herrian badago auzolanaren –herri txikietan oraindik badagoena– tradizio bat elkarri laguntzekoa. Lehenago artazuriketan auzolan egiten zen, edo bideak egiten mendietara, eta, bueno, tradizio kooperatibo bat dago. Gero Alfa dago, inportantea, kooperatibismo industriala Eibarren.

Praktikaren aldetik, tradizio kooperatibo bat zegoen Euskal Herrian, eta, ideien aldetik, iturri inportanteak izan dira, bada, autore kooperatibista batzuk; asko ez dira. Baina Elizako doktrina soziala oso inportantea da. Gaurko Euskal Herrian, seguru asko, Elizako doktrina soziala aipatzea ez da oso polita, Elizarekiko jarrera

oso negatiboa desarroilatu da azkenengo urteetan. Frantziako, barkatu, Alemaniako, ezker alderdiko teoriko ekonomikoa Lafontaine da, eta berari entzun nion egun batean gaur doktrina ekonomiko egokiena, eta berak jarraitzen duena, Elizako doktrina soziala dela. Ez-kapitalista, antikapitalista, da, eta antikolektibista estiloan. Beraz, Elizako doktrina sozialak Arizmendiarrietarengan eragin handia izan du, eta pertsonalismo frantsesak ere bai, linea berean dihoa, ildo berean dihoa.

- *Europa Bigarren Mundu Gerratik etortzeak ere bere eragina izan zuen.*

Bai, kapitalismoak gerra darama, gerrara darama hodeiak eurira bezala. Klaro, esperientzia hori bazegoen, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, batez ere, eta zegoen, baita ere, beldur handi bat komunismo sobietarrarena, oso totalitarioa eta hori guztia. Asko erraztu zuen Arizmendiarrietaren posizioa, asko erraztu zuen munduan bi extremo horiek egoteak, berak beste bide bat hartzeko.

- *Nola egin zuen esperientzia kooperatiboa inoiz libururik idatzi ez bazuen? Nola egituratu zuen pentsamendu hori? Nola moldatu zen ideien munduan?*

Berak bere ideiak lantzeko asko irakurtzen zuen. Irakurle handi bat izan zen, eta nik, bere biblioteka errepasatu nuenean, bere lana egiteko ikusi nuen zelan azpimarratzen zituen gauzak, zer azpimarratzen zuen. Oso fina zen oharrak hartzen. Eta gero fitxategi handi bat zeukan. Holako paper txiki batzuetan hartzen zituen notak, zer irakurtzen ari zen, bada, Ecclesia aldizkariko testuetatik, liburuetatik. Zeukan sistema hori, fitxa sistema, baina pila bat zeukan horrela, eskuz idatzita, eta gero, bere pentsamenduak adierazteko, artikulu txiki asko idatzi zuen, Arrasateko, berak sortzen zituen, aldizkari txikietan. Bada, edozein motiborengatik: mutilak soldaduzkora joan zirela, edo langileak, langileen formaziorako gauzatxoak. Material asko idatzi zuen, liburu bat sistematiko inoiz ez zuen idatzi, baina, hain zuzen, harrigarriena hori da. Hainbeste material diferente bat biltzen duenean, eta dihoanean ordena pixka batekin tratatzen, ikusten da zer harrigarri sistematikoa zuen bere buruan, bere pentsamendua.

- *Lan idatzi handirik ez izateaz gain, hizlari txarra omen zen. Nola egin izan zuen bere pentsamenduaren zabalkundea?*

Nik uste dut bere dohain handi bat zela ideia handiak zeuzkala, baina hitz txikiak, eta hiztun txarra zela denek aitortzen dute. Predikazioan ere oso, en fin, eramangaitza eta aspergarria zela. Arrasateko burgesito eta burgesitek espresatzen zuten "porque no sabía ni hablar bien castellano". En fin, hori dena hor dago, baina jendeak, hain zuzen, ikusi duena da bere ideiak beti oso formulazio konkretuetan ematen zituela, erreferentzia konkretuekin, eta konplikazio teoriko handirik gabe beti, nahiz eta gero konturatzen zaren fondo intelektual handi bat daukatela.

Baina berak ez du hori erakusten. Alderantziz, erakusten du jada oso ongi egosita, digerituta, dauzkala ideia horiek, badakiela modu sinple batean adierazten. Eta bere arrakasta ez da literarioa, baizik eta transmisio sinple honen dohaina bat zuelako. Gero, insistentea bada, idea beraiek mila aldiz errepikatzen ditu. Baina hor ere ez da guztiz egia errepikatu egiten dituela, zeren, irakurtzen duzunean, konturatzen zara: hemen ñabardura hau, zailtasun hau, matiz hau hemen aldatzen ari da, eta urte batetik bestera aldatzen ari da, eta, beraz, bere pentsamenduak ere bide bat egiten du, eta bere formulazioak ere bai.

- *Gasteizko Eskola Sozialak ardura handia izan zukeen Elizaren doktrina sozialari begira.*

Gerra-ondoko mugimenduan, Euskal Herrian behintzat, egon dira bi mugimendu Elizaren inguruan. Ez da ahaztu behar: nazional-katolizismo erabateko batean gaude. Eliza itxita dago, internado bat da Espainia, en fin; barnetegi bat. Eta orduan egon dira bi mugimendu intelektual eta sozial oso inportante, eta dira Donostiako Elkarrizketa Internazionalak, Karlos Santamariaren inguruan, eta Gasteizko Eskola Soziala.

Arizmendiarrieta bietan egon da, edo, behintzat, bere artxiboan bietako materialak aurkitzen dira. Beraz, bazuen, Donostiako Elkarrizketa Internazionalekin ere, bazuen harremanen bat. Beharbada entzule gisa-edo, zeren hor hiztunak, gehienak, atzerritarrak izaten ziren. Gasteizen lehenengo ematen ziren eskola sozialak. Doktrina, Elizako doktrina soziala, ematen zen, batez ere. Ekonomia pixka bat ematen zen. Baina Arizmendiarrietak hitzaldiak eman ditu, konferentziak eman ditu. Nik eskolari,

Gasteizko Eskola Sozialari, inportantzia kasik gehiago ematen diot, ematen ziren eskolei baino. Han bildu zen ekipoari, eta ekipo hori –Rodriguez de Yurre, Gregorio, eta beste batzuk– Arrasatera etortzen ziren, eta, alderantziz, Arrasatetik joaten ziren beraiekin hitz egitera. Ekipoak, Arizmendiarrietaren bizitzan, ekipoak beti paper inportante bat eduki du. Bat da Gasteizko Eskola Sozialeko ekipoa, eta bestea da berak inguratu duen langileen ekipoa. Gu orain kooperatibismoaz eta Arizmendiarrietari buruz hitz egiten ari gara, eta dudarik gabe bera gertatu da figura zentrala, baina ekipoarena ulertu behar dugu.

- *Giro hartan, politikoki ager zedin eskatzen zioten, manifestuak sina zitzan. Hark ezetz esaten zuen, eta Elizarekin tirabirak ekarri zizkion.*

Arizmendiarrieta, egia da, eta askotan galdetzen da zergatik, ez da konprometitu, bada, greba baten ondoko manifestazioetan, edo manifestu batzuk sinatu, edo horrelako zerbaitetan. Eta ematen den esplikazio bat da gerrako traumak. Gerra aurretik ez dago batere dudarik: Arizmendiarrieta abertzalea izan da, euskaltzalea izan da, eta eduki ditu gerra aurreko abertzaletasun euforiko horren ezaugarriak; eduki ditu, eta hori egia da gerrarekin bukatu egiten dela. Gerrako esperientzia gogorra da, eta, gainera, abertzaletasuna galtzaile gelditzen da eta hori dena. Orduan, ematen da esplikazio bat, gerraren traumak, nolabait, abertzaletasuna epeldu edo hilarazi ziola Arizmendiarrietari.

Nik uste dut trauma bat egon dela, baina ez da esplikazio bat. Nire ustez abertzaletasuna ez da ez epeldu, ez ezkutatu, baina ezin da agertu, ezin da agertu diktadura batean gaudelako lehenengo. Baina bigarren dago arrazoi oso garrantzizko bat. Nik uste dut erabakigarria hori izan dela, eta da hau: “sacerdote y solo sacerdote” hortan insistentzia handi bat egin da urte horietan, baina esaldi hori, oso polita berez, bere erabileran esan nahi zuena da “zu apaiza izango zara eta apaiza bakarrik izango zara”. Alegia, ez zara izango abertzalea. Gotzainen eskuetatik eta ahoetatik esana hori zeukan, eta Euskal Herriko apaiz askok, apaiza izan nahi zuenak, bada, barneratu egin du, interiorizatu egin du pentsamendu hori.

Nik uste dut erabakigarria hori dela. Arizmendiarrietak urte batzuetan ezingo du politikan sartu, ez bakarrik traumarengatik

eta zentsura bat dagoelako, eta gizartea frankismoaren behean dagoelako, eta, beraz, ezin duelako agerian erakutsi, baizik bere barrutik ere nolabait ez zuelako sartu nahi politikan.

Esaten zen: “Etzazue egin politika”. Esaten zen, ezta?, Francok esaten omen zuen: “Haz como yo, no entres en política”. “Etzazue egin politika”. Ez bakarrik apaizei, baina batez ere haiei esaten zitzaien, eta hori barneratu egin du, nik ulertzen dudanez. Arizmendiarrietak, lehenengo periodo batean batez ere, eta garai horretan, egia da, bera ez da inon agertzen, ez, abertzaletasunen aldetik. Edukiko ditu konfliktoren batzuk, bada, Karlos Santamariarekin ere bai, hizkuntzaren aldetik. Inondik ez du alderdi hori landuko edo erakutsiko. “Etzazue egin politika”.

Baina jerarkia espainola erabat politizatua zen, eta frankista zen, eta, beraz, aurkitzen ginen egoera kontradiktorio batean. Elizak politika egiten zuen, baina apaizek ez zuten egin behar politika, eta berdin zibilak, ez zuten politikan sartu behar. Ez zen posible alderdirik, sindikaturik eta holako gauzarik egitea. Baina apaizak egin zezaketeena zen borroka sozialean sartu, eta JOC-eta antolatzen ziren, eta grebak ere antolatzen ziren, eta kontzientzia sozial bat, langileena, lantzen zen. Baina hau pixka bat garatzen baldin bada, politika bihurtzen da berehalaxe.

Beraz, borroka soziala Arizmendiarrietak ere horrela aurkitu du ezkutuan. Politikoa izan ez bada ere, lehenengo momentu batean, gero leher egiten du mugimendu politiko bezala. Eta hori bera gertatzen da “izan zaitez apaiza eta ez ezazu egin politika” horrekin ere. Baina apaizak konprometitzen badira, bukatzen dute mugimendu sozialarekin batera politikara sartu direla, eta hori 1970 ingururako, edo lehenago, ebidentzia bat bihurtuta dago. Apaizak ere gehiago agertzen dira, ikastola-mugimenduak hasi dira, eta Arizmendiarrietak ere garai honetan gainditzen du bere “apaiz eta apaiz bakarrik” hori, “sacerdote y solo sacerdote” hori, gainditzen du. Eta ausartzen da, zeren ausartu egin behar da, espainiar nazionalismoan ausartu egin behar da, berriro euskal mundua erreibindikatzera, eta ikastolak babesten ditu, eta, en fin, politika euskaraz idazten hasten da. Politikan ere harremanak hartzen ditu berriro. Badauzka gutun batzuk Jose Antonio Agirreri edo Leizaolari, oker ez banago Leizaolari ere bai. Beraz, hartzen ditu berriro harremanak, EAJ-PNVrekin ere, eta agerian erakutsi dezake bere abertzaletasuna beti izana. Jada ez da gaztetako abertzaletasuna. Oso errealista da, ikusten

du abertzaletasunak ikurrinak baino gehiago lantegiak behar dituela. Orain Arizmendiarrieta heldu batena da, eta bere ideia kooperatibistarekin bateratua dauka abertzaletasuna. Baina ez da galdu, egin da ezkutatu. Ez da abertzaletasun transzendente batetik urrundu denik, ez; jarraitzen du bere abertzaletasun klasikoarekin.

- *Baina, lan eta politika gaietako gatazka giro horretan, bere hurbileneko adiskideei eskatzen zien alderdi eta politika kontuetan sar ez zitezen. Eraldaketa sozialaren proiektuarentzat eragozpenik eragin zezakeen?*

Begira, kooperatibismoa eta kooperatibista izateko motibazioa Arizmendiarrietak erlijiotik eta predikazio erlijiosotik garatu du, baina nik Arizmendiarrietarengan aurkitzen dudan gauzarik positiboenetariko bat da, hain zuzen, kooperatibista neutro bat, neutral bat, erlijiosoki eta politikoki neutral bat, pentsatu duela. Kooperatibista izateko ez dago katolikoa izan beharrik, berdin-berdina izan liteke budista edo sintoista. Beste gauza bat: kooperatibista izateko ez dago alderdi batekoa edo bestekoa izan beharrik. Hori libre dago.

Nik uste dut bere ekarpen positibo bat dela, oso positibo bat dela, hain zuzen, kooperatibismoa erlijiotik ere independizatu izatea, eta ideologia klasikoetatik ere, marxismotik edo liberalismotik, eta bide propio bat ireki izatea. Hori da, beraz. Eta hori salbatu nahi du berak insistitzen duenean, gutxienez kooperatibismoaren barruan, buruzagiak ez dutela politikarik egin behar. Arriskua da handik kanpora ere politikara sartzen badira, baina nik uste dut hor ez dela inoiz garbi-garbi gelditu, zeren, bestetik, erantzukizun komunalak asumitu beharra dauzkate kooperatibistek.

Hau da, kooperatibismoa ezin da mugatu enpresak eraberritzera, erreformatzera, baizik komunitate osoa eraberritu behar du. Hori politika da jada, eta, beraz, kooperatibistek politikan parte hartu behar dute, baina, beharbada, ez kooperatibista gisa. Hori ez da inoiz oso garbi geratu, ez dago berarengan oso garbi. Egia da beti eduki duela problema, beharbada, apaiz bezala, "sacerdote, solo sacerdote" horrekin, "politikan ez sartu" idea horrekin. Baina frankismoaren biktima bat da puntu horretan.

• *Kooperatibismoa edo kooperazioa biolentziaren aurreko hautabidetzat zeukan.*

Bai, baina hor bi gauza diferente daude. Bat, bere gerrako esperientzia. Berak ikusi du gerrak zer txikizio ekartzen duen, batez ere, pobreei eta irakurtzen ez dakitenei, eta, en fin, esklabo bihurtzen dituela soldadu bezala joan zirenak. Oso sozialistak direnak ere, han esklabo bezala tratatzen dituzte. Gerrako esperientzia biolentzia esperientzia da. Oso traumatikoa izan da berarentzat. Hori inportantea da, baina gero, baita ere inportantea, iraultzaren ideia klasikoa, marxista, iraultza biolentoren ideia da. Beraz kolpe batekin Estatuaren jabe egingo gara, eta sozialismoa sartuko dugu gizarte guztian, edo komunismoan nahi baduzu esan.

Hori da berak inoiz sinestu ez duena. Kolpe batekin ez da eraldatzen edo eraberritzen gizarte bat. Hori urratsez urrats eta poliki-poliki egin behar den gauza bat da, hezkuntzaz eta lanbidez, eta, beraz, biolentzia, iraultza egiteko ere bada, ez du onartzen. Beraz, gerraren esperientzia dago, eta iraultza biolentoaren ukoa dago. Berak iraultza pertsonalista bat, eta iraultza moral bat, egin nahi du, eta, beraz, kooperatibismoa biolentziaren alternatiba baino gehiago da. Ez du planteatzen biolentziaren arazoa bide bezala, biolentzia ez da ezertarako bidea bere posizioan, ez da askatasun bide bat, hori da inportanteena.

• *Lehen Alfaren eraginaz hitz egin duzu. Zer harreman zuen Toribio Etxeberriarekin?*

Toribio Etxeberriarekin, bai, hori ere bere irekitasunaren seinale bat da, nire ustez. Arizmendiarrieta ideiak hartzen ditu edonondik, dauden tokian, berak aurkitzen ditu edonondik. Eta orduan, egia da gerra-aurrean Eliza eta sozialismoa Euskal Herrian ez zirela batere ongi etorri, baina Arizmendiarrietak ez du batere problemarik izan Eibarko Alfaren esperientzia kooperatibotik ikasteko, harremanak edukitzeko. Aparte bere osaba bat bertan ibili zela. Toribio Etxebarriaren gertuko bat zen, eta idatzi zion Toribiori, eta, kuriosoago dena, Toribio Etxebarria Venezuelan dago gerratik edo frankismotik ihes eginda, eta idazten dio berari. Lorpen handi bat da Arizmendiarrietarena, Toribio Etxebarriarena ere, eta nolabait aditzera ematen dio “guk egin nahi genuena zuk egin duzu”. Horrelako zerbait, bai.

- *Zer balio izan dezake Arizmendiarrietaren pentsamenduak XXI. menderako?*

Lehenengo esango nuke: pertsona bera da gelditzen dena, eta nahiko inportantea. Pertsona eredu bezala. Bere lana egin zuen, eta bere harremanak. Bigarren, bere ideietan idealismoa eta errealismoa elkartzen jakitea dago. Gaur, beharbada inoiz baino gehiago, behar da berriro, zeren kapitalismoa nagusitu da Berlingo murrua jausi zenetik. Kapitalismoa nagusitu da, eta badirudi alternatiba bakarra bezala munduan gelditzen dena kapitalismoa dela.

Bestetik, denok gaude nolabait konbentzituta hori nolabait gainditu beharra dagoela. Denok uste dugu kapitalismoak alternatiba bat behar duela, eta alternatiba hori izateko kooperatibismoak, nik uste dut, balio duela, bai esperientzia bezala, bai ideia bezala, kapitalismoari alternatiba bat bilatzeko. Zeren sozialismoak ere erakutsi du ez dela alternatiba. Alderdi sozialistek pentsatu dute behar dutela Estatuaren jabe bihurtu, nagusi. Gobernura iritsi eta handik transformatuko dute, sozializatuko zutela gizartea pentsatu dute. Baina, klaro, gizarteak berak bere erritmoak dauzka politikoen gainetik, eta gizartea lana da. Enpresak kapitalistak baldin badira, oso mugatuak dira gobernu sozialista baten egin ahalgarriak.

Arizmendiarrietak alternatiba bezala daukan idea da sozialismoa ez dela abiatu behar gobernutik behera. Ez da Estatua interesatzen zaiona berari, baizik alderantziz, komunitatea sozializatuz joan behar da gobernua ere nolabait edo gizartea aldatzera. Ez dakit zuzen esan dudan: sozialismoa goitik behera egitea inposible dela ikusi dugu, eta sozialismoaren proiektua hori izan da. Egin behar da behetik gora, beraz. Lehenengo komunitateak eraberritu, lantegiak eraberritu. Komunitateak eraberrituz, Estatuak eraberritu. Hau da, Estatuak desegin eta gizarte edo mundu berri bat lortu. Alternatiba hau izango litzateke, eta nik uste dut horretarako Arizmendiarrieta maisu ona dugula, baita ere sozialismoaren ideia bera ere aldatzeko.

- *Horrez gain, beharbada, pentsamendua eta ekintzaren arteko koherentzia.*

Barkatu, gauza bat. Gaur beharbada harritu egingo du, baina Arizmendiarrieta anarkismoaren formula klasiko batzuetatik ez

dago batere urruti. Hain zuzen, komunitatearen lehentasun hau eta Estatuaren kontrako jarrera hori, zeren Estatua beti zapaltzen bukatzen du goitik behera. Hori Arizmendiarrietarengan eta anarkista klasikoengan oso antzeko da.

- *Zeren ondorio izan daiteke Arizmendiarrietaren ezezagutza?*

Hor faktore diferenteak azaltzen dira. Lehenik, Arizmendiarrietari, bere obra egin ahal izateko, asko lagundu diona izan da Elizako gizona izatea, eta gaur, nire ustez, kalte egiten diona hori bera da: Elizako gizona izatea. Euskal Herriko gazterian edo belaunaldi berrietan Elizaren zaletasun oso gutxi dago, eta Elizako gizon batenganako sinpatiak ere ez dira oso erraz aurkitzen. Hori da faktore bat.

Gero dago beste gauza bat, seguru asko larriagoa, eta da nolabait denok menperatu gaituela ideia kapitalistak; dominazioak, irabazi nahiak eta hori guztia. Alde horretatik, Arizmendiarrieta austero bat da, eta erakusten duena da ez dugula bizi beharrik aberatsak izateko. Bere ideiak nolabait miresgarriak dira, baina ez dira oso zabalkunde handia izatekoak. Gaurko propagandan gutxi erabiliko da bere figura hori, ezta?

Azkenik, nik ez dakit benetan ezezaguna den, baina gertatzen dena da pertsonaia bat ezagutzeko, bere sakontasunean, dedikazio asko eman behar diozula. Baina Arizmendiarrietaren ideia kooperatiboaren inportantzia krisiak berak ere potentziatu egin du nolabait. Beste gauza bat da jarraitzea zailagoa dela. Baina ezagutu, nik uste dut, esaten dena baino gehiago ezagutzen da, Euskal Herrian.

## Felix Ormaetxea Uribetxebarria

Arrasaten jaio zen 1938ko otsailaren 6an, eta 2024ko uztailaren 28an hil. Zazpi anai-arrebetan gazteena, etxean kooperatibismoa gertutik bizi izan zuen Jose Mari anaiaren eraginez. Araotzen parroko eta Venezuelan misiolari izan zen, eta on Jose Mari Arizmendiarrietaren izpirituari jarraituz, Hezibide Elkartea, Ahizke-CIM, ETEO, Irakasle Eskola eta Arizmendi Ikastolaren sorkuntzan ezinbesteko eragile izan zen, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren jagole eta sustatzaile.

Elkarrizketa Juan Karlos Mujikak egin zion, 2022ko ekainaren 9an, Deban.

- *Nolakoa zen on Jose Marirekin harremana?*

Bi motatako harremana zen. Bat profesionala, gauzak nola egin behar ziren esaten zidan beti. Bestea pertsonala, niretzat asesorea zen. Lagun izan nuen. Don Jose Maria eredu zen, gure herrian jende askorentzat eredu izan zen. Exijentea zen, baina atsegina era berean.

- *Atsegina.*

Eta exijentea. Bazeuzkan printzipio batzuk oso garbi: lana, elkartasuna, hezkuntza. Hiru horiek. Eta sasoi hartan, Eskolan, pareta guztietan zeuden, eta oso adierazgarriak ziren: “la educación os hará libres”, “el trabajo mancomunado os emancipará de la presión del capital”, eta halakoak.

- *Mezu horiek nola ikusten ziren garai hartan? Iraultzaileak ziren ala jendeak normaltzat zituen?*

Ni harrituta nengoen. Egunero ematen zuen klase bat, ordu erdiko klase bat, arratsaldeko ordu bietan, bazkaldu eta gero, eta han ehundaka ikasle entzutera batzen ginen. Eta kuriosoena zera da, orduan pentsatzen nuen, ni ez nintzela Eskolako ikaslea, apaiza edo seminarista baizik. Bizitzan zenbat jende ikusi dudan klase haiek aipatzen. Meza ere ematen zuen, eta ez zen gizon batere atsegina berbaz, baina hala ere jendea mezuarekin gelditzen zen.

Don Jose Maria ikaragarria izan zen. Manifestatzera joaten ziren horrelakoak ez, e! Lanean baizik, lanean eta beste ikuspegi sozial batekin. Berak esaten zuen Elizaren doktrina zela. Nik uste dut askoz aurrerago zegoela, nahiz eta berak horretan oinarritzen zela esan. Apaiza zen, hau da, sinesduna, baina doktrina, Elizaren doktrina, baino harago joan zen don Jose Maria beti.

- *Jendeak mezu hori entzuten zuenean zer iritzi zuen?*

Normala den bezala, eta hau ez da inongo sekreturik, batzuentzat oso goxoa zen, gauza atsegina, eta beste batzuentzat, berriz, iraultzailea, zentzu txarrean. Horregatik zailtasuna izan zuen autoritate zibilarekin, bere bizitza guztian. Baina beti jakin zuen zer hori nola ekidin, problema hori. Baina beti hor izan zuen.

- *Zer azpimarratuko zenuke on Jose Mariren hitzetatik?*

Ideia batzuk oso garbi zituen. Hezkuntza oinarri bezala, eta lana bai, baina kooperatiboa. Horretan sinesten zuen don Jose Mariak, hori da azpimarratzekoa. Gero mila bariante daude, eta hor daude bere liburuak eta bere pentsamendua, baina azpimarratzeko nik besterik ez daukat.

- *Esan genezake bere printzipioekin erabat aldatu zela Arrasateko giroa eta gizartea?*

Duda barik, duda barik aldatu zela eta aldatuta dagoela. Hau da, Deba Garaia beste gauza bat da besteekin konparatuta. Han aberastasuna hobeto banatuta dago, jendeak lan kooperatibetan egiten du. Erantzukizuna, lan kooperatiboa eta hori dena kooperatibetan ematen da, eta balio ekonomiko eta sozialak inoiz baino motzagoak diren sasoian, hezkuntzaren aldeko mezua ea non dagoen, non dagoen hezkuntza maila, ez bada Arrasaten, gure bailaran. Hori garbi dago, hori ekintzak dira.

- *Zer suposatu zuen on Jose Marik zure bizitzan?*

Don Jose Mariak nire bizitzan asko. Ikasi, esaten ari naizena, dena beragandik egin nuen, berarekin konfesatzen nintzen gazte nintzenean, eta beragandik mamitu nuen gero, bada, hori. Ez da bizitzan bakarra izan, gero beste batzuk izan ditut seminarioan, eta lagunak. Baina, bai, don Jose Mariaren printzipioak nire printzipioak dira bizitzan eta bizitzarako, eta nire seme-alabei horiek ematen dizkiet.

- *Zeure egin zenituen.*

Nireak dira bai, duda barik.

- *Eta zabaldu dituzu.*

Ahal den guztietan, eta berdin pentsatzen jarraitzen dut, eta pentsatzen dudana esaten.

- *Eta zure seme-alabek zer diote?*

Nirekin nahiko bat datoz, bai.

- *Zu Jose Mariren anaia zara, eta Jose Mari oso pieza berezia izan da kooperatiba munduan.*

Anaia lanerako bizi zen, don Jose Mariaren proiektuetarako. Beraz, etxean gutxi ikusten genuen.

- *Bera ezkondu aurretik ere?*

Bai, ezkondu aurretik ere. 16 urterekin Escuela de Aprendices-eko bibliotekarioa izan zen, JOCen egon zen, denean beti sartuta. Etxean apenas egoten zen, beraz txikitako oroimena hori da.

- *Esan liteke on Jose Mariren ikasle zintzoena izan zela?*

Zintzoena… horrelakoak ez dira esan behar.

- *Bereziena?*

Konparaketarik ez da egin behar, ez. Ejekutiboa izan zela garbi dago. Bera izan zen Ulgorreko lehenengo gerente, Caja Laboraleko zuzendari, Mondragon Korporazioko lehendakari…

- *Horrek zerbait esan nahi du?*

Jose Mariren barrenean ez naiz sartuko. Nire iritzia izan dezaket, baina iritzia besterik ez da.

- *Nolakoa zen on Jose Mariren eta anaia Jose Mariren arteko harremana?*

Entente ikaragarri ona egon zen. Don Jose Maria beti egoten zen besteak baino urrrunago, eta oso ezaguna da, adibidez, Caja Laboralarekin gertatu zena, inork ez ziola sinesten halakorik egin zitekeenik. Orduan, Jose Marik batzar nagusi bat asmatu zuen, akta jaso, horrekin Madrilera joan eta firmak jaso. Batzar nagusia ospatu barik Madrilera joan eta egin. Alde horretatik desadostasuna zegoen haien artean, baina nik uste dut nire anaiak ondo jarraitu ziola don Jose Mariari. Ondo-ondo. Gainera, don Jose Mariarengan itsu-itsu sinesten zuen.

- *Eta harreman pertsonala nolakoa zen?*

Ona, ikaragarria ona. Don Jose Mariak antolatzen zituen festa eta gauza guztietan, Jose Mari nire anaia beti hantxe.

- *Esan liteke on Jose Mari liderra izan zela?*

Duda barik.

- *Zer ezaugarri ditu liderrak lider izateko?*

Lehenengo ideiak, gero adibidea eman, eta gero transmititzeko gai izan. Ideak eduki, aurrera eramateko gai izan, eta jendeari transmititzeko eta konbenzitzeko gai izan. Eta hori don Jose Mariak bazeukan. Hasi zirenean, mundu guztiak nahi zuen kooperatibetara joan.

Don Jose Mariak irakurri egiten zuen, eta kanpora ikustera joan. Izandako aukera guztiak aprobetxatu zituen. Jose Maria anaiak irakurtzeko asti gutxi zeukan, baina don Jose Mariari entzun egiten zion. Don Jose Mariaren bidez irakurri ere egiten zuen, denbora falta izan arren.

- *Esan liteke zure anaia Jose Mari liderra izan zela?*

Bai, duda barik, horregatik aukeratu zuten lehenengo postuetarako gerente gisa. Ausarta zen, don Jose Maria bezala, aurrera egiteko prest. Kooperatibismoaren mezua Euskal Herri osoan zabaldu nahi zuen, don Jose Mariak hala eskatuta.

- *On Jose Mari oso psikologo ona izan omen zen, hau da, ondo ezagutzen zuen inguruan zuen jendea.*

Bai, ikaragarria zen. Horretan ez zen konfunditzen. Nor norekin jartzen inork baino hobe zekien. Hori zen bere lana-eta. Bakoitzari berea eskatzen zion.

- *Nola ikusten duzu kooperatibismoaren etorkizuna?*

Nire anaia oso pesimista zen, eta nik asko diskutitzen nion. Gauza batzuetan arrazoia izan zuen, eta hor dago Fagorreko kasua. Baina nire anaiak gauzak berak egiten zituen moduan nahi zituen, eta. hala egiten ez zirela ikusten bazuen, haserretu egiten zen. Nik beti kontra egin nion. Nik uste dut liderrak egon badaudela, eta kooperatibismoak etorkizuna duela.

- *On Jose Mariren printzipioen eraginez langileak gestioan parte hartzen zuen, baita jabetzan ere. Esan liteke filosofia hori oso ezkertiarra denik?*

Ez dakit zer esan. Nik uste dut kooperatibismoa, dena delakoa izanik, eta ondo egiten bada, nahikoa dela. Diferentzia da don Jose Maria errealista izan zela.

Batzuek esaten dute gobernuaren aurrean burumakurtze modukoa izan zuela, baina ez da hori, inola ere ez. Medailarik hartu behar bazuen, hartu egiten zuen. Herri honetara inork ikusi ez zuena ekarri zuen, bazekielako kanpoan ibiltzen. Hori da errealista izatea. Esaten zuen: "la necesidad os une, las ideas os separan; las ideas separan, la necesidad une". Don Jose Maria etorri zenean, beharra handia zen, eta beste inork lortu ez zuena lortu zuen.

- *Badakizu on Jose Mari kanonizazio prozesuan sartuta dagoela. Kanonizatzen baldin badute, munduko beste lekuren batzuetan ezaguna egiteko abantaila izango litzateke?*

Horretan sinesten dutenentzat bai. Nik ez dut horretan sinesten, don Jose Mariak hori ez zukeen nahiko inolaz ere. Baina duda barik Hegoameriketako eremuetan eta oso katolikoak diren eremuetan izan liteke aurrera pausoa, duda barik.

**Jesus Mari Arizmendiarrieta Mondragon**

Arrasaten jaio zen 1956ko ekainaren 7an. On Jose Mari zenaren iloba da, haren anai Jesusen bost seme-alabetakoa.

Elkarrizketa Juan Karlos Mujikak egin zion, 2022ko martxoaren 9an, Arrasaten.

- *Nolakoa zen zure harremana berarekin?*

Lehenengo urteetan ez hainbeste, baina Eskola Profesionalean hasi nintzen eta abar, eta gero eta gehiago. Gehien abatetxetik Torre Eguzkira bizitzera etorri zenean. Orduan harremana ia egunero-egunero eduki genuen, bada, baserritik esnea eta berdurak eraman eta holako gauzekin. Ia egunero, bai, eta gero, azkenengo bi-hiru urteetan, berarekin bazkaldu igandero egiten nuen, ia igande guztietan. Han egoten ginen tertulian, eta hori asko gustatzen zitzaion berari.

- *Nolakoa zen bera izaera? Zer azpimarratuko zenuke?*

Bera… zelan ezango dizut, abade zen, abade zuzena, baina gustatzen zitzaion hori… zelan esango nuke, bizipoza. Bizipoza, besteen bizipoza, asko gustatzen zitzaion. Berataz, sekula ez zuen berataz ezer esaten. Eta gero, dena ematekoa zen.

Asko gustatzen zitzaion jendearekin hitz egitea, edozeinekin. Bai bere despatxoan, bai bere etxean, ateak beti zabalik zeuden mundu guztiarentzako, mundu guztiarentzako. Pertsona oso zabala zen, oso zabala, eta beti irribarrea ikustea gustatzen zitzaion, bai.

• *Nolakoa izan da bere ekarpena enpresa munduan edota gizartean?*

Oso handia, ikus dezakezunez. Arrasate gerraostean zer zen eta 1955etik aurrera zer izan den, eta gaur egun zer den, nahiz eta bera 1976an hil… Hori hor geratu da, hor dago.

• *Sortu zuen enpresa eredua baliagarria da hemen eta munduko beste lekuren batzuetan?*

Bai, eta ikus dezakegu nola, gaur egun, Arrasatera mundu osoko estatuetatik bisitariak datozen. Mundu osoko enpresak. Aurreko astean korearrak egon ziren, eta orain Kanadako jendea dabil, esaterako, Mondragoneko Kooperatiba Esperientzia esaten denaz ikasteko asmoz, hura beste leku batzuetan zelan inplantatu eta zelan aplikatu.

• *Hemen, Arrasaten, jendea beratez harro sentitzen da?*

Nik baietz pentsatzen dut. Kooperatibista izan denak, jubilatzen denean behintzat, baietz esaten du. Pertenentzia sentimenduaz jendea harro dago, bai, dudarik ez daukat.

• *Nola ikusten duzu kooperatibismoaren etorkizuna?*

Nik eredu oso ona dela pentsatzen dut. Ez dakidana zera da, jendeak balioak barruan dauzkan ala ez, zeren, gaur egun, beste modu batera bizi da jendea. Erantzukizuna eta beste, ez dakit zelan esan, balio horiek nondik nora doazen, bada, ezin jakin, ezta? Baina, bai, kooperatibismoak etorkizuna daukan dudarik ez daukat. Ikusi besterik ez dago. Hemen, Arrasaten, enpresa gehienak kooperatiba dira.

• *Nola zabal liteke on Jose Mariren ezagutza?*

Nik hor ikusten dudana zera da, bai Arizmendiarrietaren Lagun Elkarteak, bai Arizmendiarrieta Kristau Fundazioak lan egiten dutela, lan oso-oso ona. Eta kanpora atera behar da. Hor dago

bere ideario osoa, osaba Jose Mariak idatzita utzi zuena, hor dago. Hau da, gaur egun edozeinek zabal lezake bai unibertsitatetik, bai esandako erakundeetatik. Zabaldu egin behar dute, egia esanda.

**Jabier Etxebarria Arrese**

Oñatin jaio zen 1931ko urriaren 28an. Apaiza da, hainbat herritan ibilitakoa. Arrasateko parroko eta on Jose Mariren aitorle izan zen, eta heriotzako ateatan harekin egon zen.

Elkarrizketa Juan Karlos Mujikak egin zion, 2021eko urriaren 28an, Donostian.

- *Nolakoa zen on Jose Mari?*

Gizon austeroa, sikua, alaia, arduratsua. Besteen gaineko ardura izan zuen beti. Zelan esango nuke… bere ardura beti on egitea zen. Zer egiten dugun, nola egiten dugun, nola jokatu behar dugun. Aurrera begirako ikuspegi oso ederra zeukan gizarteaz, zoragarria. Mundua gogorra da, eta onerako aldatu egin behar da.

- *Bere inguruko mundua aldatu zuen?*

Gure artean aldatu zuen, bai, Mondragon inguruan. Kooperatiba egin zuen, fabrika egin zuen, eta pentsaera eman zuen. Pentsaera hori gaurko Mondragon, Aretxabaleta eta inguruko herriek bizi dute.

- *Pentsamendu hori non oinarritzen da?*

Pentsamendu hori, azkenean, berak esaten zuen bezala, ebanjelioan oinarritzen da. “Besteei egiten diezuena niri egiten didazue” esaten du Jesusek. Mundu honetan egin behar duguna, beraz, pertsonagatik begiratzea da. Azkenean, pertsona da Jainkoak munduan duen arrazoia, eta, orduan, pertsonaren alde egitea Jaungoikoaren alde egitea da. Zer gehiago behar dugu, ezta?

- *Horrek zer lotura dauka lanarekin?*

Lanaren bidez gizonak sortu behar ditu bere bizitza eta bere egitea. Lan egin behar dugu, horrelako edo bestelako lanak. Baina lana ardura ere da. Jainkoak ere mundu hau berri egin nahi du. Egin egin zuen Jainkoak, baina ez zuen bukatu. Guk jarraitu behar

dugu mundu hori egiten. Jainkoak esan zion Adani “jarri Edenen lan egiteko”. Lan gustura eta pozik, baina lan egiteko. Jardin hura, lorategi hura egin behar zuen ederrago, gero eta gehiago. Guk ere hori egin behar dugu: mundu hobea egin behar dugu. Eta mundu hobea egitea Jaungoikoarekin lan egitea da. Orduan, lana gizonaren beharrezko gauza da, egin behar duen gauza.

- *On Jose Mari oso eskuzabala zen?*

Bai. Ez zeukan berarentzat hartzeko ia ezer. Horretan behartsua izan da. Amak bidaltzen zion ogia, gazta eta holako gauzak astero. Astero, e! Eta jasotzen zuen nomina apurrarekin bizi zen. Hark ez zuen sartu poltsikora besterik.

- *Erroman, Vatikanoan, zer esan zuten on Jose Mariren bizitza ezagutu zutenean?*

Poztu egin ziren halako gizona ikusita. Lanaren eta pertsonaren alde hainbeste lan egindakoa, Elizaren doktrina praktikara eramandakoa. Praktikara benetan, eta hor dago exenplo, bizi, eta ondo bizi, litekeela gizona Elizaren doktrina hori beteta.

- *Eskuzabaltasuna aipatu dugu, baina gaur egun norberekeria zabaltzen den munduan bizi gara. Hark esandakoak balio al du?*

Bai, azkenean lehen horrela zen, bakoitza berera, eta bakoitzak beretik. Don Jose Mariak bide hori zabaldu nahi zuen, guztiok gara-eta lan egin behar dugunak, eta bat egin behar dugu.

- *Optimista zen? Ikuspegi zabalekoa?*

Bai. Ikuspegi handia zeukan, bai, baina ikusi egin zuen pertsonak beti lan egin beharko duela. Horretan jarraitu beharko duela, bere bizitzako arrazoia hori dela, eta horregatik duintasuna oso inportantea zitzaion.

Azkenean, lehen esan duguna da: Jainkoaren arrazoia munduan gizona da. Gizona Jainkoaren irudi bizia da. Orduan, bera da duintasun handiena duena. Jainkoaren aurka joanik, pertsonaren kontra joatea da.

- *Nola izan ziren azkenengo momentuak berarekin?*

Baketsuak, baketsuak. Bere bizitza bukatzen ari zela ikusi zuen, eta oso ondo onartu zuen, bakez, bake handiz. Otoitz-zalea zen,

eta otoitzekin, otoitz-giroan, hil zen. Heriotza oso baketsua, serenoa, izan zuen. Otoitz batean hil zen.

- *Elizaren barruan eredu izan liteke?*

Eredu izan zen, eta orain ere bada. Gizonaren alde lan egitea eredugarria da.

**Juan Antonio Garitano Larrañaga**

Soraluzen jaio zen 1941eko uztailaren 12an. Soraluzeko zinegotzi izan zen 1987-1991 urteetan EAJren bidez.

Elkarrizketa Juan Karlos Mujikak egin zion, 2022ko urtarrilaren 28an, Soraluzen.

- *Bera ezagutzean, hitzaldiak entzutean, zer inpresio izan zenuen?*

Nire inpresioz, lehenengo eta behin, haren hitzak diferenteak ziren. Orduan pentsatzen genuen abadea zela, baina, era berean, hau abadea ez zela. Hau da, beste zerbait zeukan abadea zen, beste iniziatiba batzuk zeukana, eta ez “mañana a las 7 misa del niño”, ez. Langileen gizarte ongizatea, duintasuna, pertsonaren balioa… horrek gauza guztiak esaten zituen harek. Guretzat inpaktu handia izan zen.

- *Abadea izatea ona ala txarra zen jendearentzat?*

Niretzat ona, zeren abadeari ez zitzaion holako gauzarik entzuten. Gure denboran abadeak aberatsen lagunak ziren, edo horrela esaten genuen behintzat, eta hura zen diferentea, diferentea, langileen oso laguna. Laguna eta sortzailea, gainera. Beste zerbait ikusi nuen nik.

- *Hildakoan, Arrasaten zer utzi zuen? Hau da, jendeak nola erantzun zuen?*

Jendea triste. Ni nahiko triste ere, eta arduratuta. Etorriko zenaz ez, baina zuen estiloa oso interesgarria zen.

- *Nola ikusten duzu kooperatiben etorkizuna?*

Nahiko aldenduta nago. Plentzian lehen ia guztiak plentziarrak ginen, eta orain ez dakit. 200-edo daude guztira, eta 20 gara plentziarrak. Eta gazteak zelangoak diren ez daukat argi.

- *Kooperatiban hainbeste urtean lan egin ondoren, harro sentitzen zara?*

Bai, oso, eta gaur egun egoera nolakoa den ikusita, are gehiago.

## Jesus Mari Herrasti Erlogorri

Aretxabaletan jaio zen 1946ko urriaren 21ean. Copreci-n teknikari hasi zen 1963an, ingenieritza ikasle garaian; bazkide egin 1969an, eta Kontseilu Errektoreko buru izan zen 1971-1979 bitartean. 1979-1987 artean Aretxabaletako alkate izan zen EAJren bidez, eta 1979-2008 artean Mondragon taldeko hainbat ardura izan zituen. 2012-2020 aldian Kutxabankeko aholkulari izan zen.

Elkarrizketa Juan Karlos Mujikak egin zion, 2021eko urriaren 6an, Aretxabaletan.

- *Noiz ezagutu zenuen on Jose Mari, eta zer eragina izan zuen zure bizitzan?*

Don Jose Maria ezagutu nuen Eskola Profesionalean, Arrasaten. Ni eskolan hemen, Aretxabaletan, egon nintzen, *primaria* esaten zena, eta orduan hurrengo salida zen, bada, aukera bakarra nuena zen, Mondragonera joatea, batxilerra ikastera.

Ezagutu nuen egunero ematen zuelako klasetxo bat, ordu erdiko klasetxoa. Sermoi antzekoa zen, esplikazio ilunarekin, bazkal ostean. Han gauza guztiak sartzen ziren. Ez dakit, nik pentsatzen dut efektu handia izango zuela. Ni eta beste lagun asko gero kooperatiban sartu ginen.

Ez naiz gogoratzen zer tema konkretu jotzen zuen, zer balio, ez naiz gogoratzen horrekin. Baina bai gogoratzen naiz pertsona kuriosoa zela. Eskolako beste profesore batzuekin Bruselara joan zen, Expora. Gero beste biaje batzuk egin zituen, pertsona zabaltzeko, mundua ikusteko. Kuriositate hori zeukan, bada, mundua ikusteko, beste modu batzuk ikusi eta zer egin zitekeen ikasteko, hemen, Euskadin, gurean, egiteko.

• *Esan liteke bere filosofiak enpresa aldatu zuela, edota, askoz harago joanda, gizartea aldatu zuela?*

Uste dut enpresa bere lehenengo ardura izan zela, eta hezkuntza. Nahi zuena pertsonei aukera bat ematea zen, zerbait gehiago izateko. Orduan bizi ginen, edo jendea bizi zen, sozietate, zelan esan, oso estrukturatuetan. Orduan, aukera bakarra hezkuntza zen, pertsona libreago egiteko.

Jendea tornotxoarekin bere tailertxoa jartzeko irakasten zen, hori zen ideia, baina gero beste gauza bat esan zuen, pertsona bat tornotxo batekin ez, pertsona asko torno eta beste makina askorekin baizik. Hori ere beste idea inportante bat da. Gero ikusi zuen emakumeak etxean erditzen zirela, eta bera kezkatu zen horrekin. Maternitatea eginda, ospitalea izan zen hurrengoa.

Beti egon zen, beti, bizi guztia, entzuten jendeak zer problema zuen, zer kezka zuen. Adibidez, emakumeentzako bakarrik lehen kooperatiba egin zuen, Auzo Lagun. Ikusi zuen, emakumeak behin ezkontzen zirenean eta umeak edukitzen zituztenean, familia aurrera joaten zela ikusita, etxean gelditzen zirela, ezer ere ez barik, ezer egin barik. Eta hori beste aukera bat izan zen. Beti egon zen sozietatea ikusten, gainetik, problemei soluzioa bilatzen.

• *Zer balio aldarrikatzen zuen kooperatibista ona izateko? Zer balio exijitzen zituen?*

Lehenengo pertsona izan behar da zintzoa, leiala. Jendeari laguntzeko prest egon, gertu, egon behar da. Ausarta. Konfiantza asko izan behar da bata bestearekin, konfiantza asko.

• *Eta balio horiek Elizaren doktrina sozialarekin lotuta daude?*

Bai, nik baietz uste dut. Guk kultura hori hartu genuen, eta jende askok parte hartzen zuen organizazioetan. Gainera, bere errebistetan idazten zuen, hilero, beti enfoke hori ematen, doktrina sozialarena. Hori garbia zen. Gogoratzen naiz ni, lehenengo estatutuetan –ez dakit lehenengo edo bigarrenetan, baina 1970 arte gutxi gorabehera– ipini zela *que estaban inspirados en los principios de la doctrina cristiana*.

• *Apaiz bezala prestigioa zeukan?*

Bai, prestigioa zeukan. Baina esaten zuten sermoiak oso konplikatuak zirela entzuteko, seguramente kontzeptuengatik. Nire aitak

esaten zuen sermoia, 10 minutu luze egiten zitzaiola. Bukatu egin behar zela. Baina nik uste dut errespeto handia ziotela.

- *Bere kanonizazio prozesua aurrera baldin badoa, zuk uste duzu interesgarria izan litekeela erreferente bihurtzea?*

Bai. Nik esaten dut momentuz ez dagoela erreferenterik. Elizaren partetik hori esaten dabil, alde dagoela, eta ondo ikusten duela prozesua. Gainera, kristaua denak obligazio edo konpromisoa dauka, bada, sozietatea aurrera eramateko. Gazteak, guregana dabiltzatenak zerbait bilatzen, erreferenteren bat nahi dute. Hor dago bera, hau egin zuen, oso inportantea izan zen… Hori, nik uste, inportantea da. Baina txarra izango da hemendik 50 urtera don Jose Mariataz gogoratzen bagara baina berak egin zuena desagertu bada. Hori tristea izango litzateke. Gauzak zaindu egin behar dira.

## Enrique Larrañaga

Eibarren jaio zen 1931eko apirilaren 10ean. Soraluzeko apaiz ohia da, bertara apaiz egin berritan heldu ondoren. Arizmendiarrietarekin harremanetan egonik, Soraluzeko Talleres Soraluce Sociedad Cooperativa Industrial eratzen lagundu zuen 1962an.

Elkarrizketa Juan Karlos Mujikak egin zion, 2021eko abenduaren 29an, Elgoibarren.

- *Noiz eta nola ezagutu zenuen on Jose Mari?*

Filosofia estudiatzen ari nintzen garai hartan, eta orduan, bada, interesatu egiten zitzaizkidan Jose Mariaren hitzaldiak eta berak idatzi zituen orriak. Haiek irakurtzen asko saiatzen nintzen, eta gero, noizbehinka, bere sermoiak entzutera joaten nintzen. Ikusten nuen zela apaiz oso zentzuduna, hankak lurrean zeuzkana, eta herriko arazoak-eta planteatzen zituena. Planteatu bakarrik ez, baita bideratu ere, soluzio edo irtenbiderik emateko.

- *Esan liteke on Jose Mari oso herrikoia zela?*

Popularki ez, baina sakonki bai. Herrian oso txertatua zegoena bai, herrian zer gertatzen zekiena bai eta herriak zer soluzio behar zuen han zeukan arazoei aurrera ateratzeko ere bai. Horregatik, herriko jende jatorrak asko maite zuen Jose Maria.

• *Zer eman zion on Jose Marik herriari? Herri honi, Arrasateri? Euskal Herriari zer eman zion?*

Bere nortasuna. Euskal Herriaren nortasuna da errealitatean bizitzea, ez ipuinetan, eta hori eginez egin behar da. Egin behar diren gauzak egin, berba bakarrik ez. Teorian sartu, atomoak direla eta ez direla… Ez. Arazoak planteatzean, jendea parte hartzen jartzen zuen, arazo horiek arreglatzeko, beste bideren bat emateko.

Don Jose Mariak aurkitu zuen herria oso gaizki zegoen. Arrasate bakarrik ez. Gerra pasa berri, Europako gerrak ere bere eragina eduki zuen hemen, eta orduan, bada, topatu zuen herri pobrea, jendea goserik. Don Jose Mariak ikusi egiten zuen hori, eta pentsatu zuen soluzioa zegoela. Orduan hasi zen bere soluzioa bilatzen, eta bere soluzio garbia da Jesusen jarraitzailea izatea. Jesusen doktrina erakutsi eta mentalitateak aldatu, eta jendeari animoak eman, kapaz garela. Heziketa ona egiten badugu, problema haiek, arazo haiek, aurrera ateratzeko gai izango gara. Orduan heziketa horri sekulako garrantzia eman zion don Jose Mariak, eta hori izan zen bere intuizioa.

• *Berak beti azpimarratzen zuen prestakuntza, formazioa, oso interesgarria dela, beharrezkoa, eta pausuak eman zituen.*

Pausuak eman zituen. Lehenengo, etorri zenerako, irakasle egin zuten Escuela de Aprendices esaten zen hartan. Unión Cerrajera-k ipinita zeukan, eta han hasi zen. Eta laster konturatu zen hango jendearentzat bakarrik zela, eta eskola hori zabaldu egin behar zela, zabaldu egin behar zitzaiela guztiei. Orduan pentsatu zuen Escuela de Formación Profesional-a egitea, aparte, independiente, edozein pertsona joateko. Hori izan zen beste pauso interesante bat. Horregatik, diot, beti eman zion inportantzia handia heziketari, eta orain ere horrela jarraitzen da: Unibertsitatera ailegatu da, Mondragon Unibertsitatea. Eskola hartan ezagutu zuten guztiek heziketaren garrantziaren bidea.

• *Garai hartan, langileak enpresan parte hartu eta parte izan behar zuela esatea ez al zen iraultzailea?*

Garai hartan bai, orduan erreboluzioa zen, iraultza zen. Lehenengo planteamendua egin zuen berak. Unión Cerrajera-n, enpresa kapitalista hartan, poliki-poliki langileek lortzen zuten han sartu eta akzioak erostea, eta gero gestioan parte hartzea. Jose

Mariak hor lana egin zuen, eta kapitalistak konturatu ziren "guk lagatzen badiegu hauei hemen sartzen, gu ez gara oraingo jaun eta jabe izango, haiek baizik. Poliki-poliki sartzen joango dira, eta indarra hartzen joango dira". Hor sekulako lana egin zuen don Jose Mariak, eta hori iraultzailea zen.

• *Ormaetxeak, Gorroñogoitiak eta haiek esaten zuten, on Jose Mariren bizitza eta mezua ezagutu zutenean, euren bizitzaren zentzua aldatu egin zela. Horrela ikusten duzu zuk?*

Bai, bai. Nik haietako bati diot entzunda bere arazo bakarra zela lana egitea, familian sartuta egon eta dirua ekartzea, goserik ez izateko. Hori zela bere eskema, bizitzako eskema. Eta hori don Jose Mariak zabaldu, aldatu, egin zion. Bere zentzua, bizitzaren zentzua, bere mentalitatea zabaldu zion, pixka bat unibertsala izateko erakutsiz, pixka bat fraternitatea, anaitasuna, laguntasuna, irakatsiz.

• *Esan liteke zure bizitzan ere eragina egin zuela? Soraluzeko kooperatiba martxa jartzen saiatu zinen-eta. Hori nola gertatu zen?*

Bai, bai. Bere esanak kontuan hartu nituen, baita bera egon zen tokietatik pasatu nintzelako ere. Bera egon zen seminarioan, Gasteizen, eta nik ere han ikasi nuen *método JOC*, eta metodo horrek dauzka hiru pauso. Lehenengoa zer gertatzen den ikustea da, ikusi egin behar da zer gertatzen den. Bigarrena da, gertatzen dena ona baldin bada, aurrera egitea, eta ez bada ona, alda liteke? Orduan hor kriterio batzuk daude. Hor dator hirugarrena, aldatzeko heziketa, eta aldaketa. Eginaren bidez jendea hezi izan zen. Pedagogiaren aldetik, oso iraultzailea.

• *Esan liteke maisu izan zela? Bizitza-maisu?*

Maisu izan zen, bai. Bizitzaren maisu izan zen.

• *Esaten zuena Elizaren doktrina sozialarekin bat dator?*

Bai, berak hortik ere hartu zuen. Beretzat Jesus de Nazaret ebanjelioa da, eta hor denetik inportanteena maitasuna. Orduan maitasunak "la cultura de la revolución" egin behar du, maitasunaren kultura, eta hori gero konkretatu, zehaztu, egin behar da. Elizan, ikusirik zer prozesu daraman gizarteak, handik sortzen ari ziren Elizaren doktrina soziala. Eta horretan bera oso argia zen,

asko irakurtzen zuen, asko, eta hortik bera egiten zen, bada, zer esango genuke, bere espiritua landu, aberastu, egiten zuen hortik. Beretzat inportantea zen ebanjelioa, eta hori erakusten saiatu zen.

- *Alde batetik oso praktikoa zen, baina beste aldetik munduan zer gertatzen zen, eta zer gertatu behar zen, ikusten zuen. Bere lana bata bestearekin egokitzea zen?*

Bai, batasuna egitea, eta hori ebanjelioan esaten dena da. Kristau izateko batasuna hor dago. Dauden arazoak, azkenean, pertsonen arazoak dira. Estrukturak falta dira pertsonak hezitzeko, eta ikusten zuen estruktura batzuk behar zirela, hori espiritu hori sartzeko arlo guztietan.

- *Santu deklaratzen baldin badute, erreferente publiko eta unibertsala izan liteke ezagutzen ez duten pertsonentzat?*

Bai. Adibidez, Aita Santu honek, Frantziskok, atera duen azkenengo entziklikan, *Fratelli Tutti,* pertsona guztiak anai-arrebak dira. Hori kontatu zuen don Jose Mariak, gu denok familia bat garela. Orduan, erreferente hau orain eta beti izango da erreferente, beti, zeren egia hor dago. Errealitatea hori da, batak besteari lagundu egin behar diola, hemen, guztion artean egin behar dugu munduan aurrera. Guztiok lan egin, guztiok guztion onerako oinarria sortu, eta gero errepartoa justiziaren arabera egin.

Don Jose Maria horretan liderra izan zen, hori zabaltzen. Etorkizuna ere horrela izango da. Estrukturak beste modu batera organizatuko dira, baina espiritua hori izan behar da. Orain, momentu honetan, kooperatibek daukaten problema izan liteke espiritu hori zelan sartu ez jakitea.

- *On Jose Marik bultzatu zuen mugimendua betiko izango da?*

Bai, betiko da, zeren errealitatearekin adostasunean dago. Naturan harmonia dago, organizazioa dago. Sekulako organizazioa. Horregatik da natura hain polita, hain ederra. Azkenean, Jaungoikoa hori da. Don Jose Mariak asko begiratzen zion naturari. Kooperatiban ere guztiok gara diferenteak, baina guztiok aportatzen dugu.

## Pedro Mendieta Garmendia

Aretxabaletan jaio zen 1938ko urtarrilaren 11n. Ingeniari industriala eta ibilbide luzeko politikaria da, udal, aldundi eta Jaurlaritza mailan ibilia. Carlos Garaikoetxearekin EAEko Hezkuntza Sailburu izan zen (1983-1986), eta Aretxabaletako alkate 1987-1995 artean EAren bidez. Copreci (1962-1972), Fagor (1973-1991) eta Mondragon Korporazioan oro har hainbat ardura izandakoa da.

Elkarrizketa Juan Karlos Mujikak egin zion, 2021eko azaroaren 10ean, Aretxabaletan.

- *Nola ezagutu zenuen on Jose Mari?*

Eskolan ezagutu nuen, Eskola Profesionalean, Politeknikoa gaur egun. 14 urterekin ezagutu nuen. Lehenago ez, ni Aretxabaletan bizi bainintzen, eta berak apaiz lana Arrasaten egiten zuen. Gero, bigarren aldian, elkarrekin mahai biribiletan, kontseilu errektoretan-eta, egoten ginen.

- *Nolakoa zen aurrez aurre?*

Pertsona oso… ez dakit nola esan… jatorra edo normala. Esango nuke zeukan irudia irudi oso humanoa zela. Oso-oso hurbila zen, irribarre goxoarekin eta begietara begira beti. Niri *Periko* irizten zidan, eta harreman oso-oso goxoa izan nuen berarekin, baina beti esfortzuari esker, harreman goxoa baina beti esfortzuari esker. Hori horrela da.

- *Esan liteke liderra izan zela?*

Horretan dudarik ez dago, dudarik ez dago. Liderra zen, bisio oso zabala zeukalako. Gizarteak bisio zabala behar zuen hezkuntzan, enpresagintzan, ekonomian, osasungintzan eta beste hainbat arlotan. Bisio hori izateaz gain, kapazitatea zeukan ekintzetarako, eta estatutuetan bidea definitzeko, estatutuei gorputza emateko. Beste gauza bat izaten zen, bada, estatutu horiek garatzea. Baina egia esan, bere irudia, bere eredua, handia zen.

- *Zer eragin izan zuen zure bizitzan?*

Bere bizimoduan, bere izateko moduan, bazen umiltasuna eta lana. Irakurtzen ikusten genuen bera, eta hori eskatzen zigun guri ere. Esaten zigun beharrezkoa dela alternatibak estrukturatzea. Be-

hartasunen aurrean erantzuna eman, eta, horretarako, estrukturatu, talde-lana egin. Talde-lana antolatu, taldeko ikerketa eta estudioak bideratu… "trabajo y unión" esaten zuen. *Trabajo y Unión* da bere errebista. Hori zen bere mezua, behin eta berriz, behin eta berriz: "la unión hace la fuerza", "el trabajo en unión nos hará libres", "el saber nos hará libres"eta horrela. Euskaraz ez zuen egiten, oso ondo zekien arren.

- *Umore oneko pertsona zen?*

Bai, umore ona zeukan, irribarrearekin beti. Gertu zegoen hitz egiteko eta elkarlana egiteko, baina behar zuenean bere exijentzia gogorra zen. Gogoan daukat Copreciko proiektuarekin joan nintzenean, enpresa egiteko asmoarekin. Gogor egin zidan. Gogor egin zidan esanez hori ez zela bidea, Ormaetxearekin kontaktua egin behar nuela, eta enpresa berarekin elkarlanean bideratu. Baina hori ez zidan apal esan, indarrez baizik. Hori oso gogoan daukat, nola esan zidan.

- *Umorea aipatu dizut Gorroñogoitiak esaten baitzuen on Jose Marik esaten zuela "hay cooperativistas de pico y cooperativistas de pala".*

Hori zera da, erdaraz consecuente esaten dena. *Consecuente,* hitz hori, asko erabiltzen zuen. Hori ez baldin badago, ez dago normaltasunik. Pikoa erabili eta eskuak ez, indarra ez… horrek ez du inora eramaten, eta problemak sortzen dira.

- *Berak aipatzen zituen balioak gaur mantentzen al dira enpresetan eta kooperatibetan?*

Nik uste dut badaudela pertsonak, bai emakumezkoak, bai gizonezkoak, bizimodua balio horietan moldatu dutenak, moldatzen ari direnak. Hori garbi daukat. Problema masa barruan da, gizarte barruan zer gertatzen den.

Batzuk izango dira liderrak eta bizitzarako eredu, eta beste batzuk kontestatarioak eta masak izango dira, jarraitu egiten dutenak. Problema masa horretan dago. Jarraipen hori itxu-itxua bada, ekonomikoa bada batez ere, eta balioena ez. Hau da, kontsumismoa eta hainbat eta hainbat pekatu hor daude, eta gero masa horretan lan handia egin behar da. Ezkerreko masa ez da samurra, eta eskumakoak ez du horrelako baliorik. Problema masa da, masa modal

horretan balioak nola landu eta espiritu berria, gaur egun gizarteak behar dituen ekintzak betetzeko, nola eragin. Nik hor ikusten dut problema.

- *Beti ondoan egon zirenek, lehenengoek, esaten zuten on Jose Marik Elizaren doktrina soziala gizartean aplikatu zuela. Nola ikusten zen garai hartan, apaiza izanik, horrelako mezuak eta horrelako proiektuak gizartean zabaltzea?*

Sorpresa edo horrelakoa gertatzen zen, baina segituan beraganako zabaltasuna gertatzen zen. Berak bere bihotza zabaltzen zion jendeari. Noski, bere jokaera, bere esana, bere ekintzak eta abar hasieran desafio hutsa ziren, innobazio hutsa, eta horrek derrigorrez enamoratu egiten zuen. Hori horrela da, nire ustez behintzat; nik horrela bizi izan nuen.

- *Nola ikusten duzu kooperatibismoaren etorkizuna?*

Gerora begira, nik uste dut pertsonaren enpresa beti izango dela eredu oso jasangarria. Nik hori garbi daukat. Horrek ez du esan nahi bere etorrera berehalakoa eta samurra denik, zeren ez baldin badago eguneroko lanketarik –estudiatu, gizartea motibatu, gauzak estrukturatu, innobazioa bideratu eta abar– eta, batez ere, justizia soziala ez bada zaintzen, orduan erori egingo da.

Baina nik uste dut, zentzu horretan, badagoela preokupazioa gaurko zuzendarien artean. Nik hala espero dut, esperantza hori daukat. Gaur egun burokrazia gehiago dago, kontrol gehiago, baina gerora begira preokupazio hori baldin badago, justizia sozialaren preokupazioa, estudioraren preokupazioa, ikerketaren preokupazioa eta gizarteko arazoak presente izateko motibazio hori, nik uste dut horrek berez ekarriko duela, bada, gerora begira, indartzea edo bisioa. Horretan positiboa naiz.

### Jose Mari Pagaegi Olabe

Markinan jaio zen 1936ko ekainaren 1ean. Markinan apaiz eta kooperatiba eragile urte askotan ibilia da, eta on Jose Mari Arizmendiarrietaren gertukoa bertan.

Elkarrizketa Juan Karlos Mujikak egin zion, 2021eko uztailaren 27an, Markinan.

• *Noiz eta nola ezagutu zenuen on Jose Mari Arizmendiarrieta?*

1962-edo izango zen. On Julianen bitartez hasi ginen harremanetan. Ezagutu, edo hobe esan entzun, Mondragonen egin nuen. Behin, hango udaletxean, bera jaitsi eta, markinarrak ginela-eta, etxeko hartu gintuen. Markinarrak ginelako. Neure artean esan nuen "ene, zein da gizon hau"? Nik banekien nor zen, baina… Haren aita ezagutu nuen, eta egonda nago Jose Mariaren baserrian, behin baino gehiagotan, bertan.

• *Barinagan?*

Bai, bertara etortzen zen oporrak pasatzera. 8-10 egun egiten zituen hantxe amarekin, ama bizi zen artean. Ama zen andre finfina! Euskaldun asko izan diren moduan. Niretzat Euskadi askotan salbatu du andreak. Ekonomian behintzat, etxe eta auzoetan, andreak lan handia egin du.

• *Kooperatibistak izan zirelako.*

Ederto! Hori nik hor ezagutu nuen.

• *Zer eragin izan du zure bizitzan bere mezuak?*

Beharrerako lan indarrean, bai. Ezer esan behar baldin badut, beharra egiteko indarrean, eta gero harremanen moduan.

• *Merezi al du kooperatibista izateak?*

Gure sasoian eta gure pentsaeran, bai. Baina profeta faltsuak entzuten hasten badira…

## 2.2. Solasaldi berria

Jon Sarasua Maritxalar, Joseba Azkarraga Etxagibelekin batera, Lanki Kooperatibismoaren Ikertegian haren hasierako urteetan aritu zen, eta 1999ko *Reflexiones y preguntas para un debate cooperativo* lan argitaragabearen egile da. Baita, Azkarragarekin batera ere, Agirre eta besteren 2000ko *Lankidetza. Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua* lanaren eragile, Joxe Azurmendiren hitzaurre eta Alfontso Gorroñogotiaren gibelsolasarekin.

Elkarrizketan aipatutako gaiak hainbat dira, baina nagusienak honela labur ditzakegu:

1) Arizmendiarrietak sustatutako enpresagintzaren izaera kooperatiboak herrigintza eredu jakinean du oinarri, hura gizagintza asmo jakinean, eta hura espiritualtasun bide jakinean. On Jose Mari hil eta urteetara, sakoneko geruzak ikustea eta lehen lerrora ekartzea gero eta zailagoa bihurtu da. Hori dela eta, Arizmendiarrietaren pentsamenduaren eta ibilian jarritako proiektuaren ulermenean murrizketa dagoke.

Balio kooperatiboek enpresagintzari sendotasun berezia eman diezaiokete, baina herrigintza da helburu, eta haren ur sakonagoak. Gure hitzetan, Barandiaranengan oinarrituz: *janak eta edanak beharrezkoak ditugu, baina gizabidea helburu*.

2) Arrasateko esperientziaren oinarrietan balio espiritualak, formazio intelektuala eta heziketa teknikoa daude. Arizmendiarrietak gertuko gazteak hiru ardatz edo bide ireki horietan trebatu zituen, utopia eta pragmatismoa elkarrekin josiz. Haren izaera ekintzaileak hartara eraman zuen.

Izan ere, autoeraketa prozesuak heldutasunerantz zuzentzen diren arnas luzeko bideak dira. Egiturak alda daitezen, lehenbizi pertsonak aldatu behar dira, baina horrek ez du epe motzeko eginkizunik baztertzen, urratsez urratseko ibilbidea hauspotzen baizik. Bai urrutira, bai hurbilera aditzeko gaitasuna dateke Arizmendiarrietaren ahalmen aipagarriena. Eta, horrekin bat, eraldaketa prozesu luzeetan, zuzendaritzarekin eta kudeaketarekin batera, hezkuntza eta gogoeta ezinbestekoak direla irakasteko trebetasuna.

3) On Jose Mari bilatzaile handia eta irekia izan zen, baina hutsik gabekoa ez. Haren pentsamenduak, gaur egungo ikuspegitik, zenbait hutsune dauzka –gai ekologikoan, adibidez–. Horregatik, pentsamenduaren iturria bera ezagutzea garrantzitsua da, ea ur eta proposamen berriak atera daitezkeen jakiteko asmoz. Iturrira jotzea, ordea, ez da iragana orainera ekartzea, geroa ahalik eta ondoen era dadin ikasbidea egitea baino. Horregatik, sustraiak ulertzeko jarrera lantzea beharrezkoa da.

### Jon Sarasua Maritxalar

Aretxabaletan jaio zen 1966ko apirilaren 13an. Irakaslea da Mondragon Unibertsitatean. Kulturaren arloan, soziolinguistikan,

gizarte-eraldaketan, garapenerako lankidetzan eta kooperatibagintzan aritu da, alde batetik pentsamendu-lanetan, eta bestetik eragiletzan. Herrigintzako zereginetan jardun du bere ibilbide osoan, gehien bat gizarte-erakundeetan eta Euskal Herrian, eta maila txikiagoan erakunde publikoen aholkularitzan eta munduko beste herrialde batzuetan. Artikulu, hitzaldi, ponentzia edota liburu formatuan hainbat argitalpen egin ditu aipatutako alor horietan. Hiru semeren aita da.

Elkarrizketa 2024ko irailaren 5ean izan genuen, Bergaran.

- *Noiz eta nola heldu zinen Arizmendiarrietaren berri izatera?*

Gure aita nahiko hasierako kooperatibista zen, eta etxean entzun izan zen: “Aita don Jose Mariarekin biltzera doa”. Gogoan dut nahastu egiten nuela, bazegoelako beste don Jose Maria bat guk ikasten genuen ikastolan, eta pentsatzen nuen harekin biltzera zihoala.

Gure aitak aipatzen zizkigun “kooperatiba bat eta enpresa normal bat ez dira berdinak” eta holako gauzak, eta, tartean aipatzen zuen bera ere. Aitak burutapena izan zuen Arizmendiarrieta hil zenean, nik hamar urte nituen, eta eraman ninduen haren hiletara. Gogoan dut, hamar urterekin, haren hilotza, hiletako giro iluna. Eta ez dakit zer intuizio edukiko zuen gure aitak, gu sei seme ginen, eta bi zaharrenak eraman gintuen. Nahiko zuen guk gogora genezan une hori.

Gero, izan dut kezka eta jakinminerako joera, eta gaztetatik izan nuen inputetako bat bazen kooperatiben berezitasuna, eta hor atzean zer ideia zegoen. Gaztaroan hortik baino gehiago hornitu nintzen batetik euskaltzaletasunetik eta herrigintzaren tradizio batetik, eta, bestetik, munduko ezberdintasunen amildegiaren kezkatik eta kapitalismoaren irakurketa kritiko batetik; nolabait ezkerreko ideietatik, magma horretatik. Baina magma horren barruan autoeratzearen ideiak ere oso lausoki eta gutxi jakinda, esan dezagun hor zeudela tartean. Ez nintzen, dena dela, kooperatiben munduan sartu. Bestelako herrigintza batean murgildu nintzen gaztetatik.

Herrigintzako erakundeetan, edo herrialde pobre batzuetako egonaldietan, kultura sortzen, idazten eta abar ibili izan naizen hamarraldietan, iturriak batez ere kapitalismoaren kritika egiten duen ezker-unibertsoan izan ditut, eta bestetik, tradizio espiritua-

letan, kristautasunean eta arnas luzeko beste jakinduria-iturrietan, ekialdean eta abar. Praktika sozialean, ordea, autoeratzearen praktikak erakartzen ninduen gehien, eta hor etorkizuneko intuizio bat zegoela somatzen nuen. Aurrerago, Mondragon Unibertsitate sortu berritik deitu zidaten, kooperatibismoaren ikertegia sortzeko. Orduan esan nuen: nire praktikan autoeratzearen inguruan intuitu ditudanetatik harago, hemen sakondu egin behar da.

Momentu hartan nekarren bagajea, nolabait herrigintzakoa eta altermundialismoarena, oso ezberdina zen kooperatibetako buruzagiengan nagusitzen ari ziren ideiekin edo korronteekin konparatuta. Eta orduan pentsatu nuen “sakondu egin behar da iturrian”, eta saiatu nintzen Arizmendiarrietaren ordura arte idatzi zen guztia xeheki ezagutzen… Neurri batean harritu ninduen bere artikulazioarengatik, eta beste neurri batean, praktikatik eta nire eboluziotik gertuko egiten zitzaidan. Herrigintza militantetik erakundeak sortzen ibili ginenok, gauza batzuetan gertuago geunden Arizmendiarrietaren zenbait jarrera eta ideietatik, enpresako jendea baino. Eta alderantziz, enpresan aritutakoak, gu baino gertuago zeuden beste gauza batzuetan. Izan ere haren planteamenduak biak abarkatzen ditu, eta hori da sakonean paradigma zabal bat duelako, gizakiarena eta komunitatearena.

- *Mondragon Unibertsitatea 1997an sortu zen. Lanki Kooperatibismoaren Ikertegia zein urtetan jarri zenuten martxan?*

1998an jaso nuen deia. Oraindik ez zen Lanki, orduan unibertsitateko Kooperatibismoaren Institutua sortzeko eskaria zen. Sartu nintzen, lehen esan dudan ildotik, munduaren ikuspuntu altermundialista batetik eta herrigintzako ibilbide militante-organizazional batetik. Kapitalismoaren irakurketa kritiko batetik ikusita, aurkitu nuen kooperatibismoa, 90eko hamarkadakoa, nahiko eskoratuta edo alderatuta zegoen teknokratizaziora, dimentsio enpresariala zen zentralitate ia bakarra, garai hartan mundu enpresarialean zegoen hizkera neoliberalak indarra zuen kooperatibetan ere. Ideologikoki apur bat akonplexatuta sumatu nituen gidari kooperatiboak. Adibide bat: kooperatiba taldeari *Corporación* deitzea, multinazionalak imitatuz, berez ez garenean korporazio bat, inondik ere, enpresa burujabeen sare bat baizik. Hasieran nahiko bakarrik sentitu nintzen, taldea egiten hasi arte.

Diskurtso enpresarial neoliberal horren baitan, Arizmendiarrieta ere txerta zitekeen. Esaten zen “kooperatibek agertu dute parte-

hartzea eta demokrazia abantaila konpetitiboa direla, eta abantaila konpetitiboa behar dugunez munduan lehiatzeko, bada, bikain". Hau da, bazegoen, nire irakurketatik, Arizmendiarrietaren bagajearen erredukzionismo bat. Eta hor, pixka bat, hasieran talka egin nuen, nolabait, garai hartan kooperatiben buruzagitzan, formazioetan eta abar zeuden ikuspegi batzuekin. Kooperatibetako gidariek asko zekiten esperientziaz, borroka zailetan zeuden, eta formazioa ere bazuten. Baina nahiko permeableak ziren indarrean zeuden paradigma nagusiekiko, nire pertzepziotik. Orduan asko aipatzen ziren balioak. Balioak zertarako? Konpetitiboak izateko eta abar. Bale, baina nire ustez, paradigma askoz sakonagoa zen. Beste ikuspegi bat indartu behar genuen, eta hasi nintzen beste norbaiten bila taldea osatzen hasteko. Joseba Azkarraga hurbildu zen.

Lehen ideia izan zen *testigantza proiektua* deitu geniona. Joseba Azkarragak eta biok etorkizuneko kooperatibagintza izan zitekeenaren oinarri batzuekin testu batzuk egin genituen, hamar bat gai ezberdinetan. Eta testu haiek jarri genituen lehen kooperatibistekin elkarrizketan. Arizmendiarrieta izan ezik, lehen belaunaldiko ia guztiak bizirik zeuden. Haiei deitu, eta elkarrizketa luze eta sakonak egin genizkien guk egindako testu haien gainean. Hor sartu ginen kooperatibetako zurrunbiloan.

Guk, zentzu horretan, belaunaldi baten adierazgarri moduan, bagenekarren zerbait ezberdina. Irakurketa ezberdina genekarren Arizmendiarrietarena. Gure intuizioa zen, XXI. menderako genituen intuizio eta galderentzat Arizmendiarrietak bazituela aprobetxatu gabeko heldulekuak, baina horrek eskatzen zuela bere paradigma sakonagotik ulertzea. Garai hartan erabiltzen ziren heldulekuak baino sakonagoak. Garai hartan Arizmendiarrietaren enpresagintza diskurtsoa erabiltzen zen gehiago. Guk uste genuen enpresako eredu hori berez oinarritzen dela gizagintza batean, eta herrigintzako pentsamendu batean. Eta ez badugu gizagintza eta herrigintzaren pentsamendu hori ulertzen, ez dugu dena ulertzen. Baina ez bakarrik guk Arizmendiarrieta osorik ulertu nahi genuelako. Gure helburu nagusia ez zen Arizmendiarrieta aldarrikatzea; gure helburua zen XXI. mendeko herrigintza, gizartegintza, eta horren baitako kooperatibagintza. Arizmendiarrietaren ideiak, horretan, aliatuak ziren.

Herrigintzatik gentozelako, herrigintzak motibatzen gintuelako, eta enpresagintza herrigintza horren baitan ulertzen genuelako,

horregatik interesatzen zitzaigun Arizmendiarrieta. Gero beste plano bat barrurago: herrigintza hori ez da ulertzen gizagintza edo pertsona-lanketa ulertu gabe. Eta gero beste bat, beharbada sakonagoa, garai hartan planteatzen ez genuena: gizagintza hori ulertzeko haren iturri den espiritualtasuna ulertu behar da. Ez derrigor partekatu, baina bai gutxienez ulertu, bestela ekintza eta pentsamendu horren matrizea ez baita konprenitzen.

- *Elkarrizketen material hori argitaratuta dago ala eskura daukazue? Zertan geratu zen hori?*

Ez zen bere hartan argitaratu, ikuspegiak sendotzeko eta lanerako erabili genuen. Hor daude haiek guztiak idatzita, hala ere. Arizmendiarrietaren ikasle eta kooperatiben sortzaile nagusietatik hasi, eta 90eko bukaera hartako gidari nagusiak elkarrizketatu genituen. Emakumezko bakarra aurkitu genuen, elkarrizketa oso mamitsua eman zigun, Tomasa Zabaleta. Gaztetan moja izatetik atera eta kooperatibetan sartutakoa. Gainerakoak gizonak, kooperatiben ibilbidean pisu handikoak.

Hiru ikuspegi nahasten dira elkarrizketa luze horietan: lehenbiziko gidari kooperatibistena, gero bigarren belaunaldiko 90eko gidarien diskurtso apur bat "pragmatikoagoa", eta herrigintzatik gentozen bi gazteagoena. Guk gure iparra argi xamar geneukan: kooperatibak herrigintzara gehiago hurbiltzea, iturriak berrindartzea, mende berriko galdegai berrietara egokitzea, eta kooperatibagintzaren dimentsio edukatibo eta sozialak suspertzea.

- *2000an Lankidetza. Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua sustatu zenuten, Agirre eta besterekin batera, Azurmendiren hitzaurreaz gain, Gorroñogoitiaren epilogo ederra duena. Zergatik sustatu zenuten lan hura, Azurmendiren El hombre cooperativo lanaren sintesi gisa?*

Gure markoa zen herrigintza, pertsonatik hasita eta mundugintza apal baten markoan, eta kooperatibagintza ikusten genuen herrigintza horren parte. Iruditu zitzaigun guk horretarako foko intelektual eragile eta hezitzaile bat sortu behar genuela Mondragon Unibertsitatean, eta hori izan zen Lankiren egitasmoa, Lankidetzaren Ikertegia. Orduan hasi ginen Joseba eta biok Lanki ideia mamitzen. Eta horretarako norengana joko genuen? Zer intelektual? Nork lagunduko zigun horretan? Ikusten genuen, beharba-

da, harrobia sortu behar genuela. Ez hainbeste ekarri ez dakit zer soziologo, baizik eta harrobia sortu, unibertsitateko gure ikasleei aukerak emanez.

Hasteko, gazteak formatzeko materiala sortzea beharrezkoa zen, liburu sintetikoak edukitzea, belaunaldi berri batek ezagutu ditzan ideia hauek. Eta liburua bera ikasleekin batera egin genuen. Sintetikoa, euskaraz, eta mende berriaren angelutik. Hala egin nahi izan genuen, eta lan xumea da. 2000. urtea zen, eta uste genuen hasi berria zen mendeak zekartzan galdera batzuetarako eta herrigintza-enpresagintza baterako gako interesgarriak ematen zituela Arizmendiarrietak. Baina hori parte bat zen. Horrez gain mende berriko munduaren, gizartearen eta abiaduraren irakurketa sakonak behar ziren.

- *Euskal Herriko historian, kulturan eta pentsamenduan pertsona aski ezaguna dugu Arizmendiarrieta?*

Ezagutzen da apur bat, baina duen potentzialerako gutxitxo. Ez dira kokatzen bere ideia nagusiak, ideia horien jatorria, eta bere ekarpena. Orduan eta orain, gauza batzuk ñabartu arren, pentsatzen dut ekarpen garaikideak direla, etorkizuna pentsatzeko materiala ematen duela bere pentsamenduak. Joxe Azurmendik aipatu zuen "Arizmendiarrietak ematen digu eredu bat etorkizuna nola pentsatu", eta uste dut gauza batzuetan baduela potentzial hori.

Arizmendiarrieta modernitatean dago, modernitatean txertatutako planteamenduak dira, baina iturriak modernitatea baino lehenagokoak, gauza batzuetan sakonagoak. Modernitateari aldi berean barrutik eta distantziatik begiratzen dion paradigmatik ari da. Nik uste dut hor dagoela gako nagusi bat.

- *Zein dira Arizmendiarrietaren bizitzaren eta obraren bereizgarri nagusiak? Zerk egiten du berezi?*

Nik uste dut harengandik gertu dauden beste pertsonaia batzuk ere egon direla, Gasteizko Seminarioko ikuspuntu espiritual, gizagile eta herrigilea garatzen dutenak, bai hemen Euskal Herrian, bai munduan. Beharbada bere berezitasuna da pentsamendutik praktikara edo ekintzara zubia eraikitzeko izan zuen gaitasun harrigarria: nola izan den, aldi berean pentsamenduaren ekintzaile eta ekintzaren pentsalari. Ekiteko eta asmoak egikaritzeko izan zuen genioan dago aldea.

Baina, aldi berean, hori bakarrik ikusten badugu, ez dugu ikusten paradigmaren sakontasuna. Uste dut biak aipatu behar direla.

- *Nolako Arrasate ezagutu zuen 1941etik 1976ra? Zer giro ezagutu zuen?*

Arrasate hautsi bat. Alde batetik bere zuntz euskaltzale eta herrigilean irendua edo mutilatua. Horrekin, nolabait, shock egoeran zegoen sektore bat, Arrasate langile bat, Arrasate nahiko kristau bat. Alde guztietako beharrez jositako Arrasate bat.

- *Zer egin eta eragin zuen gizartearen eraldaketarako?*

Nik uste dut bere lehen bide nagusia izan zela gazteak piztea. Ez da horretan originala, orduan Elizak bazituen gazteak formatzeko guneak: Acción Católica, JOC, HOAC, Herri Gaztedi baserri munduan eta abar. Gazteak arlo sozialean formatzeko joera hori, berea baino zabalagoa zen. Elizan apaiz euskaltzale eta aurrerazale asko zegoen, eta askok aipatu dute 50-60ko hamarkadetan gazteak formatzeko zituen dispositibo horietatik sortu zirela gero euskal herrigintzako uhinak, neurri batean, arlo politikoan, arlo kulturalean, linguistikoan eta kooperatiboan.

Gazteak suspertzea ez da on Jose Mariaren ideia originala. Baina berak izan zuen bereziki hori kalitatez egiteko gaitasuna. Oinarri espiritualetik hasi, formazio intelektualetik pasa eta heziketa teknikoraino, gertuko gazte batzuk suspertu zituen. Hori izan zen lehengaia, egitura berri batzuk sortzen hasteko.

- *Arizmendiarrietaren zer balio nabarmenduko zenuke? Zeintzuk ziren bere balioak?*

Nik bereiztuko nituzke, batetik, bere iturri horietan dauden balio nagusiak, nolabait esanda espiritualitate kristau batetik datozen balioak, pertsonaren duintasuna, askatasuna prozesu moduan ulertuta, erantzukizuna, elkartasuna eta horiek guztiak. Eta, bestetik, bere estilo ekintzailearen balio propioak. Eta hor, nik uste dut, badituela balio interesgarri batzuk, bere estiloarenak.

Batetik, errealitatearekiko indignazioa lan apalerako motor bihurtzen zuen. Utopia eta pragmatismoa nahasteko gaitasuna zuen, jarrera eraldatzaile zaindu batekin. Gorroñogoitiak *tenacidad inquebrantable* aipatzen zuen hartaz gogoratuz, euskortasun sendo bat. Gero, bere irekitasuna, ikasteko jarrera. Arizmendiarrieta ikus-

ten da intelektualki irekita –seguraski Gasteizko Seminarioko bere formaziotik zetorren hori– ideia berrietara, eragin sozialistetara edo bestetara, ekintzak erakusten zionera.

Gorroñogoitiak esaten zigun: "Hura izan zen guri lehena hitz egiten Marcuseri buruz, Kaliforniako hippyei buruz eta Maori buruz… ez dakit nondik ateratzen zituen horiek". Eta gero eraldaketa planteatzen du sendo baina aldi berean, pazientziaz. Uste du autoeraketa prozesuak denbora behar duten prozesuak direla, pertsona aldatu behar dela, egiturak aldatzeko, eta dena batera doala, heldutasun prozesu batean. Garai hartan indarrean zegoen iraultzaren paradigma presazko horretatik oso ezberdina zen.

Mundua eraldatzen joateko komunitateak eraldatu behar dira, horrek pertsona eraldatzea eskatzen du, eta hori hezkuntza prozesu bat ere bada. Arnas luzeko eraldaketa da, eta azpian dauka sakoneko begiratua. Baina egiturak ere aldatu behar dira, aldi berean. Arnas luzeko begiratua eta epe motzeko ekintza uztartzeko gaitasun harrigarria. Hori litzateke beharbada Arizmendiarrietaren ezaugarri nagusia.

- *Balio sakon horiek non eta nola aurki daitezke gaur egun? Edo, bestela esanda, Arizmendiarrieta nola izan daiteke eredu guretzat?*

Bada apurketa moduko bat. Apurtu eta barreiatu bezala egin da Arizmendiarrietaren balioen koherentzia. Arizmendiarrietaren elementu batzuk orain aurki ditzakegu kooperatibetan, noski, eta beste batzuk, ez dakit, Gazte Sozialista mugimendu berri honetan, eta beste batzuk egungo herrigintzan, euskalgintzan eta ekonomia solidarioko enpresa alternatiboetan. Eta beste batzuk daude Elizan, edota mundua eraldatzera atzerrira joaten diren horiengan. Barreiatu egin da lehen, beharbada, koherentzia batean, pertsona mota batzuengan zegoena.

Esan liteke Arizmendiarrietaren iturri espiritualak azaltzen duela beste ia guztia. Analisian zintzoak bagara, bata ezin da bestea gabe ulertu. Baina galdera da, nik erantzun gabe dudan galdera da: iturri espiritual horretatik desligatuta gelditzen den gizagintzaren eta komunitategintzaren ideiek iraun dezakete, eta paradigma sendo bat osa dezakete? Ez dakit, egia esan. Utz dezagun zalantzan. Baina momentu honetan hori daukagu, eszisio bat. Eta ikusi dugu, batetik, eszisioa gertatu dela, eta sakontasuna eta indarra

galdu egin dela. Indarra galdu da eszisioagatik? Ez dakit, hipotesi bat izan liteke. Baina faktore asko daude.

Dena dela, bizirik ikusten ditut Arizmendiarrietaren ideia asko, ni egungo kooperatibagintzarekiko nahiko kritiko nagoen arren, egungo kooperatibagintzan balio asko martxan daude, hor daude. Eta ez bakarrik kooperatibagintzan. Herrigintzan eta mundu alternatiboko enpresa sozialetan, bazterkeriaren inguruko ekimen autoeratuetan eta abar, martxan daude zentzu, praktika eta balio batzuk. Aldi berean, ahultasun sintomak ere garbiak dira.

- *Zeintzuk dira, egun, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren erronka nagusiak? Zeintzuk izango lirateke Arizmendiarrietaren erantzunak?*

Abiatzen naiz Arrasateko kooperatibagintzaren begiratu afirmatibo batetik. Baieztapena hau da: alde batetik, bai, gauza on asko dago hor martxan, batere errazak ez direnak, eta hasteko aitorpena egin behar zaie. Ez aitorpen iraganekoari, baizik eta egungoari ere bai. Benetan, bere zailtasun, paradoxa eta kontraesan guztiekin ere, bada afirmatzeko eta ikasteko errealitate bat. Hortik abiatzen naiz. Dituen berezitasunak asko dira, baina, bereziki, asko-asko laburtuta, bi gauza da kooperatiba arizmenditarra: barrura begira, modu demokratikoan antolatzen saiatzen den enpresa, eta, kanpora begira, konpromiso soziala duen enpresa. Aldi berean, hori guztia elkarri lotuta eta elkar-laguntzaren bidez funtzionatzen duen sektore ezberdinetako enpresa talde baten bidez.

Elkartasun mekanismoak, batetik, enpresa barrura begira, eta bestetik taldean aritzeko. Enpresak elkarrekiko, talde sistema kooperatiboko interkooperazioan. Eta, gero, gizartearekiko konpromisoa, nolabait herrigintza baten parte izatearen kontzientziatik. Bueno, hori asko da, asko da. Egia da, apalki bada ere, afirmatu behar dela hori guztia gertatzen dela, eta, bestetik, baita ere, esan behar da hori guztia gertatzen dela behar baino neurri txikiagoan, kontraesan askorekin, inertzia gehiagorekin eta abar.

Errealitate kooperatiboak badu dimentsio enpresarial bat, eta dimentsio sozio-edukatibo bat. Hamarkada hauetan dimentsio enpresariala asko handitu da, gihar inpresariala indartu da, baina gihar sozio-edukatiboa ez da zaindu, ez da landu. Eta bigarren gihar horren atzean egon behar da zentzua, zertarakoa, zein da egiten ari garenaren zentzua. Eta zein den zementua, zer den elkartzen gaituena. Elikadura motibazional eta sinboliko hori

guztia. Munduko eta historiako eraketa askotan gertatu da gihar kuantitatiboa asko indartzea, eta espiritu edo bultzada kualitatiboa makaltzea.

Mugimendu askori gertatzen zaien prozesua da, indar eratzaileak sortzen du eraketa edo instituzioa, eta gero indar eratzailearen gainetik indar eratua nagusitzen dela. Indar instituitua hain handia denean, indar eratzaile hori irentsi eta ahuldu egiten da. Kontua izaten da indar eratzailea nola elikatu berriro. Hemengo kasuan, desafio nagusiak dira kooperatiba taldearen zuntz edukatibo, sozial, intelektual eta sinbolikoak indartzea. Ulertu egin behar da enpresagintzan jarri behar ditugula gure indar gehienak, enpresa garelako, eta momentu honetan, mundu honetan, enpresa bezala irautea ere desafioa delako. Baina, aldi berean, hori egiten dugula, herrigintza baten baitan, eta pertsonagintza edo gizagintza baten baitan, eta azken ortzimugan, apalki eta herrenka bada ere, mundu justuago baterako ekarpen eta pista modura. Hori lantzea, eta etengabe Arrasateko pertsonek hori egokitzea, berritzea eta mamitzea izango litzateke norabidea. Ematen du hau teorikoa dela, baina praktikan oso gauza konkretuetan gauzatzekoa da: laneko organoak hobetzetik hasi, eta nazioartekotzeko modua edota taldeko unibertsitate-eredua pentsatzeko moduraino.

Adibidez, unibertsitatean, bultzatu behar genuke giza zientzien fakultate edo foko indartsu bat? Hori estrategia kontua da. Edo pentsatu behar dugu beharbada Nafarroan edo Iparraldean dauden unibertsitate-beharrei erantzutea, beste leku batzuetan negozio ikuspegitik hedatzearen aurretik? Jar dezakegu lehenik herrigintza eta mundugintza ikuspegia, eta ondoren horri negozio ikuspegia eman? Edo alderantziz egiten dugu? Kooperatiba industrialak eskualdeka gehiago elkartu behar ditugu, eskualdea gehiago lotzen delako herrigintzarekin, kohesioarekin eta gizagintzarekin? Horrelako loturak gehiago indartu behar ditugu? Hezkuntza kooperatiboa txertatu behar dugu enpresako organuetan? Eta abar, eta abar. Galdera horiek egin ditut agertzeko eredu kooperatibo herrigilea ez dela teoria hutsa, 2000ko hamarkadan saiatu ginen sakoneko ideia horiek kooperatiben eguneroko estrategietara eramaten, arrakasta gehiago edo gutxiagorekin. Indar handia ez genuen, edozein kasutan.

- *Bi eredu daudela dirudi, enpresa-ikuspegiaren nagusitasuna bultzatzen duena, eta enpresa herrigintzan kokatzea bultzatzen duena. Hala da?*

Bai eta ez. Diskurtsoan guztiok aipatzen ditugu balioak, herria eta abar. Baina diferentzia dago nondik abiatzen zaren, benetako ze pisu ematen diozun. Enpresa-eredu teknokratikoagoa bultzatzen dutenek ez dute egiten hori bakarrik ikusten dutelako, enpresagintza bakarrik ikusten dutelako eta ez direlako herrizaleak. Ez. Herria ere ikusten dute, eta beren diskurtsoan gainera txertatu egiten dute. Baina gero estrategia benetan gidatzen duena enpresa-ikuspegi tipikoa da. Hor dago zailtasun nagusia. Ikusten dute, beren diskurtsoan txertatzen dute, baina praktikan besteari ematen diote lehentasuna. Eta hori da kontua. Ez da "nik badut paradigma sakon bat eta herrigintza eta gizagintza ikuspegia eta zuk ez". Baizik eta: "Biok dugu neurri batean, baina azkenean zugan nagusitzen dena da lehentasun enpresariala". Eta esango genuke: "Lehentasun enpresariala nik ere badut, baina ni ikuspuntu herrigile eta gizagile honek eramaten nau estrategiak lehenik hortik pentsatzera. Eta ez du esan nahi derrigor horregatik estrategia enpresarialetan zu baino makalagoak izango garenik. Igual estrategia enpresarialetan zu bezain abilak izan gaitezke, edo zurea bezain estrategia enpresarial bideragarria landu dezakegu, baina beste honetatik abiatuta, eta ez beste hau *lagun* hartuta, baizik eta beste hau *oinarri* hartuta".

Adibide moduan har dezagun gertuko bat, unibertsitate kooperatiboko fakultate jakin bat. Fakultatean denak sentitzen dira euskaltzale, humanista edo herrizale neurri batean, baina gero non egingo du fakultateak apustua? Zein dira estrategiaren abiapuntuko axiomak? Normalean, haztea, negozioak indartzea, nazioarteratzea eta horiek denak, taupada neoliberal ohikoak. Gero hor enkajatzen dira gainerako helburuak. Etengabe gertatzen da hori, bereziki plan estrategikoak supraegitura batetik abiatzen direnean. Adibide grafikoago bat jartzearren, kooperatiba batzuetan egon dira egoerak beren produkturen batean armagintza hornitzen zutenak. Alde batetik zentzuari buruzko zalantza etikoak izan ditzakezu, eta bestetik lanpostuak mantentzearen borrokan ari zarela argudia dezakezu. Edo hori argudiatu, baina gero ez zara lanpostuei eusten, igual hazten ari zara! Edozein kasutan, kooperatibagintzako debateak oso delikatuak dira, eta beti da, nolabait

esanda, pisu espezifikoen joko bat. Zer aldek hartzen duen pisu espezifiko gehiago.

- *Arizmendiarrietaren ideietara itzuli beharko lukete kooperatibek?*

Bi ideiatan kontraesankorra izango naiz. Alde batetik, Arizmendiarrietaren eredu sakonera itzultzeak ematen digu pista aurreko galderan aipatu dugun horretarako. *El hombre cooperativo* bilduma-liburuan hori ikusten dugu, gizagintza baten baitan kokatzen den enpresagintza. Baina, bestetik, ezin dugula intelektual infalible bezala hartu. Gure ustez Arizmendiarrietaren begiratuak defizit batzuk ere izan zituen, bere garaiari zegozkionak: gai ekologikoaren ingurukoak, hazkuntza ereduarenak, batez ere. Gai horiek beranduxeago hasi ziren aipatzen.

Bada beste hutsune bat, niretzat garrantzi handia daukana. Beharbada ez zion denborarik eman. Esperientzia eraldatzaile batek izan behar duen funtzio-banaketari buruz ari naiz. Eraketa funtzioa, kudeaketa funtzioa, bultzada funtzioa eta funtzio pedagogikoa zaindu behar dira horrelako prozesu luze batean. Eta modu sinbolikoan hitz eginda, Arizmendiarrietak bi oinordeko utzi zituela esango nuke: gerente handi bat, eta lehendakari on bat, arlo enpresariala eta arlo sozio-instituzionala, Ormaetxea eta Gorroñogoitia, nolabait esateko. Eta ez dakit zergatik, edo ez ziren konturatu edo ez zien denborarik eman ikusteko, horrelako eraldaketa prozesu batean, edo eraldaketa dispositibo handi batean, funtzio garrantzitsuak direla, bai, gerentziala edo eraketa funtzioa eta funtzio sozio-instituzionala, baina badagoela beste funtzio bikote funtsezko bat: ideia-bultzada funtzioa eta pedagogia funtzioa.

Ideia-bultzada funtzioa eta pedagogia funtzioa Arizmendiarrietak berak betetzen zituen. Hil zenean ez zen horren oinordeko garbirik geratu, funtzioa airean geratu zen. Edo berak ez zuen hori aski garbi aurreikusi horren pisua, eta ez zen hasi prestatzen funtzio hori beteko zuen pertsona bat edo dinamika bat. Edo, bestela, haren ondorengoak ez ziren aski luzidoak izan dimentsio horren garrantzi handiaz.

Hala, inspiratzailea hil eta hogei urtera, 90eko hamarkadan aurkitu ziren enpresa-talde moduan asko hazita, munduan ezagunak bihurtuta, baina etxean bertan diskurtso neoliberalekin nahastuta. Hori da guk topatu genuena urte haietan. Gorroñogoitia,

Ormaetxea eta hauei, erdi ezkutuan aurkitu genien halako sentipen garratz bat. Alfonsok esaten zuen: "Gu gara bafle burrundaren erdian bazter batean txirula jotzen ari den txirularia". Esanez bezala gure eredu kooperatibista ezer ez dela mundu kapitalistaren soinu ikaragarriaren aurrean.

Horrek bazuen, ordea, plano bat barrurago. Nolabait, adierazten zuten: "Guk hau dena egin genuen kristauak ginelako, eta nolabait kristautasunarekin koherenteagoa izango zen enpresa eredu bat egiteko. Matrizea hori zen, eta hori da guretzat. Dena eman, jubilatu, eta ikusi dugu Arrasaten, batetik, kooperatibek izan dutela ikaragarrizko arrakasta, eta mundu guztia datorrela hona hau ikustera, eta, bestetik, Arrasate izan dela Euskal Herrian ia gehien deskristautu den herria. Orduan, zer egin dugu gaizki, edo zer gertatu da hemen?" Kuantitatiboki egundoko arrakasta, leku guztietatik omenaldiak, baina haientzat iturria edo matrizea zena, espiritualitatea, desagertzen sentitzen zuten. Dena dela, hori beste gai bat da, konplexutasun handikoa.

Uste dut hor, ez kristautasunagatik, baizik eta, oro har, paradigma kooperatiboaren transmisio eta berrikuntzagatik, ideiak elikatzeko funtzio hori abandonatuta geratu zela. Ez dut esan nahi erabat abandonatu zutenik, baina oso bigarren mailan egin zuten. Uste dut hor ez zirela argi ibili.

- *Konturatzen ziren horretaz?*

Begira, 1998 eta 1999an, Joseba eta biok aterrizatu, eta idatzi genituen 10 dokumentu, bakoitza lauzpabost orrikoa, guk gaia nola ikusten genuen azalduz: kooperatiba hezkuntzaren garrantzia, zentzu-arloaren lekua, mundu-ikuspegiaren garrantzia… horrela hamar testu. Irakurri zituzten Ormaetxeak eta Gorroñogoitiak, eta esan zuten: "Hau zuek idatzi duzue benetan?" "Bai." "Ez da posible!" "Bai." Hainbesteraino zen haientzat ezustekoa, igual berria zelako, baina hutsune bat seinalatzen zielako, eta gaztetan entzundako gauza batzuk ekartzen zizkielako bueltan.

Aldiz, orduan kooperatibetako arduradun nagusi batzuek mesfidantzaz hartu zituzten testuak. Orduko lehendakari orokorrak ez zigun sinestu guk idatzi genituenik, mindu egin zen, uste zuelako testu haiek zeudela idatzita garai hartako agintari kooperatiboen kontra, eta ez genituela Josebak eta nik idatzi, Ormaetxea zaharrak baizik. Ez zigun sinesten euskal herrigintzako mugimenduetatik zetozen bi erdi-gaztek hori idatz zezaketenik.

Ormaetxeak eta Gorroñogoitiak esan ziguten: "Zuek izan behar duzue gaur egungo Arizmendiarrieta. Zuek formatu behar dituzue egungo gerenteak". Guk esan genuen: "Gu ez gara inor talde kooperatiboan! Ez daukagu horretarako sinesgarritasunik, ez bokaziorik ere ezeren lider berriak izateko". Hartu genuen estrategia apalago bat: unibertsitatean saiatu harrobi bat sortzen, belaunaldi berri batean ideia hauek mamitzen, eta hortik kooperatiben taldean eragiten hasi hainbat angelutatik.

- *Arizmendiarrieta lantzen hasita, zaharrenak gertukoago izan zenituzten bigarren belaunaldiko gidariak baino?*

Arduradun kooperatibo batzuk mesfidati ikusi genituen, gu, haiek baino gazteagoak ginenak, eta herrigintzatik eta euskalgintzatik gentozenak, Arizmendiarrietaren iturrira jotzen genuelako. Nolabait, adierazi ziguten on Jose Maria oinarrizkoa dela, baina iraganean dagoela, eta lehen bultzatzaileak jubilatu zirela, eta kooperatibak dinamikoak direla, belaunaldi bakoitzak egin behar duela bere bidea, eta orain euren ordua zela. Horretan arrazoia zuten, baina guk nahi genuena ez zen atzera begiratzea.

Hor kontuz ibili behar da. Iturrira jotzea ez da atzera begiratzea. Badakigu beste garai batzuk zirela, eta gauza batzuekin kritikoak izan gaitezke. Kontua ez da atzera begiratzea, ez dugu santu bat sortu nahi, hark esaten zuen guztia miresteko. Ez, ez. Nahi duguna da iturrira jo, aurrera egiteko behar dugun elementu batzuen bila. Arizmendiarrietarengandik distantzia psikologiko handiagoa daukagu. Haiek *don Jose Maria* deitzen zioten, eta guretzat ez da don Jose Maria. Guretzat Arizmendiarrieta da, autore bat eta bultzatzaile bat. Baina aldi berean, esaten dugu haren paradigmaren sakontasuna ikertu behar dugula, gure ustez XXI. mendeak dituen galderetarako elementu interesgarriak daudelako hor.

- *Mondragon Unibertsitateak nola landu eta ezagutzera eman du Arizmendiarrietaren esan-egina?*

Orain dela 25-bat urte, zerotik gertu zegoen hezkuntza mailan egiten zena. Gogoan daukat 2000ren hasieran-edo, Arizmendiarrietari eta kooperatiben ideia nagusiari, kooperatibagintzari buruz, oinarrizko sarrera bat eman genuela kooperatiba batzuetan. Eta Arrasateko ingeniari gazte batek esan zigun: "Begira, nik guraso kooperatibistak ditut. Bizitza osoa kooperatibetan ikasten eman

dut. Ikasi dut Mondragon taldean dagoen ikastola kooperatiba batean lehen, gero Mondragon Unibertsitatean egin ditut ingeniaritza ikasketak. Eta zuei entzuten dizuet, lehen aldiz, kooperatiben oinarriez esan duzuen hori. Hau niretzat berria da".

Hori zen egoera: "Zertan ibili gara?". Hor hasi ginen poliki enpresa-humanitateak graduan, lantzen eredu kooperatiboaren oinarriak, baina beste eredu eta debateen alboan, munduko joerak ulertzeko formazio zabalago batean. Hortik planteatu genuen hezkuntza sozio-politiko-humanistiko minimo bat eskaini behar zela unibertsitate osoan.

Nire ustez, enpresa-kudeaketan ikasle batek, irakasle batek edo ingeniari batek bere burua munduan ere kokatu behar du, munduaren irakurketa oinarrizko bat egiteko tresnak izan behar ditu, gai sozialetan formazio minimoa. Eta horren baitan, eredu kooperatiboaren ideia orokor bat behintzat ezagutu behar luke, beste gauza askoren artean.

Pausoak eman dira, eta nik uste dut aurreratu dela, beharbada egin zitekeena baino gutxiago. Nik nire kasuan duela 15 urte utzi nuen lan hori, baina Lankiren egiteko nagusietakoa izan da hezkuntza kooperatiboa, horretarako materialak sortzea, unibertsitatean eta bereziki enpresetako langile eta organoekin. Orduan, uste dut aitorpen bat ere egin behar dela.

• *Nola berreskura lezake Euskal Herriak apaizekiko miresmena?*

Esan liteke gai erlijioso eta espiritualekiko itsas-erresaka handi baten barruan gaudela gaur egun Euskal Herrian. Bere azalpen historikoak ditu. Erresaka hori hain da indartsua, distortsionatu egiten dela, nolabait, horren inguruko guztia. Erresaka eta distortsio horren barruan sartuko da apaizei buruzko irudia ere. Gainera, egungo kultura hiper-sexualizatuan, oso urruna egiten da norbaitek kastitate, pobrezia eta esanekotasun hautuak egitea, osorik zeregin batera dedikatzeko. Gertatzen dena da, 50 urtetan gauzak hain modu azeleratuan aldatzean, gure gertuko iraganeko klabe batzuk ere galtzen ditugula. Apaizik gabe zaila da ulertzea, ez bakarrik kooperatiben sorrera, baizik eta euskalgintzaren sorrera, gure historia eta beste gauza asko. Apaiz batzuek izan duten garrantzia gure herrigintzarako oinarriak jartzerakoan, edo gure autokonprentsiorako oinarriak jartzerakoan herri moduan… handia da. Berdin kooperatibagintza ulertzerakoan eta beste arlo batzuetan.

Uste dut hori defizit bat dela. Ziurrenik, erresaka hau pasatzen denean, gizartea hasiko da beste modu batean ikusten iraganean izan dugun jende mota bat, uko egin ziona familia bat sortzeari, uko egin ziona ekonomia propio bat izateari, eta, nolabait, hautu pertsonal exijente batzuen barruan bizitza dedikatu zuena arlo espiritualera, eta batzuk beste hainbat lanetara ere bai, herrigintzara. Ezin dugu gure gaur egungo errealitatea ulertu haiek egin zutena gabe. Ordutegirik gabeko eta bizitza osoko militante haiek gabe. Aparte utzita erlijioaz edo espiritualitateaz dugun iritzia. Gure sustraiak begirune eta patxada handiagoz begiratu behar ditugu.

- *Eliza Katolikoan santu izendatzeak zer onura ekar lezake?*

Ni ez nau bereziki motibatzen. Uste dut santu izendatzeak eragin gehiago edukiko duela mundu mailako sektore batzuetan –Eliza Katolikoa mundu osoan dagoen errealitatea da, eta goraka doa hainbat kontinentetan–. Mundu zabal horretan Arizmendiarrietaren oihartzuna gehitzen lagunduko du, azken finean, oker ez banago "santu" egiteak "eredugarri" moduan bisibilizatzea esan nahi du-eta. Eta hori pozgarria da. Pertsona eredugarriak izan direnak bereziki markatzen dira haien eredugarritasuna hurrengo belaunaldiek aintzat har dezaten. Zentzu hori duen neurrian, ondo ikusten dut. Baina ez nioke garrantzi gehiago emango gai horri.

Deigarri egiten zait gure aitak gai horrekin esaten zuena. Aitak zuzenean ezagutu zuen Arizmendiarrieta, eta asko estimatu zuen. Haren moduan bizitza osoko herrigilea izan zen aita ere, zazpi-zortzi arlo ezberdinetan ekintzari emana bizi izan zen pertsona bat, nekaezina eta aldi berean kristau petoa, eliztarra. Baina hasi zirenean beatifikazioa bultzatzen, esan zuen: "Bueno, niretzat hori ez da lehentasuna. Zer inporta du santu izendatzeak eta abar? Badaukagu lehenagoko zereginik hemen". Esanguratsua da hain kristau eliztar petoak esatea Arizmendiarrieta santu izendatzea guztiz laugarren mailako kontua zela. Hauentzat, iturria Misterioa zen, eta Eliza zerbitzua zen soilik, mundua hobetzeko. Izendapen eta tituluetan ez zuten asko sinesten. Hala ere, mundu mailan batzuk gehixeago ezagutzeko onuragarria izan liteke. Euskal Herrirako ez du hainbesteko eraginik izango, nire ustez. Garai honetan, Elizan ofizialki santu izendatzeak ez dio beste sektore gehienetan onura berezirik erantsiko Arizmendiarrietaren ezagupenari.

# 3.
# SAIAKERA

Aurreko ataletan ikusi dugunez, on Jose Mari Arizmendiarrieta pertsona sakona zen, ezagutza, gaitasun eta lorpen handikoa. Datozen lerroetan, hura ahalik eta osoen ulertzeko saiakera egingo dugu, bi alderi begira. Bat, gizatasunari eta gizabideari dagokiena; hau da, Arizmendiarrietaren gizagintza, gizagile izan baitzen. Bi, elkartasunari eta komunitateari dagokiena; hots, Arizmendiarrietaren herrigintza, herrigile izan zelako.

On Jose Marik gerraosteko Arrasate hirimortu aurkitu zuen, gizamortu begitandu baitzitzaion. Espetxeak beteta, langabeak, etxegabeak, tuberkulosiak jotakoak zein umezurtzak larregi ziren. Hondar artetik eraiki zezan, lehenik eta behin hondarrak kendu eta lurra argitara ekarri beharrean egon zen markinar heldu berria. Bestela esanda, Arizmendiarrieta ez zen hutsetik abiatu, minusetik baino. Nahikoa lan izan zuen, lehenik eta behin, hutsera heltzen, pixkanaka irabazten has zedin.

Horretarako, aldez aurretik zenbait hari josi ditugu Arizmendiarrietaren inguruan –Gasteizko Seminarioa, Euskal Pizkundea, modernitatearen auziak, frankismoa–, eta adituen elkarrizketetan ageri izan zaigu gizonak, pentsamenduz eta izpirituz, ohi eta uste baino sakonago heltzeko giro eta heziketa aparta izan zituela. Baina, gogoan izan behar dugu, liburuaren helburu nagusia hori

baita, zaila egiten dela asko-askotan Arizmendiarrieta eta bere antzeko pertsona ugariak ondo aditzea. Gure gaitasun hipermodernoak itsutu edo gortu egin gaitzake-eta garaikidea bai, baina modernoa ez den inor uler dezagun. Horregatik, ondorengo hitzei helduko diegu lehenbizi, eta berriz ere liburuak hasiera-hasieran nabarmendutako puntura itzuliko gara: Arizmendiarrieta apaiza zen, benetako eta erabateko apaiz, irakaspena bere bizitza emanez zabaldu zuena.

1926ko urriaren 31n, Aldabaldetreku, Goicoecheaundia eta beste kide batzuek, lehenak eraginda, apaiztasunaren gaineko gogoeta eta otoitz taldea osatu zuten. Gasteizko Apaiz Mugimenduaren hasiera izan zen, espiritualtasun berezia izan zuena. Adiskidetasun minak elkartu zituen, eta apaizgai askori eragin zion taldeak; Arizmendiarrietari bizitza osorako irakaspena eman zion. Gainera, 1932-1933ko ikasturtetik, Goicoecheaundia zuzendari espiritual izan zen, eta Aldabaldetreku Bergaran ere izan zuen on Jose Marik. Barinagan eta Artean jasotako izpiritu zuzendaritza kontuan hartuz, maisu eta trebakuntza oparoak izan zituen Arizmendiarrietak.

Gasteizko espiritualitate haren eraginez, 1933rako, Arizmendiarrieta Jesusen Bihotzaren eta Amabirjiña Garbiaren argitan bidea egiteko hitza hartu zuen, eta seminarioko Ad Jesum per Mariam taldera batu zen. Elkarte haren helburua bikoitza zen:

> 1. fomentar mediante unión estrecha de sus socios los valores humanos, en especial los religiosos y, 2. promover una cruzada de apostolado sencillo y callado bajo la base de una vida interior intensa y con miras a las necesidades de la sociedad moderna en nuestra Diocesis.

Gizabidea Jainkobiderantz adierazi zuten lehenbizi apaizbidea egiten ari zirenek, eta, horrekin bat, ondo nabarmendu egin beharreko hau: barne espiritualtasun handiko bizitza, santutasun isilean oinarriturik eta elizbarrutiko gizarte modernoaren beharrizanetara zuzendurik. Santutasuna fededunenganako, eta, zabalago, herritar ororenganako, etengabeko arduraz lortzen da, elizgaiak ez baitira apaizaren lan eremu bakarrak.

Izan ere, aro garaikidean, misioetan urrutira joan beharrean, gertu-gertuan aritzeko beharrizana dauka Elizak, eta horretan zeuden apaiz aurreratuenak. Elizbarrutiko jatorrizko herria euskalduna

zenez, harengandik hurbil eta haren onerako lan egiteko prestatu beharra zegoen, Barandiaranek eta bestek ondo zekiten legez. Mezaren aurretik eta ostetik jendeak sakon otoitz egiten gogoratzen duen Arizmendiarrietak Arrasaten egin zuena Gasteizko urrezko aroan ikasi zuenaren aplikazioa izan zen, beraz.

On Jose Mariren gertuko Alfontso Gorroñogoitiak, Ulgorreko sortzaileetakoa izan zenak, Agirre eta besteren 2000ko *Lankidetza. Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua* liburuari eginiko epilogoan, honela esan zuen, biribil:

> Nondik zetorkion bere izaerari eta jardunbide pertsonal eta sozialari zerion barne-indar izugarria? Erantzun bakarra dago: fededun eta apaiz izaeratik. Arizmendiarrietak Jaungoikoarengan zintzo sinesten zuen, anaitasunaren oinarri eta kosmosaren eta gizakiaren jatorri gisa. Jaungoikoaren borondatea gizakien arazoei itsatsitako apaiz gisa bideratu zuen. Beretzat, egin zuen guztia egin beharrekoa zen apaiza zelako, hain zuzen. Horregatik, ez da harritzekoa bere lankide batek esan izana Arizmendiarrietaren ikasbiderik garrantzitsuena ondoko esaldiak laburbiltzen duela: "Jainkoa zerbitzeko modua gizaki zehatz eta errealak zerbitzea da". Lankide horrek berak dio Arizmendiarrietaren biografia, artikulu eta irudiak izenpetuko lituzkeela sarritan ezkutatu den eta bere burua ederki deskribatzen duen esaldiarekin: "Jaungoikoari eman zitzaion gizona".

Esaldi-ahapaldi horretan, bada, orain arte esandako guztia hausnartzen hasteko gaia dugu. Gorroñogoitiak dio Arizmendiarrietak bizi-indar handia zeukala, izaeraz eta eginkizunez, eta zabaldu egiten zuela, bai gizabanako legez, hurbilean, batetik besterakoan; bai ekintzaile legez, taldean, askoren artean. Eta bizi-indar hori ez zela berea, bilatu egiten zuela, eta jaso ahala eman egiten zuela. Beste era batera esanda, Arizmendiarrieta ubide zela. Gizatiarra eta mundutarra ez den, horiek baino gehiago den, iturria ezagutzen zuela, eta hango urak gertukoen lurrak bustitzeko erabiltzen zituela. Sorburu hori misterio transzendentearen iturria da, eta Jesukristoren zentzuan ezagutzen zuen harako bidea on Jose Marik. Mamiz, adierazpenez eta emariz agortezina den putzura emana zegoen, apaiz katoliko gisa, iturriak halakoak ere egin dituelako ura bidean jar dadin.

Beste behin esan dezagun: on Jose Mari apaiza zen. Ez digu nagirik edo nekerik eman behar. Are gutxiago lotsarik edo beldurrik. Gaiak interesa, gogoa, harridura eragin behar digu. Zergatik? Gorroñogoitiak azaltzen duenez, Arizmendiarrieta Jesukristo berpiztuaren eta Maria Birjinaren bizipen sakonek egin zutelako apaiz; ez, ordea, joan den garaiaren joera jakinak. Misterioa elkartasunaren oinarria, eta kosmosaren eta gizakiaren jatorria zela zekien, haren uren bizipenetan.

Hau da, gogoeta diskurtsibotik harago, baita-baitatik. Eta horrek dena aldatzen du. Hori dakiena ezin da hori erdigunean izan gabe bizi, ezin dio bizkarra emanda edo izkin eginda bizi. Arizmendiarrietaren pentsamendua transzendentziaren argitan garatzen da: mundua eta gizakia euretan azaldu daitekeen baino Asmo handiagoan kokatzen dira, zentzu transzendentea daukate, eta hura ezagutu egin behar dute. Beste era batera esanda: on Jose Mariren gogoan, izadiaren eta gizadiaren dimentsio sakratua gorengo ardatz zen.

Misteriozko su horrek, gainera, ebanjelioak erakutsi legez, munduaren eta gizakiaren gaineko ardura dauka. Onbera da, maitasun bizia da, eta haren gogoa kreatura ororen arazoei zuzendurik dago. Arizmendiarrieta misterio horren apaiz zen, eta, hortaz, munduari eta gizakiari pertsona erabat emana zen. Erreserba barik. Kontenplazioa edo gogojarduna iturrirako zentzuan landu zuen, eta ekintza edo eskujarduna mundurako zentzuan. Hots, on Jose Mari apaiz ekintzailea izan zen, apaiz soziala, herrikoa. Ebanjelioa bizi eta zabaldu egin behar zuen: entzun, eman, lagundu, zaindu, bihotzak arindu, herri-ekimenak sustatu. Ezinbestean. Misterioaz zuen bizipenak horretara eraman zuelako.

Hau da, une oro gizarteari eta haren garabideari emana izan nahi zuen, eta, horretarako, apaiza izan behar zen. Etengabe, nekerik gabe, norberarentzat izan beharrean, norberak duena hurkoarentzat izan dadin, gizaki mugatuan mugagabeko emaririk egon dadin, misterioaren uretara heltzen jakin beharra dago. Eta ur horiek norberagandik igarotzen nabaritzearekin, pozik dago bat, zentzuz betetako bizitza baitu. Aldamenekoa laguntzat hartzean eta haren zerbitzura egotean, misterioaren bidegile da bat. Horra hor, gizarteari emana egotea misteriora emana izatea, misterioari emana bizitzea gizarteari emana aritzea.

Horixe da, lehenbizi, ondo aintzat hartu behar duguna. Arizmendiarrietak ez zuen beretzat ezer gorde –hil ondoren, erlojua, luma eta ezer gutxi zen utzitakoa, ezaguna denez–. Indar, ideia, segundu, ogi apur… guztiak besteentzat edo besteen onerako izatearen etengabeko biziera izan zen on Jose Marirena, sorburu eta helburu misterioa zituena.

### 3.1. Kardaberaz Bazkuna

Arizmendiarrieta Iturbe etxeko premu zen, baina apaiz izateko uko egin zion horri. Erabaki hori ez zen ohikoa, etxea, ezinbestean hala ez bazen ere, nagusiarentzat izaten baitzen. Bizimodua etxetik at, Elizaren teilapean, nagusi ez zirenek bilatu ohi zuten. Etxejaun izan zitekeen Arizmendiarrietak, ordea, bere gogoz erabaki zuen seminariora joatea, eta gurasoak ondo ados jarri behar izan ziratekeen. On Jose Mari bokazio sendokoa zen gazte-gaztetatik, beraz. Otoitza, errosarioa, pietate ekintzak, parrokia, liturgia… azken zentzuaren iturri izan zitzaizkion, Barinagan lehenik, Artean, Gasteizen eta Arrasaten ere ondoren. Baina Barinaga ardatz beti, inolako zalantza izpirik gabe, Arizmendiarrietarentzat euskal lurra kristau zeruarekin batzen den lehen etxea.

Uste osoko izaera hori berori da, hain zuzen, Arrasaten 35 urtez koadjutore izaten utzi ziona. Hau da, baserrian geratu izan balitz, baserritar petoa izango zatekeen, toki berean egonda, baina tokia garatuz. Arrasaten apaiz-laguntzaile mailatik ez zen pasa, baina itzelezko obra egin zuen. Izan ziren Arizmendiarrieta lekualdatzeko eta ardura handiagoak emateko gogo bat baino gehiago, baina berak tinko irauteko modua aurkitu zuen beti.

Gaur egungo ikuspegitik, bizitza osoan mailaz igaro ez izanak zentzugabea irudi lezake, are gehiago subjektua gaitasun intelektual handikoa izanik. Baina ez genuke horrelako irakurketarik egin behar, bestelakoa baizik. Izan ere, bere ingurua mailaz ondo aldatu zen, toki berean luze egoteak eta jarduteak ematen duenari esker. Baserritarraren izaera da muinean indarrean dagoena, Iturbe utzi izan ez balu legez: erein, landatu, eguraldia jagon… aro eta uzta egokien zain. On Jose Marik Arrasaten sustraiak eman zituen, eta beste batzuen loraldia bermatu zuen. Erpa horiek egoteko, ordea, hazia behar zen. Eta Arizmendiarrietaren hazia Gasteizko Seminarioko hazitegian hartu zuen.

Jakina denez, zuhaitz sendoaren sustraietan haren haziaren bila arakatzen badugu, ez dugu haziaren arrastorik aurkituko, hazia orain zuhaitza bera baita. Baina, era berean, hazia lehenago zela esan dezakegu. Eta hazirik egon dadin, hura baino lehen ez dugu aurreko zuhaitzik bilatu behar, baso osoa baino. Ohituta gaude bizitzaren norabidea bakunetik konposatura dela pentsatzera, sinpletik konplexura. Baina ez da hala, alderantziz baizik: handitik txikira da, ugaritik apalera, goitik behera. Eta Gasteizko Seminarioan basotzat har dezakeguna bere garairik loriatsuenean ezagutu zuen Arizmendiarrietak: Kardaberaz Bazkuna. Hura ulertzeko bidea irekiko dugu datozen lerroetan.

*Eskola aitzindaria*

Pruden Gartziak nabarmendu zigunez, Gasteizko Seminarioko erretore zen Eduardo Ezkartzagaren omenez, 1935ko martxoan, argitaratutako bildumak ez dauka goiburu argirik. Inoiz *Al M. I. Sr. Rector y Predecto de Estudios Dr. D. Eduardo de Ezcarzaga y Solaun en el XXV aniversario de su ordenación sacerdotal. Homenaje del Seminario Diocesano de Vitoria* legez aurki daiteke aipatua, baina liburuak ez du izenbururik edo apailatzailearen izenik ematen. Azalaren eta *nihil obstata*ren ondoren, halako informaziorik ez daukagu. Zer pentsa eman diezaguke, beraz: liburuak gorabeherak eragin zituela bere sasoian, eta seminarioko inprenta bizian era batera edo bestera baten batzuek bidea aurkitu ziotela. Hala, 1928tik orduko gotzain Mateo Muxikaren bedeinkapen hitzetan, hasieran, honakoa aurkitzen dugu:

> Aunque no queremos que nuestros amadísimos seminaristas se dediquen a escribir, *minus opportune et plus æquo*, mientras pese sobre ellos el grave deber de entregarse con ahinco a los estudios de su carrera sacerdotal, nos ha parecido siempre bien que, aprovechando alguna solemnidad o las vacaciones del estío, presentaran algún trabajo escrito, fruto de sus estudios y de sus observaciones y muestra de sus aficiones científico-sociales-literarias.

Gasteizko Seminarioan mugimendu bizia zegoen, ezohikoa. Benetan argiak ziren zenbait irakaslek bertako ikasketak eta interesak Erdi Aroko filosofiaz eta teologiaz haraindi eraman zituzten. Garaiak aldatuta zeuden XX. mendean –Gasteiz, besteak beste, Errepublika laikopean zegoen 1930etan–, eta Elizak toki gero eta

bazterrekoagoa zeukan gizarte garaikidean. Baina horrek ez zuen esan nahi munduak santutasunaren eta ebanjelioaren beharrizanik ez zeukanik. Elizak lehengo erara erakartzeko gaitasunik ez zeukanez, egokitu egin behar zela bazekien: bera zen mundura, gizartera, hurbildu behar zena, harekin hizketan egiten jakin behar zuena, areopagora berriz ere esanguratsu joan behar zena.

Ekimen horretan, Gasteizko hainbat irakasle oso aurreratuak izan ziren. Ezagutza berrietara irekitzeaz gain, ezagutza horien garapenean maisu izan ziren, eta ikasleak seminariotik at aurkituko zuten mundurako prestaketan, herriaren aldaketa modernoen aurrean argibideak ematean, gogo handia jarri zuten. Hala, Gasteiz, Euskal Herria izanik, bi eratara landu beharra zegoela uste zuten.

1) Alde batetik, santutasunera. Ikasketa intelektual eta espiritual sendoek ez dakarte, bere-berez, dimentsio sakratuaren ezagutzarik, ezta horren erakusleiho izateko jakintzarik. Gainera, mundu modernoaren erroetan dago sakratua den iturri orotatik aldentzeko joera. Dimentsio sakratua alboratzean, transzendentzia oro ito egiten da lehendabizi, edertasunaren garrantzia ahaztu ondoren, egiaren tokia galdu gero, eta ongiaren izaera erlatibizatu azkenik. Modernitateak, ezer behar badu, ez da bere baitako ideologien artean egokiena aurkitzea, bizkarra eman zion munduarekin solasaldi oparoa izatea baizik.

Horixe da, hain zuzen, mundu garaikidean Elizak izan behar duen arduretako bat. Sakratua denaren altxortegia zaindu eta erre gabe hurbiltzen jakin. Horretarako, beraz, elizkideek jasotako ikasketak zientifikoak, sozialak eta literarioak ere izan behar dira –Muxikarengandik hartutako azken hitzek adierazten dutenez–, espiritualtasun sakon-sakona jasotzeaz gain. Gasteizen horretarako *humus* oparoa zegoen. Beti apaiz, edozertan apaiz, guzti-guztian apaiz, izatea ezinbestekoa zaio misterio transzendentearen berri duenari eta haren arabera munduari ekarpena egin nahi dionari.

Ildo horretan, osatzera eta neurritasunera igaro direnek erresistentzia, zentzu, itxaropen, autoestimu, desio garbi eta amaigabeko maitasun putzua, euren baitan eta eurengandik at, ezagutzen dituzte. Ekialdeko Elizako Gurasoek aldaketa bide horri *theosis* izena eman zioten, Jainkobide, giza pertsonaren jainkozko bihurtzeko bidea. Bizitzako urrats gazi-garratzen eta pauso gozo-eztien bizipen sakonen bidez eginikoa da, gizaki orori

irekia. Emozio neurritasunera eta erabateko askatasunera darama, baita jainkozko batasunera ere. Izan ere, sufritzen duen jendeak sufritzen duen Jainkoarengan maite eta sinets dezake, sufritzen duen Jainkoak baino ezin baitu sufritzen duen jendea salbatu.

2) Bestetik, euskaltasunera. Eliza euskalduna den herrian loratu behar bada, euskarazkoa den herriari barne-aberasten lagundu behar badio, Elizak euskal hizkuntza eta kultura bere izan behar ditu. Errealitatearekin bat aritzea besterik ez da hori ere, baina herri zapalduetan kosta egiten da; Eliza botere politikotik zenbat eta gertuago, orduan eta gehiago. Horregatik, euskal gaien lanketaren bidez, Euskal Herriko historia, iragana eta jakintza argitzen zuten pertsonak eta ekintzak ez zituzten begi onez ikusi hierarkian gorantz begiratzen zutenek. Barandiaran eta Lekuona dira, horretan, bizi osoko bazterketa eta mina jasan zituzten askoren artean adibide bi.

Gaiak, nola ez, badauka bere sakontasuna. Espainolistek Gasteizko Seminarioak batzoki kiratsa zuela esatean, Barandiarani eta Lekuonari euskal gaien lanketa zientifikoa egiteagatik politika abertzalea sustatzea egoztean, nazio gatazkaren nerbio garrantzitsuenetakoa agerian utzi zuten. Argi eta garbi esanda: euskal pentsamendua edota, askoz apalago eta beste barik, euskaltzaletasuna, eragiteko tokirik ez du inon nahi indar zapaltzaileak. Gasteizko Seminarioak, bertako Euskal Eskolaren bidez, Euskal Herriari sistematikoki ukatu zaion Euskal Unibertsitatearen txokotxoa lortu zuen. Eta jakina da: pentsamendua dagoen tokian, nortasuna eta borondatea garatzen dira.

Aipatutako bi erak, bi bideak, bi aldeak, Seminariotik at ere garatzen ari ziren. Hobe esan, Gasteizen handik at gertatzen ari zen bezala gertatu zen. Euskal Pizkundearen garaia zen, eta 1918an eratutako Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko Unibertsitatea eratzearen ardura hartu zuen. 1919an Euskaltzaindia sortu zen hari esker, eta 1930ean bere bosgarren kongresua egin zuen. *Asmoz eta jakitez*, Hegoaldeko lau lurraldetako aldundiek eman zioten lur Eusko Ikaskuntzari, eta, ondo ezaguna denez, Barandiaran eta Lekuona erakundearen sortzaile eta eragile nagusi izan ziren.

Zientzia, gizartea, artea, kultura, erakundetzea, euskara… Pizkunde zabalaren osagai ziren. Gasteizko Seminarioak, aldiz, ekarpen berezia egin behar zuen, erlijio, espiritualtasun eta

apaizbidean. Hala, mundu garaikidean, kristautasunari leku esanguratsua bilatu eta landu egin zion seminarioak, munduari faltan zuena emateko xedez: dimentsio sakratu onberaren berri. Seminariokoek Pizkundea ezagutuko zuketen, bai, baina sakon-sakoneko zerbait, haien-haiena izango zen zerbait, izango zuten: santutasuna bilatzen duen eta etengabeko ekintzara bideratuta dagoen apaiz izaera.

Horixe da ondo ulertu behar duguna. Gasteizko Seminarioa, muin-muinean, apaiz hutsen eskola izatea nahi zuten elizgizon aurreratuek, horixe falta zitzaiolako munduari, eta beste inork eman ezin zuelako. Bazeuden konpromiso sozial, intelektual eta abertzale handiko apaizak, ezagunak, aitortuak. Inor gutxietsi gabe, Gasteizen izaera berezikoak landu nahi zituzten. Erabateko zubi, pasabide, guztiz hutsik, izango ziren profesionalak trebatzea nahi zuten, zer eta misterioa eta gertuko errealitatearen artean; Euskal Herria, kasu honetan. Horregatik, Gasteizko espiritualtasunaren arabera, apaiz osoak ezin du inolako alderdiren izena jantzi, ubide garbi izateko asmoa oztopa lezakeelako, pasabidea misteriotik edo herritik ez datorrenarekin betetzera hel litekeelako. Indar handiko asmoa, baita ordain itzelekoa ere.

* * *

Gasteizen, beraz, zerbait berezia garatu zen Barandiaranen eta Lekuonaren inguruan, eta horren erakusle ederra da Kardaberaz Bazkuna. Ikasle-irakasle akademia hura 1924an eratu zen, Lekuona buru, eta 1936ra arte iraun zuen –1970ean, Donostian, Lekuonak berak, berriz ere indarrean jarri zuen, gaur egun arte, eta Euskaltzaindiari urrutitik begira–. Euskal hizkuntzaren gramatika, sintaxia, ortografia, hiztegia eta beste lantzeko taldea zen, taldekide gehienek berez zekarten euskara landu zezaten, haien herriko toponimo eta kontuak azter zitzaten, eta, horren bidez, hizkuntza goi mailara eta erregistro guztietara eraman zezaten.

Horretarako, ereduak behar direnez, euskal kulturaren ibilbidea zuzen-zuzenean eta gertu-gertutik ezagutu zuten: Etxeparerengandik ordura arteko euskal tradizio landu propioa eta historiaren gaineko euskal begirada. Arizmendiarrietaren Gasteizko euskal lanak aditzean, zer-nolako ezagutza eta trebakuntza zeuzkan nabarmendu behar da, baina, batez ere, akademiak zeukan izpiritua bere

nola egin zuen. Horixe da, gure ustez, punturik garrantzitsuena, on Jose Mariren pentsamendu eta eginkizunak ulertzeko hari nagusi.

1933ko abenduan *Kardaberaz* aldizkaria eratu zuten. Bederatzi zenbaki egin zituen, Euskal Pizkundearen taupada bertan erabat nabaria zen, eta apaizgaitegiko ikasle-irakasleez gain, agerkaria Pizkundeko zenbait izen handik jasotzen zuten. Aldizkariko idazle eta sustatzaile nagusi Arizmendiarrieta izan zen, eta literatura, erlijioa eta historiaren ondoan, soziolinguistika ere egin zuten, hainbat herritako euskararen egoera ikertuz.

Lehen zenbakiaren gehiena hilberria zen Lizardiri eskaini zioten. Aldizkariaren lema, bigarren zenbakiaz gero, Agustin Kardaberazen beraren *euzkereak burua jasotea nai du Jaungoikuak* esaldia dugu. Hirugarren zenbakian, Arizmendiarrietak berak asmatu eta egindako zigilua azaldu zen, akademiaren arnasa eta taupada zena adierazten duen esaldiarekin: *aurrera beti*, aurrera etengabe, nekerik gabe, egoera dena delakoa. Eta *idatzi ta zabaldu*. Euskaraz, ahoz gain, lumaz egin behar zen, hura jakintza arlo guztietan landu zedin.




Kardaberaz Bazkunaren zigilua, Arizmendiarrietak 1933an egina.
Iturria: Euskerazaintza.

1933ko urtean osatu zuten Kardaberaz Bazkunaren hirugarren maila filosofiako bigarren mailako hainbat ikaslek, eta Arizmendiarrietak, lehendakariordeak, estatutuak idatzi zituen –gerora, 1934an, teologoek Yakintza-Bide Batza eratu zuten, akademia-

ren baitan, Aurrera Betiko filosofoen parean–. Aipatutako *aurrera beti* lema hartu zuten, eta erabaki zuten, haien jardunagatik inork kexurik izan ez zezan, ikasketa guztietan nota onak (*benemeritus*) lortuko zituztela gutxienez. Arizmendiarrieta horretan gorena izan zen, bikainak (*meritissimus*) lortzen baitzituen, eta bizi guztirako ikasketa hartu zuen erakusle dugu hori guztiori.

Alde batetik, Muxikaren lehengo hitzak gogoan hartzen baditugu, ikusiko dugu Kardaberaz Bazkunak Seminarioan zeuzkan agindu eta ardura bertan daudela: ikasketa ofizialak ondo egin, eta gero gerokoak. Bestetik, horrek berorrek Arrasateko sasoia ulertzeko balio du. Euskal hizkuntzari eta kulturari tartea eman baino lehen, gizabidea maila oso onean landu zuen herrian Arizmendiarrietak. Hau da, egoera trakets hartan, hil-biziko ardurak izan zituen, eta haiei arreta osoa eman zien, baina euskaltzaletasuna inoiz ere ahaztu gabe.

Hala, nahiz eta frankismopean egon, gizabidearen egoerak bermatu ahala, euskarari eta euskal ohiturei bide eman zien, Olentzeroren ospakizuna izan, euskarazko adierazpenak izan zein ikastolei babesa izan. Kardaberaz Bazkunaren azalburuarekin bat: “Apaiz geranian erritarrai gauzak ganoraz azaldu ta erakusteko, euzkera ikasi ta al bada bestiei erakutsi”. Arizmendiarrieta, bere baitan, nahiz eta ahoz euskaraz egin ez, euskal nortasunaren gaietaz aritzen zelakoan zegoen.

* * *

On Jose Mari oso gertutik ezagutu zuen Jose Gandiagak ere harridura izan zuen haren joera ekonomiko-soziologikoagatik. Gandiaga markinarra zen, eta Arizmendiarrietarekin seminarioan egon zen, baita Burgoseko egonaldian soldadu eta haren mezaberrian presbitero ere. Kardaberaz Bazkunan ikusitako haren gogo bizia dela eta, euskalari ederra izango zelakoan zegoen. Eta halakoa ere izango zatekeen, gure ustez, giroak utzi izan balio Arizmendiarrietari. Haren hego luzeen itzala ez zatekeen arlo ekonomikoan eta sozialean bukatuko. Baina Arrasaten hartarako aroa besterik ez zuen izan.

Gogoan har dezagun lehen aipatutakoa: baserritarraren kemena zeukan Arizmendiarrietak. Toki berean jo eta ke lanean, ahalegin handienak egiten. Izan ere, luze jo behar zuen hango lanak. 15 urte

igaro ziren Ulgor, lehen kooperatiba, eratu arte, esaterako. Baina proiektuak bere balioa erakutsi zuen. Lan eta lan, erein eta erein, hezkuntzan, bizikidetzan, balio demokratikoetan, espazio propioak izateko egituren eraketan. Horregatik, bere-berez etorri zitzaion Arrasateko Esperientzia Kooperatiboari euskal hizkuntzaren eta kulturaren sustapena, euskal nortasunaren gizabidea ondo landuta zeukalako. Garai egokiaren zain, lur aproposa prestatzea izan zen kontua. Hala, Laboral Kutxak ikastolen sorrerari lagundu egin zion, arriskuak egon arren, herrigintzarako ezinbestekoa zelako, eta ikastolen asmoa bat zetorrelako Arrasateko Esperientziarekin.

Izan ere, Arizmendiarrietak ez zituen euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna inoiz ere galdu. Bai, ordea, ezkutuan edo lozorroan jarri, eta giroak utzi zionean berriz ere ekin zien euskaraz idazteari eta euskal kulturaren erreferentziak erabiltzeari. Haren sustraiak ez ziren ihartu, Joxe Azurmendik esan zigunez. Baina berriz eta xeheago esan behar dugu: haren euskal sua sakonekoa zen, begi hutsez ikusten ez den eguzkiaren modukoa. Euskal Pizkundearen barreneko uretan eta Gasteizko Seminarioko espiritualitatean ikasi bezala, gizakiaren duintasunaren aldeko antropologia, gizarte demokratikoaren aldeko soziologia eta lan burujabearen aldeko ekonomia bideratu zituen.

Frankismopean, gizakiak bere horretan baliorik ez zuen, demokraziak tokirik ez zeukan eta lana askatasunerako bide ez zen. Eta zergatik egin zuen hori guztia? Euskal gizabidetzat zeukalako. Hau da, egoera dena delakoa izan, horren alde berez egin beharra ulertzen zuelako, euskal jakintzaren eta ezagutza garaikidearen sintesia hori zelako. Euskal hizkuntzak eta kulturak eskutan fruiturik izan ez arren, Arizmendiarrieta Euskal Herri egiten ari zen, eta horren bitartez gizarte zabal hobea, erdaldunari ere euskal gizabidearen oinarria eman baitzion, hark hori kontzienteki hartu zein ez.

*Herrigintza*

Horregatik argi izan behar dugu: Arizmendiarrietaren pentsamendua 36ko gerra hasi orduko sendo garatuta zegoen. Ez zuen ondoren sortu, findu edo landu baizik, eta ekintza zabalera eraman. Esan bezala, ez ziren Arizmendiarrieta bi egon. Garaiak, giroak, ziren ezberdinak, eta horietara egokitu baino ez zen egin.

Baserritarrak ondo dakienez, zuhaitzak eta abereak urtaroetara moldatzen diren legez. Poliki-poliki egin beharreko lana eta bidea ziren Arizmendiarrietarenak, hortaz. Horregatik ez zuen bat-bateko iraultzetan sinesten, astiro eta sendo, su txikitan, egiten den kontzientzia aldaketan baizik. *Metanoia*, bihotz-berritzea, Jesusen ebanjelioetako muineko irizpidea. Hala, on Jose Marik honela esan zuen Arrasateko kooperatibagintzaz:

> Kooperatibak ez dira “amerikanuak” egiteko, erriak alkartasun-bidez jasoteko baño, gizonak eta erriak sustartzeko ta guritzeko. Jauntxukeriak ito ta gizatasuna mardotzeko. Ba al-dau gure erriak jokabide egokiagorik mardul eta tinko azi dedin? (in Arexolaleiba, 1991: 171-72).

Arrasaten herri bat baino gehiago zegoen Arizmendiarrietaren garaian: Euskal Herria eta erdal herria. Kooperatibek elkartasuna sortzeko balio dute, gizakiari duintasuna emateko, gizabidean jartzeko. Gure herriak, Euskal Herriak, erabat burujabea izan ala ez, zer beste hoberik izan lezake, on Jose Mariren ustean, bere izaera eta ekarpen bereziz, gizarte zabaleko eta munduko elkartasuna sustatzea baino? Galdera eta bertan iradokitako erantzuna bereak dira, eta ulertzen saiatu beharko genuke.

Baina orain nabarmendu behar duguna euskaraz pentsatzearen garrantzia da. Julen Arexolaleibak adierazi zigunez, Arizmendiarrietaren euskal idatzietan, zalantzarik ez dago *herri* hitzaren adieretaz. On Jose Marik kontzientzia argia zeukan gure herria, Euskal Herria, eta gainerakoak ez direla bat. Ernazimendutik, Etxepareren lanetik, euskaldunok, gure tradizioan, *herri*ren nazio maila darabilgu, hala behar dugunean. Eta Arizmendiarrietak ondo daki hori, *aberri* asmatu zuenak eta haren jarraitzaileek baino jakintza askoz zabalagoa zeukalako, Kardaberaz Bazkunari esker. Horregatik, zer eta hil aurretik on Jose Marik idatzitako azken hitzei erreparatzea oso garrantzitsua zaigu. Lumaz emandako azkenak, 1976ko azaroaren 26koak:

> Eskuz esku, buruz buru, indarbarriturik, lanean elkarturik, lanaren bidez, gure lurralde estuan denontzako gizabide bizigarritzagoak eratuko ditugu eta lurralde au edergarrituko dogu.
>
> Gure kidetasun barrietan txertatuko ditugu auzo ta erri; erri ta beste guztiak: “Aurrera beti”.

> Iñor ez iñoren otsein, ez jaun, izan al dadin denok denontzako suilletan, eginkizunetan, jokabide barriak onartu bear ditugu.
>
> Auxe izango da gure alkartasun gizatsua eta aurrerapidetsua – gure erria erriaren indarrez jaso dezakena.
>
> Aurrera egiteko, aldakuntza; estua zabaltzeko, biotzez zabaldu; lurraldeak nasaitzeko, gizabideak ugaritu.

Bai Azurmendik (1984: 818-19; 1992: 826-27), bai Arexolaleibak (1991: 172), bai Molinak (2005: 559) jaso dituzte hitzok haien lanetan. Bereziak dira. Azken testamentutzat har daitezke. Baina euskaraz pentsatu behar dira, euskaraz baitaude, eta Kardaberaz Bazkunaren izpirituz: *aurrera beti*.

Hala, lehen esaldian ezinbesteko gakoak dauzkagu, Arizmendiarrietaren milaka idatzietan ondo ezagunak: elkartasuna, batak besteari indarra ematea –batak bestearen barnea betetzea, bata bestearen baitara heltzea–, lanean bat egitea, bizitza hobea gizabidez lortzea, ingurua edertzea. Ondoren zehaztasun garrantzitsua dator: elkartasun berrira gehituko ditugu auzoak eta herriak, ez alderantziz. Ordena edo mundu berriak korronte berria behar du, eta hor igeri egiten ikasi behar dute komunitateek. Hala, gero adierazten denez, duintasunean berdintasuna irabaziko da; gure herriak zapalduta dagoen bitartean ez daukana, hain zuzen. Inor ez bestearen ugazaba edo zerbitzari.

* * *

Arizmendiarrietaren proiektua herri guztien askapenerako asmoa eta eginkizuna da. Bere askatasuna honetan datza: nor bere duintasun, bihotz, esku eta buruaren jabe izatea. Banatuta eta apurtuta dagoenak bere osabidea behar du, baina, indartsua izanagatik ere, modernitatean ezinbestean barne apurketak izan dituen oldartsuak ere bere sendabidea behar du. Eta sendabide hori luzea da, konbentzimendu eta lanketa handiz baino ez dator-eta.

Horregatik, Euskal Herriaren askatasuna, ezta beste inongo herriarena ere, ez da, Arizmendiarrietaren 1941-1976ko proiektu historikoan, independentziaren sinonimo, gizabidean sustraituta eta loratuta egotearena baizik. Euskalduna, herriko semea eta apaiza izanik, misterioaren argitan landutako euskal balio-jakintza zuen errezeta, horretarako. Hori zen, on Jose Mariren ustez, gure he-

rriaren osasunerako bidea: bere baitan, bere artean, bere kolkoan, egindako sintesia erabiltzea. Barne begiz baino ezagutu ezin den putzu propio horren iturriaren ur handiak bestelakoak direlako; sorburu transzendentea dute.

Hortaz, esan bezala, formula horren arabera, apurtutako edo oraindik nerabe den banakoari pertsona izaten irakatsi behar zaio: komunitatearen atal organiko izango den pertsona, askatasun erroak komunitatean izango dituena. Norberaren baitatik bestearen baitara, duintasunera eta elkartasunera irekita, barne mundu propio bat eta bera ezagutzen duen gizataldea baino ez da izango herri aske. Independentzia juridiko-politikoa duenak ere hori behar du, on Jose Mariren iritziz, berori izan dadin.

Esaten ari garenaren erakusle ederra dugu, Arizmendiarrietaren biografian, 1965eko abuztuaren 25ean, Francoren Jesús Romero Gorría Lan Ministroaren eskutik Lanaren Urrezko Domina jaso zuenean. Ohi bezala, ez zuen bere burua nabarmendu, taldea baino. *Gu*taz hitz egin zuen, lorpenak taldean erdietsitakoak zirela esan. Eta adierazpenaren bukaera euskaraz egin zuen:

> Eskerrik asko denoi. Badakigu zer egiten dogun. Badakigu nora goazen. Gure bide hau zenbateraino egokia dan jakiteko, itxaron dagigun apur bat: ikusi dagiguzan bere sailak; gu eztabaidaka ibili baino, nahiago dogu gure gizon eta herrien alde lan eta lan egitea. Lan egin daikegunok lan egin dezagun. Aurrera beti: beso sendoak eta bihotz samurrarekin.

Asko da bertan nabarmentzekoa: 1) Frankismopean, ekitaldi frankistan, frankisten aurrean, euskaraz. 2) Gure bideaz ari da: kooperatiba esperientziaz, noski, baina horretarako lantzen zuen gizabideaz, sakonean. 3) Ea lanketan asmatu duen jakiteko denbora eskatzen du, itxarotea, eta itxaropena ere. Arrasaten 24 urte egin ondoren, pazientzia eskatzen du. Oraindik ez zegoen suziririk piztu beharrik, abiapuntua hain zen behe mailakoa… 4) Gizakiaren eta herrien alde; herri bat baino gehiago dagoelako Arrasaten. Eta, berriz ere, 5) Kardaberaz Bazkuna bizirik: *aurrera beti*.

Heriotzaren atarian legez, ekitaldi hartan, Arizmendiarrietak Kardaberaz akademiako lema gizarte gaietarako erabili zuen. Oihartzun interesgarria ekar diezaguke, akademiaren asmoa hizkuntzalaritza hutsa ez zela –benetako giza zientziak inoiz ez diren legez, diziplina zientifikoa gizakiaren barne lanketarako eta

gizateriaren onerako dutelako–, Gasteizko Euskal Eskolak hego luzea zeukala. Horiexek dira, gure ustez, Euskal Pizkundearen txanponaren alde biak: euskaraz, eta herritik, gizaki eta gizadi hobea egin, transzendentziaren argitan.

Baina hori ez zen bere sasoian ongi ulertu, ezta Karlos Santamariaren aldetik ere, nazioarteko adituak biltzen zituzten Donostiako Elkarrizketa Katoliko Internazionalak sustatu zituena –1935ean eta 1947tik 1959ra, urtero, 1958ean izan ezik–. 1966an, *T.U.* aldizkaria eta Juan Leibar bitartekari izan zirela, Arizmendiarrietarekin gutun bidezko eztabaida izan zuen Santamariak. Arrasateko Esperientzia Kooperatiboak euskal dimentsiorik ez izatea eraso zion, eta on Jose Marik ezin izan zuen jasan. Sutu egin zen, halako gaia ateratzen zioten guztietan legez. Izan ere, berak hausnarketa handiz egindako euskal ekarpentzat zuen guztia. Baina ordurako jada, dirudienez, jendeak ez zuen ulertzen zertan ari zen. Azaleko adierazpen identitarioen gabezian, ezer ez ulertzeko ezintasuna zegoen, eta dago.

Dena den, Arizmendiarrietari tira-birak eragin egin zion, eta 1967an, euskararen erabileraren aurkako neurrien aurrean, baimen berezia lortu zuen, eta abuztuan euskaraz idazten hasi zen *T.U.*n. Azkeneko orriak euskarari esleitzen hasi zitzaizkion, eta gaztelearen maila berean jartzeko asmoz, aldizkariari handik ere hasiera ematea otu zitzaion, *Lankide* izenez. 1973ko maiatzeko 151. zenbakitik gerora eta egun arte, *T.U. Lankide*. Hala, begira, hizkuntza biek garrantzi berbera zuten. Aldizkariaren formatoa, letra tipoa… ez ziren beretzat garrantzitsuak, mamia baizik. Poltsikoan erraz gordetzeko edo zaborrontzira arin botatzeko agerkaria nahi zuen beti, inor seduzitu nahi gabe, irakurle zenari jan ona eman baino. Eta euskaldunari, eta erdaldunari, keinu egin. Hizkuntzak duintasun maila berean jarri zituen Arizmendiarrietak, eta, Azurmendik zenbatu zuenez, 1968 eta 1976 artean, 57 testu argitaratu zituen euskara hutsez; elebidunak aparte.

Baina, esan bezala, eta lehengora itzuliz, justizia sozialean hezitzea, kooperatiba bidez erakundetzea eta lanean demokrazia garatzea euskal taupadako programa humanista zen, Arizmendiarrietaren gogoan. Euskal Pizkundearen urak dira horiek, hondar arteko zero azpiko maila gainditu ondoren, euskal hizkuntza, kultura eta hezkuntza sustatuko zituztenak, kooperatibagintzak urteetako ibilbidearen ondoren egin zuen legez, horretarako nahikoa gihar

zuenean; Arizmendiarrietak eragindako erdal joeraren aurrean, jendearen kontzientzia nahikoa piztutakoan, hain zuzen.

Ikusi dugu: on Jose Marik, lehenxeago, 1965ean, denbora eskatzen zuen. 1970etan, euskaraz *T.U. Lankide*n testuren bat bai, baina lan giroa erdaraz zen, eta oraindik luze jo behar zuen. Baina ahots bakanen bat entzuten hasi zen, eta, hala, kooperatibagintza euskaltzaletasunera esna zedin, Milagros Arruabarrenaren 1973ko hitzak edota Yosu Otaduyren 1971eko hitz hauek gogoan har ditzakegu:

> Edestia zear, ta batez be azken urte onetan, euzkaldunok gure izkuntza zarrari iraun egiteko egarri bizi bat agertu degu, jakituri guztietarańo aaldu ta gure urrengokoari bizitazun ta sakontazun berriagaz emateko. Detxeparen bertzoak eztira gaurkoak: "Euzkera adi kanpora".
>
> Bizi izateko egarri onek, ain beste ta ain traba aundieri goi egin dute, bere bide larrian zear, ze burruka gogor ontatik garaille urten dutela ezan geinteke ta gure izkuntzaren gaurko egoera onek, ez ain ona berari bakarrik begiratzen badegu, traba barriari goi egiteko indarra emoten dakizkigu ta etorkizun euzkaldunago bat izango degun itxaropena biztuten da gugan.
>
> Azkenengo urte onetan euzkerari iraun azotea, dagoan era txiroan izan da be, egitan ez da izan ez ume lana. Izkuntza madarikatu bat eginda itxi eben bere aurka jaso ziran indarrak, ta indar onek, aizea lez zabaldu ziran bazter guztietatik, ideoloji arra arrazoi azkogaz.

* * *

Hori dela eta, egitura propioak sortzea ezinbestekoa da. Gasteizko Seminarioan Kardaberaz Bazkuna bezala, aginte juridikoa dena delakoa, modua bilatu behar da norbere espazioa bermatuko duen erakundea, instituzioa, eratzeko. Egitura hori, argi eta garbi, ezin da goitik beherakoa izan, osabidea behar duen sistemarena, behetik gorakoa baizik; hau da, kontzientzia landua duen eta bere bidean jarraitzeko baldintzak behar dituen taldearena.

Erakundeen barneko egiturez at, estatu-sistema modernoaren eremura jauzi eginik, haren ikuspegitik, hark publiko egin eta publizitatu ez duena ekimen pribatua eta pribatiboa da. Baina

sistema publikoa bere sistematzat ez daukan herriarentzat, asmo jakinaren ekimenerako baina ikuspegi sozialez diharduen taldearentzat, egitura ez da pribatua. Irekita dago partekatzeko prest dagoenarentzat, irabazi pribaturik izateko asmorik ez baitu. Kooperatibagintzak hori berori erakusten du.

Zentzu horretan, Arizmendiarrieta oso modernoa da. Elkartasun gizatsuaren araberako erakundeak nahi ditu, bai, baina aurrerapidea, garapena, progresoa. Era berean, ez da batere modernoa, edo, hobe esan, modernitateari kontrapuntua jartzen dio, modernitateak inoiz ez baitu progresoa gizakiaren eta gizadiaren barne aberastasun moduan ulertu, gorengo filosofoen bidez izan ezik. Horregatik, euskal tradizioan, Arizmendiarrieta pentsalari eta ekintzaile bikaintzat hartu beharko genuke.

Izan ere, Arizmendiarrieta beti besteak baino aurrerago zebilen, aurretik zihoala esan gabe. Hori da begiralea izatea. Hori da *aurrera beti*: zentzu modernoan geroaren araberako oraina prestatzea, tradizioko zentzuan iraganeko onena sakon ezagutzeari esker. Horregatik, *kooperazio*, *kooperatiba*, *kooperatibagintza*, *kooperatibismo*… hitzek edo haien formek berdin zitzaizkion on Jose Mariri. Hori gutxienekoa zen. Inportantea zen bakarra eremu demokratikoak eratzea zen.

On Jose Mariren arnasa, beraz, Kardaberaz Bazkunarekin bat etorri zen beti. Jardunbidearen jarraipenaren beste adibide bat honakoa da: Arrasateko hainbat eta hainbat erakunderen estatutuak eta irizpideak fintzen jardun zuen, Kardaberazekoak legez. Baina bada beste ezer, lehen aipatu eta berriz hartu behar duguna: 1934an eratutako *Kardaberaz* aldizkariaren lema, *euskarak burua jasotzea Jainkoak nahi du*.

Esaldi horren atzean dauden ikuspegiak eta jardunak hona baitaramate: transzendentzia euskaraz bizi den herrira eraman, Euskal Herria misterioaren argitara ere eraman. Izan ere, bizkarra makurtzera behartuta dagoenak burua jaso egin dezake, edota burua inoiz ere ez konkortu –Barandiaranek Espainiako dominak jasotzean egiten zuen legez–, baina horretarako bere-berezko duintasunean eta haren iturrian ezagutza izan behar du.

Arizmendiarrietari dagokionez, horrek guztiak Barinagara garamatza, beste behin. Bakarkako otoitza, amarekin errosarioa esatea, auzoko elizan bizitakoa… euskaraz. Misterioarekin intimi-

tate transzendentea, banakoa zein taldekoa, euskaraz, *euskarak burua jasotzea Jainkoak nahi du*elako, Horregatik, on Jose Mariren azken-azken hitzak, azken-azkenak, Lizardik abestuko zukeen Iturbeko suaren oihartzuna dakarte: “Ai, ama”. Arizmendiarrietak egindako azken arnasa berari emandako lehena izan zen, amak besotan eman zion lehena. Euskaraz, eta zetorrenari irekiduraz.

## 3.2. Gudari

Arizmendiarrietak ez zuen burua hegapean ezkutatu Arrasaten, baina mihia euskaraz gutxi, oso gutxi, erabili zuen. Giro etsaikorrera eta zailera egokitu zen; *Eguna*ren antzeko orritxoek euskaldunei on handia egingo zieketen, baina lubakiak lehen baino sakonago irekitzeko aukera ekar zezaketen. Barandiaranen *Eusko-Folklore* orritxoen oihartzuna saihestezina zaigu, haiek ere askoren kopeta ilundu baitzuten. Sakonago jo zuen, beraz, beheko uretara, Euskal Pizkundearen barne uhinetan ikasi baitzuen nortasuna eta iturriak lantzeak erabateko garrantzia duela. Izan ere, itsasoko beheko uren korrontearen araberakoak dira azaleko olatuak.

Gure ustez, aurretik adierazi bezala, Arizmendiarrietak 1936rako bere pentsamenduaren egitura edo hezurdura eraikia zuen. 1941az gero, Arrasaten, haren aplikazio eta artikulazio espazio-tenporalak egin zituen, eta horrek pentsamendu horren atalen eta loturen fintzea ekarri zuen, zalantzarik gabe. Izan ere, Arizmendiarrietak inoiz ez zion utzi irakurtzeari, bilatzeari, ikasteari. Baina, beste behin esango dugu, ez ziren bi Arizmendiarrieta egon, Arrasate aurrekoa eta ostekoa, edota 1936 baino lehenagokoa eta 1941az gerokoa.

Aurki on Jose Mariren hitzak irakurri ditugu, eta sarrerako oinarrietan, Barandiaran, Mañarikua eta Thalamasen eskutik, euskal gizabidearen programa ikusi dugu. Orain Arizmendiarrietaren lumako 1937ko hiru testu aztertuko ditugu, gudari sasoian *Eguna*n argitaratutakoak, Gasteizko Seminarioko eta Euskal Pizkundeko aipatutako hiru egileen testuekin loturan. Horren ondoren, Elizaren doktrina sozialaz hitz egingo dugu.

### *Maite garretan*

Testu laburtxo horren muineko adierazpena hauxe du markinarrak: gizaki orok, gizaki izateagatik, dauka maitasun sua bere

barnean, gizakia maitasun amaigabe den misterioaren kreatura delako. Hau da, gizakia norbera ez den inori edota ezeri ematera irekita, deituta, dago. Norbera ez denarekin eta norbera osatzen, aberasten, duenarekin bat egiteko gogo amaiezina, itzaliezina, dauka, misterioaren seme-alaba kuttun delako. Xehe, tradizio biblikoari helduz (Gn 1,26-27), Jainkoak gizakia haren irudiaren eta kidetasunaren arabera egindakoa dela dio: *ad imaginem et similitudinem suam*. Hau da, alde guztietatik maitasunera –sormenera, laguntasunera, bakera, elkartasunera, errukira, sakrifiziora– deitua. Hala dakusa Arizmendiarrietak gizakia.

On Jose Mariren esanetan, "zorionbide izango yaku maite garroi, Jaungoikoa neurri badogu ta adimena zuzendari". Hortaz, munduko bideak galbide beharrean Jainkobide izan daitezen, misterioaren argitan jarri behar dira, adimena dimentsio transzendente barik utzi gabe. Gakoa, orain, ez datza *fides et ratio* elkarlanean, *intellectus et ratio*renean baizik. Baina pentsamendu modernoak, jakina denez, Immanuel Kanten mozketarekin, *intellectus*a heltzen den dimentsio transzendenterik gabe utzi zuen adimena. Hori dela eta, lehengo Barandiaranen hitzetan, Arizmendiarrietaren berbetako oihartzun berbera daukagu: gizakiaren izaera transzendentea argi izatearen garrantzia, munduak bere baitan duen eta mundutarra ez den iturria ahaztu ez dezan. Hala, Arizmendiarrietak honela zehaztu zuen:

> Gure maite garroi ujoldearen gisako dogu. Edozerk ezin eutsi daikio; gar orrek edozer erre daike. Jaungoikoa'gan bakarrik bere daikegu. Maite garrak sortu dautson maite egarrioi Jaungoikoa'gana asetan ez badau, iturririk iturri asiko da gure maite egarridunoi. Maite egarrioi ase nai ta ase ezin, adimena lausotuta, zentzumen argitan asiko yaku maite egarrioi nun ase bilatzen. Zentzumen esanetara itzuliko da ta zentzumen argitan ibilliko da.

Urte bat lehenagoko, 1936ko, *Saraspeko iturritxoa* poemaren soinua argia da. Maitasun sugarrak, ondo hauspoturik badago, ezina lortzera eraman dezake gizakia, betiere jatorrizko sutatik urruntzen ez den heinean. Kontrajarriak izan daitezkeen irudiak, sua eta ura, garra eta iturria, hortaz, ederrak dira, bat eta bera baitira. Indar bat-bederaren aldeak edo emariak, Hirumenean bezalaxe. Misterioaren garra, hortaz, gizakiaren baitan su da, eta sorburura zuzentzeko joera du, etorburuan baino ezin daitekeelako erabate-

ko suargi izan. Horregatik, gizakiak ezin dezake mundu honetako uretan erre egiten duen barne sutarako bakerik aurkitu.

Gizaki oro, inork aldez aurretik esan gabe, azken galderak egiteko gai da. Bizitza zer da? Unibertsoaren jatorria zein da? Jaio aurretik nor nintzen? Heriotzaren ondoren zer? Bere baitan erne egiten dira, nola jakin gabe, norberak ez baititu bertan jarri, eta munduaren zentzuaz, esanahiaz eta asmoaz gogoeta egitera bultzatzen dute. Baina erantzunak ez dira beti berberak. Galderak munduko toki, garai, hizkuntza eta kultura guztietan eurak badira ere, erantzunak ez. Ezta gizabanakoaren adinaren eta unearen arabera ere. Are gehiago bakarka erantzun behar badira.

Baina lortutako erantzunak egokiak edo gutxieneko mailan asegarriak ez badira, galderek ez dute baliorik galtzen. Itauntzeko gaitasun horrek ez baitu *nola* edo *zertarako* kuestionatzen, *zergatik* baizik, eta, ezinbestean, galderaren koherentzia bermatzen duen osotasuna erakusten du. Hots, galdera zentzuduna egiteko aukera bera, galderaren aurretikoa dela. Sorburua, ondorioz, beti gehiago da, eta eskura dauden atalak baino askoz ugariagoa da.

Ulermen antropologiko integrala dugu, beraz, Arizmendiarrietaren hitzetan. Kristau tradizioaren arabera formulatuta, baina bertan agortu gabe. Gizakia berez misteriora eta transzendentziara irekita dagoen izakia da on Jose Marirentzat, Barandiaranentzat bezalaxe, eta hori ondo artikulatzea ardura handikoa da, adimena ondo zuzendu eta mundu honetako bideekin ilundu ez dadin. Arizmendiarrietak esan zuenez, zentzumen mundutarrek ez gaituzte erabat asetzen, eta horietara mugatzeak, lehentxoago edo gerotxoago, gogaitu eta koldartu baino ez gaituzte egiten.

Elkartasunean, hurkoaren lehentasunean, norbere baitan norbera ez denari eta misterioari tokia egitean, maitasun gar horrek dirdira eta berotasuna edertu egiten ditu, eta gizakiari argi uzten dio, bere eginkizun oro, logela garbitzetik janaria prestatzera, inor zaintzetik torlojuak egitera, gorengo duintasunaren bidean egin daitekeela.

### *Geure izatea ukatu nai*

Artikulu horretan Arizmendiarrietak darabilen ideia hauxe da: kristautasunaren arabera, gizakia misteriorantz abiatu behar da;

faxismoaren arabera, estatu-aparatuan txertatu. Frankistek kristautasunarekin egiten zuten lotura, Eliza Estatuaren beso nabarietakoa egitea, guztiz ezinezkoa besterik ez zen. Baina, ikusiko dugunez, beste irakaspenen bat ere atera liteke adierazpen teoriko horretatik, on Jose Mariren lehen hitzetatik:

> Kistartasuna ta paxistakeria alkartu naiz asko ibilli izan dira. Kistartasuna ta paxistakeria sustar bateko etsi nai izan dabez. Alkartu al daikez baiña? Kisto'k darakuskunez Jaungoikoa otseindu ta Jaungoikoa'rendu daiten egiña da gizona. Paxistakeria-zaleen aburuz, Laterri edo Estaduaren morroi-uts izan eta Laterria osotzeko, indartzeko da gizona.

Estatua helburu izatea, ordea, ez da faxismoarena soilik den lerroa, ideologia moderno ororena baino. Baina Arizmendiarrietak faxismoa du hari nagusi testuan, eta, G.W. Friedrich Hegel, Benito Mussolini eta Alfredo Rocco aipatuz, joera horren zenbait azalpen ematen ditu:

> Laterrian gizakiak ez dau eskubiderik, eginbearrak dabez bakarrik; Laterriak edo Estaduak dauz eskubide guztiak, gizakiok eginbearra besterik ez dabe. Jaungoiko egiten dabe Laterria […] Paxistakeria-zaleen aburuz Laterria da gizabatza guztien neurri; Estaduak erabazi bear dauz gizabatzen eskubideok.

Ideologia modernoek, faxismoa kasu, ez diote gizakiari haren bere-berezko eskubiderik onartzen, misteriora irekitako izaki den heinean. Ez, eskubideak Estatuarenak dira, eta hark ematen dizkio haren araberako hiritarrari, banakoari, matrikulatuta dagoen indibiduoari. Hala, horren ordain garestian, gizakiak betebeharrak baino ez dauzka, indarrez eraginda, armen zein legeen kolpez: lanaren atalen bat, indarraren alderen bat eta, gerra garaian, gorputzaren zatiren bat edo bizitza bera Estatuari ematea. Era horretara, Estatua haren menpekoen alfa eta omega ageri da. Transzendentziatik immanentziara igarota, Estatuak hartzen du azken zentzu, asmo eta misterioaren tokia. Baina hori ezin daiteke izan marko modernoez haraindi jakintza duenarentzat:

> Eskubide gabe, eginbearrez zamatuta, orra gizonaren izatea ondatuta, galduta paxistakeriaren sailletan. Ez biotzik, ez bururik ez daben Laterri edo Estaduaren otsein eta osaki izateko egiña al da gizona? Gizonaren jatorria, gizonaren izatea ta gizonaren elburua ezagutzen dabezanek ezin onartu daikez

> paxistakeriaren oiñarriok. Besterik irakatsi euskun Kisto'k; besterik darakusku gure adimenak. Besterik diño eleizeak.

Fededunak daukan Kristoren bizipenak nahiz transzendentziara irekitako adimenak, Elizak gorde duen altxorrak legez, munduaren narrazio eta antolaketa immanenteetatik at jotzeko adierazten dute, Arizmendiarrietak nabarmentzen duenez, begi hutsez ikusi eta egin daitekeenak ez duelako gizakiaren barne egarria asetzen.

Hori dela eta, gizakiaren eskubidea eta duintasuna berebereak dituela aitortzen duen, eta haren askatasuna eta garapena bermatzen duten pertsona eta komunitate kontzientzia josten dituen burujabetza, Euskal Herriak bere iturrietan duena, aro garaikidean demokraziarekin izendatu zuten Pizkundean. Maila historiko-politikoan, demokraziaren aldeko hautua estrategikoa izan zitekeen; besteengandik bereizteko libre zegoen bide bakarra, Iñaki Goioganak iradoki zigunez. Baina maila sakonean, Mañarikuak eta bestek ebatzi zutenez, ez: demokrazia, kristaua, zatekeen bide bakarra. Horixe zen etsaiek ukatu nahi zutena.

Dena den, idatzia amaitzeko, Arizmendiarrietak esaldi zorrotza ematen du, haren pentsamendua ondo uler dezagun: "Jatorriz da gizona gizarteko, baiña gizarteko danarren, gizartea gizonen elburu danik ezin esan daike". Hots, gizakia taldekoia da berez, taldera jaio, taldean hazi eta taldearen bidez bizi egiten delako. Baina taldea bera ere ez da ezeren hasiera eta bukaera, une oro bera baino gehiago den dimentsiotik hartu behar duelako, eta harantz zuzendu. Horixe izango da, Arrasaten, kooperatiben gainean on Jose Marik esango zuena. Ezinbestekoak dira, baina eurak baino askoz handiagoa den bizitza egokiaren bitartekari baino ez dira izan behar.

Erakundeen bitartekaritza, hortaz, idolatriarik gabekoa izan behar da, eta horrek, irizpide horrek, Gasteizko Seminarioko espiritualitatearen argitan, abertzaletasun politikoarekiko mesfidantza eragin zuen. Letretan ondo ezagutzen zuen Lauaxetak ez bezala, jesulaguna izatetik aranatarra izatera igaro zena, Arizmendiarrietak ez zuen bizi-lerrotzat hartuko *Gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat* lema. Bitarteko idolorik ezin da egon haren gogoan. Baina horrek ez du esan nahi abertzalea ez zenik. *Gu* eta *Euzkadi* bat-bedera ziren harentzat, eta horiek zuzenean Jainkoarenak. Bere erako apaizek, erabateko apaizak, ekintzaileak eta sozialak,

gizaki oro eta misterioaren arteko bide garbi zirenak, bestelako lema izango zuketen: *gu Jainkoarentzat eta Jainkoa guretzat*. Ez, noski, *eduki* zentzu modernoz, *izan* zentzu jatorrez baino. Maitasun sutzat eta maite sutxu direnak batzera deituta dauden legez, aurreko atalean ikusi bezala.

Beraz, transzendentziatik urrun dauden, edota transzendentziaren bidea beteegi duten, politiken utopia immanenteetan, edozeinetan, ez zen sartuko Arizmendiarrieta. Hala, eta ez bestela, ulertu behar da markinarrak Gasteizen ikasitakoa, gure ustez, erabateko apaiza politikatik at egon behar dela esatean. Irizpide hura kooperatibagintzaren baitan bermatu zuen, eta 1976an, osasunez makal-makal egon baino lehen, haren hurbilenekoei nabarmendu egin zien: politikan sartu ez, haien artean bana ez zitezen, eta, ondorioz, *gu* eta *misterioa*ren artean betegarririk jar ez zezaten.

Arizmendiarrieta ez zen politikatik aldenduta ibili, ordea, gizartearen baitan eta gizartera begira izandako etengabeko jarrerak eta zenbaezin izan ziren ekintzek erakutsi bezala. Kultura, zaintza, hezkuntza, humanismoa, ikastolen sorrera… politikoak dira. Baina guretzat, egun, ulertzeko zaila den posiziotik egindako politika da. Izan ere, azalean edo zuzen-zuzenean politikoak ez diren egitura, erakunde eta pentsamoldeetatik egindako ekarpenak dira, haizearen arabera alda daitezkeen interesetatik at dagoen mugimendutik edo esperientziatik.

Euskal Pizkundea ez zen politikan edo alderdietan agortu. Era berean, Arrasateko Kooperatibagintza, Arizmendiarrietarentzat, esperientzia, ibilbidea, mugimendua zen. Gakoa, hortaz, ez zen, eta ez da, politika kooperatibagintzara ekartzea, politikak esperientzia horretatik edatea baino. Eta, argi eta garbi, ez diruzko estrategiatik eta emaitzatik, balio-iturrietatik baizik.

Gainera, gogoan izan behar dugu Arizmendiarrieta ez zela lehen-lerroko gudari izan, fusila harturik lubakian ibilia, moldiztegiko intelektuala baizik. Euzko Gudarosterako izena ematerakoan bazekien hori, bere gaitasunagatik –ikasketak– eta ezgaitasunagatik –begi galdua–. Hori ezin dugu begi bistatik galdu. Bere bizitzan ez zuen politika arloan sartu nahi, eta ez zen sartu, baina horrek ez die zilegitasunik kentzen bere proiektuaren araberako eginkizun politikoei, are gehiago nazio-zapalduaren testuinguruan. Izan ere,

alderdiek joera nagusi duten oportunismotik erabat at egon zen, eragiteko aukera erakundetu berrien bila etengabe ibilirik.

Horregatik guztiagatik, Gasteizko apaiz sozialak Elizaren hierarkiaren idolatriatik salbu egon ziren, hari erabat bizkar emanda. Ziurrenik, nahikoa eta beste dugu hori jakitea kanonizazioak Arizmendiarrietarekin zerikusirik ez duela ulertzeko. Apaiz sozialentzat Eliza herrian txertatu behar da, eta harentzat, ahalik eta isilen, osasunaren eta misterioaren bide izan. Begi hutsez ikusten ez den Eliza, zentzu zabal eta on guztietan, bilatzen zuten. Era horretara gogoratu eta ezagutu beharko genuke Gasteizko apaizen santutasuna, gure ustez.

*Okerreko bideak*

Aztertuko dugun azken idatzi honetan, aurreko bietan esandako ideia nagusiak josi egingo ditu Arizmendiarrietak. "Maite garretan" testuan antropologia eta "Gure izatea ukatu nai" artikuluan sozio-politika landu bazituen, "Okerreko bideak" idatzian ekonomiaren arloari heldu zion. Hiru-hirurak, nabarmentzen ari garenez, transzendentziaren dimentsioaren argitan. Arizmendiarrieta honela hasi zen, Ezkartzagaren omenez egindako 1935eko "Zer ete doguz somagayak" testuaren oihartzunekin:

> Soiñez gain gogoa dogu gizonok; soin eta gogoz osatutako izaki dogu gizona. Atal biok baiña ezin daikez urkulatu edo banandu. Urkulatu ezin daikezanarren soiñak eta gogoak gizonagan jokera ta jit bereziak dabez […] Soiñak bekoa danez, bean, lurrean dau atsegin-tokia. Lurkoi-girotan murgildu ta bizi nai dau. Gogoa baiña goitik datorrena da ta gora juan-be, egin nai dau. Bere giroa idoro nai.

Mendebaldeko tradizioan dikotomiatzat eratu diren gorputz-gogo edota materia-izpiritu bikoteen bidean, baina horiek gaindituz, gizakia lurrez eta zeruz egindako sintesia dela dio Arizmendiarrietak. Izan ere, gizakia batasunean haragiztatu da, bitasunean ez. Joera bi dauzka, bi-biak bildurik eta banaezinik. Horregatik, on Jose Marik honela adierazten du, labur:

> Gizonek bide bi aukeratu daikeguz, jokabide bi doguz. Jokabide bata gogo-jokerei jaramon egiñaz, soiña gogo-eskabideetara makurtzea dogu. Bestea ostera gogo-eskabideei iruzur egiñaz soiñaren jokerak elburu aututea dozu, ene irakurle.

Orekarik handiena izpirituari arreta jarriz lor liteke, beraz, Arizmendiarrietaren keinuz, gorputzak berez daukalako tarte handia eguneroko beharrizanetan. Apaizak edo misteriora emandako pertsonak, ordea, bestelako jarduna egin beharko luke: lurkoia zerurantz begira jarri, eta zerukoiari lurrerako bidea erraztu. Baina bada gai hau ulertzeko beste ikuspegirik; historiaren aroetara begiratzen duena, hain zuzen. Hala, Arizmendiarrietak azaltzen du, joeretan, aldaketa historikoak egon direla, eta Erdi Aroan gogoari garrantzia eman zitzaiola, baina oso kritiko eta zuhur:

> Orduko bizimodu ta egite guztietan dakusgu Jaungoiko edo erlegiño giroa. Erlegiño ta gogo jardunok beti bide zuzenez ibilli ziranik ez dogu esan nai.
>
> Juan zan Erdi-aroa. Erdi-aro illunabarrean gizakikeria sortu yakun. Gizakikeriak domukeria ekarri euskun [...] Domukeriak gero gizartekeri edo sozialismoa ekarri eban. Gizartekeria domukeroari jatorriz darion jario dogu.

Arizmendiarrietak Juan Bautista Eguzkitzak 1935eko *Gizarte-auzia* lanean, eta haren atalak osatzeko lehenago *Jaungoiko-Zale* aldizkarian idatzitako artikuluetan, hedatutako hitzak erabiltzen ditu: *domukeria* "kapitalismo" esateko, *gizartekeria* "sozialismo" esateko. *Baltsakeria* "komunismo" esateko ez zaigu ageri, baina Eguzkitzaren testuetakoa ez den hitza ematen digu Arizmendiarrietak: *gizakikeria*, "indibidualismo" adierazteko, inongo hiztegitan jasota ikusi ez duguna. Bereak ere dira *taldekeria*, "alderdikeria" edo "klase-indibidualismo" esateko, eta *laterrikeria*, "estatismo" esateko –hori ere hiztegietan ez–, 1937koa eta *Eguna*koa ere den "Len burrukea, orain gudea" testuan azaldu bezala.

On Jose Marik, hortaz, bi alde erakusten dizkigu testu honetan, besteak beste. Bat, jakina zaigunez, orduko euskal mugimendua ondo ezagutzen zuela, eta euskarari ekarpenak egiteko gaitasuna izan zuela, Kardaberaz Bazkunako lanek erakutsi legez. Bi, Elizaren doktrina soziala euskaraz ere ezagutzen zuela, Eguzkitza ideia sozial-kristauen zabaltzaile handi izan baitzen –puntu honetara laster itzuliko gara, ondorengo zehaztasunak egin eta gero–.

Beraz, Arizmendiarrietaren arabera, sozialismoa kapitalismoaren bihotz bereko arritmia besterik ez da, kontrataupada. Joera batbederaren aurkako zentzua, eta horregatik bi-biak, formulazio osoetan eta sekularretan, saihestu beharrezkotzat zituen. Beste

zerbait behar da, haren ustez, askotan esan duguna, transzendentzia eta giza duintasuna erdigunean jartzen duena. Hala, aurreko hitzen ondoren, honako aipua dakar on Jose Marik: "El socialismo no es más que un desarrollo consecuente del sistema industrial capitalista, un triunfo definitivo de los principios latentes en él y su plena difusión".

XX. mendeko bigarren erdialdeko eta XXI. mendearen lehen laurdeneko Europako garapen politikoa ikusirik, arrazoia eman beharran gagozkio. Ezkerra, oro har, ez da benetako ezker, eta eskuina, oro har, ez da benetako eskuin, distantziara ari diren lerroak. Dialektikaren sintesiaren unea heldu dela dirudi, tesiaren eta antitesiaren aroa igaro zela, eta neurri sozialekin tintatutako politika kapitalistak baino ezin direla egin. Hortaz:

> Erdi-aro ostean Edesti-saillean dakuskuzan lorrotzik nabarmenenak soin-jokerei jarraituez duazanak dira. Gizonak gogoa bastartu ta soin eskabideetara makurtu yakuz […] Eleizea, Uzkurtza ez dira gizonon argibide. Diru-etxe ta diru-goraberak baiño.

Erdi Aroaz gero, garai sekular, immanente eta materialistan gaude. Ideologia moderno orok lurreranzko joera baino ez dauka, eta, horregatik, Elizak, izpiritu ondo landuko apaiz sozialen bidez, munduari falta zaion dimentsio sakratua bideratu behar du. Zentzu horretan izan behar du, Gasteizko maisu-ikasleen aburuz, erlijioa aro garaikidean su esanguratsu; Barandiaranen testuan ikusi dugunez, gizakiaren irekidura transzendentearen kontzientzia delako berez. Modernitateak nahita ahaztu duena.

Erdi Aroaren eta Modernitatearen sintesia izan liteke, hortaz, bide berria, hirugarren bidea? Gasteizko seminaristak horretarako prestatzen ziren, hango irakasle aurreratuen programaren bidez: formazio filosofiko-teologiko sendoa, trebakuntza espiritual aberats eta garaiko lorpen zientifiko-sozial-artistikoen ezagutza handiz. Euskal Pizkundearen gogoa antzekoa zen, lehen esan bezala: tradizioko herri-jakintzaren eta mundu garaikideko ezagutzaren arteko sintesia. Lehengoa eta oraingoa gerora begira elkarrizketan.

Izan ere, Arizmendiarrietaren arabera, kapitalismoaren eta sozialismoaren arazoak ez dira barne funtzionamendu arazoak, egoerara egokitzeko auziak. Bi-biak ondo baino hobe eraldatzen dira, edo ingurua eraldatzen dute. Arazoa haien menpeko

gizakiarengan dago, ideia eta itxaropen mailan. Haien ordena bat eta bera da: biharko eguna gaurkoa baino hobea irudikatzea, eta, horrekin, mundu honetan orainaldi ahalik eta luzeena eratzea. Horren ondorioz, noraeza edo galbidea irekitzen zaio gizakiari. Mundutarra eta gorpuztarra denaz gain besterik ez badago, helburu eta begirada laburrak baino ezin dira garatu, eta, horien ondorioz, gizatasuna zulatu egiten da.

Arizmendiarrietarentzat, beraz, muineko arazoa Erdi Aroaren ondorengo Ernazimenduan dago. Gizakia makrokosmosaren araberako mikrokosmoz irudikatzean, eta hori irakurketa biblikotik askatzean, indibidualismoaren garaia hasi zen. Horrek indibiduoaren lehentasuna ekarri zuen, eta komunitatea –zentzu zabalean, etxea, bailara, lantokia, herria– haren zerbitzura jarri. Hori da, on Jose Marirentzat, garaitu beharrekoa, eta Ernazimendu sasoian garatu ez zen benetako Ernazimendua, lortu beharrekoa. Hala, komunitatearen zerbitzura dagoen eta haren baitan loratzen den pertsonaren ordena lortu behar da. Ordena berria, gizonezko eta emakumezko berria.

Horregatik, modernitatearen sorburura heldu behar da, eta, XX. mende betean, gizabanakoek erantzukizun, balio eta betebeharren ardura galtzeko zoria ongi ikusirik, Arizmendiarrietak konponbidea proposatu eta garatu zuen, lanaren bidez. Lana pertsonaren eta komunitatearen aldeko jardun mesedegarri legez. Horrek berreskura lezake duintasunaren eta sakoneko batasunaren garapena, eta, humanismo integralerako eremua ongarritu. Eta, esan dugunez, langile den gizabanakoaren askatasun bidean, euskal ondareko pentsamendu komunitarioko sustraien emari berria gehitu baino egin ez zion Arizmendiarrietak.

### *Elizaren doktrina soziala*

Euskal Pizkundeak euskal tradizio berritua demokrazia kristauan kokatu zuen, Mañarikuaren adibidearekin ikusi dugun bezala. Jose Ariztimuño *Aitzol*ek sakonago jo zuen, eta ebanjelioaren mezua irizpide duen, eta zuzenbide natural eta positiboko erakundetan eratzen den demokraziaz hitz egin zuen. Erakunde horiek, tradizioaren emaritik sendo zetozen etxea –familia, erdal moldean–, korporazio profesionala, udalerria eta eskualdeak dira, eta banakoa eta Estatuaren arteko egitura osatzen dute, pertsona

ororen askatasuna, duintasuna eta eskubide sozialak eta politikoak bermatzeko asmoz. Izan ere, horien helburua muturreko puntuak, indibiduoa eta Estatua, gailentzea edo erabat baztertzea da. Demokrazia kristauarekin, giza pertsonari garrantzia ematen zaio, haren gainean erantzukizunezko taldea eratzen da, eta ez da iraultzailea, ez du sinesmena bazterrean uzten, eta ez du materialismoa besarkatzen.

Demokrazia kristauaren oinarria, eta Euskal Pizkundearekiko lotura, oso garrantzitsua dira Arizmendiarrietaren pentsamendua ulertzeko, eta Elizaren doktrina sozialak hartan zuen tokia ongi aditzeko. Izan ere, mundurik gizatsuena lortzeko asmotan, pertsona guztien aukeren eta duintasunaren berdintasuna lortuta ez da bidea amaitu, hasi baizik, orduan agertzen baita gizakia lantzeko eta lorpen moral handienak erdiesteko abagunea.

Elizaren doktrina soziala, labur esanda, ebanjelioa arlo laboralera eta sozialera eramatea da, enpresetara eta sindikatuetara. Edozein tokitara, gizartea demokratikoa izan ala ez, enpresak eta erakundeak demokratak izan ala ez. Horregatik, Elizaren doktrina sozialak ez du langilea subjektu bakar egiten, ez du pertsona ardatz bakar bihurtzen. Edozein egoeratarako proposamen aringarriak egiten ditu, ideia sozial-kristauen bidez.

Horien berri hainbat aldetatik izan zuen Arizmendiarrietak Gasteizen. Alde batetik, *Euzkadi* egunkaritik. 1932ko irailaz gero, “Labor social” orrialdeak ideia sozial-kristauak hedatu zituen, eta haren arduradunak 1931n eratutako AVASCeko (Agrupación Vasca de Acción Social Cristiana) kideak ziren. AVASC bera ez zen abertzalea azal politikoan, baina erabat euskalduna zen, zer eta euskaltzaletasuna eta demokrazia kristaua sustatzen. Horrekin loturik, ezin dira ahaztu Alberto Onaindiak eta Jose Artetxek *Euzkadi* eta *El Día* egunkarietan idatzitako artikuluak, Europa garaikideko pentsalarien aipamenez eta ideia sozial-kristauez beteak; Maritain eta Mounier, esaterako. Eta ezin dira ahantzi Policarpo Larrañaga eta beste hainbat apaiz sozial eta abertzale askoren eginkizunak.

Bestetik, on Jose Marik Thalamasengandik ikasi zuen. 1928an, Aldabaldetreku Gasteiztik Parisko Saint Sulpicera lehen bidaia egin zuenean, irundarra bertan aurkitu zuen teologia ikasten, Tolosa Okzitanian filosofia landu eta gero. 1933an, bestalde, Aldabaldetreku ez zen bakarrik joan, boskotean baizik, Thalamas

eta Goicoecheaundia tartean, eta Pierre Pourrat-ek haren *Le sacerdoce* liburua oparitu zien. Thalamasek, beraz, ondo ezagutzen zuen frantsez katolizismoak kristautasuna eraberritzeko azken mendeetan egindako bidea. 1932tik soziologia eta doktrina sozial-kristaua irakasten jarri zuen Ezkartzagak Gasteizen, eta apaizaren santutasunaren eta gizarte-apostolutzaren berri sendo eman zuen.

Thalamasek doktrina sozial-kristaua liberalismoaren eta marxismoaren erdibidetzat nahi zuen, bien onuretatik hartuz, baina ardatza pertsona izanik. Hau da, Thalamasek argi zeukan Elizaren doktrina soziala, benetakoa izan dadin, pertsonalista izan behar dela, eta, ondorioz, demokrazia haren oinarrizko eremua izan behar dela.

Izan ere, soziologoarentzat Eliza ezin zen goitik beherakoa izan, herriarekin bat egindakoa eta behetik gorakoa baizik. Haren arabera, Elizak, iraganeko posizioa galdurik, herrira jaitsi eta hura landu egin behar zuen, beretzat irabazi. Lehengo egoerara indarrez itzultzea eta jendea haren menpe haztera behartzea ez ziren Thalamasentzat onargarriak. Eredu oso ezberdinak dira. Horren oihartzuna 1964ko urtarrileko *T.U.* aldizkariko editorialean aurki daiteke –ñabardurak jatorrizkoak dira–:

> El trabajo es la base firme de desarrollo y de promoción. La unión es la palanca que multiplica las fuerzas de todos. La cooperación es para nosotros un *régimen de solidaridad* para hacer *del trabajo* el adecuado instrumento *de promoción personal y colectiva* […] El cooperativismo para ser auténtico necesita ser *democrático*.

Frankismoan bideratutakoa, beraz, Elizaren doktrina sozialaren araberakoa izan zitekeen, baina demokrata ez, pertsonalista ez. Gizakia, Jainkoaren seme-alaba duin eta aske, bortxatuta baino ez dago diktaduran. Horregatik, giro hartan, Elizaren doktrina sozialak bitarako balio izan zion Arizmendiarrietari. Alde batetik, frankismoan apaizek onargarri izan zezaketen diskurtso bakarra zitzaion; horregatik hainbestek, bigarren ataleko elkarrizketetan legez, on Jose Marik doktrina sozial-kristautik edan zuela esaten dute. Baina, beste aldetik, Elizaren doktrina soziala Gasteizko Euskal Eskolako asmorik sakonenera heltzeko bidea zuen, harentzat gizabidezko testuingurua lan zezan. Felix Ormaetxeak, elkarrizketan, lehen esan bezala:

> Lanean eta beste ikuspegi sozial batekin. Berak esaten zuen Elizaren doktrina zela. Nik uste dut askoz aurrerago zegoela, nahiz eta berak horretan oinarritzen zela esan. Apaiza zen, hau da, sinesduna, baina doktrina, Elizaren doktrina, baino harago joan zen don Jose Maria beti.

Gogoan izan behar dugu, Arizmendiarrietarekin Eskola Profesionalean ibili zenean, Ormaetxea seminarista zela. Sasoi hartan, Gasteizko Seminarioan, Eskola Soziala nabarmendu egin zen. Taldean elkar-aberastu egiten zuten hainbatek, eta Arizmendiarrieta bertara joaten zen, eta handik beragana. Bertakoak izan ziren, besteak beste, Jaime Saez Goyenechea, Felix Obieta, Lorenzo Jainaga, Gregorio Rodriguez de Yurre, Jose Arrasate eta Emilio Figueroa. Baina gerraosteko Gasteizko Seminarioa da, eta Arizmendiarrietak lehenagoko sustraiak zeuzkan.

Izan ere, zertan oinarri zitekeen on Jose Mari, frankismo betean, Elizaren doktrina sozialean ez bazen? Zeri egingo ziokeen erreferentzi, hari ez bazen? *Yakintza* edo *Idearium* aldizkarietako testuei? Maritain-i edo Mounier-i? Erbestera joandako hainbesteri? Elizaren doktrina soziala bere proposamenak adierazteko helduleku bakarra edota hurbilekoena zen, erabilgarria hein handian, baina nabarmendu dezagun: besterik ez zegoen.

Horregatik, 1950etan, lehen kooperatiba sortu ondoren, sindikatuen gaineko Antonio Pildainen pastorala agertu ostean, Arizmendiarrietak sermoi bidez sindikatu bertikalak konbentzimendu osoz salatu zituen; haiek ez ziren ez sindikatu, ez kristau on Jose Marirentzat. Halako agerpenek, administrazioarekin arazoak sortu zizkiotenak, Arizmendiarrietak Elizaren doktrina sozialaz zuen bestelako ikuspegia erakusten dute.

On Jose Marik, beraz, gizartearen errotiko aldaketa bilatzen zuen. Pertsona enpresaren eta ekonomiaren garapenaren ardatz ezarri nahi izan zuen, bere buruaren jabe. Pertsona langile, ekoizle eta kontsumitzaile, eta kapitalaren eta erabakien jabe. Hori Elizaren doktrina sozialak adierazitakoa baino askoz gehiago da: Gasteizko Seminarioko eta Euskal Pizkundeko mamia, programa erreal egina. Hau da, herri apurtuan eta industrialean gizabide, pertsonalismo eta demokraziaren benetako aplikazioa.

Gainera, gogoan izan behar dugu Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren aurretik eta ondoren, munduan nagusi den koope-

ratibismoa zerbitzu, aurrezki, kreditu, nekazaritza eta kontsumo eremuetakoa dela. Horietako batean ere ez da lana ardatz, erabiltzailea edo kontsumitzailea baizik. Arizmendiarrietak, beraz, Gasteizko Euskal Eskolan ikasitakoaren bidetik, ukitu berezia eman zion horri guztiari.

Horren adibide esanguratsua da, izan ere, Gorroñogoitiak berak behin baino gehiagotan azaldu zuena: Ulgor, hasieran, SA izan zen, sozietate anonimo, Elizaren doktrina sozialaren araberakoa. Baina errotik ezberdina eta demokratikoa izatea nahi zuten enpresa hura beste era batera egin beharra zegoen, eta eredu berria egiteko modua kooperatibaren formulazioan aurkitu zuten, on Jose Mariren bitartez. Ohar bakarra izan zuten Arizmendiarrietaren aldetik esperientziaren onerako: Arrasateko gainerako industrien lehiakide ez izatea, haien produktuak ez ekoiztea.

Begi bistan izan behar dugu, kooperatiba bat egin dadin, gizartean, gizabanakoen artean, ezberdintasun handirik ezin dela egon. Aberatsen eta txiroen artean kooperatibarik egitea ezinezkoa da, oro har, oso zaila baita elkarte berean berdintasunez biltzea eta jardutea. Kooperatibagintza, beraz, errotik, lana eta ekonomia humanizatzeko erakundetze propioa da, gertuko errealitatean egiturak aldatzeko, demokratizatzeko, asmoz. Hori dela eta, lehenik eta behin, pertsona landu egin behar da, kooperatibista ondoren, eta kooperatibak eratu gero. Kooperatibak ez ditu langileak kooperatibista egiten, alderantziz baizik.

Horregatik, argiago ageri behar zaigu Arizmendiarrietak, gizabidearen eta kooperatibagintzaren proiektuarekin, lehen kolpean dirudiena baino bide propioagoa eta sakonagoa egin zuela. Eliza frankisten beso indartsuetako bat izan zen, eta Gasteizko Seminarioa beren-beregi garbitu egin zuen erregimenak. Elizaren dimentsio sozialak arimak berera eraman nahi zituen, eta erregimen frankistan bateratu. On Jose Mari, 1941ean Lauzurika gotzainak Arrasatera bidalitakoan, egitura horren baitan zegoen, baina beti bilatu zuen erregimenarekiko distantzia, harekin edo harentzako lan egin barik. 1943an jada, Unión Cerrajera-ren eskolaren parean, Eskola Profesionala eratu izana lehen adibide ikaragarria dugu. On Jose Marik 28 urte baino ez zituen.

Ondorioz, Arizmendiarrieta sakonean beste zerbait egiten ari zelako, haren gaineko euskal herri-gogoeta eta eliz-hausnarketa

egin arte, kanonizazio prozesuak frankismo sasoiko Eliza ofizialaren ildoari men egingo dio. Bi adar legitimatuta lotuko dira, gure ustez: frankismoa eta harekin ezkondutako Eliza. Gasteizko Seminarioaren urrezko aroa moztu zuena, Barandiaran eta beste asko betiko baztertu zituena… eta Euskal Herriari sekularizaziorako gogoa ondo berotu ziona.

Horrek ez du ezer onik. Eliza ez da hierarkia instituzionalean agortzen. Eliza elizkide guztiek osatzen dute, eta gehiengoa herria da. Elizaren historiaren alde herrikoia ere dugu, eta horren araberakoa izan beharko luke on Jose Mariren kanonizazioa: egoera dena delakoa izanda, habi eta gune autoeratuak, propioak, bilatzen dituena, eta bilkura eta dokumentu ofizialak heldu orduko, askoz lehenago herriarekin bat dagoena.

Gertakizun eta oroitzapen adierazgarriak dira, jende askoren azalpenetan ikus daitekeen legez, herria Arizmendiarrietaren hiletan mesfidati egon zela Elizaren hierarkiaren aurrean. Ordura arte keinurik ez zion egin, ez zion lagundu. Baina behin hilda euretzat hartu zuten, "Arizmendiarrieta Eliza da" nolabait esateko. Kanonizazioa lerro berean uler daiteke. Gogoeta gehiago egin beharko genuke, gure ustez. Kanonizazioa bikaina litzateke, kanonizazio prozesua berak, Vatikanoaren oniritzaz gain, euskal tradizioaren ezaguleen eta pentsalarien onespena izango balu. On Jose Marik bere osotasuna Jesukristori eman zion Euskal Herrian.

Horregatik, Arizmendiarrietaren kanonizazioak, esanguratsua izatekotan, 1936ko gerraurreko Gasteizko espiritualtasuna eta hark bustitako Euskal Eskola ezagutzera eman beharko lituzke, gure ustez. Bestela, goitik beherakoa izango da; Arizmendiarrietaren norabidearen aurkakoa, hain zuzen. Erronka handiak ditugu gizateriari dagokionez, are gehiago Mendebaldeari dagokionez. Baina Euskal Herriak ere bere auziak dauzka, eta Arizmendiarrieta Markina eta Arrasate artean bizi izan zen, Euskal Herri minduari osasuna emateko ekimenean mundu osoari oparia eginez.

Elizkide izan ala ez, balizko kanonizazioak Arizmendiarrieta santutasunera heltzeko ezinbestekoak izan zituen euskal gizabidea eta Jainkobidea ezagutzera eman beharko lituzke, eta haren ereduaren berezitasuna eskaini. Izan ere, Arizmendiarrietak ez zuen bere figuraren gaineko ezer nabarmendu nahi izan, inoiz ere ez. Bere bitartez Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa abiatu zen:

antropologia eta sozio-politika berrietarako ekonomia eredu berria. Santu izendatzekotan, ez litzateke izan behar, hortaz, bere izena gogora dezagun, haren bitartez lan egin zuen misterioaren izana baizik: euskal zeru-lurretan eta euskaraz izandako Jesukristoren bizipen eta argitasun hurbila.

### 3.3. Nihilismoari ez

1936 amaiera aldera, Arizmendiarrietak eta Eusebio Erkiagak elkar ezagutu zutenean, hau esan omen zion markinarrak lekeitiarrari: "Gerrate au sortzailleek irabaziko dabe. Eurek egin dabe, eta eurek garaitzaille izango". Egosi gabea zen on Jose Mariren adierazpena. Gordin-gordina. Galdu behar zen guztiaren jabe zen, baina horrek ez zuen etsipenera eraman. Handik gutxira *Eguna* jo eta ke arituko zen, Bilboko Zazpikaleetan, orain Posta deritzon horretatik. Hau da, Arizmendiarrietak ez zuen etsi, jentilen akaberako ipuineko nagusiak bezala. Zeruaren itxurak legez, garaiaren seinaleak ulertzeko gai omen zen, eta egokitzea besterik ez zegoela ebazten zuen. Gudari sasoia, hortaz, bizitza osoan luzatu zitzaion gerraostetik, Arizmendiarrieta gudari espirituala baitzen. Horregatik, zentzurik gabeko suntsipenaren aurrean tinko irauteko gaitasuna izan zuen.

1976ko azaroan hil aurretik, hiru aldiz ikusi zuen bere burua heriotzaren aurrean. Bi 1968ko eta 1974ko bihotz-ebakuntzetan; bat, lehena, Larrinagako kartzelan. Hura izan zen on Jose Marik nihilismoarekin izandako lehen harremana. Frankismoaren nortasun, nihilismoa ezerezaren gogoa da, zentzu ororen bihurrikeria, berekoikeriaren mugagabeko ankerkeria, duintasunaren aurkako mespretxua, bizitza ororen gaineko indarkeria.

Nihilismoan, misterioa erabat eklipsatuta dago, bere burua izar berritzat duen deabruzkoaren satelite iluna harrotu egin delako. Nihilismoan, giza duintasunak, maitasunak eta on-nahiak ez daukate tokirik. Nazkagarriak dira, eta gizabanakoek lurpean gehiago balio dezakete. Larrinagan, Arizmendiarrietak erorien agintaritza eta paperkeriaren gaiztakeria ezagutu zituen, zizpen makineriak burokrazia ere erabiltzen baitzuen. Zenbat otoitz egingo zukeen hango guztien alde, destrukziozaleen aurrean sendo egon zitezen.

Burgoseko gerlari-sasoia eta apaiz-ikasketak amaitu ondoren, 1941az gero, Arrasaten, on Jose Mari berriz ere nihilismoaren aurrean bakarrik lotu zen. Bere asmoa eta proiektua zirela eta, eginkizun eta jende askoren eragile izan behar zenez, zuhur jokatzen ikasi behar izan zuen. Adibide aipagarria da, esaterako, Larrinagan izan zuen epaiketan, fiskal lana egiten jardun zuen Tomas Garicano Goñirekin berriz ere topo egingo zuela Arizmendiarrietak, Arrasateko greben eragiletzat hartu zutenean, Gipuzkoako gobernadore zibil karguan.

Esan bezala, Arrasate nihilismoak bereziki kastigatutako tokia zen. 1934ean PSOEk eta UGTk demokrazia industrialaren alde eragindako altxamenduaren zauriak itxi barik zeuden, eta hiria 1936ko irailaren 26an lotu zen frankisten esku, Rafael Latorre Roca Koronelaren menpe, hasieratik haien habi izan zen Gasteiztik gertu. Fusilatu ugariren artean Jose Joaquin Arin parrokoa, eta Jose Markiegi eta Leonardo Urteaga koadjutoreak izan ziren. Eliz-hierarkia xumea ere ez zen libratu. Urteetan, isilpeko salaketak eta egun argiko fusilamenduak asko izan ziren. Erbesteratuak ere, piloa. 1920an, Eibarren, Alfa enpresa kooperatiboa eratu zuen eta gerora Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa atsegin izan zuen Toribio Etxebarria Venezuelan egon behar izan zen, adibidez.

Arrasate sakon mindutako lekua zen, hortaz, 1940etan. Ezin zen edozein hara apaiz bidali, eta hierarkian gogoeta ondo egin eta gero izendatu zituen Lauzurika gotzainak Iñarra eta Arizmendiarrieta harako. Espiritualtasun eta izaera sozial handiko sazerdoteak behar ziren han, begirada beltzaren azpian gorriak ikusi behar zituztenen artean bizikidetza izan zedin. On Jose Mari, hortaz, minusetik hasi zen. Ez zen hutsetik hasi, zero azpitik baino. Ez zen giro, ez oruberik, heldu eta jarraian eraikitzen has zedin.

Hondamendi materiala eta espirituala nagusi ziren, nihilismoak agintzen baitzuen. Eta frankistak koipetsu zeuden bitartean, gizartearen zauriak osatzeko sendabiderik ez zegoen inon. Arizmendiarrietak, hortaz, gizabidera heltzeko lan handia egin behar izan zuen. Lan eta lan, pertsonen alde, harik eta gizabidean has zitezkeen arte. Hau da, gizatasun oro suntsiturik, gizabidea berriz ere irekitzeko nekeak handiak izan ziren. Abiapuntua zeropean zegoen.

Izan ere, gizakiak eta herriak ez dira tiroz soilik hiltzen. Barrua apurtuz edo lapurtuz galera handiagoa izan daiteke. Genozidio kulturalaz gurean eta guretzat hitz egiten ziurrenik lehenengoa izan zen Yon Etxaidek, 1979an *Zeruko Argia*rako eginiko elkarrizketan, esan zuenez:

> Frankismoak Euskalerriarekin egin zuen jenozidioa, gaurko belaunaldikoak ondotxo konturatzen ez diren modukoa izan zen. Ni behintzat, askotan, etsirik egon nintzen gure Herria –herria bere hizkuntzarekin alegia, zeren hizkuntza galduz gero ezin baititeke izan geure herria– biziarekin aterako ote zen frankismoaren hatzaparretatik.

Euskal hizkuntza eta kultura betean, Pizkundearen araberako horien iturri zen izaera jatorra zaintzeaz eta hortik jendeari edaten emateaz arduratu zen Arizmendiarrieta. Sasoi hobea etortzeko zain lotu zen, baina geldirik ez, gizabideari ura eta arnasa ematen baino.

*Defizit*

Unión Cerrajera-ko Escuela de Aprendices-eko zuzendari eta tailerretako ingeniari buru zen Ignacio Chacón-ek honakoa esan omen zuen, Jesus Larrañagaren *Arizmendiarrieta y la experiencia cooperativa de Mondragon* liburuan jasotako hitzetan:

> D. Jose Maria tenía claridad de conceptos, ordenación jerárquica de las prioridades, audacia sin límites y tenacidad inquebrantable. Su palabra favorita era *déficit*, motor de sus aventuras, palanca de sus ambiciones (88).

Lehiakide izan zitekeen hark Arizmendiarrietari begirune osoa zion. Baina, jakina denez, aurkariaren hitzak, zintzoak direnean, ondo gogoan izatekoak dira, ongi pausatuak, zehatz-mehatzak, baitira beti. Berba horietan, on Jose Maritaz ezaguna zaigun nortasuna eta jarrera azaltzen zaizkigu, eta nabarmendu egin nahi dugun beste ezer.

Izan ere, Arizmendiarrietaren testuetara eta haren pentsamenduaz asko arduratu direnengana joz gero, etengabe azaltzen zaizkigu kooperatibismoa, duintasuna, elkartasuna, lana, pertsona, komunitatea, diziplina, esperientzia eta beste. Errepikapenak garrantzia adieraz lezake, nola ez, baina isilpekoak edo oso-oso

gutxitan esandakoak izaten dira baliotsuenak, esan nahi denari zentzu osoa ematen diotenak, poetek dakiten legez.

Arizmendiarrietaren hitzik gogokoena *defizit* omen zen. Haren eta haren gainean idatzitako testuetara itzul gaitezke, berba horren agerraldiak zenbatzera, Pako Garmendiak, 2014ko *Hemen* aldizkarirako egindako azterketa estatistiko bitxian, ez baitzuen kontuan ere izan.

Gabezia, beraz, ez zitzaion on Jose Mariri etsipen edo bazterkeria iturri, gogo pizgarri eta eragile baizik. Bihotz prestuak dakienez, ezer ez dagoenean, guztia dago egiteke. Ekin egin behar, ondorioz. Baina ekintzaile sena aldez aurretik izan behar da. Arizmendiarrietak, ikusi dugunez, horretarako deiari baietza eman zion gaztetatik, eta baiezko erantzuna askotan berretsi zuen, bizitzan egindako hainbat botoren bidez.

Hala, lehendabizi bete behar izan zuen hutsunea haustura sozialen azpiko batasunarena eta elkartasunarena izan zen. Horren adibiderik onena 1943an sortutako Eskola Profesionala da: ikasleen jatorriak berdin zuen. 1941az geroko lehen urteetan, era guztietako taldeak eta erakundeak eratzen tematu zen, arloa kirola, kultura, hezkuntza, pietatea, osasuna zein eraikuntza izan. Gizarte oso itxiari irekitzen irakatsi zion bide horiek jorratuz, eta, horregatik, urratsez urrats, aro egokian, oso neurritsua izan zen bere kriterioetan eta adierazpenetan.

Arizmendiarrietarentzat, beraz, espiritualitatea ekintzaren bidez agertzen zen: eskolarik ez bazegoen, eskola egin; etxerik ez bazegoen, etxeak egin; elkarterik ez bazegoen, elkarteak egin. Arazoen aurrean jendea batu egiten zuen, eta erakundeak eratzen lagundu konponbideei hel ziezaieten. Hots, konponbideak egitura barik bilatu beharrean, lehenik eta behin taldearen oinarrirako eta egonkortasunerako modua lortzen zuen. Horregatik, Arizmendiarrietaren lehenengo ikasleak dizipulu edo apostolu izan ziren; alegia, ondo landu, ondo elkartu, zirenak.

Elkarkidetzan hezitzeko, hezkuntzan jardun behar zela argi zeukan on Jose Marik. Gerraosteko giro latzean, eskolabakoaren ezintasuna gordin ageri zitzaion. Laguntzeko asmorik ez daukan gizarte burokratizatuan, beti bitartekarien beharra izan behar du analfabetoak edota gutxi ikasiak, eta horrek elkartasuna mikazteko eta jokabide eskasak sustatzeko baino ez du balio. Hala, apaiz

izanda, heziketaz arduratzea ez da gauza berria, heziera kleroaren ardura izan baita mendeetan. Baina Arizmendiarrietak berrikuntza handia ekarri zuen: hezkuntza gizarte garaikidea eraldatzeko bidea izango zen. *Jakintzak askatuko zaitu* zen haren lema.

Tradizioaren eta modernitatearen sintesian, subjektu berriaren hazitegi izan zitekeen hezkuntza. Eta nor da, Arizmendiarrietaren pentsamenduan, subjektu? Anai-arreba dena, edo, bestela esanda, hurkoarengana arduraz irekita dagoen gizabanakoa, izamena harremanean duen pertsona. Hori zen on Jose Marik defizit larrian ikusten zuena. Horregatik, eta konfesionarioan ezagutu zutenek beti harridura onez gogoratu bezala, Arizmendiarrietak arreta hurkoarenganako eta gizartearekiko bete bako jarreretan eta konpromisoetan jarri zuen. Ebanjelioaren arabera aritzea txiki, baztertu eta ahaztutakoen alde egitea zen. Garai nihilista hartako pekaturik handiena, asimilazio inkontzientez bazen ere, erregimenaren nortasuna bereganatzea zen.

*Autoeraketa*

Arizmendiarrietaren pentsamendua, iturri askotatik egindako sintesia, eta haren izaera pragmatikoa Azurmendik azaldu zituen, eta nekez egingo du inork hobeto. Pertsonalismoa eta kooperatibismoa, filosofia eta ekonomia, hezkuntza eta lana, fedea eta gizarte industriala, elkarrekin josi zituen on Jose Marik, urte askotan egindako gogoetaren eta esperientzia errealaren gaineko behaketaren bidez.

Bere ezaugarririk nabarmenena, eremu askotan eta era batera, eraldaketaren alde etengabe eginiko ekimena da, une latzean bertan, diktadurapean eta kapitalismo betean, horiek amaitzera itxaron gabe, edo horiek erretzeko surik piztu gabe. Autoeraketan sinesmen osoa zeukan Arizmendiarrietak, haien burua gizaki legez aska zezaten langileek zuten kalitatean eta gaitasunean. Hau da, kooperatibismoa bertuteen, nortasunaren eta ahalmenen autokontzientzia lortzeko modutzat zeukan on Jose Marik. Horren ikur, 1956an Ulgor lehen enpresa kooperatiboaren sorreraz aritzean, haritza erabili zuen:

> La naturaleza, no muy benévola ni generosa, nos ha inducido a utilizar el trabajo para transformarla, y una raza que crece y se multiplica como la nuestra ha hecho del trabajo la

> base de su promoción económica y social. El roble, que en el pasado ha sido el símbolo de nuestro país y de nuestro régimen de vida social, admite que al presente le representemos con los atributos del trabajo humano para expresar las esencias del pasado con las realidades del presente en la construcción de un orden social evolutivo, como el que trata de impulsar esta Experiencia Cooperativa.

Euskal ondarearen eta mundu garaikidearen arteko sintesia berriz ere erakusteaz gain, bada zer nabarmendu hitzotan. Sorreratik bertatik, Arizmendiarrietak argi zeukan esperientzia kooperatiboa bera ez zela helburua, ez zela lortu nahi zen utopia edo ideala, hara heltzeko bitartekaria baizik; kontzientziak landuko eta irabaziko zituen gizabide aplikatua. Ezker iraultzaileen helburua iraultza bera ez den legez, Arizmendiarrietak bidea eta helburua bereizi egiten zituen, astiro eta sakon landutako proiektuaren bidez. Autoezagutza bide horretan, euskara lan mundura eta hezkuntzara ekartzea berez etorriko ziren, eta hala gertatu zen.

Baina zer ordena sozial berrirekin amesten zuen ezin liteke jakin, eta, gainera, hori ez da garrantzitsua. On Jose Marik ez zuen burua horretan nekatu. Mundua mundu deno gizabidea garatzeko esperientzia eragiteko moduetan baino ez zuen jarri arreta. Gizartearen forma itxia eta amaitua ez zen bere gaia, haritzak hazteari, egokitzeari, garatzeari, uzten ez dion legez. Haritzak haritz izateko behar duen etengabeko egokitzapena edo eraberritzea da Arizmendiarrietaren asmoan dagoena. Hau da, esperientzia luzea, eta emaitzak emaitza, lorpenak lorpen, amaituko ez dena. Bere hitzetan berriz ere:

> La solera de democracia y actividad y dinamismo de nuestro pueblo requieren nuevas formas consonantes de promover un socialismo de auténtico rostro humano […] procediendo a ello con la agilidad y posibilidades todas que dispusieren sus ciudadanos y trabajadores en régimen democrático irrenunciable y libre, que una comunidad consciente no puede dejarlos en suspenso para tratar de recuperarlos posteriormente por conductos extraños.

Horregatik, klaserik gabeko gizartearen bilaketan, gizakia gizatsuago egin dezakeen gizabidean, izaera demokratikoko lanak duen etengabeko garrantziaz hausnartu zuen. Gizakia lan egiteko etorri da mundura. Lan egin behar du, bere burua landu eta gizaki

osoago bihur, errealiza, dadin. Haritzak haritz izateko izerdia ibili behar duen eran, gizakiaren eta lanaren arteko etengabeko bidearen gogoeta zen Arizmendiarrietaren ekarpena. Hala, gogoan hartzekoa da Azurmendik bere *Hombre cooperativo* laneko azterketa honela ireki zuela, sarrerako azken hitz hauen bidez:

> Junto a Barandiaran y Lekuona, sus maestros de juventud, a Arizmendiarrieta le corresponde, también como complemento necesario de aquellos, un puesto de honor entre los que se han esforzado por abrirle al pueblo vasco las vías para alcanzar su comprensión y realización históricas. Muchos maestros ha necesitado este pueblo, que le descubrieran su historia, su lengua, sus tradiciones, su literatura, su dignidad de pueblo. Nadie, como Arizmendiarrieta, le ha puesto de manifiesto que, en última instancia, la historia de un pueblo descansa sobre el fundamento, aparentemente humilde, de su trabajo.

Liberalismoaren eta kolektibismoaren arteko hirugarren bidea euskal sozialismo jatorra izatea nahi zuen, Pizkunde garaian irudikatu bezala. Arizmendiarrietaren sasoian, mundua bi polotan banatzen zen: konstituzionalismoa eta komunismoa. Baina Estatuen eta sistemen banaketa hori baino hausketa handiagoa ikusten zuen gizaterian bertan. Jarreretan zegoen gizadia banatuta, ikuspegi antropologikoan eta izaera moralean. Hori zen bere ardura eta kezka, gorrotoak aldera utzita.

Gainera, apaiz katoliko gisa, inportantea da gogoan izatea Jesukristok gizakia erosi zuela, ez inongo Estaturik. Haren modua ez zen izan Erromaren aurka egitea, mundu katiratuari ezetz esatea baizik. Kristoren bideak lehertu egiten du, baina dinamitaz ez, legamiz baizik. Haren bidea bihotzetan hasten da, *metanoia* edo kontzientzia aldaketan. Hori ez badugu ulertzen, ezin dugu Arizmendiarrietaren jarrera konprenitu. Apaiza zen, erabateko apaiz. Bere jarrera eta hitzak ez dira, hortaz, ikuspegi politikoz egindakoak, santutasunetik gertu aritzeak ematen duen ikusmiraz baizik.

Hala, ikuspegi utopiko erradikalen aldetik kritikak egin zizkiotenean, Arizmendiarrietaren lana babes gutxirekin lotu zen. Bere proiektua ez zen ezker berrien zentzuan iraultzailea, ezta bide arina eta emaitza zehatzak iragartzen zituena ere. Kritikek arduratuta utzi zuten, kooperatibista batzuk haien bidea zalantzan

jar zezaketen heinean. Adibidez, kooperatiben atzean sindikaturik ez egotea eraso zioten.

Urte askotan, ezkerreko sindikatuek kritika egin diote kooperatibagintzari, iraultzarako langileak kendu egiten dituelakoan, jabe eta langile direnak proiektu humanistarekin buru-belarri ari direlako. Izan ere, Arizmendiarrietak konfliktoa eta eztabaida nahi zituen, bide berriak irekitzeko tente jartzeko prest zegoen, baina ez zuen klase borrokarik nahi.

Baina Arizmendiarrietak beste zerbait zuen bere alde: denbora eta transzendentzia. Gogora ditzagun 1965ean esandako hitzak. Ez zuen Arrasateko esperientzia helmugatzat edo helburutzat hartzen, esperientzi, bide edo bitartekaritzat baino. Ezkerretik jaso zituen kritikek ez zuten hori kontenplatzen. Izan ere, Arizmendiarrietak berak ez zuen, 1976an hil orduko, gizarte idealik ikusi. Ondo zekien Arrasateko esperientziaren bidez lortutakoa zero mailatik erne berria baino ez zela. Gogoan izan dezagun berriz ere: minusetik hasi zen, baina lubakietan bertako ezkurrak erein zituen, eta bertokotutako zuhaitzak ere landatu.

Iraultzak goia eta behea irauli egiten ditu, apurtu eta zerotik hasteko. Baina Arizmendiarrieta minusetik hasitako esperientziaduna zen, eta lanaz eta elkartasunaz –*T.U., trabajo y unión*– eginiko esperientzian sinesten zuen, baita askatasuna kontzientzian eratzen dela eta aberastasunik gorena gai immaterialetan dagoela ere. 1974ko "Edozetarako" testuko hitz hauek ondo azaltzen dute on Jose Mariren jarrera:

> Norbaitzuek esango dauskue askatasun eta aurrerapide miñetan irakiten dagon erriarentzat iraultza jokabide ori luzeegia edo astirotsuegia dala: baita beste batzuek esan al izango dauskue etenbearreko lokarriak eta gainberatu bearreko indarkeriak presa larriagoa ta indarketa biziagoa bear dituenak dirala be.
>
> Lasterka elduarazo eziñeko egingorik asko ez al dira giza-aldaketan onartu bearrekoak edo eten ondoren barrituarazo bearreko lege ta erakunderik ez al da bear giza-aldeketa ta elkarte iraultzeak gizagarritsuak, onargarriak izan al dagikeguzan?
>
> Zer deuseztu, apurtu edo birrindu bear dogun pentsaterakoan, zer jarri, egin edo jaso bearko dogun eta zerekin eta zelan egin eta jaso al gengikegun be kontuan euki dagigun. Orain eta gero

> be geuk geuronez egin dagikeguna egitea ongarri ta bearreko izango da geuri jagokun erakunde ta politika jokabideetan ibilli al izateko.

Nork bere-berez egin dezakeena, ilunpe zein oskarbi izan, autoeraketa da. Estatuaren eta banakoaren artean beste ezer ez balego bezala, publiko-pribatu dikotomia muturrera eramanda dagoen honetan, Arizmendiarrietaren bidea esanguratsu agertzen da, mutur bien artean, ordea, garrantzitsuena baitago, benetan balioa daukan bakarra: komunitatea, gizabanakoari askatasun erroak eskaintzen dizkiona.

Komunitateak memoria, hizkuntza, zentzu-iturriak, ohiturak, ospakizunak, zuzenbidea eta beste ematen dizkio gizabanakoari, taldearen baitatik ezagutu ditzan, eta, horrekin bat, horien helmena handitzeko eta gizatsuago egiteko aukera. Kooperatibismoa, pentsamendu legez, hori guztia pentsatzeko bide ematen duen ildoa da. Horregatik, kooperatibismoaren balioa, noiz eta XXI. mendean, handi-handia da, komunitategintzarako argia ematen baitu; hau da, komunitate-sena era dadin, garai kaskarrenetakoan.

Kooperatibismoaren erronka, hortaz, enpresa-esperientzia edo enpresa-eraketa ha edo beste beharrean, bere burua ordena berriaren arnas edo asmo legez pentsatzera heltzea da. Pentsamendu legez, proposamen teoriko eta bizi-estilo legez. Izan ere, Estatuaren edo indibiduoaren filosofiarik eskaini beharrean, komunitatearen filosofia eskaintzen digu, eta bertan gizabanakoa pertsona legez. Horixe da autoeraketaren bidea.

Horregatik, asmoz eta jakitez, banakogintzatik eta Estatugintzatik hain urruti dagoelako, ezin zaio ez dena edo bilatzen ez duena egotzi. Kooperatibismoaren komunitategintzatik at daudenak, ordea, esperientzia jakinaren agerpena kanpotik ikusten dute: enpresa edo erakunde jakin legez. Eta haren gaineko epairik egiteko banako edo Estatuko parametroak erabiltzen dira. Horixe izan zen, besteak beste, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren lehen faseari egotzi zitzaiona: frankismoari mesede egitea, Euskal Herriaren kaltetan. Enpresa kapitalistaren izaeraren erreforma morala bilatuz eta langileei euskal ondareko iturriak berriztuz, aldiz, ekarpen esanguratsua egin zuen Arizmendiarrietak. Horretan zegoen, bederen.

Izan ere, kapitalismoan ez dago inolako justiziarik. Haren ordena ez da bakea, gerra gorra baino. Aurka altxatzen den ahots oro biolentotzat izendatzen du, baina bere izaera erabateko biolentziaren jarduna da. Hark pizten dituen diruzalekeria, handinahikeria eta norbere interesak mehatxupean ikustean sentitutako gorrotoan, pasio gutxik daukaten indar oldarkorra dago.

Hori dela eta, Arizmendiarrietaren proiektuak, haren sakoneko taupada zaintzen ez badu, arazo handi bat izan dezake: kooperatibista, denborarekin eta konturatu orduko, burges izpirituan arnasean aurki daiteke. Ondorioz, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboak, aro pragmatikoan, Beltzak bere sasoian kooperatibagintzari egindako kritika zuzena izan zela erakutsi du. Frankismoaren aro desarroilistan klase ertainaren garapen sistemikoa egin zen, langileak kontsumitzaile bihurtu ziren. Arrasaten, produzitzen zituzten produktuen erosle eta erabiltzaile izan ziren kooperatibistak. Ongizate materialak gora egin zuen, lehengo belaunaldien austeritate eta zuhurtasun balioak haien mailan eguneratu gabe.

Horregatik, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboak pentsamenduaren eremuan, ikuspegi ideologikoan, ekarpen berriak egin beharko lituzke, Arizmendiarrieta hil zenetik urteak igaro baitira. Ez da aurrerapausorik eman, eta lehen aroaren sorburu izan zirenak galtzen ari dira. Gaur egungo krisi sistemikoaren erronken aurrean, hortaz, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboak bere oinarrietako eta lehen aroko balioen iturriak berreskuratu beharko lituzkeelakoan gaude, Euskal Pizkundeaz hitz egitean esan bezala; hots, iraganeko formulak hartuz ez, formula haiek eratu zituen ulermenera hurbilduz baizik. Berriz esan eta nabarmenduko dugu: balioez haraindi, balioen iturriak. Adierazpenak ezer ez baitira haien sorburu diren adierazpide barik.

### *Iturri garbiak*

Herri zapaldua eta apurtua, Euskal Herriak hainbat eratako askatasun hegoak behar ditu. Horregatik, Arizmendiarrietak askatasun-mina pizteko sua zaindu eta landu nahi izan zuen. Euskal Pizkundean ikasi bezala, balioek, lorpenek, emaitzek, ez dute usteldu gabe luze iraungo haien iturriak ezagutzen ez badira. Behin eta berriz itzuli egin behar da iturrira. Eta, horretarako, kulturaren

eremuan lan handi-handia egin beharra dago, askatasunerako iturria nork bere kultura zainduz eta garatuz lortzen baita.

Arizmendiarrietak 1971eko “Danok danon bearrean” testuan esan bezala: “Emen danok jakin dakigunez kultura-arloetan erdel-kulturapean gagoz eta orixegaitik erdeldunak erdeldun diranez ta jokatzen dabenez ez dauskue onik egiten”. Horregatik, 1970eko “Erri-zale ta askatasun-miñez” testuan azaldu zuenez:

> ERRIA egitez jaso nai dogunok iñoren menpeko izan ez dadin lanaren buruz ornitu bear dogu kultura ta ekonomi-sailletan […] ERRIA lurrak edo lurraldeak utsik ez dira, berton bizi garan gizonok baño: erriaren askatasuna gizonon askatasuna da.

Ziurrenik, Arizmendiarrietaren eta haren mailakoen zer-esana ondo uler dezagun, horixe da ondo argi izan beharrekoa: desiragarria dena bizirik irauten jakiteko bidea erakutsi izana, haien bizitza horri guztiz emanda. Ogia ez da helburua, egunero behar baita. Helburua ogia egiten jakitea da. Hobe esan, abiapuntua da. Etengabeko sorburua. Sarreran esan dugun moduan, sasoian-sasoian adierazpenak egiteko adierazpideen jabe izatea. Aurreko hitzetatik gertu, 1969ko martxoko “Bereziki eta naroki” testuan, sarreran Euskal Pizkundeaz esan dugunaren oihartzuna jaso dezakegu:

> Lege zarrak berritu egin bear dira ta ez lenago ona zalako, edo orain lengoa ta zarra dalako eutsi. Berezeki izatea bizibideak berenez dakargun egingoa da bakoitzak eta aldi bakoitzean egoki eratu dagikugezan geure arazoak.
>
> Auxe da euskaldunok geure zanetan daruagun gogo bizia ta urteen buruetan ezerk zapaldu ta ito al izateke gaurdaño tinko ta indartsu baztar guztietan gure enda zaindu daben jokabidea.
>
> Eutsi edo iraunarazo bearreko gauzatan baño geiago daukaguz aldatu ta egokiarazotekotan, arlo ta arazo askotan: ekonomi, gizarte, politika ta erlijio sailletan […] Gabiltzan adi ingurua begiraturik aurreruntz urrun ikusirik eta egunik alperrik galtzeke: geuk geuretik eta geurenez jaso bear izango dogu gure Euskalerri maitea: ez dagigun aztu euskaldunok, edo emen bizi geranok, geure buruak ondo lantzen ez ba-ditugu ta alkartasun-bidez indarberatzen ez bagara berezeki bizi izatea egarrigarri barik iguingarri izan dagikegula.

Nor bere kulturaren baitan aritzea ezinbestekoa da, joan denaren eta eratorri nahi denaren arteko sintesi propioa egin dezan,

giroa dena delakoa izanik. Baina Arizmendiarrieta ez zen inozoa, noski, eta nork bere kultura gara dezan era askotako askatasun bideak behar dituela ondo zekien. Baina beste hau ere bai: botere guztia esku-eskura izanik ere, nork bere kulturaren iturriak ezagutzen ez baditu, beste inoren iturburuetatik edo plastikozko botiletatik edan beharko du. 1969ko urtarrileko “Gizonki ta euskaldunki” testuko bere hitzetan:

> Badakigu gizonok azkatasuna sail guztietan bear dogula. Baita era askotara eratu dezakena be. Gure erria indartzeko gure gizonak indartu dagiguzan […] Euskaldunki jokatzea ez da soñu erreza. Soñu gozoz bizikera garratzak izan genezakez: oiu egiten baño zintzotasunez jokatzen geiago alegindu gadizan.



On Jose Mari Arizmendiarrieta (1915-1976), heldu-heldutan.
Iturria: *T.U. Lankide* aldizkariko 200. zenbakia, 1977ko azarokoa.

Horregatik, on Jose Marik lanaren eta lanaren bidezko elkartasunaren alde sakatzen zuen. Ondo zekien euskal sena eta kul-

tura gogor estututa zeudela, eta horregatik horien garapenerako eremuak eta egiturak lortu behar zirela berandu baino lehen, inolako salbazio proposamen agertu aurretik. 1969ko azaroko "Eusko-jokabideak" idatzian honela esan zuen Arizmendiarrietak:

> Euzko-gogoa itoko ete-dauskuen bildurretan ta samintasunean bizi izan gara bein baño geiagotan eta ez gitxi be. Iñork ito ezin dagikun gogo ori geuk ostera alperrik galdu izan oi-dogu […] Aoz danok dirudigu oso abertzale zintzo, egitez oso gitxi, gure erriari ta gizataldei ondo letorkegiozen egingoak egiten gitxi baño gitxiago […]
>
> Euzko-jokabideetariko bat auxe da: lañoetara baño bera geiago begiratu: lañoetan gitxi aldatu genezakegunok lurraldean zerbait obeto eratu dagikegun. Iñoren baimenik gabe egin genezakeguzan egingoak ez dira gitxi. Bakoitzak beretik zintzo jokaturik jaso lezakezan saillak zabalak dira.
>
> Euzko-espirituz ta arnasa barriz biziarazo dagigun inguruan daukagun guztia. Alkartsuna, zuzentasuna, askatasuna ta aurrerapidea bekiguz gure gogo-min: oñarritu dagiguzan bakoitzak dagikegunez.

Gure ustez, Arizmendiarrietak dependentzia politikoa betierekoa dela uste zuen. Bai Espainiako II. Errepublikan, bai frankismoan, bai iraultzaz etor zitekeen Hegoalde askean. Horregatik, kultura eta balio proiektuak eragin zituen, baina antropologia berria eskatzen zuen ekonomiaren bidez. Bere abiapuntu, oinarri eta lorpenek ez zeukaten politikaren eremutik inork esan edo egin zezakenarekin hurbiltasunik edo harremanik, bere proiektuaren norabidea eta abiadura beste inork ez zituelako. Behetik gora egindako proiektua da harena, hiri batean, bailara batean. Ez goitik beherakoa, ezker zein eskuin eskuz. Bere proiektua espazio propioak eraikitzekoa zen, euskal jarreratzat zeukana landuz eta euskal baliotzat zeuzkanak garatzeko asmoz. Gure ustez, lanketa eta garapen horiek beti egin behar dira, askatasun politikoa egonda ere.

Horregatik, Arizmendiarrietak ez zuen inolako politikarekin edo alderdirekin ezkondu nahi. Gogoan izatekoa da, 1976an, heriotza gertu zuela jakitun, Gorroñogoitiaren bulegoan hainbat zuzendari bildu zituela, eta zetozen garai, joera eta tentaldien aurrean kooperatibismoa zaintzeko eskatu ziela, oraindik eman beharrekoa eman gabe, ezagutu gabe, zegoelako haren ustez. Alkartasunaren

bidea behin eta berriz nabarmendu zuen, borrokarena beti ukatu, baina, batez ere, bide propioa egiteko jarrera aldarrikatu zuen.

Oportunismo politikoak eta borrokak dakarten biolentzia (anti)sistemikoaren aurrean, Arizmendiarrietak autoeraketaren bidea defendatu zuen. Kristau legez, injustizia berarentzat jasan zezakeen, baina, apaiz legez, ez beste inorentzat. Hori dela eta, on Jose Mariren eginkizunak eta pentsamenduak egun bizi duguna ulertzen lagun diezagukete. Indarkeria ekintzak identifikatzea erraza da, baina biolentzia egoera iraunkorra ez horrenbeste.

Eta, horrez gain, Arizmendiarrietaren apaiz, erabateko apaiz, izaerak beste honakoa erakus diezaguke: biolentzia ezaren indarra santutasunak baino ezin dezakeela izan, santutasunera heldu denak baino ezin diezaiokeela uko egin indarkeriaren zuzeneko borrokari. Izan ere, biolentzia ezaren alde egitea, askotan, bizitzaren beldurraren aurrean babesa aurkitzeko da. Hala, bakezaletasuna ihesbidea denean, gudazaletasuna bezain okerra izan daiteke. Arizmendiarrietaren proiektuak, aldiz, beste ezer azaleratzen du, misterioaren bidean ari denak transzendentziaren logika ezagutzen baitu, eta immanentziari edozein testuingurutan ezetz esateko zilegitasuna du.

### *Ernazimendu berria*

Mundu modernoa giza pertsonaren eta komunitateen aurka eraiki delakoan zegoen Arizmendiarrieta. Modernitatean, Estatuak eta haien menpeko indibiduoak baino ez dira onartzen, eta gainerako edozein proposamen susmagarri da. Horregatik, on Jose Marik, pertsonalistekin batera, Ernazimendu historikoak berpizkunde pertsonalista eta komunitarioa ez zuela egin pentsatzen zuen. Baina, horren zain egoteaz gain, horren eragiletzan ere jardun zuen.

Gasteizko Seminarioan 1936 aurretik garatutako ikuspegiaren arabera, XX. mendeko krisiaren sorburua indibidualismoa da. Hori da Mendebaldeko zibilizazioaren desorekaren eragilea, desorden espiritualaren iturria haientzat. XX. mendearen bigarren hamarkadan, Lehen Mundu Gerra zela-eta, Ernazimenduan hasitako mundua hondamendira heltzen ari zelakoan, eta benetako Ernazimendua behar zelakoan, zeuden. Horregatik, elizkide aurreratuenak Mendebaldean eragiten ari ziren mugimendu

zabalaren euskal korrontea ere izan zen Euskal Pizkundea: Elizaren eta mundu garaikidearen eraberritzea, sakoneko euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna landu zutenen eskutik.

Esan bezala, Arizmendiarrietak, Gasteizko Seminarioan, sakoneko eraldaketa espirituala ezagutu zuen. Horrek lagundu zion antropologia berria eta humanismo integrala bilatzen eta gertatzen. Egun, berriz ere, zentzu horretako izpiritu iraultza da behar dena. Ezin da benetako iraultza materialik iraultza espiritualik gabe egin. Eraketa eta antolaketa auziak ezin dira helburuen arazoetatik bereizi. Horregatik, krisi sistemikoa ekologikoa, klimatikoa, kulturala, ekonomikoa, politikoa, morala, estetikoa eta abar dela esaten dugunean, benetan esan behar dena adieraztera ez gara heltzen: krisia espirituala da. Krisi hori Ernazimenduak ekarri zuen burges-sekularizazioaren ondorio da, eta indibidualismoaren zibilizazio gaixoaren eragile on Jose Mariren pentsamendua ongarritu zuten emarien arabera.

Alde horretatik, gogoan hartu beharko genuke, Arizmendiarrietarentzat, gizakia jainkozko dinastiatik datorrela. Jainkoaren seme-alaba da, kreazioan logosa duen kreatura; gizaki, eta horregatik hain zuzen, izaki. Horregatik, on Jose Marirentzat, gizakia Jainkoarekin lankidetzan aritzeko jaioa da, eta, zirikatzaile, lehenengo kooperatibista Adan izan zela esan zuen inoiz; Jainkoak berak proposatu omen zion lankidetza sistema.

Lana, ondorioz, bere-berezkoa zaio gizakiari. Egun, Arizmendiarrietak aldarrikatzen zuen kreazioaren *co-operator* hori *sub-creator* izan beharko litzatekeela ikasi beharko genuke, J.R.R. Tolkien-en azalpenen arabera. Amaitu gabeko kreazioan jardutea ez baita gizakiak mundua nahieran haren aberastasunerako eraldatzea, izaki orori Jainkoa goresteko modua aurkitzen laguntzea baino. Lurraren alde bizitza eman zuen misterioaren espiritualtasunak hori berori eskatzen du.

Hasieran esan dugun moduan, ezinean gaude. Ezintasuna dugu, ez gara gai, aspaldikoa ulertzeko: *ez gara gure baitakoak, besteren baitakoak baizik* esan-indar handiko esaldia oso gutxiren ahotan entzuten da. Ea lantxo honek, Arizmendiarrieta hizpide izateko asmoz egina, iradokitako bidean lagun diezazukeen, irakurle.

# 4.
# EPILOGOA

> *Gure gizaldiko gizonei, gutarrei eta bestetarrei, gertakari penagarria gertatu zaie. Gazteek ez dituzte ikusi nahi izan genitzakeen alde onak, bertuteak eta balentriak; eta gutarik onenek, gehienek ez bada ere, bazituzten alde on baino hobeak. Hutsik nabarmenak ere, egingo nuke, ez dituzte behar den lekuan bilatzen. Kaxkartzat jo gaituzte, beste auzirik gabe, eta kito. Gora jotzeko bideak ere moztu dizkigute, eta geroaren zain gelditu beharko* (Koldo Mitxelena, "Azken ordukoak").

Lan honen helburua Arizmendiarrietataz hitz egitea izan da, eta, apaiz izateagatik, haren nortasuna eta eginkizuna ulertzen saiatzea. Noiz eta apaizaren izaera eta tokia oso gutxietsita dauden unean gure herrian. Apaiz askoren jokabidea negargarria, oso mingarria, izan da. Baina beste batzuena ez, eta ezin dira guztiak zaku berean sartu. Horregatik, ohar gutxi batzuk berriz, edo beste era batera, esango ditugu.

Mundu honetan ez dago itzalik gabeko argirik, eta, Orixerekin bezala, Arizmendiarrietaren alde eta kontra badago zer esan. Lanaren ardatzean, Gasteizko Euskal Eskola izendatu duguna jarri dugu, ezezagun lotzen ari zaigun jakinzale talde hartaz hitz egin dezagun. Hala, euskal kulturari eta herriari egindako ekarpenak

toki berezia hartu du, eta nahikoa kezka dago hor. Eskola hartako ikasle izan ondoren, Arizmendiarrietak zergatik egiten zuen, hurbil-hurbileko euskaltzaleekin ere, erdaraz 1960-70etan? Gasteizen legez, pentsamendua euskaraz ere nahi zukeen? Hori ulertzen saia gaitezen hurbilpena egin dugu, baina galderak ez daude erabat erantzunda. Eta ez dira egin daitezkeen galdera bakarrak, noski.

Horren ondoan, muineko beste gaietako bat erlijioa da. Gero eta zailtasun handiagoa daukagu gure herriko sustraietako bat, erpe kristaua, ulertzeko, eta oso urrutikoa ez den iraganean zein enbor garrantzitsu izan den aditzeko. Interes zein ahalmen gabeziagatik izan, emaitza hori da. Horregatik, apaizbidea zer den konprenitzeko arazo handiak dauzkagu. Baina ezin da bestetara izan, eta apaiz batzuen kurrikulum beltzaren aurreko distantziaz haragoko arrazoia da. Sakratuaren, misterioaren, transzendentziaren eta azken zentzuaren eremua ez dira gure modernitatean sartzen, eta, ondorioz, haiei dedikatutako ofizioa ere ez. Zentzugabea bilakatu da, askorentzat, apaizaren figura, eta erraz egiten dute batzuek jauzi apaizbidea beti erokeria izan dela esatera.

Baina gure lantxo honek are gehiago eskatzen du. Hemen ez gara ari edozein apaizbidetaz: Gasteizko Seminarioko urrezko arokoaz baizik. Bere sasoian ere nazioartean ezaguna, irizpidetzat eta helburutzat maxima gorena izan zuena: santutasuna. Hau da, apaiz izatekotan, santubideari ekiteko gogo irmoa adierazi zuena. Euskal Pizkundetik bezala, Arizmendiarrietak hortik edan zuen, eta, horregatik, gure saiakerak hagiografia tankera duela irudi liezaioke inori, edota tonu solemnea erabili dugula. Berriz ere esango dugu: ezagutzen ez dugun, edota ezagutu nahi ez dugun, baina erabateko ardura eragin beharko ligukeena hizpide hartu dugu. Ezohikoa zaigunetik, muturrekoa. Berriz ere, Orixerekin bezala, kontra egitea alde egitea baino errazagoa da. Garaien joeraren aurrean, bestelakoa adierazteko, esfortzu berezia egin behar da, eta gainditu beharreko hutsunea betetzen asmatu, eta asmatzen saiatu.

Hori dela eta, tradizioaz hitz egitean, modernitatearen markoetatik ohi sor daitekeen beste irudipenik izan lezake irakurleak: iraganaren nostalgiaz ari garela, iragan historikoaren apologia egiten ari garela. Inondik inora ere ez. Are gutxiago, gure herri zapalduan eta apurtuan, erakunde, ohikune eta balio

negargarriak izan direnean kristaubidearen izenean. Gure gogoa ez dago oroiminean, hortaz, esperantzan baino. Euskal Pizkundean, iraganeko adierazpenak iturri diren adierazpideak ezagutu zitezen aztertu ziren, eta adierazpen berriak, mundu garaikidearekin elkarrizketan, egin ziren. Orduan ere, buru argienek ez zuten iraganera itzuli nahi, baina iraganeko onenaren iturria ez zuten galdu gura. Gure iparra hor dago: sintesi berriak egiteko gai izango garen itxaropenean.

Arrasaten ezagutu zutenek ez dute lan honen beharrik on Jose Mariren ekarpena balioan izan dezaten. Horregatik, Arizmendiarrieta Pizkundearen ur sakonen testuinguruan aditzean, zuzen-zuzenean antzeman zutena baino figura handiagoa aurki dezakete. Horretaz inoiz aritu gabe, on Jose Mari nahikoa handia zitzaien, eta orain pustuegia irudi liezaieke.

Baina gure ostekoek ez dute on Jose Mari begi hutsez ikusiko, Pizkundea oso urruti gera lekieke, eta modernitatearen abiadurak ez du bere goia oraindik jo. Horregatik, gaur egungo munduaren markoaren baitakoa zalantzan jartzea ez da gutxi izango, baina markoaz berataz eta markoaz haraindi gogoeta egitea izan beharko lekiguke jomuga.

Galderarik irekiena honakoa da: Arizmendiarrieta, 1976ean hil beharrean, hamar-hogei urte gehiago bizi izan balitz, zer sustatuko zukeen? Eta, irakatsi bezain beste, zenbat ikasi beharko zukeen?

# 5.
# GOGOETARAKO GALDERAK

Honako galdera hauen gaineko gogoeta-saioek testuan irakurritakoa geure egin dezagun balio lezakete, bakarka zein taldean.

– Zer leku hartzen du apaizak egungo Euskal Herrian? Elizkide euskaldunek nola ulertzen dute apaizaren izaera eta jarduna? Eta elizkide ez direnek?

– Noiz eta zergatik hasi zen sekularizazio prozesua Euskal Herrian? Noiz eta zergatik utzi zuen apaizgai eta apaiz askok apaizbidea? Zein da erlijioaren tokia euskaldunen artean? Eta fedearena?

– Zer harreman izan dute euskal kulturak eta Elizak azken mendeetan? Zein da euskal kultura eta kristautasunaren arteko harreman garaikidea? Ezberdintasunik al dago belaunaldien artean?

– Zein izan zen Gasteizko Euskal Eskola izendatu dugunaren ardura? Zer izan zitekeen haren jarraipena, 1936ko gerra izan ez balitz? Zer hezkuntza eta ikuspegi sustatzen zituen?

– Zer izan zen Kardaberaz Bazkuna 1936ko gerra aurretik? Zein da euskal hizkuntza eta kultura lantzearen, eta herritik gertu egotearen eta hura zaintzearen arteko lotura?

– Zer izan zen Gasteizko Seminarioko 1936ko gerra aurreko apaiz mugimendua? Zein da “apaiz, erabateko apaiz” ildoaren asmoa? Eta jarduteko modua?

– Arizmendiarrieta ezaguna al da Euskal Herri luze-zabalean? Ezagutza zeri zor zaio? Eta ezezagutza?

– Zein da Arizmendiarrieta, Gasteizko Euskal Eskola eta Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren arteko harremana? Zeintzuk dira Arizmendiarrietaren pentsamenduaren oinarriak? Eta haren ekarpen berezia?

– Zer kritika egiten zion Gasteizko Eskolak modernitateari? Kapitalismoari eta sozialismoari zer kritika egin dakieke modernitatearen oinarrietatik? Eta modernoak ez diren oinarrietatik?

– Nola defini edo adieraz daiteke pertsona? Eta komunitatea? Eta pertsonaren eta komunitatearen arteko lotura? Pertsona komunitatean hazi eta askatu egiten den subjektu dela esan daiteke? Zein oreka bilatzen zuen Arizmendiarrietak?

– Zer da nihilismoa? Zer lotura du modernitatearekin? Zein, gaur egungo krisi existentzial eta espiritualarekin? Santutasunaren eta sakratuaren ulermenik al dago aro garaikidean?

– Zer da gizabidea? Zein da haren lotura euskal tradizioarekin? Arizmendiarrietaren hiztegia erabiltzeak (*gizagarritu*, *gizaberetu*…) zer argibide eman diezaguke?

– Zer da autoeraketa? Espazio eta egitura propioak lortzeko zer oinarri behar ditu? Euskal tradizioan zer gai, balio, gertakizun eta esperientzia har daiteke autoeraketaren kulturaren adierazgarritzat?

– Arrasateko kooperatibagintzari Arizmendiarrietak zergatik irizten zion beti *esperientzia*? Bere proiektuaren helburua ala bitartekaria zen? Zein zen bere sakoneko asmoa?

– Zein da demokrazia eta Euskal Pizkundearen harremana? Eta erlijioa eta Pizkundearena? Eta ordena berria eta Pizkundearena? Nola ulertu zituzten demokrazia, erlijioa eta ordena berria Gasteizko Eskolakoek?

– Zein da Elizaren doktrina sozialaren helburua? Nola etorri zen bat Arizmendiarrietaren proiektuarekin? Arizmendiarrietaren ekarpenek aberastu egin zuten?

– Zenbat euskal santu daude? Zenbat kanonizatu dira Euskal Herritik eta Euskal Herrira egindako lan kristauagatik? Ikuspegi historiko-kulturaletik, zein izango litzateke Arizmendiarrietaren tokia haien artean?

– Egungo erronken aurrean, lehentasuna zeri eskaini beharko lioke edozein esperientzia kooperatibok? Krisi sistemikoak lekurik utzi al dio, izendapenik eman al dio, krisi existentzial eta espiritualari?

– Zeintzuk izan ziren Euskal Pizkundearen lorpen gorenak? Jarraipenik izan zuten 1936ko gerraren ondoren? Zer berreskura lezake Euskal Herriak ordutik? Nola hauspotu Pizkundea berriz ere? Zein toki izan beharko luke erlijioak bertan?

– Arizmendiarrieta euskal pentsamenduan koka daiteke? Nola? Zein lerrotan? Zer lan egin beharko luke gaur egungo pentsalariak Arizmendiarrieta uler dezan?

# 6.
# BIBLIOGRAFIA

On Jose Mari Arizmendiarrietaren gainean lan egin nahi duenak bibliografia oparoa dauka egun esku-eskura. Bi eratako iturriak bereizi behar ditu, noski: lehen eta bigarren mailakoak. Hau da, Arizmendiarrietaren mingainetik edo lumatik irtendako dokumentuak, eta haren esan-eginak ulertzeko baliotsuak direnak.

Gure bibliografia zerrenda eguneratua, aberatsa eta zehatza da. Ez da xehe-xehea izango, baina ondo betea bai, gaian jantzi nahi duenari begira. Arizmendiarrietaren garaia eta giroa ulertzeko ezinbesteko lanak jasotzeaz gain, markinarraren gainean azken urteetan idatzitakoak ere biltzen ditu, eta, hortaz, haren gainean interesa pizten duten gaien berri ematen du. Gainera, ahal den guztietan, lanen edizio edo agerpen ezberdinak aipatu ditugu, irakurleak horietara heltzeko erraztasun handia izan dezan.

## 6.1. Bibliografia-iturrien gaineko iruzkina

Saiakera honentzat aparatu kritikorik eratu ez dugunez, datozen lerroetan, bildutako eta gogoetarako erabili dugun bibliografia erabiltzeko gako nagusiak emango ditugu. Irakurlearentzat ikerketarako gogo-pizgarri izatea itxaron dugu. Zerrendan jasotako lan guzti-guztiak ez ditugu iruzkinduko, ordea.

*Arizmendiarrieta eta Azurmendi*

Arizmendiarrieta 1976an hil ondoren, gertukoenek haren lan guztien bilduma egin nahi izan zuten, eta horren ardura Jose Mari Mendizabali eman zioten. Hark 15 liburukitan jaso zituen idatzi guztiak, *Escritos de Don Jose Maria Arizmendiarrieta* izenburupean. Bakarra argitaratu zuten, lehena, 1978an. Gainerakoen kontsultarako baimena eskatu egin behar da Otalorako Arizmendiarrietaren Artxiboan, baina 2008an edizio digitala prestatu zuten, 13 liburukitan, eta sarean eskura dago.

Horrez gain, aipatutako bildumaren oinarrian dagoen Arizmendiarrietaren funtsa Eusko Ikaskuntzan kontsulta daiteke, sarean eskuragarri. 10.000 dokumentu baino gehiago dauzka, eta on Jose Mariren biografiarako dokumentu ofizialak jasotzen ditu; 1937ko abuztuaren 2an heriotzara eraman ez zuen epaiketaren berri ematen duen agiria, esaterako.

1978an, Mendizabalek bilduma prest izan ondoren, gertukoek lan guztia aztertu zuten, eta *Arizmendiarrietaren Idazlan Guztiak* legez argitaratu ezin zitekeela ebatzi. Testu asko eta asko errepikakorrak dira, eta aparatu kritikoa beharko lukete. Hobe zatekeen, iritzi zioten, adituren batek Arizmendiarrietaren pentsamenduaren monografiaren bat prestatuko balu. Asmo horrekin, Jakin taldeari zuzendu zitzaizkion, eta Joxe Azurmendik, Alemaniatik etorri berri eta mesfidati, bere gain hartu zuen eskaria.

Egindako lanaren bidez, 1984an, *Filosofía personalista y cooperación: filosofía de Arizmendiarrieta* doktoretza tesia aurkeztu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean filosofoak. Lan hori plazara eraman zuen urte berean: *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarrieta*, 1992an bigarren edizioa izan zuena, eta Agirre eta besteren 2000ko lanean, *Lankidetza. Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua* sintesi ederrean, euskaraz aurki daitekeena. Obra horiek Arizmendiarrietaren lanaren eta enpresaren filosofia ulertzeko ezinbestekoak dira.

Bost-bat urtez ibili zen Azurmendi Arizmendiarrietaren gainean lanean, eta tesi-lanerako bitartekari legez, markinarraren hainbat lanen argitaratzaile izan zen: 1983an, *Pensamientos de Don Jose Maria Arizmendiarrieta*; eta 1984an, *Emancipación obrera* eta *La empresa para el hombre*. Arizmendiarrietaren pentsamenduak,

esanguratsuak, iradokitzaileak eta irakurterrazak izanik, hainbat aldiz argitaratu dira geroztik.

On Jose Mariren idazkiak, txiki zein handi, ondo eskura daude, beraz. Hori dela eta, gure zerrendatik zenbait nabarmenduko ditugu. Alde batetik, Arizmendiarrieta seminarista zenean, Gasteizko Seminarioko erretore zen Eduardo Ezkartzagaren omenez, 1935ko martxoan argitaratutako bilduman egindako ekarpena: "Zer ete doguz somagayak?" –bilduma berekoa da lehenago landu dugun Mañarikuaren "Democracia vasca" testua–. Lan horren garrantzia honakoa da:

1) Gasteizko Seminarioaren urrezko aroa (1932-1935) bermatu zuen zuzendariaren izena gogora dakarkigu. Harengandik izan ez balitz, hango jakintza ez zatekeen josiko ezagutza berriekin



Eduardo Ezkartzaga (1884-1954), Gasteizko Seminarioko erretore 1932etik 36ko gerra piztu arte.
Iturria: *Homenaje a D. Eduardo de Ezcarzaga y Solaun* (1935).

eta euskal gaien lanketarekin. Aurreko erretore Roman Laspiurren begiradapeko berrikuntza sasoia ezin da ahantzi, baina Ezkartzagak beren-beregi izan zuen Seminarioko, ikasle zein irakasle, maila zientifiko, kultural eta espirituala handitzea helburu.

Kristau pentsamendua mundu garaikiderako trebatzeko asmo argia eta irmoa zeukan, eta, 1933ko ikasketa planean, Euskal Gramatika eta Literatura, Paleontologia, Etnografia, Ekintza sozial katolikoa, Soziologia eta Misionologia ere jarri ziren. Hau da, kristautasunerako eta apaizbiderako bide sendoa eta eguneratua, Eliza mundu sekularrera joan zedin eta hura aberas zezan.

2) Arizmendiarrietaren sinadura euzkotarra ematen digu: Aritz-mendi-Aŕieta'tar Joseba Mirena.

3) Filosofia eta teologia euskaraz lantzeko egindako ekimenaren erakusle da, hogei urte zituen markinarraren lumatik. Hizkuntza landua, edozein arlotan aritzeko gai dena, prestatzeko ardura eta erakusketa da testua, sasoi hartan seminarioko hainbat aldizkari, ekintza eta talderen bidez egin zena.

4) Arizmendiarrietaren gaitasun nabarmenaren erakusle da, bere irakasle bikainen ondoan ekarpena egin baitzuen testuaren bidez.

5) 36ko gerra izan ez balitz, Gasteizen euskal mugimendu espiritual, kultural eta zientifikoak emango zukeenaren adierazle da. Inoiz ez dugu jakingo Gasteizko Euskal Eskolaren emaria zein izan zitekeen gerra hura izan ez balitz, baina euskal modernitate kristau ilustratuaren eskola zen ha. Hura moztu izanagatik ere, banakoek jorratutako bideek eta eskola berriek egindako adierazpenaren ziurtasuna ematen digute. Barandiaranek, Lekuonak edota Arizmendiarrietak berak, besteak beste, gerora zer egin zuten aztertzea besterik ez dago.

Beste testu esanguratsu batzuk 1961ean egindakoak dira, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa Ulgorrekin hasi eta bost urtera, edo *T.U.* aldizkaritik hautatutakoak, Arizmendiarrietaren pentsamenduak sustatzen zituzten balioen eta ikuspegiaren erakusgarri onak diren dokumentuak. Horietan bat nabarmentzekoa 1969ko “Eusko-jokabideak” da. Horrez gain, on Jose Mariren ahotsa entzun dezakegu 1972an emakumeei zuzendutako hitzaldian.

Bestalde, *Eguna* egunkarian idatzitakoetatik hiru hautatu ditugu: 1) Maitasunak ematen duen jakintzaren gaineko "Maite garretan"; 2) kristautasunaren eta faxismoaren arteko harremana ezinezkoa dela adierazten duen "Geure izatea ukatu nai"; eta 3) hirugarren bidearen alde egiten duen "Okerreko bideak". Liburu honen hirugarren atalean, saiakeran, sarreran Barandiaran, Mañarikua eta Thalamasen testuekin adierazitakoa Arizmendiarrietaren idatziekin batera aztertuko dugu.

Esandakoez gain, Azurmendik Arizmendiarrietaren gainean idatzitakoen artean, bereziki onak eta argigarriak dira 1996ko *La idea cooperativa: del servicio a la comunidad a su nueva creación* eta "El pensamiento de Arizmendiarrieta en su contexto". Azken hori 2014an Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartean emandako hitzaldia da, eta bideoz, idatziz eta 2016an *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*n txukun argitaratuta aurki daiteke. Azurmendiren esana ondo aztertzea ardura handikoa da, Arizmendiarrieta euskal pentsamenduaren argitan luze irakurri duen bakarra baitugu. Hori gogoan izanik, eta gizabidea eta transzendentzia ardatz izanik, 2023ko geure "Euskal gizabideaz: Barandiaran, Arizmendiarrieta, Azurmendi" artikulua ere dugu.

### *On Jose Mari, gertutik eta orpoz orpo*

Arizmendiarrietaren berri izateko, badira zenbait iturri ezinbestekoak direnak. Lehenik eta behin, hura gertu-gertutik ezagutu zutenen oroitzapen, azalpen eta gogoetak dauzkagu. Bilduma onak dira *T.U. Lankide* aldizkarian eginiko monografikoak 1976, 1986 eta 1996an; lehen biak, batez ere. On Jose Mariren izana eta ibilbidea ulertzeaz arduratu diren izen garrantzitsu askoren ekarpenak jasotzen dituzte bilduma horiek. Horien ondoan *Hemen* aldizkariko 2014ko monografia kontuan har daiteke.

Horrekin guztiarekin bat, Jesus Larrañagaren 1981eko *Arizmendiarrieta y la Experiencia Cooperativa de Mondragon* testua mamitsua bezain argia da, eta Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren oinarrien berri ere ematen du. Beste lan hauek ere ezinbestekoak dira: Juan Leibarren eta Jose Mari Ormaetxearen 1984ko *Arizmendiarrieta y sus colaboradores*, Antxon Perez de Callejaren 1989ko *Arizmendiarrieta, el hombre de acción*, Antonio Oyarzabalen 1989ko *Arizmendiarrieta visto por sus condiscípulos*, Fernando

Molinaren 2005eko biografia eta Julen Arexolaleibaren 1991eko *Arizmendiarrieta eta euskara* ikerketa.

Ondoren, ondo gogoan hartzekoak dira Arizmendiarrietaren bizitza gertutik landu eta interpretatu egiten dituzten bi lan: Jose Ignacio Tellechearen 2005eko apaiz-biografia, *El otro Dn. Jose Maria*; eta Eusebio Erkiagaren 1990eko biografia poetikoa, *Gizonaren aldia*. Lagungarriak dira, baita ere, Gaizka Urrestiren 2018ko dokumentala, *Arizmendiarrieta. El hombre cooperativo*; kanonizazio prozesurako Romualdo Rodrigo egile duen testua, eta Saturnino Gamarraren 2020ko "Arizmendiarrieta. En el origen del Movimiento Sacerdotal de Vitoria".

Lan horiez gain, badira argigarriak diren testu txikitxoak. Alde batetik, on Jose Mari hurbil-hurbiletik ezagutu zutenen eskutikoak daude, Isidor Etxeberriarenak eta Agustin Zubikarairena. Beste aldetik, Arizmendiarrieta Kristau Fundazioak eta Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak eginikoak edo sustatutakoak daude; gehienak, bibliografia osagarriaren multzoan, on Jose Mariren izenean jaso ditugu.

### *Euskal Pizkundea eta Gasteizko Seminarioa*

1936ko gerra piztu orduko, Arizmendiarrieta Pizkundearen ur sakonetan ibili zen, gertu zituen irakasleen ekarpenen eta garaiko aldizkarien bidez. Datozen lanek, asko on Jose Mariren gertuko lumetatik egindakoak, euskal kulturaren interpretazioa eta eraberritzea erakusten dute, eta haien mamiak mugimenduko muina osatzen lagundu zuen.

Barandiaranen lan ugarietatik, aldez aurretik aipatutako *Idearium* aldizkariko artikuluaz gain, 1933-1935 bitartean antropologiari eta etnologiari buruzko zenbait testu ezagutzea garrantzitsua da, eta gogoan hartu, esaterako, euskal etnologiaz, *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*n gain, *Yakintza*n eta Aberriaren Urrezko Liburuan ere idatzi zuela, eta euskal sustrai espiritualetaz *El Día* eta *Euzkerea* agerkarietan. Euskal Herri garaikidea Pirinioetako kulturan egindako Mendebaldeko zibilizazioaren artikulazio bereziaren jarraipen legez aurkezten dutenen artean, 1934ko *Euskalerri'ko leen-gizona* nabarmendu behar da, erreferentziazko lana oraindik hainbat arlotan.

Juan Thalamas oso ugaria izan zen 1934-1936 bitartean. Pertsonalismo frantsesaren eta Pirinioetako kulturaren ezagule bikain, haren lanek gai sozialak lantzen zituzten –eskubideak, justizia, ekonomia duina, erlijioaren hurbilpena–, Euskal Herriko testuinguruan. 1933ko *Laicismo y cristianismo* liburuaz gain, *Yakintza* agerkarian 1936an emandako “Orígenes de la democracia vasca” nabarmentzekoa da.

Ildo horretan, lehen landutako Mañarikuaren testuaren bidetik, euskal burujabetzarako ohikuneen eta demokrazia kristauaren arteko loturen gainean, Aitzolen 1935eko *La democracia en Euzkadi*, Iñaki Goioganaren 2021eko “Demokrazia kristaua Euskadin, 1931-1936” –Andoni Eizagirrek eta Ion Muñoak koordinatutako *Burujabetzaren bidetik* liburuan– eta Leyre Arrietaren 2019ko “El nacionalismo vasco y Jacques Maritain” lanak garrantzitsuak dira.

Horrez gain, ideia sozial kristauak Elizaren doktrina sozialaren arabera azaldu zituen Juan Bautista Eguzkitzaren 1935/1991ko *Gizarte-auzia* ezinbestekoa dugu. Bestalde, auzolanak eratzen duen herriaren eta euskal demokraziaren gainean, Bonifazio Etxegaraik 1932an barrena *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*n idatzitako “La vecindad: relaciones que engendra en el País Vasco” eta Eba Gaminderen 2021eko “Arizmendiarrietaren pentsamendua eta ekinbide herrigilea”, aipatutako *Burujabetzaren bidetik* liburuan.

Barandiaranen eta Thalamasen lanetan ageri den apaizaren dimentsio sozialaz zehatzago Joaquin Azpiazuk idatzi zuen *Yakintza* eta *Idearium* aldizkarietan 1933-1934ean, eta horren ekarpen handiena 1929ko *La acción del sacerdote social* liburuan egin zuen. Ignacio Iztuetaren 1935ko “El malestar del mundo obrero”, *Idearium*en argitaratutako artikulua, eta Policarpo Larrañagaren 1976-1977ko *Contribución a la historia obrera de Euskalerria* horien osagarri dira.

Bestalde, *Idearium*en izaeraren eta ekarpenen azterketa Antonio Riverak eta Javier de la Fuentek egin zuten haien 2000ko *Modernidad y religión en la sociedad vasca de los años treinta*. Horrez gain, langileri, jende xehe eta horien pobrezia intelektualarekiko arduraren alde eginiko lan konparatiboan, Arizmendiarrietak Simon Weilen ispilua aurkitu du Emilia

Bearen eta Eneritz Pagaldayren 2015eko ponentzietan eta Beñat Castoreneren 2015eko ekarpenetan.

Gasteizen garatutako apaiz betearen izaeraren gainean, *Surge!* aldizkarian, 1945ean, haren heriotzean, Rufino Aldabaldetrekuri eskainitako monografikoa inportantea da, baina, batez ere, Joaquin Goicoecheaundiaren 1983ko *Antecedentes históricos del Movimiento Sacerdotal de Vitoria*. Gogoan izan dezagun, aurreko atalean esan bezala, Aldabaldetreku frankisten girora aldatu zela. Horrek azaltzen du, besteak beste, Gasteizko Seminarioko gerraosteko *Surge*n egindako omenaldia, aldizkaria hark sortua izanagatik ere. Gogoan izan behar da haren "solo sacerdote, siempre sacerdote, en todo sacerdote" ildoak frankistei ere azkura eragin ziela, haien erregimenaren alde egiteko ez baitzuen laguntzen.

Azkenik, hizpide dugun Seminarioaren historiara hurbiltzeko, Andrés Ibáñezen 2005eko *Historia del Seminario Diocesano de Vitoria*, bi liburukitan, daukagu. Gasteizko Seminarioaren historian euskal historiarako ezinbesteko atala dugu, eta liburuak 1936 arteko hainbat datu ematen ditu, baina ez interpretazio marko nahikoa bertan ematen hasi zen euskal ilustrazio kristau garaikidea ulertzeko, 36ko gerrak errotik moztu zuena. Inoiz ez dugu jakingo haren jarraipenak zer ekarriko zukeen, eta penagarria da, esaterako, Barandiaranen orduko expedienteak galdu –galduarazi– izana.

Seminarioa euskal abertzaletasunaren habitzat eta hauspotzat izan zuten espainolistek, eta gogoan izan behar dugu gatazka nazionalaren gainean zapaltzaileak ondo dakiela beti zertaz ari den. XX. mendean Euskal Elizaren oinarrietako bat izan zitekeena ere deuseztatu zuten: 1950erako, hiru elizbarruti, hiru gotzain –Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban–, izendatu zituzten, lehen erakunde eta buru bakarra zenean, adibide bat orain esatearren. Oztopatu den historia horren zain, zeharkako lanek lagun diezagukete. Horietako batzuk Ander Manterolaren 2005eko *Zeanuritik Euskal Herrira*, Alberto Onaindiaren 1973ko *Hombre de paz en la guerra*, Josemari Velez de Mendizabalen 2012ko "Euskal Pizkundea Araban", Barandiaranen 1917-1936ko egunkaria eta *Surge!* aldizkarian, 1992an, haren heriotzean, Barandiarani eskainitako monografia dira. Zeanuritarrak, Arizmendiarrietak legez, Arteako eta Gasteizko Seminarioetan ikasi zuen.

Horrez gain, ezin daiteke ahaztu Mateo Muxikaren 1945eko *Imperativos de mi conciencia*, Barandiarani zuzendutako gutun irekia –Barandiaranen 1936-1953ko egunkarian eta Onaindiaren 1975eko *Ayer como hoy* lanean ere jasoa–. Bertan, Espainiako Elizak, frankismoaren hasieran batez ere, Euskal Herriari egindako kaltearen gaia guri-gurian ageri da. Alde horretatik, eta Gasteizko Elizbarrutia eta Seminarioa erdigunean harturik, Barandiaranen 1936-1953ko egunkariko "Memoria enviada por Jose Migel de Barandiaran al Obispo de Vitoria Excmo. Sr. Dr. D. Carmelo Ballester. Oxford, 15 de Abril de 1946" testua eta Manu Elu Lipuzkoaren 1975eko *La Iglesia como problema en el País Vasco* laneko bigarren eta hirugarren atalak ezinbestekoak dira; "Personalidad y misión de los obispos de Vitoria" eta "Erección de dos nuevas diócesis en el país", hurrenez hurren. Baita Setieni 2008an eginiko elkarrizketa eta Eugenio Ibarzabalen 1978ko *50 años de nacionalismo vasco* laneko Pio Montoyaren eta Manuel Lekuonaren atalak ere.

*Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa eta Elizaren doktrina soziala*

Arizmendiarrietak Arrasaten eta inguruan sustatutako kooperatibagintzaren inguruan luze idatzi da, asmo eta ikuspegi ezberdinez. Sintesi historiko orokorra Larraitz Altunaren 2008/2011ko *Arrasateko kooperatiba esperientzia* liburuan daukagu, azterketa sakona Joseba Azkarragaren 2006ko *Identitate kooperatiboaren bilakaera: Arrasateko Kooperatiba Esperientzia* doktoretza tesian, eta aro pragmatikoan murgiltzeko gakoak William Foote Whyte-n eta Kathleen King Whyte-n 1988/1991ko *Making Mondragon* eta Jon Sarasuaren 2010eko *Mondragon en un nuevo siglo. Síntesis reflexiva de la experiencia cooperativa* lanetan.

On Jose Mariren gogoa eta kooperatiben egituraren izaera azaltzen dutenen obren artean, honakoak dira ezinbesteko lanak: Jesus Larrañagaren 1998ko *El cooperativismo de Mondragon, interioridades de una utopía* eta aldez aurretik aipatutako haren 1981eko *Arizmendiarrieta y la Experiencia Cooperativa de Mondragon*, Jose Mari Ormaetxearen 1997ko *Orígenes y claves del cooperativismo de Mondragon*, eta Jose Mari Mendizabalen 1977ko *Le mouvement coopératif de Mondragon* doktoretza tesia. Lerro gutxiko sintesietarako Rafael Altunaren eta Eguzki

Urteagaren 2014ko "Los inicios de la Experiencia Cooperativa Mondragon" eta Xabier Barandiaranen eta Javier Lezaunen 2017ko "The Mondragon Experience" testuak ditugu.

Ikuspegi filosofikoa eta euskal ondarea gogoan hartzen duen Rafael Cristobalen 2014ko *Sujeto y comunidad: una noción subyacente al paradigma cooperativo* lana sintesi bikaina da. Horrez gain, ikuspegi soziologikotik, bi dira Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren gainean ekarpen interesgarria egin duten lanak. Bat, Arrasateko soziologiaren aldaketa azaltzen duena, Sharryn Kasmir-en 1993/1996ko *The Myth of Mondragon: Cooperatives, Politics and Working-Class Life in a Basque Town* da. Bestea, Jokin Bergararen 2024ko *Azterketa sozio-metabolikoa* doktoretza tesia, Arrasateko kooperatibagintza XXI. mendeko erronka ekosozialen aurrean jarri duena. Arrasateko Kooperatibagintzaren ibilbideari kontrapuntua jartzen diona Julia Itoizen 2005eko *La otra experiencia* lana da.

Horien ondoan, Mary Hogdson eta besteren 2017ko *Humanity at Work* eta Juan Jose Ibarretxeren eta Gorka Espiauren 2018ko "Euskal balioen proposamena" lanek Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren balioen gainean hainbat kooperatibistek eratutako narrazioaz arduratzen dira. Konparazio ezin interesgarriagoa litzateke Bergararen lanarekin egindakoa.

Bestalde, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa eta haren sustrai kristauak lotzen dituzten lanen artean Ormaetxearenak ezinbestekoak dira. Hala, on Jose Mariren pentsamendu soziolaborala Elizaren doktrina sozialarekin nola lotu daitekeen uler dezakegu. Lerro horretan, doktrina sozialaren arabera Arizmendiarrietaren pentsamendua Eba Gamindek aztertu zuen 2015/2017ko *La doctrina social cristiana y el cooperativismo vasco. Una alternativa para el cambio* lanean. Gamindek Europako kooperatibismo historikoaren sustraiak eta Arrasateko esperientzia ere aztertu zituen. Azken gai horren gainean, askoz mehar eta zehatzago, Igor Ortegaren 2021eko lana daukagu: *La contribución de los fundadores del cooperativismo de Mondragon al pensamiento cooperativo*.

Sustrai kristauko enpresagintza kooperatiboaz, Carlos Garcia de Andoin, Juan Manuel Sinde eta Javier Retegi ari dira idazten azkenaldian, Fernando Molinak eta Antonio Míguezek egin bezala. Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa eta 36ko gerraren ostean

Gasteizko Seminarioan izan zen apaiz sozialaren mugimendua oinarri hartzen dute haien testuek. Baina gogoan izan behar dugu Ormaetxeak berak hiru aro bereizi zituela esperientziaren ibilbidean: motibazio etiko-kristauarena, motibazio abertzale-herrigilearena eta motibazio pragmatikoarena. Bata bestearen ondoren doaz, eta aurrekoetatik zeozer geratzen da hurrengoetan. Horregatik, hirugarrenean dauden erronkei erantzuteko, lehen aroaren delimitazioa eta idealizazioa ikuspegi murritza dugu.

Ikuspegia ondo osatzeko, bigarren aroa ulertzeko, Amagoia Unanueren eta Nahia Intxaustiren 2002ko *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak* eta Jon Sarasuaren 2003ko "Kooperatibagintza eta euskara, elkarren garabide" lanak garrantzitsuak dira, eta hirugarren aroa ulertzeko, Joseba Azkarragaren 2007ko *Nor bere patroi. Arrasateko kooperatibak aro globalaren aurrean* lana eta aipatu berri dugun Bergararen doktoretza tesia.

*Euskal gatazka nazionala*

Arizmendiarrietaren abertzaletasuna dimentsio askotarikoa eta sakona zen, Euskal Pizkundeko urek bustia. Horregatik Arrasaten egindakoa ulertzeko zailtasunak sortzen dira azaleko kritikak egindakoan. Horren adibide da Txillardegiren 1979ko "A. Arizmendiarrieta, euskaldunen etsai", bere sasoian haren ingurukoek argitaratu ez ziotena. Horren aurrean, hasieran aipatutako bi lan ezinbestekoak dira: Joxe Azurmendiren *El hombre cooperativo*ko "Construir un futuro humano" atala eta Julen Arexolaleibaren *Arizmendiarrieta eta euskara*ko "Euskalduntasuna ezkutatu garai hobeak etorri artean" eta "Aurreiritziak uxatzen hasi" atalak, zehazki.

